E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak

Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca

Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque

V

BILBAO

1960

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak

Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca

Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque

V

BILBAO

1960

GRAFICAS ELLACURIA - BILBAO

EUSKALZAINDIAN SARTZERAKOAN GUILLAUME EPPHERRE JAUNAK EGINDAKO ITZALDIA ETA JEAN ELISSALDE JAUNAREN ERANTZUNA

Aita P. LHANDE Ziberotar Euskalzaiñaren orhitzapenez

Baiona, 1959 agustuaren 29-an

Euskalzaindiaren Jaun Buruzagi eta Jaun kide agourgarriak:

Houna noun jin den orai enetzat thenoria, ziek diala zounbait hilabethe heben berian egin haitiari ageriki eta ene euskal bihotz guziaz "bai" erraitekoua.

Zien batarzun eder, jakitate handiko eta ouhouragarrian egun hounhartzen duzienak eztezake gorde ezinago hounkirik izan dela eta doi bat ere hanturik egin duzien haitiaz eta erakoutsi nahi ukhen deiozien ezagutziaz.

Bena euskal erranak beitio bere zuhurtzian, latiak "honor onus" dion bezala, kargia karga dela, laster borogatu du bere beithan eginbide handi eta hersi elibati buruz zela. Arren pharkaturen deiozie zien hounian, denbora zounbaitez dudan egon balinbada ahalke bezala bere chokhouan. Euskalzaiñ ouhouriaren ukheiteko, ezteia behar ukhen jakitate handi eta lan eder agertzeko? Eztireia behar jakin chehe-chehia euskal mintzajiaren segretu hoborochiak, haren erro gordeenak eta haren harathounaka eta udaripen gaitzenak, zien artian Lecuona eta Lafitte jaun aphezek, Oriche jaunak eta Lafon jaun erakasle handiak dakitzen bezala? Ezteia behar ukhen argitarat emanik izkibu-lan eder eta balious hanitch, ziek oroek egin duzien bezala? Ezteia behar ukhen Euskal-Herria alden-alde iganik, eta zounbatetan! euskal ouhouriaren bethi phitz begiratzeko eta euskal mintzaje paregabiaren maitha-erazteko, Dassance jau-

nak bezala, eta harekin batian Elissalde jaun Zerbitzari maithagarriak, egun berian 76 ourthiak bethatzen dutian eta heben ene eguzaita den aphez gaztiak bezala?

Eztezake haatik erran egun zien artian sarzaliak, huts-egin duziela zien haitian. Euskalzaindiak beitu euskararen eretzian argi osoua eta gisa batez ere ahal osoua; mundu hountako eta besteko Jaun Buruzagiak bezala, Euskalzaindiak ere bere heiñian, bere dohaiñak nahi dutianer hedatzen beitutu eta ahala beitu ezdeusetarik ere zerbaiten egitekoua.

Zibero-herrialdia, Euskal-Herriko herrialderik hurrunena eta tchipiena, nahi ukhen duzie begiratu zien artian bethi phitz eta gora. Nahi ukhen duzie hanko mintzaje berhezia bere hitz eta moulde eta orhitzapen chahar-eijerrekin bere etchen izan zadien Euskalzaindian, beste euskal mintzaje hedatu nasai eta eder oroen artian. Eta hortakoz, nik bezala, Ziberotar oroek egun buhurtzen deitzie eskerrik handienak eta hersienak.

IKHOUSTATE

Zertako othe bi galtze izigarri, ezin-ordaizkatzekouak, ukhen dutugu batetan, orai diala bi ourthe, goure Ziberouan? Lhande aita jesuichtaren galtzia eta Constantin jaun bedeziarena?

Hourak ziren bi jaun heiñez-kanpoko zirenak jakitatez, bihotzez eta hedaduraz, hounki-egitez ere ezinago ezaguturik zirenak eta bazterrik-gabe goure herrialde maitiari ouhoure-egiten zeioienak. Hatsarre-hatsarretik Euskalzaindiak nahi ukhen zutian biak bere pharteliant hartu, bata Euskalzaiñ bezala, aita Lhande, eta bestia urgazle bezala, Constantin jauna. Biak batetan, egun zounbait arte, ezpalatu goure Jinko Jaunak bereganat deithu, badakigu hedadura berhezi batekin eta ahal hoberenekin Constantin jaunak Euskalzain-alkhi hau etchekiren ziala, goure Zibero-herrialdia ezinago botz eta ouhouraturik izanen beitzen haitu horrez.

Beste izan ezpalitz Jinko-Hounaren chedia, aita Lhande-en ordari beste nourbait ere heben gogo-hounez zouiñ orduz ikhousiren gunian: Aranart jaun kalounjia. Eztezakegu ahantz, aita Lhanderi kargiak handitu eta lanak athetu zeiotzanian, haren euskal hitztegiaren ager-erazteko lan chehe eta baliousa, haren eskutik hounhartu ziela eta ederki burutu Lafitte eta Aranart jaun aphezek, Lafitte jaunak bere jakitate oroekin, eta Aranart jaunak bere Ziberotar-mintzaje eta orhitzapenak oro lan horren hounetan ezaririk. Geroztik, damurik, Aranart jaun

apheza bere lan eta kargu handiek hurruntu die euskal lanetarik. Bethi etcheki izan da haatik bere Ziberouari; eta eritu aitzinian, Ziberoko erretor gehien izan da Mauleko hirian.

Orai osagarrairen arra-jitiarekin eztugia esperantcha ukheiten ahal arte haboroche badukiala eta berriz euskal-laneri lothuren dela Ziberouaren hounetan? Euskalzaindiatik igorten deiogun ikhoustatezko orhitzapen hounek lagunt dezala bere min eta gaitz oroen egarten eta goitzen.

AITA LHANDE NOUR ZEN?

Zier esker, Euskalzaiñ jaunak, egun, heben, bilkhura ouhouragarri hountan, Ziberoko herrialdia da ouhouretan. Goure oroen gogo bihotzak hegalez bezala douatza ordu hountan mendi-arte gorde hartara, hanko herricha-mottho haietara eta han bizi diren egiazko Euskaldun chothil eta maithagarri hetara. Badakigu ountsa han bizi dela, bethi phitz eta bero, euskal odol bat, osoki etchekirik dena euskal izate berhezi eta ezinago gochouari, gain-gaiñetik borogatzen diana bere beithan beste Euskaldun oroen anaie-amodioua.

Zouiñ orduz goure begiz ikhousi nahi badugu itchura edo begitharte bat, Ziberoua egiazki ezagut-erazten eta maitha-erazten deikuna, Ziberouaren beraren begithartia dena, goure gogo-bihotzek arraphitz-erazten deikie Aita Lhande-en begitharte ezinago maithagarria. Aita Lhande eta Ziberoua bat beitirade, orai eta aspaldiko ourthetan, orai eta agian! sekulakotz.

Egunko egun hau Aita Lhande-en orhitzapenak, Aita Lhande-en itzalak du egiten, dena oro, hounkigarri eta bihotz-altchagarri bazterrik gabe. Hartakoz ere uduri zaiku hobeki, heben haren itchura bera dugula ikhousten eta haren begithartia bera, houra bera dela goure artian arra-phizturik bere khorpitz tchut eta lerden eijerrian, bere aphez-arropak lerdenago eta tchutago eginik eta beste uduripenetarik oroetarik gabeturik; houra bera dela goure artian, bere begitharte leiñ, ezti eta gochouan, erria ezpaiñetan, begiak argiz eta amodioz betherik, buria bere bilho kakoillatiez khorouaturik; houra bera dela goure artian gogoua argi, elhia aiher, bihotza eztitarzunez betherik eta arima bethi sutan.

Aita Lhande ezinago maitia, orai direnak oro ageriki eta batere itzalik gabe zabalik beitirade zoure begien aitzinian, zihaurek erraguzu zer izan den zoure bizitze amiagarria eta michteriozkoua; zihaurek erraguzu zer izan den zoure izate espantagarria.

HAREN AIA ETA IZENA

Aita Lhande eta Ziberoua, bat dirade goure gogo-bihotzetan. Eta haatik, ountsa kasu-egin-eta, ikhousten dugu Aita Lhande-en bizitzia igan dela noun-nahi salbu Ziberouan. Bena Ziberouan zutian errouak barna sarthurik, Ziberouan zian bethi bihotza, Ziberouan bere indar-hargia, Ziberouan ere egin du bere phausia.

Aiaz Aita Lhande Ziberotarra zen eta haatik sorthu da heben Baiounako hirian, orai diala lau-etan-hogei-ta bi ourthe, 1877-eko uztailaren 9-ian, aita sal-erospenetako aferetan beitzian, hatu eskentzale.

Berari laket zeion erraitia etzukiala Lhande-izena (guk Ziberouan Lhande erraiten duguna) ukhen behar, bena Bassagaitz izena. Haren aiako bati herriko-segretariak edo idazlariak khanbiatu zeion izena sortzaoko paperetan, oustez eta Aillande aitaren izena familiako izena zen. Zounbatez etzatekian ederrago Euskaldunentako, Aita Lhande, mundian holako gizon ezagutia, deithurik izan zedin Aita Bassaigaitz! Gihaude Frantsesek eta bestek noula erranen zien izen hori: balinba "Basaguets" edo holako zerbait.

GAZTETARZUNA

Plazerekin ere aiphatu nahi dugu Lhande haurrak bere lehen eskolak egin zutiala guk ezinago maite dugun ikhast-etche batetan. Sen Bernat ikhastegian, Eskola khirichtietako Fraide erakasle agudo eta haituzkouekilan. Berak amen-pherediku batetan khountatu du noulaz zortzi ourtheen altechian lehentze merechitu zian Sen Bernat ikhastegian ouhourezko khurutchia. Houra boulharrian, etcherat heltu zen; amak gisala, etzeion sekulan hainbeste bijita egin-erazi Baiouna oroetan noulaz eta egun hartan. Geroztik luzaz etcheki egon da bere lehen errejenter. Ourthez eta ourthez jerraiki izan da hanko ikhasle ohien bilkhurer bai Donostian bai eta ere Parisen.

Haur-haurretik euskara mintzatu ziana eta maithatu? Ez balinba net, Baiounan zagolarik. Bena haren amañiak bazian jauregi chahar bat Zalgizen, Ziberouaren erdi-erdian, oi zer herri eta kartiel paregabe eijerrian! Eskola artetako phausu-egunetan zer boztariorekin etzian egiten Baiounarik Zalgizerako bidaje luzia! Uduri beitzeion Zalgizerat jouaitia zelialat heltzia zela. Han bai Ziberouko euskara mintzatzen zian haren haur jokietako lagunak oro euskaraz ari beitziren, Ziberotar plañez.

Haren haur-izatian bi gaizak ezinago hounki zien haren haur bihotza eta haren jite ezinago aberatsari plegu berhezi bat eman zeioen, haren biziaren abioua egin beitzien eta haren izatia orozbakoz bere hokian ezari. Aita ezinago maitia galdu zian, gazte-gaztia, ouste-gabetarik. Eta denbora hetan ere senditu zian phizten eta handitzen aphezgoualako deia. *Mon Petit Prêtre* haren libru gochouari beha, nourek-nahi phentsa dezake noulaz zohitu zen holako egunaldietan eta ondoko denboretan haren bihotz gaztia, eta berheziki noula dohaiñez eta berthutez bethe zen haren ama maite-maitiaren arima khartsu eta saintia; ama haren merechimentu gorde eta ezinago baliousek egin beitzien eta burutzen laguntu Lhande gaztiaren aphez-deia eta guk denek amiatu dugun Lhande aphezaren bizitze saintu eta argi handikouari eman beitzeioen sortzia eta altchatzia heiñ ezinago hartarat. Orai diala bostpasei ourthe, ichtoria hounkigarri hori argitaratu nahi ukhen die zinema-filma edo ikhousgarri eder batetan, *Les mains liées* deithu diena; damurik haatik filma horren egilek ahatze die aiphatzeko Aita Lhande-en izena hasteko chehetarzunetan.

APHEZ-GEIA

Lhande mothiko gaztia, arren, hola sarthurik bere orozbatko bidian, jouan zen Zalgizeik bi urhatsetan den Mauleko kolejio edo ikastegialat, aphezgouari buruz hurrunetik mouldatzen hasteko. Nahiz etzen ikhastegi phatchada handikoua, Mauleko ikhastegia orai bezala ordian ere oroek maite zien Ziberouan eta ungurunetan: erakasliak ziren jakitate houneko eta huillant-aisak, eskolan bezala jokietan ere ikhasleekin bat egiten zienak. Ikhasliak aldiz, haborochiak Ziberotarrak eta gehienak aphezteko urhatsetan. Aita Lhande-en ordunko lagun ohiek begiratu die orhitzapen bat ezinago gochoua beren ikhasle-lagunaz, ezinago trebe beitzen, beste Euskaldun hutsak beno hanitchez trebeago, izkiribu-lanetan eta berheziki frantses lengouajiaren chothilki eskukatzen; bena jokietako harathounatetan ere etzen bestiak beno gibelago. Gihauri ordunko ikhasle ohi batek khountatu deiku noula egun batez, paseiua jouan zirelarik, lagun andana batek egin zien jokia, Mauleko gaztelu zaharraren gudukaz hartzekoua. Arratsen, Lhande gaztiak buria oro betherik joku hortako egitatez eta baillentiez, izkibuz ezari zutian guduka haren gora-beherak frantses "poezia" edo kobletan, Birjilio lati izkibaiño zaharraren kobla-mouldetan.

Hama-zortzi ourthetan sarthu zen Lhande aphez-geia Baiounako Semenario handian. Bethi etcheki zeitzon Ziberotar aphez-gei lagunak eta erran dezakegu eztiala ukhen bere bizian lagun hourak beno adichkide hoberik eta maiteagorik. Hetarik zounbait noula eztutu aiphatu halak'ordian, heriouak gazterik mundu hountarik hartu dutialarik, hala noula Elichiry apheza, Zalgiztar gazte-laguna eta kasik aizoua!

Zer izan ziren Baiounako Seminario handian Lhande aphezgeiak igan zutian bost ourthiak? Laneko eta othoitzeko ourthiak, erran-gabia; bena ere gochotarzuneko ourthiak lagunen amodiouan, haiekilan deskantsian; aphez-buruzagi zounbaitek beitzioien, gisala, soberachko bezala emanik zela deskantsiari. Bena zouazu, zu, halako jiteko gazte baten heiñian begiratzera! eztitazke izaten ahal gazte oroen jitia ez heiña osoki berrak. Eta hari gogoua bethi alha ari zeion eta bihotza jauziz.

Ordu hetan, aphez-gei gaztiari aiher zeion izkibatzia bai frantsesez bai euskaraz eta ahalaz ere koblaz edo bertsietan. Haren lehen frantses bertsiak eta artikuliak agertu izan ziren *Le Courrier des Familles* eta *Le Patriote des Pyrénées* egunkarietan, izen-orde erabilten zutiala Nahi-Preherel eta Petit Pierre. Buruzagi zoumbaitek zioien haren lanari ogen-egiten zeioela holako izkibu-lanek. Arren buruzagien eta haren artian ezin-ountsa-jin bat beitzen, egun batez —hogei-ta-bi ourthiak bazutian— behar ukhen zeion "adio" erran bere Seminariouari, bere laguner, eta nourk jakin? bere egiazko deiari eta gerouari.

Bena goure egunen haria bere eskietan zounbat nahi eztiki erabilten dianak bazian bai harentzat bere chede berhezia, gorderik zena gizoner. Khountatzen entzun dugu, ordu izigarri hartan, Lhande gaztiak ouste-gabe buru egin ziala aita jesuichta batekin burdin-bidetan bidajez zoualarik; aita hari bere bihotza zabaltu zeiola eta harek aholkatu aita jesuichten Jinkotiar batarzuna. Badakigu ordian zounbat gaizki ikhousirik ziren aintzindariez Frantzia-herrian aita jesuichtak eta haien obra baliousak. Gaizki ikhousirik izatiak etzian lotsaerazten Lhande gaztia. Jouan zen haien etche batetarat "erretreta" edo gogokaldi suhar baten egitera eta han chedia hartu bere biziko jesuichta eginen zela. Chede ezinago dohatsia! Zeren, zer haituzko seme baliousa etzian galduren Eliza saintak, eta ere balinba goure Euskal-Herriak, beste izan balitz Lhande gaztiaren delibeoua!

JESUICHTETAN APHEZGOUALAT

Orai artino chehe-chehia jerraiki dugu Lhande gaztiaren izatia, gora-behera horik oro heben igan beitirade gouri huillan, eta horietan beitugu khausitzen goure herritar famatiak goure Ziberouari ekharri deion amodio ezinagokouaren erroua eta uthurburia. Eztezakegu haiñen cheheki jerraik ondoko urhatsetan, bestelan bihar artino heben beikinateke, zien damutan eta goure nahigabetan!

Rhodez hirian sarthu zen Lhande aphezgeia, 1900-eko setemeren 5-ian, aita Jesuichten etchian, bere bizi berriko apendizgouaren egiteko. Emanen dutu hamar ourthe aphezteko eta hameka bere estudiouen burutzeko, aita Jesuichten bizimaneraren arabera. Arte hortan hanitch herrialde iganen dutu.

Lehenik Beljikarat jouan behartzen zaio bere Jesuichtagei lagunekin; bere apendizgoua ere utzi behartzen zaio zounbait hilabetez zinez burutik minez izanez. Han haatik biltzen dutu bere bi libru berrien geiak, *Les Mémoires d'un Ecureuil* eta *Fils de Dauphin* librien geiak. Lehen botouak egiten dutu bi ourtheen burian, 1902-eko setemeren 8-an. Gero Angleterran ourthe batez arrahartzen dutu bere lati, greka eta frantses estudiouak. Zer orhitzapena eztu orozbatkoz begiratu Aita Longhaye bere erakasliaz! Ondotik haren bizitzia izkibuz emanen beitu. Hartarik landa bi ourthez berriz Holanda-herrialdian arra-hartzen dutu filozofiako edo zuhurtarzunezko estudiouak. Bi ourthez frantses lengouajiaren erakasle emaiten die bere buruzagiek Espaiñako ikhastetche batetan, Puerto de Santa-Marian, Kadiz aldian. Balinba han beitu hartzen bere libru ederrenetarik baten geia edo ideia *Luis* libriaren geia. Berriz gero doua Beljikarat, Enghien hirialat, aita Jesuichten Seminario handialat lau ourthez teolojia edo egiazko aphezestudiouen egiterat. Arte hortan aphez ordena ukheiten du Tolosan, 33 ourthetan, 1910-eko agorrilaren 28-an, egun berian beita harek eman dian lehen mezaren 49-gerren ourtheburia. Ourthe baten burian bere aphez-lanari lotzeko heñian zen, aita Jesuichten herroka handian.

Arte hortan, etzen haren ezpiritia bethi phara egoiten, haren gogoua bethi alha ari zen eta haren luma thai-gabe pharra-pharra. Eta ordian noun zian usu gogoua? Balinba, aiphatu dugun librugeietan; bena, horrez segur gira, usu beno usuago bere Euskal-Herrian, eta berheziki bere Zibero kartiel-chokhouan. Estudio-ourthe hetan, ager-erazi dutu Lhandhe

aphez-gei edo aphez gaztiak bi liburu gouretako ezinago baliousak, Euskaldun ikhasle haborochier gerochago gogoua zabaltu deikienak: *Autour d'un foyer basque* eta *L'émigration basque*. Lehena, arra-hartuko du ondotik beste libru batetan *Le Pays basque à vol d'oiseau*. Lehen hori orhitzapenez egin du, gogouan erabiliz euskal etchondouetako gora-beherak eta berheziki etchekouetarik haurretako ondoamenak. Bena bigerren houra, *L'émigration basque*, lan chehe eta handiko libria da, alde oroetarik jakitate eta chehetarzun hanitch bildu behar beitzian haren egiliak, oraiko euskal lan eta estudio suerte haborochien hastapena eta leiñ-huria hartan ediren beiteite. Arte hartan izkiribatu ere du Lhande aphez-geiak artikulu franko agerkarietan: *Le Messager du Coeur de Jésus, La reine Blanche de Castille, Le Grand Almanach Catholique,* eta *L'Almanach du Pélerin,* bena oroz-gainti hebenko *Eskualduna* astekarian.

Bai egiazki haren gogoua bethi alha ari zen eta haren luma bethi lanian. Guk, heben, esker hanitch zor deiegu haren jesuichta aitzindari eta gehiener, ezagutu dielakoz Lhande ikhasle suharra etzela besteen heiñeko eta haren bihotzian Euskararen eta Euskal-Herriaren amodiouak etziala ogen-egiten haren aphezteko-lanari eta estudio suerte orori.

AITA LHANDE EUSKAL-HERRIAN

1911-eko ourthian, haren aitzindariek, ikhoustate ezinago houn batez, nahi ukhen die bere aphez-sailaren egitera jin zadin lehen-lehenik, eta nourk-jakin etzenez haien nahian orozbatkoz jin zadin? goure Euskal-Herri maitialat. Hamar ourthentzat Euskal-Herria izan da Aita Lhande-en egongia, lankhia eta gaiñ-gainetik laketgia.

Arte hortan behar ukhen du egin Beljikan Aita Jesuichten "Hirougerren Ourthia", arimako bizi saintiaren chehetarzunen hobeki ikhertzeko beretako eta besteentako. Eta gero behartu zaio jouan, beste hanitchi bezala, hirour ourthez ordunko gerla izigarriaren deiari jerraikitzeko; hantik ekharri beitu *Les Mouettes* libriaren geia.

Bena horik oro bortchazko deiak ziren. Aita Lhande ordian osoki Euskal-herritar zen, lehenik Ondarrabian eta gero Hernanian, Aita Jesuichten ikhas-etchetan erakasle eta aita ezpiritual gisa. Eta zer ourthe baliousak harentzat eta berheziki gouretzat, Euskaldunentzat!

Haren eskola-lanek eta haren ikasle gazteek etziren harenganik deusere galtzen; osoki bere lanari emanik beitzen. Haren lanen eta haren arrankuen gogo-berri badugu *Jeunesse* ordian agert-erazi zian librian. Gerlako arrakountru izigarriek eta han aphez lagun eta gazte hanitchen egitate amiagarriek ere haren bihotza hounkitzen zien eta izkiriba-erazi deioe libru hounkigarri zounbait: *Le prix du sang, Trois Prêtres-Soldats* eta *L'enseigne de vaisseau Auguste Lefebvre.*

Bena hamar ourthe hourak izan dira Aita Lhande-entzat argi bat bezala, ezagutu beitu bere Ziberouaz eta Laphourdi-Bachenabarrez kanpo baziala Euskal-Herriak beste hegal zounbait, oi zouiñen ederrak! gogo-bihotzez zouiñen aberatsak! eta zouiñen maithagarriak! Napharratik Gipuzkoan gainti Bizkaiala eta Araba bazteriala artino. Ezagutu beitutu probinzia haietako Euskaldunen ohidura zaharrak, mintzaje berhezi nasai-ederrak eta orotan-gainti berthute ezinago azkar eta iraiñkorrak. Ezagutu beitutu ere han gizon hedadura handikouak eta euskaldun ezinago suharrak, hala noula Domingo Agirre, Azkue, Eguzkitza, Altube, Intzagarai apheza, aita Intza eta Larreko edo Irigarai eta zounbat holako!

Han Euskal-Herriaren amodioua handitu eta hedatu eta sustatu zaio aita Lhande-ri. Etzian bazterrik ordian haren bihotzeko suharrak: ikhasi nahi ukhen du Gipuzkoar mintzajia eta emaiten zian bere Ziberotar mintzajia bezain aisa edo aisago; Harriet zaharraren hitztegia eskietaturik, nahi ukhen zian ikhasi euskal-hitzen sailla eta athia oro; eta gogouan hartu zian chedia, goure alderdiko hitzak oro bildurik, hitztegi baten egitekoua, ondotik ager-erazteko. Han ezagutu bizimanera eta egitate berhezi elibatek eman deioe ere nahia libru berri elibaten izkibatzekoua, hala noula *Mirentchu* eta *La Ferronerie d'Ameznabar* Gure-Herria hilabetekarian agertu zena, gero *Yolanda* izenian euskaraz emana, gipuzkoar euskaran. *Mon Petit Prêtre* libru hounkigarria ere denbora hetan argitarat eman zian.

Ordian ere ardura izkibatzen zian artikulu euskal agerkarietan, *Eskualduna, Euskalerriaren Alde, Euzkadi, Revue Internationale des Etudes Basques, Jesusen Biotzaren Deya, Pueblo Vasco*; bai eta ere frantses agerkarietan *Liberté du Sud-Ouest, Etudes, Revue pratique d'Apologétique. Durendal,* eta holako.

EUSKALZAINDIAN

Beren lanen oroen artetik, jerraiki zen ahalaz Probintzietan egiten ziren euskal biltzar edo batzarreri. Harek ihourk beno hobeki ikhousi zian egiten eta laguntu Oñatiko Batzarra; hounek burutu lanetarik sorthu beita "Euskalzaindia", batarzun guziz ouhouragarri hau. Ezta arren batere harritzeko, Euskalzaindiako lehen jaunek, beren lehen bilkhura batetan, 1919-eko setemeren 21-an houra bera haitatu bazien Zibero herrialdiaren izeneko Euskalzaiñ, haren khar handia ezaguturik eta haiñ beitziren ageri haren lanak eta merechimentiak. Euskalzaindiko jaunek haiñ zien ere horren jakitatia gora etchekitzen, noun hori bera 1920-eko arramaiatzaren 23-an izentatu beitzien *Euskera* agerkariaren idazle edo izkibazale. Geroztik bi ourthez agert-arazi du gipuzkoar euskera ederrian agerkari preziatu hori, ihourk ere ezpeitezake khausi etzela jaun hori sortzaroz gipuzkoarra. Ordian ere *Euskal-Esnalea*-k agertu zian gipuzkoarrez Aita Lhande-k Domingo Agirre olerkari eta nobela-egileaz egin zian mintzaldia.

Bena, bena... holako gaiza ederrak ez zezaken sobera luzaz iraiñ. Aita Lhande-en khar handia sobera ezaguturik zen: Euskal-Herriaren alde egin zian mintzaldi baten ondotik, gobernioua k jakin-erazi zian Aita Lhande etzela haboro ountsa-ikhousirik Bidasoaz bestaldian. Etzeion net baliatu ager-erazi berri zian libria *Notre soeur latine, l'Espagne*. Behar ukhen zeion, arren, "berriz-arte" erran hanko adichkide oroer eta deithu zien bere Jesuichta buruzagiek Sarlat ikhastetcherat, eta berehala Tolosako "Caousou" ikhast-etchialat.

TOLOSAKO HIRIAN ERAKASLE

Han etzian lo egon behar eta bere eskola lanaren gaiñ eman zien hanko *Faculté des Lettres* delako Ikhastegi handian euskararen erakasle. Haatik, nahi beno lehen, erakaste hori utzi behar ukhen zian, ikhastetche katolikouek ezpeitzien ountsa hartzen aphez bat ari zadin holako eskola emaiten gobernioko ikhastegi batetan, beste erakasle-alkhietarik aphezak oro kanpo emanik izan ondouan.

Hasi zen ordian libru berri izkibatzen eta ager-erazten: *Le Père Longhaye, Bilbilis, Fils de Dauphin* edo *Les lauriers coupés, Le pays basque à vol d'oiseau* eta berheziki *Le Dictionnaire basque-français*. Ordu hetan ere, Ziberouan igaiten zutian phausuko egunetan, ebili zen han eta heben Ziberotar

koblakari famatu "Etchahoun chahar" zenaren khantore eta berrien biltzen, eta izkibatu ere zian llabur-llaburra haren bizitzia. Phedikatzera ere nourat-nahi deitzen zien eliza handienetarat bezala parropia tchipienetarat. Ezagutzen dugu han nounbait orai Maleziako gaintian Ziberotar aita misionichte bat, Aita Lhandek komunione handiko erretreta pheredikaturik, aphezteko deia entzun beitzian Ourdeñarbe chokhouan bere pheredikari suharrari beha.

PARISEN LAN HANDIAK

Bena pheredikiek usu Pariserat deitzen zien Aita Lhande, haren artikuliak *Etudes* agerkarian ezinago goustaturik. Eta hau dela, ouste-gabetarik, Pariserat izentaturik izan zen. Adio ordian ikhastetchiak eta haietako gazte maitiak! Adio ere euskal lan handiak! Goure Ziberotar aphez ezpiritu argia, luma chothil eijerra eta elhestari gochoua orozbatkoz jouan zen Pariserat *Etudes* agerkarian izkibaiño bezala eta pheredikari handi bezala.

Haren hiztegia, *le Dictionnaire basque-français*, doi-doia hasirik zena, baratuko zena ezin-eginian? Ez; Aita Lhandek ezagutzen zian Laffite jaun apheza, Uztaritzeko Semenariouan erakasle eta euskalzale suharra zena ordian ere orai bezala. Eta hounek bazian adichkide bat Aranart jaun apheza eritarzunez ekhuraturik zena Herrorritzen. Biek Aita Lhande-en sailla gogo-hounez hounhartu zien eta burutu. Egia erran behar da, aita Jesuichtek gastiak largoki egarten zutiela eta Aita Lhande bera jiten zeiela artetarik Uztaritzerat, bi aphez gazteen korajatzera eta haiekin egun zounbait gochoen igaitera.

Geroztikako Aita Lhande-en bizitzia oroen ohartzapenetan da. Hasi zen Parise ondouan diren eremu hitsen bijitatzen eta han errelijioneko aziaren hedatzen ari ziren aphez ezin-heltu eta serora gaicho zounbaiten laguntzen. Haien berriak emaiten zutian *Etudes* agerkariko irakouler. Bena heltura-beharretan zirenek laguntu behar zien. Ordian phiztu zian Parise ondoko eremu hitsen obra ezinago baliousa, gerochago Verdier Kardinaliak hedatu eta handitu behar ziana. Eztetzazkegu aipha haren lanak eta harat-hounakak eta pheredikiak oro; bena bost ourthez burutu zutian 52 eliza, 90 gazteen bil-toki, 58 parropia-etche, 40 eri-soueñgia, 12 eskola, 8 haur-baratze eta 14

haurtegi; eta erosi ere 90 lur-eremu obreentzat. Izkibatu zutian *Etudes*-etako artikuliak eta hirour libru *Le Christ dans la banlieue, Le Dieu qui bouge* eta *La Croix sur les fortifs.*

RADIO-ETAKO PHEREDIKARIA

Ber denboran zer pheredikiak Pariseko elizetan!

Eta ordian, Gerlier Pariseko jaun kalounje gaztiari, orai Lyon-eko hirian Kardinale denari, ohartu zeion, *Radio* bekanika atrebitiari esker helerazten ahal zela Jinko-Hounaren elhia bazter oroetarat. Lan horrentako aphez bat zeion hobeki jouaiten zena, eta houra Aita Lhande. Eta hounek lan hori ere houhartu zian, lehen kolputik behar zen heiñ eta eskaide houra ediren beitzian eta jentia iharrausi eta hounki alde oroetan; ezpeititake heben erran ahal, zer letra edo guthun hounkigarriak andanaka eta atheka ukheiten zutian.

Zortzi ourthez, lan hori ere thai-gabe ereman zian, bazterrialat batere utzi gabe Parise ondoko eliza eta parropia-gunetako obra. Pherediku-libriak ordu hetan arrount-arrounta elkhitzen ziren libru-egingietarik: *L'Evangile par-dessus les toits, Le Bon Pasteur, Les Pauvres dans l'Evangile, De Bethleem au Golgotha, La France missionnaire, Les Béatitudes, Le Pater, L'Evangile de la douleur, L'Evangile par-dessus les frontières, Paraboles, Petites béatitudes pour les jours d'épreuve, Carillons de fêtes.* Beste pherediku berhezi handi ere zounbait agert-erazirik bazutian: *Huit fresques de saints, Ste Jeanne d'Arc, Dieu et Jeanne, La poète angélique.*

Noulaz gizon batek berak hainbeste lan egin zezakian? Guk eztezakegu aisa enthelega.

Eta arte hortan noun zen Aita Lhande-k Euskal-Herriarentzat zian khar handi houra? Bethi alha zagon haren bihotzian. Artetarik, egun zounbait phausuren ondouan jiten zen bai Zalgizerat, bai Atharratzerat, bai eta ere urzakako phuntian Ligi-Tintuabordalat. Zer egun gochouak, han bere Ziberouan igaiten zutianak bere anaie eta beste etchekouen ondouan! Bena nouiz-nahi ere bere pheredikietan, ouste-gabetarik jiten zeion Euskal-Herriko oharmentcha bat edo beste, hanko kartiel eijer bat, hanko egunaldi gocho bat, hanko egitate edo ohidura hounkigarri bat. Gihaude zer phensatzen zien haren entzulek Euskal-Herriaz. Balinba michteriozko lekhu bat zela, lurreko Pharadusia bera edo holako zerbait; eta guk, heben girenek, aithor dezakegu etziela ez batere gaizki phentsatzen.

MUNDIAREN GAINTI

Aita Lhande-en buruzagier ohartu zeien, hedadura bat orano handigoua ukheiten ahal ziala goure herritar suharrak eta Pariseko ungunetan egin hounkia hedatzen ahal ziala munduko eremu zabalenetarat. Holaz igorri zien lehenik hegoaldeko Ameriketarat, ondoko ourthian Madagascar isla edo ugarte ederrialat, eta hantik landa Indietarat, ekhi-jeikigia-aldeko Indietarat. Oroetarik ekharten zian zerbait berri balious eta hounkiegingarri, eta denetarik ere zerbait pherediku-phasta eta libru-gei. Ameriketan ezinago botz izan zen Euskaldun saldo handiaren khausitzez, lehenagoko Euskaldunen orhitzapenen edireitez. Hantik landa ager-erazi zian *La France rayonnante*. *Madagascar*-en misioniak chehe-chehia ikhousi zutian; bena ukhen zian sekulako abantailla, hanko lehen misionichteen hobien edireitekoua. Eta hantik ere ekharri zian librugei bat *La Mission de Madagascar*. Indietan gero zer harathounakak eta lanak! Bena oroetako plazerik handiena, bihotza hantu zeiona: hanko Euskaldun apostolu saintu eta famatiaren hobiari herritar baten agourraren ekhartia, san Frantses Xabierreko seme handiaren khorpitzaren eskietan erabiltia. Hantik landa, tarrapatan libru bat elkhi zian *L'Inde sacrée* eta filma-ikhousgarri bat ere plantatu...

AITA LHANDE ERI

Zer etzian egin behar, denborarekin? Bena azken bidaje eta azken libru eta filma horik izan dira haren ezpirituko argiaren eta bihotzeko suiaren azken argia eta suia. Eritarzunak jo beitzian ouste-gabetarik, bena lazki! Egotchi zian tanpez zilhar bizia bezaiñ zaiñhart zen Euskaldun seme hedadura handikoua; egotchi eta ezinturik utzi 57 ourthetan! ahalak, elhia eta ezagutzia ere elkhi, herria eta zounbat eskualde argitzen zutianari.

Ondotik emeki-emeki arra-jin zeion elhia, lehenik euskara, gero anglesa eta azkenian frantsesa, zotukia ere arra-bildu zian, bena ez sekulan haboro lehen zian gogoua eta eskaidia. Ezinago lanari etcheki zen jakintsunak behar ukhen du ordian ikhasi phausatzen, eta gero emeki-emeki lanari lotzen; behar ukhen du ikhasi zerbaiten nekez mouldatzen, lehenago uthurritik houra bezala arrazoua eta elhia jiten zeionak. Luzaz esperantcha begiratu du berak, eta orano luzazago hari etcheki zirenek, haren beharra eta haren mentsa ezinago sendi zirenek.

Egin du ere lan zounbait, artikulu zounbait agert-erazi, libruchka bat ere mouldatu *Le moulin d'Hernani*; Pariserat ere arrasarthu zen egun lazgarietan, lloba bat aphez-geia hartu zeion gerla izigarriaren ondouan. Bena ez; erranik zen gaitzari etzeioala haboro gaiñia harturen; gaitzak bai aldiz denbora khostuz goithuren ziala; emeki-emeki eta bata bestiaren ondotik, ahalak oro elkhiren zeitzoala; haren khurutchiaren bidia luze izanen zela azken heiña jo artino.

Eta munduko uduripenez kanpo, arimako segretiak, michteriozko egitatiak miatzen dutienentako, azken ourthe luze horik eztirade izan Aita Lhande-entako ourthe balio-gabekouak. Zeluko Jaunak badaki bi gisatara arimen mouldatzen, lantzen eta hountarzunez bethatzen. Batian egin-erazten du zer-nahi hounki eta lan, eta merechimentu bil-erazten; bestian phara egon-erazten du arima eta han, segretian, kanpoko liliek ekhiaren argia hurrupatzen dien bezala, bere izate ezinagokouaren leiñhuria, uduripena eta gero balio espantagarria har-erazten deitzo arimari. Aita Lhande-k hounhartu du, ez batere bortchaz, bena amodioz, saintutarzuneko bide suerte izigarri hori, bethi othoitzian beitzagon, bethi "bai" beitzion bihotz oroz eta erri ezti batekin egunak egunaren ondotik ekharten zeion ezin-bestiari.

Han, Atharratzen, azken ourthe horietako oharmentcha hounkigarriak eta bihotzmin-egingarriak begiratzen dutie denbora ederretakouak beno khartsukiago. Bere ahalen bethian zen denboran beno handiago izan beita Aita Lhande Euskaldun suharra, ezinian khausitu delarik eta zutianez oroez gabetu zen egun hetan.

ADIO AITA LHANDERI

Eta zenthu da Aita Lhande, orai diala bi ourthe, 1957-eko aphirilaren 17-ian Aste-Saintuko astizkenarekin, Bazko eguneko lorian egiazki eta orobatkoz sartzeko, bere biziaz oroez, bere izate espantagarriaz, bere izpiritu argi eta khartsiaz, bere bihotz suz bethiaz maithatu zian bere Nausi ezinago handi eta maitiarekin.

Euskal-Herria dolian sarthu da holako seme paregabekouaren galtzian; bildu da othoitzian han Atharratzen, Bazko astelehen hartan, haren khorpitzaren ungurian; orano orai nouiztarik nouiztara egoiten beita haren botzaren beha eta haren arra-jitiaren haiduru.

Egiaz, Euskal-Herriak galdu du bere Seme haitienetarik bat; galdu du, bena lehenik ere ountsa gozatu du eta baliatu, haren izatiak uzten beitu goure zelu ourdin eijerrian argi bat sekulan ere itzaliren eztena, haren izpiritu argi gocho eta maithagarriak egiazki altchatu beitutu Euskal-Herriak dutian hountarzun aberats ezinagokouak, haren bihotzeko suiak phiztu beitutu euskal bihotzetan amodio bat, ezagutze bat, indar bat eta su bat, gu oro eta balinba beste hanitch ere ezinago luzaz eraikiren eta sustaturen gutienak.

Oi Aita Lhande maite-maitia, goure anaie gehiena, goure Jauna, orai goure begirari khartsu eta saintia zirena, heda dezazula goure Euskal-Herri maitiala zoure amodiouaren suia, heda dezazula euskal-seme oroetara zoure esku gochouaren eztitarzuna, heda dezazula euskal bihotz oroetara oroek ber amari zor deiogun amodioua eta alkharren artian denak bihotzez bat egiten gutian amodio saintu eta itzalik gabekoua!

G. EPPHERRE

JEAN ELISSALDE JAUNAREN ERANTZUNA

Eskualzaindiko jaun ohoragarriak, agur. Agur aspaldiko partez. Eta milesker, muga guzien gatik, hemengo anaietarat egun ethorririk. Ez dakit merezi ginuen. Bainan hori, bego hortan: neri bederen etzait laket nere hutsen, guzien aintzinean hedatzea! Eta goazen gure lanari...

Ichil eta herosti, urtheak badoatzi, dio gure jaun eskualzain berriaren Chuberoko erran zahar batek: ichil eta herosti urtheak badoatzi. Sgun berean frogatzen dutan egia da; goiz huntan bethe ditut nere hiruetan hogoita hamasei urtheak. Argia hastean ainhara pollitak ikusiak ditut hiruetan eta hogoita hamaseigarren aldikotz Gerezietako ezkaratz batzuetarik ttiuttaka atheratzen eta lerro-lerro argi-harietan pausatzen, sarri, gauari buruz negu-egoitzetarat hegaldatzeko: ikusiak oihanean haitz eder ederrak pur pur pur hostoz gabetzen eta

larrutzen: ikusia hain maite dutan eta nere esku chimurtuek oraino lantzen duten baratze ttikian arrosa histua! Bai, hiruetan hogoita hamaseigarren aldikotz!!! Chahartua naiz, hots! Sinhetsazue, jaunak, zerbeit ikusten dela hoinbertze urthez! Eskual-Herrian eta Eskual-Herritik kampo, Ameriketaraino, zer eta zer ez dut ikusirik? Hau ikustekoa nuen haatik: ni herri ttiki-ttiki batetako aphez ttiki eta ez-jakina jaun kalonje handi eta jakintsun baten sar-arazle edo, Chuberon bezala mintzatzeko, eguzaita Eskualzaindian!

Jaunak, frantsesak erraten baitu "la façon de donner vaut mieux que ce que l'on donne" egun ez da hori egia: barka beraz nere ausartzia, eta beha emaiten dautzuetanari!

Nor da, bada, nik egun emaiten dautzuetana, nor da Eskualzain berria? Odolez, bihotzez eta mintzairaz Chuberotarretan Chuberotarrena! Beha.

Guillaume Epherre Altzurukun sortu da, duela berrogoita zortzi urthe, hango aita eta ama eskualdunenetarik. Altzurukun handitu zen, eta orai ere, aphez eginbideak Baionan balinbadauka, badakit han daukala Altzurukun bihotza, bataiatu eta lehen komunionea egin zuen eliza ichilean, gogoa sasietako chorittoen ohantzetan edo phago punta batzuetako uso etcholetan! Egiazko Altzurukuarra da! Altzurukun ikasi zuen mintzatzen, ...eskuaraz mintzatzen amatto on baten altzoan. Jainkoaren deia goizik entzunik, Maulen hasi zituen eta Baionan bururatu aphezgorako eskola handiak. Orduan, norbeit zela segurki iduriturik, Tolosarat igorri zuten diosesako buruzagiek. Etzuen han zahartu behar. Urthe pare baten buruan Baionako jaun Aphezpikuak bere alderat deitu zuen, bere idazkari bezala. Etzezaken hautu hoberik egin. Ez. Bainan aphez chahar bati utzozue erraterat aphezpikutegiko erhauts eta papererietan badela irrisku bat: gazterik chahartzeko eta chimailtzeko irriskua. Eppherre jauna ohartu zen aski goiz eta ithoa zagon barne hetarik airatu, hatsa zabalago hartzeko eta zirrimarra begi-galgarri hetaz kampo bertze zerbeit egiteko. ¡Guziz Eskuararen alde!

G. Eppherre jaunak haurretik odolean zuen Eskuararen amodioa. Gazte-gaztea zelarik ez othe zituen jada Eskualzaleen-Biltzarreko urthe-lanetan bortz liberako eder batzu irabazi? Eskualzaleen-Biltzarra, Eskuararen alde zerbeit egiteko duela hiruetan hogoi urthe sortu zen batasuna eta orai, zahartu delakoan, zenbeitek itho nahi luketen batasuna! Sekulan deus egin ez balu bezala! Harek erain ez balitu bezala oraiko Leon jaun kalonje, Eppherre jaun kalonje, Labeguerie jaun miriku,

Larzabal jaun aphez, eta Charritton jaun eskualzale guzien haziak? Hori ere, bego hortan... heldu den larunbatean ikusteko! Eta itzul gaiten jaun eskualzain berriaren ganat. Zenbeit bortz liberako irabaztea eder da... zenbeiten begietan: etzen Eppherre jaun kalonjea, bertze zenbeit bezala, hortan gelditu. Hor ditut lekuko katichima bat, kantika bat, meza sainduko liburu bat Chuberoko Eskuara ederrenean! Lekuko, eskuin-eta ezker aditu diozkagun prediku zenbeit. Barkotcheko bat, Mitikileko bat Eskualzaleen-Biltzarreko phestan, Baigorriko bat pilotarien phestan, Garalda mendiko bat lapurtar ederrez hango Ama Birjinaren phestan! Lekuko, aste gehienez "Herrian" egiten dituen artikuluak. G. Eppherre jaunak ez du espantarik. "Ekin eta jarrai" da egundainotik, Eskualzaindiak nahi duen bezala: bainan "ekin eta jarrai" horieri bertze hitz bat badu aldean ezarria: "ekin eta jarrai eta ichil": ez da beraz errech jakitea zer egin duen oraino! Chori beltch batek salaturik dakigu bakarrik baduela mementoan lan handi handi bat hasia Chubero guziari atsegin eginen diona. Laster ager dezagula Uthurry adichkidearen laguntzarekin... Ez da hortan gelditukо jaun eskualzain berria. Jaunak, etzinezaken beraz ordain hoberik hauta aita Lhande handiari...

Zer eginen daukuzu, Eppherre jaun kalonjea, egundik harat? Nahi duzu ekheiaketa itzuli bat lasterka egin dezagun elgarrekin "à vol d'oiseau" frantses ederrez aita Lhande bezala mintzatzeko.

Huna lehen urhatsean Ithorrotze. Ohantze pollit bat, bere gaztelu eta elizatto miresgarriekin. Ez othe da eskualzain guzietarik handi eta kartsuenaren, Lafitte jaun aphezaren ohantzea? Agur egiozu.

Haratchago beha Arue, bide bazterrean ichil-ichila bizi den herrichka. Erdi-erdian "Ongi bizitzeko bidia" eta "Arima debotaren okupazione debotak" derizaten bi liburu famatuen egilearen egoitza. Bainan nork ezagutzen du aski Jean de Tartas? Nork daki, jauna Chuberotar batek ez othe lezaken paper zaharretan bertze liburu zenbeiten ekheia kausi? Entseiatzea balio luke...

Eta hara Omizeko eliza pollitaren hirur dorre chorrotcheri amodiozko behako labur bat emanik, hantche, churi-churia, Maule! Maule, Chuberoko herri-nausia! Arnaud Oihenart lege gizonaren herria. Haren Atsotitz eta Refrauak (1648) ezagutuak baino ezagutuago baitire, bai-eta Oihenarten gaztaroa neurtitzetan (1657), ez gal demborarik Maulen. Ez-eta haratchago, Barkotchen. Etchahunen herria da segurki, bainan

Larrasquet jaun aphezak erran behar ziren guziak erranak ditu liburu eder baten Etchahunez. Beraz, jauna, Mauletik har dezagun Basaburuko bidea.

Lehenik, huna Gotañe, haur talde dantzari eder baten herri alegera, bainan orobat Barreix jaun aphez eskualzalearen herria. Erdi itsua zen, bainan, nunbeitik behin Eskualzaleen--Biltzarreko buruzagien bilkurarako bidea atcheman zuen. Zertako? Berak egina zuen "Mariaren Ilabetea" guri argitarazteko. Ez ginuen dirurik. Mariaren ilabete horren aldean, nork daki Barreix jaun erretorak Gotagnen ez duen utzi bertze liburu eder ekhei zenbeit? Zuk ikus, jauna...

Gotañetik lehen hauzo da Zalgize, doidoia hain ederki goretsi daukuzun aita Lhande zenaren herria. Erraitekoak errantche ditutzu jesuista famatuaz, bainan herriko paper zaharretan zuk ez othe zinezake zerbeit kausi Bertrand de Sauguis delako eskualzaleaz? Hamazazpigarren mendean bizi zen. Gutiegi zauku Julio de Urquijok hartaz erran daukuna...

Irurin iragaitean agur bat erran baginezo hainbertze pastoal eta kantore onthu duen Etchahun gazteari? Merezi du.

Eta hara hantche, mendieri hurbil, ohantze bat iduri Ataratze. Chokhorik eijerrena! Augustin Chaho Ataraztarra zen. Ez dautzu dembora hainitz gal-araziko. Jauna, zoazi haatik Constantin jaun miriku zenaren liburutegirat: eskuak betheko ditutzu segur...

Bainan Ataratzetik jauzi bat Ligirat. Chubero guzian ez da chokho maitagarriagorik... eta Ligin kausituko duzu zeri loth, Martin Maister batekin. Ez da aski ezagutua mila zazpi ehun eta berrogoita hamazazpian Jesu-Kristen Imitazionia eskuararat itzuli zuen aphez hori... eta menturaz bertze lanik ere egin du...

Bainan, jaun kalonje maitea, dembora badoa; ez dut hari hau gehiago luzatu nahi. Ez othe duzu hola-hola behin eta behin zer egin zure ikastegiko lanen gainerat? Badakit haatik lanak ez zaituela den gutienekorik lotsatzen. Badakit etzarela bi eskuen gurutzatzerat heldu Eskualzaindirat. Horra zertako erraten dautzutan hemen, bihotz guziz eta Eskualzain guzien izenean: ongi ethorri.

Ongi-ethorri eta agian hainitz urthez, zurekin bizi dadin eta aberats Eskuara, Santagrazitik Bilbaorat!

Jean Elissalde.

EUSKALZALEEN BILTZARRA

(Juan Antonio Mogel Eibar'ko semearen gorazarrez)

Eibar en, 1959 Azaroaren 6, 7 eta 8-an

Eibar-en 1959 azaroaren 6-an eta 7-an egin ziran Euskaltzaindiak antolatu zuen Euskaltzaleen Biltzarreko itzaldiak. Biltzarrerako aldezaurretik jarrita zegoen gaia au zan: Mogel euskalliteraturan eta literatura izkuntzaren problemak.

Ostiral goizean asi giñan eta larunbat eguerdian bukatu. Larunbat arratsaldean aurren esamiñak izan ziran eta igande goizean sariak eman aurrai eta arratsaldean Gipuzkoako Bertsolarien Txapelketa Nagusia. Beste jai batzuek ere izan ziran.

Itzaldiak asi ziranean maipuruan zeuden: Eibarko Alkate Jaun Javier Eguren, Aita Ignazio Larrañaga Pingpliang-go Apezpiku jauna, Aita Luis Villasante, Juan San Martin, eta Alfonso Irigoyen sekretario bezala.

Eibar-ko Alkate Jaunak eman zion asiera itz eder auekin:

ONGI ETORRIA

JAUN OSPATSU TA AGURGARRIAK:

Ikusi dezuten bezela, gaur Eibar-ko erria apainduta agertu da, EUSKAL BILTZARRERA etorri zeraten danori ongi etorria emateko, eta nik, erriaren gogoarekin bat eginda, agurtzen zaituztet biotz biotzez.

Zuen oñak Eibar-en ipiñi dituzuten egunean bertan, gure biotzen jabe egin zerate eta gure eskuan dagoen dana zeuena da; zeuen errian zaudete.

Zabaldu dizkizugu udaletxeko ateak zabal-zabal bere jabe egin zaitezten egun onetan, euskeraren gora-berak aztertzeko, goratuaz era berean euskeraren alde beren jakinduria ipiñi zutenen izenak, gure izpillutzat jarririk, guk eta gure ondorengoak ikasi dezagun ayek erakutsi diguten bide ederra.

Eibar-en izena goi-gora jazo dezute zuen lanetarako aukeratzean; egia da, lan orren ekiñaldi aundi ta sakonena dala gure Mogel ospatsuak euskeraren alde laga digun egintza; ori ala izanik, berezkoa dirudi bere jaioterrian aztertzea egintza

ori, bere erritarrak ezagutu dezagun gizon agurgarri onen aunditasuna ta jakinduria, zenbat lan ta zein ondo egin zuan euskeraren alde.

Agindu bada, jaunak: Emen gaude zuen lanetan lagundu nairik; gure gogo guztia zuekin dago eta poz pozik ongi etorria Eibar-en izenean eman dizuedan bezela, naiko nuke zeuen lan burutsuak amaituta zeuen etxeetara joaten zeratenean eraman daizuela Eibar-tik oroigarririk onena; ortarako ez genduke ezertan uts egiterik nai, eta geiago egiten ez badegu zuen biarraren alde, izango da gure ezjakin ta argaltasunagatik, baño ez beintzat gure borondate ta gogo onena jarri ez degulako zeuen egunak Eibar-en alai ta pozgarrienak izan ditezen.

JAUNAK! ONGI ETORRIAK IZAN ZAITEZTELA GURE ETA ZUEN ERRIRA.

Bukatuta Irigoyen-ek eskerrak eman ziozkan: Guztion izenean eta batez ere Euskaltzaindiaren izenean eskerrak eman bearrean gaude Eibar-ko Alkate Jaun eta Ayuntamentuari, eman dituen erreztasun guztiakatik eta Mogel Eibar-ko bertako seme bati egiten dion gogorazio eta merezi duen laudorio aundiagatik. Beraz, eskerrak ematen dizkizugu biotz biotzez. Eta besterik gabe arloari asiera emango diogu. Lendabizi Juan San Martin jaunak itz egingo du:

JUAN ANTONIO MOGEL ETA URKITZA

Bere bizitza ta lanak

BIZITZARI BURUZ

Juan Antonio Mogel'i buruz estudio on bat egingo bada nai ta naiezkoa dugu bere laneri oratu bearra, ez baita bere bizitzaz idatzitako ezer gelditu, filolojia gaietan bere lankide izan ziranen oar batzuek, eskutitzen bat edo beste eta idaz-

leren batek irriztadan aipatu duen zerbaitxo izan ezik. Beraz, oso gaitza da Mogel'en bizitza argi ta garbi osatzea. Ala ere, or-emen batutako oarretatik eta bere lanetatik, argi apur bat atera diteke.

Mogeli buruz sakonen zaildu dana Justo Garate da noski, bere *La época de Astarloa y Moguel*-en (Bizkai'ko Diputazioko "Junta de Cultura Vasca"-k, 1936'an argitaratua), eta nere lan onetan maiz erabilliko ditut bertatik atera ditudan berri ta erabakiak.

Mogel, oso langillea ta jakituna genduan, bañan langillea bezin ixilla eta, esate baterako, ez zan arduratu ere egin bere idazlanak ezautarazten. Ori zala ta edo, bere lanik geienak eriotza ondoren argitaratu ziran; eleiz libururen bat edo beste kendu ezkero. Eta oraindik ere badira argitaratu gabeak. Mogel ezagutzeko bere idaz-lanetan zear barruratu bear da eta zenbat eta geiago sakondu ainbat eta maiteago dugu, eta bizitza baten estudioa egiteko, bizitza bera larregi maitatzeke egitea obea bada ere, gauzak zalekeriz baizik otzean egin bear diralako, oso gaitza izaten da norberak aukeratutako bizitza baten aburua zuzena egitea, geienetan bizitza maitagarri bat autatzen dugulako. Eta neu ere Mogel'ekin larregi zaletu ote naizen nago; bañan aleginduko naiz apaltasunez adierazten.

Gregorio Mujika'k 1910'garrenean argitaratu zuen *Monografía Histórica de la Villa de Eibar*-en ez du aipatzen Eibar'ko seme ospatsuen artean, geien bat ere, guziak Markiña'kotzat zutelako. Eta Mugartegi'k *Monografía de la Villa de Marquina*-n, 241'garren orrialdean, markiñartzat jarri zuenetik, idazle guziak angotzat erabilli dute. Bañan, Karmelo Etxegarai'k, bere lan baterako Mogeltarrak zeatz aztertzen asi zanean, Markiña'n etzuen aurkitu Juan Antonio-ren agiririk eta orduan asi zan bere familia nundik-nora bizi izan zan azterrenak ateratzen eta, Eibar'ko parrokiara ots egin zuenean, atera zuen illunpetik Mogel eta Urkitza'n sorterria. Don Eujenio Urroz'ek garai artan Eibar'ko parroko zanak, arkitu zuen bere bataioagiria.

Bere aita, Juan Ignacio de Mogel y Pérez de Almazán, medikua zan, Markina'n jaioa, baña bere aita, Juan Antonio'n aitona, Andres Domingo, Logroño'ko Alfaro'n jaioa, Markiña'n sendagille zegoan napar jatorriko bat, eta amona arabarra. Juan Ignacio, Eibar'ko sendagillea, Xemein'go Gabriela Ignacia Urkitza ta Aranzabal'ekin ezkondu zan eta Eibar'en bizi ziran aldi artan etorri zan mundura Juan Antonio. Beraz, Juan Antonio Mogel eta Urkitza, Eibar'en jaio zan, eta antziñan oitura

zanez, uste dut jaio zan egunean bertan bataiatuko zutela, au da: 1745'garreneko Abenduaren 6'an; Urroz'ek arkitutako agiriak dioten bezela Juan Ignacio Ramón izeneko anai bat, 1747'an Eibar'en jaio ta bertan il zan, eta Maria Josefa Lorenza izeneko arreba bat ere Eibar'en bertan jaioa zan 1748'garreneko Agustuaren 10'ean.

Azkenengo gerratean Eibar'ko eleizako artxiboak erre ziran eta bataio-papeletatik gutxi baño ez ziran salbatu. Eta orain egun gutxi dala begiratu genduan ia Mogel'enik ezer agertzen zan eta Don Miguel Lasa, erretore jaunaren laguntzarekin, erdi-erreta billatu genduan bere bataio orri ori, lenago Don Eujenio Urroz'ek billatu zuena. Erdi-errerik egonarren fotokopia bat atera genion. Eguna, illa, urtea ta bere izen ta deitura oraindik ongi irakurtzen dira.

Nasterik izan ez dezagun, esan bearra dut Juan Antonio'k, aitak bezelako izena zuela ta gañera sendagille zan Juan Ignacio bere anaiarengandik bi illoba izan zituela. Illoba auek, Juan Jose Mogel eta Elgezabal, Plazentzia'n jaioa eta Bizenta Azkoiti'n jaioa ziran. Juan Antonio'k eskolatuak izan ta, ikasle on bezela, euskal arazoetan osabaren jarraitzalle bikañak atera ziran. Mogeltar euskal-idazle auek, askok bein baño geiagotan bata besteakin nastu izan ditu. Juan Antonio beren osaba aña izatera eldu ez baziran ere etziran beragandik oso urruti ibilli; osabaren ezpalekoak atera baitziran.

Juan Antonio'n aurtzaroaren berririk ez dugu eta bere gurasoena ere oso gutxi. Justo Garate'ri jarraituz dakigu, 1749'an Mogeldarrak Deba'ra aldatu zirala ta an jaio zala bere anaia, Juan Jose ta Bizenta'ren aita. Eta 1753'an ostera Markiña'ra itzuli ziran bizitzera. Aldakuntza auetan, zalantza gabe, Juan Antonio ere berekin joango zala uste dugu; beintzat, azken urte orretako Iraillean, Markiña'n artu baitzuen konfirmaziñoa.

Eztakigu Mogel'ek noiz artu zuen apaizetarako bidea. Bakar-bakarrik dakiguna da, bere aurtzaro ta gaztaroa utsunez beterik arkitzen ditugula, artaz ezer ez baitakigu.

1770'garren Martiaren 23'tik Markiña'n apaiz agertzen da, 1775'eko Otsaillean Etxebarria'ko San Andres'en apaiz eta 1788'ko Martiaren 4'garrenetik bere eriotzara arte Xemein'go erretorea izan zan. Gaytan de Ayala'n etxean igaro zituan azkenengo urteak.

Inguru artan Guillermo Humboldt'i atsegingarri izan zitzaion Mogel'ek Markiña'ko iturri bati ipiñi zion bertsoz egindako irakurgaia. Irakurgai ori Mugartegi'k onela adierazi zuen:

"Karlos Irugarrena
Bizkai'ko jaun dala
Markiña'ko uriak
egin nau onela.

Ugarte'ko axpeetan
daukat jatorria
ubide sakonetan
ekarri ugaria.

Ur au ederra zala
esanik aituak
alan arindu dira
neke ta kastuak."

Erriko iturri berri bati bertsogiñan asi zanean, bertsoak baño zerbait geiago ere ipiñiko zuen noski. Biotz aundidunak, maiz esku zabalak.

Markiña-Etxebarria'n apaiz zegoan denporakoak ditugu Eusebio Maria Dolores de Azkue'k *Mogel eta Txaraka* izenburuz egin zituan bertsoak, geroago Resurreccion Maria bere seme ta Euskaltzaindi'ko zuzendaria izan zanak 1896'an *Parnasorako bidea* izeneko liburu batean argitaratu zituanak; Gertaera ortan, etsipena arturik iltzen zegoan batek Jaunari eskatzen zion bera beste mundura ez eramateko, eta, naiz zerurako edo naiz inpernurako, nortzuek ziran bera baño aukerakoagoak izendatzen asi zanean, auen artean jartzen zuan gure Mogel, esanaz: *On bat bear badozu— Santua lakoa...—or dago Mogel jauna—bana banakoa,* eta Mogel nolakoa zan jakiteko agiri ederra dugu ori.

Vargas Ponce'ri idazten zizkion eskutitzetatik oso maitekorra zala nabaritzen da; Justo Garate'k estudiatu izan ditu Humboldt eta Vargas Ponce'kin izan zituan artu-emanak eta gizon argiaz gañera on uts bat omen zan, bere bizitza jarraigarria, apala bezin aunditasunezkoa omen zan. Bañan esan dudan bezela, beragan sakontzeko, nai ta nai ez, bere lanetara jo bear da.

Erri geyenetan, eskolako gogo-giroa ta kanpokoa berdiñak dira, edo obeto esanik bat dira biak. Aurrak eskoletara dijoazenean, etxean ikasitako izkuntza bera aurkitzen dute, eta eskoletatik ateratzen diranean orobat eguneroko bizian. Ala, etxe, eskola ta biziaren joerak gogo-giro berean edaturik dituzte, alkarrenganako batasunean.

Ez da gurean orrelakorik iñoiz gertatu. (Euskeraz mintzatzen dan errietan esan nai dugu). Gure euskaldun aurrak gogo-giro bat dutela sartzen dira erdal-eskoletan; eta leku auetan erderaz irakasten dana ondo xamar ikasten badute, beste gogo-giro berri batean aterako dira geyenak; eta ori estu gertatzen ezpada ere, ziur da, sartzerakoan eramaten dana, oso naspildu eta txikitua izango dutela. Eta beren bizi guzirako, etxeko gogo-giro ura, eskolako giroak guztiz menderaturik geratuko da eta sakon aldaturik. Ots, naiz eta eskolatik irtenda, euskal-giroan bizi izatera berriz sartuarren. Zer esan, erdal-giroan bizi bear baldin badute?

Orra bada, gure euskal-gogo ta euskerarentzako galbide nagusiena. Eta, alegia, orra ere nun ari bear izango dugun, euskera ta berarekin gure euskal-gogoa salbatu nai baldin badugu.

Bear-bearra dugu, orrengatik, gure euskal-irakaskintza antolatzea eta gero eskoletan erabiltzeko alegiñak egitea. Ez gera lan ontan lenengoak izango. Frantzia'n «Deixone» legea deitzen danak neurri bateko eskubidea ematen du, beste izkuntzen artean, Lapurdi, Baxenabarre ta Zuberoa'ko eskoletan euskera ere irakasia izan dedin. Eta ain zuzen, joan dan agustuan Bayona'n izan da ikastaro txiki ta berezia, esandako lege orren babesean egin ditekean euskal-irakaskintzari buruz egiña.

Euskal-irakaskintza antolatzeko, eskierki, eragozpen batzuek sortuko dira ortan abiaturik. Ez da txikiena izango eskoletan ira-

kasten diran geietarako liburu egokiak ez izatea. Eta liburu oiek idazteko ere, zer esango dugu ikas-gai bakoitzak bear dituen itz bereziak ezpaditugu? Nai ta nai ez, auek ere sorrerazi bear; eta itz oriek berberak, guziok ontzat artzeko balira, gaitz erdi; orrela sorterri guzirako batasuna egiña izango genduke. Ez ote da egokiena asmo ontaz ari izatea?

Nork eratu euskal-irakaskintza? Geron iritziz, gaur euskera ta euskeraz irakasten ari diranak; auetxek egokienak apika. Eziña ote, **euskal-irakasleen alkartasuna** sorreraztea, elburu berezi orrezaz gañera? Egin ditekean erakundea dugu ori, geron ustez, eta orrengatik batzar orri aurkeztutzen ausartzen gera.

Eta nork ikas-gaietarako bearrezkoak ditugun itz berriak aukeratu? Esan ditugun irakasle oiek berak idazleekin batera. Idazleen alkartasuna egiña bide dago aspalditxodanik. Beraz, orra bi alkartasun oso berezi ta egokiak, egin bear dan lanerako aukerakoen izateko diranak.

Irakasleak gertutzeko, ikastaro bereziak antolatu bear lirake, oietara batez ere gaur eskoletan ari diranak joan ditezen. Auengan euskerarenganako zaletasuna piztu-eraztea oso egokia izango dugu; ez, gañera, euskera bera bakarrik bear dalako, baita Frantzia aldean ari diranez, euskera frantzesa ikasteko oztopoa ez dala egiztatu dalako; aurrak eskolan frantzesaren ikastea obeto burutzeko, euskera etxean erabiltzea laguntzarik aundiena dalako. Orrelaxe ikusten dute irakaskintzaren nagusiak, eta orrengatik gero ta bide aundiagoa egiten du eskolan euskera sartzeko asmoak. Eta frantzesarekiko ona dana ez ote da gaztelaniarekiko ere?

Euskaltzale baten ametsa, euskera Euskalerriko erri guztietan ezaguna beñepein izatearena dugu. Beraz, geron asmoak mota bitarikoak ditugu: bata, euskeraz egiten dan errietan, bertako eskoletako irakaskintza euskeraz ere antolatzea; eta bestea, erderazko errietan, euskera, beste gai bat bezela, ango eskoletan irakastea.

Beste mailla eta tokietarako ere nai izango genduke euskera. Geron ustez apaiz-ikastetxe guztietan ere euskera ikasi bear izango litzake sakon eta ongi; Euskalerri osoan bizi diran apaizak egiazko euskaldunak izan bear, edonun sortu baititeke erlijiozko laguntzak euskeraz artu nai edo bear izango dituen euskalduna.

Beste errietara dijoazen mixiolariak, erri bakoitzeko izkuntza berezia ikasten dute asteko. Asko izango al litzake Euskalerriko apaizai beren Erriaren izkuntzaganako ajola ori bera eskatzea? Eta apaizai ezezik, fraile ta monjai ere?

Erlijiosoai buruz asi geran ezkero, badugu beste bide bat ere, geron ustez: Konkordatoarena. España'ko agintariek ontzat artzen dute konkordato ortan, Elizak eskola ta edonolako ikastetxe guziak antolatu ta izateko duen eskubidea.

Eziña izango al litzake bide ori erabiltzea? Ausaz, eragozpen aundiena, orrela jarri litezkean eskolak ideki ta eusteko, diruarena izango litzake. Baña diru-laguntza lortu ezkero, egin ditekean lantzat daukagu.

Orra or, gaurkoz, Eibar'ko batzar orren aurrean asmo auek agerrerazten ditugula; gogo onez artzen badira, ta bertatik euskeraren osasunerako zerbait on aurkitzen bada, benetan pozgarria izango da guretzat.

Beti euskeraren alde lan egiteko gerturik, ona emen guztienganako asmo onenaz gaudela.

"LORAMENDI" Fr. JOAKIN BEDOÑAKOAREN GORAZARREZ EUSKALTZAINDIAK EGINDAKO LITERATURA-SARIKETAN LENDABIZIKO SARIA IRABAZI ZUTEN IRU LANAK.

Arrue jaunaren itzaldia Bedoña-n 1959 iraillaren 20-an.

Poesia: *Gabriel Aresti*

Itz lauz: *Luis Jauregi*

Teatroa: *Eusebio Erkiaga*

ANTONIO ARRUE JAUNAREN ITZALDIA BEDOÑAN

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

1959 iraillaren 20-an

Jaun-andreak:

Zer dala-ta bildu gera gaur emen onenbesteko gizaseme ta emakume saill au? Auzo ontako seme Loramendi gooratzearren lenengoz, eta, bide batez, euskal-jai atsegin bat igarotzeko asmoz, noski.

Baña, nor zan ala zer zan Loramendi? Jakintsuen bat? Gobernarien bat? Gizon aberats edo indartsuen bat? Ezertxo ere orrelakorik ez noski, jaunak.

Gaur emen gooratzen degun gizona, praille-gai apal bat, olerkari bat, euskaltzale bat baizik etzan.

Ta au da, jaunak, ain zuzen ere, nere ustez beintzat, gure gaurko gauzarik pozkarriena: oraindik ere gure artean euskaltzaletasunak bizi-bizirik irauten duala, ikustea. Ez genduke bestela gooratuko, gaur gooratzen degun eran, euskaltzale benetako bat izatea baño ia beste doairik izan etzuan Loramendi bezalako gizon bat.

Egia esan, olerkari bezala ere, poeta bezala ere, gizon nabarmen bat izandu zan Loramendi. Naiz ta zorigaiztoz gazterik ill bazan ere. Ain gazterik, gañera.

Ogei ta bost urte besterik etzituala, udaberriko egun batez iges egin zigun betiko, egundaño udaberria amaitzen ez dan atseden-tokira.

Esan genezake, egiaz, berari buruz bereziki idatziak diruditela Eskritura Santa'ko itz aiek: «Gizona, mendi-lorea bezala loratzen eta igartzen da».

Esan det, alegia, olerkari bezala ere, poeta bezala ere, gizon nabarmena izandu zala Loramendi. Ta ala da iñolaz ere.

Oraintsu ildako erdal-olerkari ospetsu batek zion: Kendu bertsoei beren igidura, beren musika; baita itzen azken-berdintasuna, rima; kendu, ondoren, itzak berak, eta gogoetak, ideiak ere bai, ta, ala ta guziaz, zertxobait gelditzen bada, ori izango da poesia.

Bada, jaunak, baldin Loramendi'ren olerki batzuek irakurtzen baditu-zute, ta gero beren igiduraz, rimaz, itzez eta ideiaz zearo aztutzen bazerate ere, gelditukо zaizute aldi luze batean, buruan ezpada, biotzean beintzat bai, alako poesi-zantzu gozo bat.

Beraz, Loramendi poeta zan, ta gorputz osokoa, gañera.

Baña ez det une ontan Loramendi olerkari bezala aztertzeko asmorik. Lan au egin bait-digute, ta egoki gañera, sariketara etorri zaizkigun idazle batzuek.

Nere gaurko itzak —itz txit laburrak—, nere gaurko itzak euskeraren iraupenaz izango dira. Au bait-da gaur euskaltzaleok eskuartean darabilkigun arlo, arazo ta lanbiderik larriena ta premiatsuena. Gañera, Loramendi'ri berari ere, baldin une ontan zeruko zirrikituren batetik begira badaukagu, ziur asko gogoko izango zaio noski gai au ikututzea.

Nik badakit ongi zuek guziok euskaltzaleak zeratela, baña oraindik ere —min zait esatea baña—, oraindik ere badira, damurik, Euskalerria'n, gutxi bederik, euskera aintzakotzat ere artzen ez duten batzuek.

Zentzugabekeri arrigarria benetan, jaunak. Egungo egunean, lengo mendeetako gauza zar illak —arriak, zurak, burniak, paperak, pinturak eta abar— gordetzen saiatzen bagera, nolatan euskera bezain gauza bizi bat gordetzen alegin guziak ez egin?

Beraz, merezi degula uste det euskaltzaleok, gaurko egunean nolabait ere euskeraren alde lanean ari geradenok, euskaldun guzien laguntza, goiko ta beeko euskaldun guzien laguntza. Baña —ta ondo entzun— etzaigu laguntza ori eman bear limosnatxo bat Jainkoa'ren izenean ematen dan bezala; ez, ziñez eta bidez zor zaigun gauza bat bezala baizik.

Ori bai: ezin gindezke iñola ere laguntza orrezaz beste xedeetarako, beste elburuetarako, beste gauzetarako baliatu, ta are gutxiago euskaldunon arteko berezitasunak eta alderdikeriak azitzeko ta sakontzeko:

Ta ontan, jaunak, garbi jokatu bear degu, ta, ori bai, garbi jokatzen badegu, len ere bein edo bein esan izan oi det eta, ni ziur nago, ni seguru nago, loreak, egaztiak, eguzkia ta izarrak, itxasoa, emakumeak, ardoa ta mundu ontako beste izaki ta gauza on, aundi, eder eta atsegingarri guziak, Jaungoikoa'k, Beraren ospe ta gloriarako gordetzen dituan bezala, gordeko duala noski euskera ere, gordeko duala noski Loramendi'k ainbeste maite zuan izkuntza ere, orobat, Beraren ospe ta gloriarako, belaunez belaun ta gizaldiz gidaldi, mende guzien ondarreraño.

Ta orain, amaitzeko, oar bat bedoñatarroi: gaur emen ipiñi degun arri oni gorde zaiozute guziok beti begiramen aundi ta ziñezko bat. Izan bedi arri au zuentzat, zuen auzokide Loramendi zanaren oroimenari ta, aldi berean, gure izkuntza xar-maiteari, euskerari berari, altxatako, jasotako ta eskaiñitako egiazko aldaretxo bat bezala.

Antonio Arrúe

MALDAN BEHERA

(Miren eta Joaneren historiaren bukaera)

(1959)

GABRIEL ARESTI

1.—UNTERGANG.
2.—HARIZTIA.
3.—SENDAN EGINIKO GOGOETA EROAK.
4.—LIZARDIA.
5.—ESTRATAN EGINIKO GOGOETA EROAK.
6.—IRATZE EDERRA.
7.—GALTZADAN EGINIKO GOGOETA EROAK.
8.—LORE-MENDIA.
9.—KAMINOAN EGINIKO GOGOETA EROAK.
10.—HERRI-BITARTEA.
11.—REQUIEM.
12.—DESKANTSUAREN BITARTEZ.
13.—PARTIERA.
14.—ARBUIOAREN BITARTEZ.
15.—JUDIZIOA.
16.—ADORAZIOAREN BITARTEZ.
17.—MENDEKANTZA.
18.—GRINAREN BITARTEZ.
19.—AZKENENGO BESARKADA.
20.—DITXAREN BITARTEZ.
21.—MALDA GORAN EGINIKO GOGOETA EROAK.

Argudioak:

1) Ich gebe kein Almosen; dazu bin ich nicht arm genug.
2) Ego sum vitis, vos palmites.
3) There is no danger for us, and there is no safety in the Cathedral.
4) Estoy al borde mismo de tu sueño.

Eskeintzak:

1) Jean Miranderi.
2) Gabino Arestiri.

1. Untergang

Egun honetan nire gogoak
utzi nai baitu mendia,
MALDAN BEHERA DOA AGURO
NIRE GORPUTZ BILUZIA.

Honera etorri baino leen ongi
ezautu nuen herria;
txiki-denporan eduki nuen
han ene bizitegia.
Ama maiteak emaro niri
ematen zidan ditia:
MALDAN BEHERA DOA AGURO
NIRE GORPUTZ BILUZIA.

Honera ekarri nuen handikan
nire tristura haundia,
gizon doilorrek egin zidaten
bidegabe itsusia.
Orain zikina, zitala banaiz
orduan nintzen garbia:
MALDAN BEHERA DOA AGURO
NIRE GORPUTZ BILUZIA.

Mendi gailurrak ikusi zidan
arduraz penitentzia,
haranerantza ibiliteko
eman zidan lizentzia;
hari entzunik dirudit orain
hegaztina kantaria:
MALDAN BEHERA DOA AGURO
NIRE GORPUTZ BILUZIA.

2. Hariztia

Orain hemen nago, eremu latz honetan.
Nire gurariak galdurik, lur hauetan
arbola adar-gabeen parea naiz orain.
Landare zekenak baitaduzka eremuak,
erratzak harean, haitzetan kalamuak,
nire arima dago mirari baten zain.

Eztago zeruan egun hodei batere.
Denpora sikuak garantzen ditu bere
ordu miragarriak sekula batean.
Zerura begira egoten naiz luzaro,
izarren esnetik edaten dut oparo,
baina egarri bizia daukat bihotzean.

Azken eremuon natzalako atinik,
hezur-lekuetan eztaukat zer-eginik,
ta iruten dut astiro itogin sikua,
nundik egunotan doakidan bihotza,
entzun eztelako ur lasterraren hotsa,
apur bat busti dezan lurreko kolkua.

Eztut gaur ezer jan: eztut horren beharrik;
eta gau osoan egondu naiz itzarrik,
kandeletan ikusiz eulien hegalak.
Barauetan eztut oinazerik aurkitu,
eta lo-galeak benedikatu ditu
bakarrik egoteko asmotxo makalak.

Eremuak ere dauzkalako mareak,
behera eta gora egiten du hareak,
eta nire gorputzak ezin egon zutik.
Arroken ostean agertu den etsaia
ene begian da baratzeko galaia,
itsuki baitiotsat: Ken hadi hemendik!

Haitz gorri beltzetik datorren arranoak
moldegaizki lotzen dizkit anka-besoak,
eta laket bizian etzaten da lotan.
Koba sakonetik irten duen sugeak
egunero dizkit moztutzen bost erpeak;
hegaztinari zaio hurbiltzen narrastan.

Batzutan diotsat ilunpeko jaunari:
Pozetan negarrez, doloretan kantari,
gizona zen emazte urrikaria nauk.
Nire ezpainetan dagoen ur gazia
oraintxe kentzeko, egin zaidak grazia:
Ezin paira nitzake premia gogor hauk.

Animali biok dira nire lagunak;
nire deserriko mahats geza bigunak,
ze moduz jakin gabe, orain dizkiet zor.
Biziko lorean ernatu da kimua:
Sugea, arranoa, ta azkenean zimua;
hiru animalia baizik eztago hor.

Gainerakoa da alperrikako gauza:
Hermita eroria, hobietako lauza
eta maitalearen gorputz usteldua;
ezpaitzekidaten benetan erantzuten,
mugitu ezineko itxura hartu zuten
herio geldiaren mustur zimeldua.

Gauerdi batekin agertu zen arraina,
zilarrezko ezkatak eta buztan apaina:
Eznuen konprenitu nundik etorri zen.

Goizaldean, noski, paratu zen marean,
ta gero sartu zen jarri nion sarean,
iheri neuganantza ahalik lasterren.

Bere aginekin eman zidan dolore,
kolore denetan: gorri, beilegi, more,
ikusten bainizkion begi biribilak,
gutiziarekin, bere hegal zimelak
ebaki zizkidan tenorean kordelak,
geldiro libraturik nire orkatilak.

Eta indarrarekin eman zuen bizia.
Nire sabelean mendekuzko zuzia
izar baten moduan izeki zitzaidan.
Nire etsaiak zeuden lekurantza joan nintzen;
biak nituen hil, eta eguzki-brintzen
edertasun zabala argitu zen nigan.

Hiru gorputzekin egin nuen arbola
sikuari, gero, eman nion odola,
bihotzetik ugari atera nuena.
Arrainen hegalak ziren bere sustarrak,
arrano zurien lumak ziren adarrak,
eta bere tronkua sugeen buztana.

Haritz bedeinkatua
adoratu nuen.
Nire belaunak
lurrean jarri
nituen.
Ordu hartan
nik eznenkien
zerk iharrosi
ninduen.
Haritz bedeinkatua
adoratu nuen.

Arbola bakarreko
harizti maitea:
Egun oraindik
eztuzu bete
urtea;
indar haundiz
apurtu duzu
lotu ninduen
katea.
Arbola bakarreko
harizti maitea.

Haritzaren adarrak
mugituz biziro,
aita nirea
balitz bezala
emaro,
behar nuen
bendizioa
partitu zidan
luzaro.
Haritzaren adarrak,
mugituz biziro.

Horko bidea gaitza dela,
ezta kamino zabala.
Harri zorrotzak daude hortik, minduko zaitzu oin-zola:
Basamortua,
arantz-ortua,
laga zazu berehala.

Etorri zinen haranetik
estrata luze batetik:
Orain zu zara itzuliko gauza guztiak utzirik,
lehengo estrata
itzali da-ta,
bide-zihor horretatik.

Frutu gozorik ezpaituzu
mendi honetan dastatu,
egi garratz bat behar dizut bene-benetan aitortu:
Gaueko izotzak
arantz zorrotzak
mertxiketan sartu ditu.

Udaberriko gau ederra
bihurtu zaigu gogorra;
elur zuriak estali du hemengo mendigailurra,
ta krabelina,
apain ta fina,
orain ezta mundutarra.

Lore guztiak usain gabe
geratu dira hementxe;
sasietako orri motza ikusten duzu kolorge,
eta limoiek,
laranja hoiek,
zaporea galdu dute.

Bihurtu zaitez haranera,
hemen aspertu bazara.
Senda luzea har ezazu, begitu gabe atzera.
Zure gogoa
ezta, gajoa,
itzuliko eremura.

Haritza, egun triste hartan,
hola mintzatu zitzaidan.
Libertatea lortu nuen katea apurtu zenean,
baina bihotza
geldo ta hotza
neukan nire bularrean.

3. Sendan eginiko gogoeta eroak

Animalia ederra,
gizon akabatua.
Lurreko jabe laztana,
zeruek maitatua.
Jaungoiko poteretsuak,
eskuz bedeinkatua.

Ezkeunkan izenik ere,
mendietatik zeihar.
Erantzunik egunari,
egiten dugu negar.
Herririk herri genbiltzan,
tristuraz eta makal.

Gatazka hamorratua,
burrukaldi hertsia.
Buztina hilaren kontra,
genbiltzan izakiak.
Ilunpeko erreinutik,
agertu zen bizia.

Amak amoriotsuak,
aitak bihotz-gogorrak.
Gurasoek elkarrekin,
bake ondoko gerrak.
Alimentatzen dituzte,
derrigorrean haurrak.

Galileako lurrean,
bizitzen ginen denok.
Andreak eta gizonak,
neskatxak eta haurrok.
Morroiak eta mutilak,
dira zerbitzurako.

Gizona ihes egiteko,
katigutasunetik.
Erdi bitan partitzen da,
guztiz engañaturik.
Gorputza eta arima,
erratuz dabil beti.

Ingude-mailu artean,
hauzirik zaharrena.
Eztira konforme izanen
andrea ta gizona.
Burnia trabailatzeko,
behar da lan zekena.

4. Lizardia

Orain eznago hor, eremu latz horretan:
Eznaiz itzuliko egundo sekuletan
abandonatu dudan harizti beltzera.
Senda erpinetik hartu nuen bidea;
sentitu nuen han lepoan ingudea,
baina eznuen bihurtu bururik atzera.

Arbola batetik esan zidan beleak:
Zer egin duk horrek, zutik den abereak,
nire anaia maite arranoarekin?
Harrixka batetik, damu haundiarekin,
bareak ziostan: Anai sugearekin,
pisti basati horrek, zer duk horrek egin?

Makila batekin beleari kolpea
eman nion, eta heriotze dorpea
errezibitu zuen nigandik txoriak.
Handik berehala zapaldu ere nuen
nire abarrarekin barea, eta eznituen
behatzetan sentitu adur itsusiak.

Astiro nenbilen lizardi zaharrean,
haltura haundiko arbola baten pean,
trankil jezarri nintzen, atseden hartzera.
Giza-itxurako zimu batzuk, haundiak,
ikusi nituen, eta beren geziak
jaurtikitzen zituzten zeruaren kontra.

Aldarri batzukin dantza bat egin zuten.
Zeru goibeletik trumoia zen entzuten;
haren oihartzunean ikusi ninduten.
Halaz ikaratu ziren denak biziro;
haien artetik bat etorri zen astiro,
eta nire aurrean belaunikatu zen.

Gizon edo andre, harnasa edo gogoa,
mintzatu zitzaidan zimuaren ahoa,
begiak altzatzera ausartu gaberik.
Goitik hasarreak honera ekarri zaitu,
zeruko bularra guztiz zauritu baitu
gure sineskeriak, itsu gaudelarik.

Zimua bazara orduan ni gizona,
baina hau bazara, ni naiz jaungoiko ona,
esan nuen tristerik nire kolkorako.
Zutik jarri zaitez, egizu faborea;
orain esaidazu zergatik hau jentea
egun eder honetan dabilen hain txarto.

Nire hitzarekin erorten zen euria,
adarren artean ere oinasturia:
Ekaitz hamorratua zoan edonundik.
Eta zimist batek piztu zuen laharra;
urek amatatu zioten bere garra.
Eguerdian dena zegoen ilunik.

Ilunpean loak ninduen guztiz hartu;
biharamuna arte eznintzen jada itzartu:
Hamiltegi batean aparte egon nintzen.
Egun berriaren argiaren heltzean,
animali batzuk zeuden nire aurrean,
jainkoari bitina eskeiniak ziren.

Nire bekokian etzegoen izotza.
Teilatu batean erramu eta ereinotza,
nire gorputz gainean, zeuden hedatuak.
Auspez belauniko, letariak kantatuz,
gunsentiari intzentsua botatuz,
zimuek ziruditen abere mutuak.

Jaungoiko bortitza, guztirik haltuena,
mintzatu zitzaidan zimurik ederrena,
zure apaiz nausia izendatu naute.
Basoan gauean hartu dugun ihiza,
zuri zor dizugun ohore baten gisa,
otoi, har zazu, arren, deus ukatu gabe.

Hemen dadukazu basurde izugarria,
beraren ondoan orein maitagarria,
erbia, galeperra, azeri maltzurra.
Zuhaitzetik ere hartu dugu frutua:
Mertxika gozoa, laranja doratua,
sagarra, madaria, masusta ta intzaurra.

Eskuetan nuen hartu nire makila,
erakutsi nien mehatxuz ukabila,
ahotik hitz zakarrak zitzaizkidan irten.
Espantuarekin zimutxo lotsatiak,
otsoaren larruz zebiltzan basatiak,
alde guztietatik eskapatu ziren.

Gorputz eta frutuak
pilatu nituen.
Ospel legorrez
fobera haundi
bat nien
irakezi,
tributu zikin
guztiak erre
zitezen.
Gorputz eta frutuak
pilatu nituen.

Gauzok ikusten diren
lizardi dollorra!
Munduan zerbait
bada zu zara
zaharra!
Nire lepoan
jarri zenidan
uztarriaren
gogorra!
Gauzok ikusten diren
lizardi dollorra!

Nire begi berdeak
eztira orain itsu.
Suak arinki
eskeintzak erre
baititu,
bere kean
nire gogoa
osorik nuen
garbitu.
Nire begi berdeak
eztira orain itsu!

Nik hartu nion osotoro
lizardi hari gorroto.
Zuzi batekin erre nuen arboladia dongero:
Gizonak eztu
erraz arteztu
bidegaberik egundo.

Zimutaldea su-garretan
zen kiskailduko benetan;
Beren hogenak pagatzeko honako mundu honetan,
okasiorik,
edo ziorik,
nik eznien batere eman.

Nire atzean nenkusan nik
errauts mehea bakarrik:
Hondamendia, bakartate nardagarria, basorik
deseginena,
hondatuena,
agertzen zen edonundik.

Eta zeruan distizari
zauri gordin bat agiri...
Ene bihotza taupadaka ezpainetatik ihesi...
Nire odola
zoakon nola
ungentu bat zeruari.

Zapaldu nuen lur tristea
datza ondikoz betea.
Nire zapatok darabilte heriotzeko zortea:
Daukate oro,
zuhur ta zoro,
hondatzeko birtutea.

Nire aurrean agertu zat
estrata haltu mehar bat.
Derrigorrean hartuko dut estrata hori bidetzat,
patu oneko
garaiz heltzeko
behar nauen haranerat.

Eta buztinak, egunero,
galdetzen zidan argiro:
Zergatik doa beherantza ibiltaria aguro;
guztiz tristerik,
bizi gaberik,
uzten duzu dena gero.

5. Estratan eginiko gogoeta eroak

Goiko basoan elurra,
zuria da ta motza.
Errekaldean zimaurra,
zikina bainan ona.
Gizona zutik munduan,
sugerik zakarrena.

Harrotasunez beterik,
ezkenkien zer egin.
Animaliak tragatu,
halare gizonak hil.
Izenez aldatzen gara,
haizeaz putziturik.

Mutantzak begiratzeko,
ezta asmatu denpora.
Zerren uraren erditik,
agertu zen buztina.
Haizearen deseotik,
agertu ziren urak.

Gure soldadoek gerran,
soinean harmadura.
Eskallera luzetatik,
igonik gaztelura.
Eskuetan ezpata bat,
hiltzeko zaldun hura.

Dontzellarik ezta aurkitzen,
gizonen joranetan.
Oitura zaharra izan zen,
leen artaxuriketan.
Nobioak elkarrekin,
egoteko gauetan.

Babilonian katigu,
baikeunden euskaldunak.
Idiak uztarri-pean,
ziren gure pareak.
Hantxe genbiltzen gu nola,
astoak zama-pean.

Lurpeko eremuetan,
sorginen biltzarrea.
Zeru-gaineko aireetan,
jainkoen hasarrea.
Itsasoko hareatzan,
deabruen barrea.

6. Iratze ederra

Estrata hertsiak ekarri nau honera.
Liluragarria etzen nire egoera
zezen azkarrak zeuden iratze ederrean.
Bidean eznuen eguzkirik ikusi;
nire esku zikinok eznituen ikuzi
iheri igaro nuen hibai gardenean.

Nire odol beroa zerura igon zenean
ugari zitzaidan geratu bularrean:
Burutik oinetara zitaldu ninduen.
Arima nendukan elurraren parea;
iheri baino leen nire gorputz tristea
zimaurtegia bezain zikina zegoen.

Ardien artean agertu zen artzaina;
zaldiaren zelan zetorren behor-zaina,
esaten zidatela: Etoia, doilorra:
Hil duzu gizon bat, eta haren odola
oraindik daukazu esku bietan. Nola
pagatuko diozu orain zure zorra?

Zerri-zainek ere irain egin zidaten;
unaiak zebiltzan arneguak esaten:
Nundik etorri zara, haragi-jalea?
Madarikatua izan zaitez betiko!
Halako lehoirik inun ezta ikusiko.
Dezagun hil oraintxe odol-edalea!

Gizonen eskuak eztu hartzen jainkorik:
lurraren gainean egintza ezinagorik
gure pentsamentuan ezta bururatu.
Iraen artean gantzu batekin nintzen
ezkutatu laster, eta arratseko ihintzen
freskura politean nintzen desgorpuztu.

Eskuan gañibet, akuilu ta haizkora,
hiltzeko asmoekin zetorzkidan albora,
baina etzuten aurkitu gorputz hila baizik.
Nire arima berriz, lorez lore kantari,
barre egiten zion jentatze gaiztoari,
ezpaitzuten gorputza kausitu bizirik.

Demonio batek sartu dio buruan,
mintzatzen geratu ziren nire inguruan,
harnasa bat bezala, infernuko gatza.
Dagoen lekuan utzi dezagun, eta
hemendik eskapa gaitezen, pozoin eta
maldizio hoiekin ezkaitezen kutsa.

Erori zen gaua abereen gainean,
izotza berekin ekarririk soinean:
Espiritu guztien bildurgarria zen.
Nire arima ere animalietatik
sartu zen, biluzik ez egoteagatik;
gauerdiko jeleri ihes egin zien.

Bildots mantsoari egin nion bisita.
Hartu nuen gero ardi galant polita.
Ahuntzaren esnea nuen pozoatu.
Hutsitu nituen aharien adarrak.
Ebaki nizkion akerrari bizarrak.
Abeltxeak nituen osorik larritu.

Behorra zegoen, zaldiaren parean,
ahalke gaberik, astoaren aurrean,
ema-galdu bat balitz, laket lizunetan.
Buztanetik nion tiratu zaldiari;
irain itsusi bat niotsan mandoari:
Sakon sartu nintzaien aaide-kontuetan.

Heldu nintzen gero zerrien gorputzera,
eta kendu nion apoari makera;
haragi sendoalak argaldu nizkien.
Buzkantza, lupua, odoleste gozoa,
urdaiazpikoa, urdaia, solomoa,
zizarearen gisan, guztia jan nien.

Katuari nion jan-arazi zimaurra;
bisigu-zalea bihurtu zen zakurra:
Adiskidetu ziren amodio onarekin.
Oiloek zioten oilarrari kolpatu;
oila-lokak ere arraultzetan pikatu.
Ahateek hegoira zuten ihes egin.

Gau luze bateko bidaje latzgarriak
barkatu zizkidan nire kulpa guztiak,
lixiba berri batez garbitu bainintzen.
Nire babesetik atera nintzenean,
egun berri hartan, hiltamu latz batean,
animali guztiak akabatu ziren.

Laster sentitu nuen
egunaren hotza.
Nire ahoan
zapore siku
mingotsa.
Iratz artean
bilatu nuen
arinki nire
gorputza.
Laster sentitu nuen
egunaren hotza.

Eztut igarten nola
nagoen bizirik.
Aurrerantzean
eztut izango
lotsarik,
ezpailegoke
nire arima
gau hontan bezain
biluzik.
Eztut igarten nola
nagoen bizirik.

Bildur haundiagorik
eztut erakutsi.
Nire gorputzaz
nintzen poliki
ni jantzi;
eztut eginen
nire arima
ezergatikan
erantzi.
Bildur haundiagorik
eztut erakutsi.

Eta gizonek zerdukaten
bidegabeok zer ziren;
gizonen begi zorrotzean sekula ere ezpaitzen
hangoa bezain
heriotz ezain
itsusirik presentatzen.

Gurekin dabil deabrua,
sutan baitoa zerua.
Arima gaizto etoi batek irauli digu dornua.
Ezin geiago,
egun baitago
lur gainean infernua.

Deabruentzat bakarrik da
heriotze bat, polita:
Bilo guztiak tiratuka sustrai beretik kenduta,
lepotik hartu,
ahoan sartu
urregorrizko taketa.

Deabru beltza hil dezagun!
Egon gaitezen fededun!,—
zioten, eta haien esanak entzuten ziren edonun.
—Gizon ortutsa;
haren gorputza,
arin erre dezaiogun!

Handik joan ziren iratzera,
nire gorputza hartzera.
Kantu ederrak ezpainetik, otoitz luzeak zerura,
poliki zoan
bide gaiztoan
gizaldea ni hiltzera.

Hara allegatu zirenean
bildurtu ziren benetan.
Nire gorputza etzegoen paratu nuen lekuan;
espantu latza,
izu garratza,
zedukaten ezpainetan.

Ni banindoan kantaturik
galtzada legun batetik.
Zer egin nuen eznenkien, eztut jakin nai ezer nik:
Nire gauzetan,
azioetan,
eztago zuzenbiderik.

7. Galtzadan eginiko gogoeta eroak

Zer garen guk eztakigu,
inoiz ezta jakingo.
Anketan oinak ditugu,
lurretik ibilteko.
Besoetan esku finak,
gauzak erabilteko.

Gizonak eztu pausurik,
hil eztadin artean.
Hil bere iloba maitea,
egin du amandreak.
Ezta eguzkirik agertu,
egun hodei-artean.

Modu asko daude hemen,
odolak edateko.
Ezpainarekin edo-ta,
ezpata bitarteko.
Bidea bilatu dute,
guri gaztigatzeko.

Hibai ondoko landetan,
belar gizena dago.
Haurrok dugu gogorako,
askozaz nahiago.
Borobiltasun emea,
zorroztasuna baino.

Neskatxa garbiak dira,
hemendik desagertu.
Ezta dontzelleziarik,
inundik ere urratu.
Zerren alu-lore gabe,
neskak diraden sortu.

Erdaldunen ingudean,
probatu zen indarra.
Harriarekin entramak,
galduko ditu zerrak.
Atzo deserritu dugu,
esposa bat izorra.

Lamiak errekaldean,
urrezko orrazia.
Maradikatu izan bedi,
zerorren askazia.
Ematen ezpadidazu,
amaren artasia.

8. Lore-mendia

Orain hemen nago, lore-mendi honetan.
Nire gogoetak eginik, gailurretan
armenda loratuen parea naiz orain.
Orain eznago han, lurralde hotz haietan.
Misterio guztiak ulerturik benetan,
nire arima eztago mirari baten zain.

Bidean hartu dut menturazko harnasa.
Eztaukat lehengo dudetako mataza,
askaturik baitago korapilotxo hau.
Hodei eta errainu guztiak urraturik,
sentitzen ezpaita inun sufrimenturik,
galtzada legun batek honera ekarri nau.

Arrosa politak, krabelina-liliak,
orkideak eta gardeni-begoniak,
baratz honetan daude mila lore eder.
Nire sudurra da osorik liluratu.
Etzait zentzu hori orain arte gustatu:
Orain horrez gainera eztakit nik ezer.

Usainetan dator nireganantz bizia.
Landare-gogoak estaldurik guztia,
arimako zizare guztiak hil dira.
Intzentsu berrion arima zait usandu;
uhin urrintsuok usteltasuna jan du:
Ederki dit biziak ematen begira.

Pausa-leku hori nuen atzo hautatu,
gorputza ta arima egiteko mainatu,
ezlezaten eduki orbantxo batere.
Ungentuetatik hartu nuen gantzua,
arrats freskoari bota nion zantzua:
eznaiz egon inoiz bart bezain alegere.

Baratz honetara atzo nintzen etorri.
Kolore guztiak, beilegi, more, gorri,
lilietan zaizkigu agertzen hemendik.
Eta baratzainak izena dauka Miren:
bere begietan lore guztiak ziren;
dontzella da garbia, engañu gaberik.

Galtzada zelaitik nekaturik nentorren.
Ahatzirik neunkan iratze berde horren
hildoetan pairatu nuen pasioa.
Odolezko izerdi gorria isuri nuen;
pañolo batekin negar-tantak nituen
legortu: Urte beteko arnegazioa...

Amaitu zenean galtzada luze hori,
zentzu gabe nintzen lur gainean erori,
arrosadi bateko aihenaren kontra.
Neskatila honen besartean esnatu
nintzen, zidalako baltzeo bat kantatu,
egungo oilaritean, txorien gisara.

Miren eder hori zen nire baltsamoa:
Esku legunekin ukiturik ahoa,
zer den bake narea erakutsi zidan.
Seinale bakan bat eginez sudurrean,
oroitu zitzaidan hil zena gurutzean,
predikatu zuena mundutik atean.

Bere besartean baratz zoragarria:
Ugatzak arrosaz, krabelinaz gerria;
arreba nausi baten nengoen altzoan.
Lore-mendia zen bere gorputz bikaina.
Nire gorputzean sartu zen baratzaina:
Eskerronez ninduen hornitu ariman.

Zekiat nor haizen eta nundik hatorren,
zekiat zer haizen, honera zerk hakarren:
Nire laguntasuna eskeintzen drauat nik.
Kontuz ibilteko diotsat anaiari,
iguriki nion ene maitaleari:
Eztrauat edireten gainean kulparik.

Hemen ere entzun duk, zabal, hire berria,
hitzaz esan duten gauza tamalgarria;
laborariak zeudek hi katigatu nai.
Jarriko drauate lepoan uztarria,
katea batekin lotuko zaik gerria:
Eginen haute gero mandoaren anai.

Hire aurrean duk zabaldu kaminoa;
eztuk ogia jan, eztuk edan arnoa,
bazekiat haizela egarri ta gose.
Mila legoako kamino hau, luzea,
ibili behar duk orain, ene maitea,
arinki, galdu gabe denpora batere.

Lore-mendi maitea
milikatu nuen.
Ezpainak hango
arrosan jarri
nituen.
Ederkien
ikasi nuen
usain gozoak
dastatzen.
Lore-mendi maitea
milikatu nuen.

Baratz laztangarria
harturik eskuan,
nire hegalak
hedaturikan
airean,
beste gabe
paratu nintzen
herrietara
bidean;
baratz laztangarria
harturik eskuan.

Arriskuen aurrean
eznaiz bildurtia:
Apaindu nuen
hegaldatzeko
gurdia;
urrinetan
nintzen orduan
dupin-arteko
hordia.
Arriskuen aurrean
eznaiz bildurtia.

Solo artean landareak
galdu zituen loreak.
Aiher ziren bihotzetikan etsai etoiak, nireak.
Leku haietan,
ortu denetan,
soilik zeuden laboreak.

Ordu beteko letariak
esan zizkidan gariak:
Hoek dira landare motzek darabilzkiten sariak.
Eztut esango
direla hango
umetxoak martiriak.

Artadi luze legortuak
zarratu dizkit portuak.
Horrenbeste indarrik eztu egin sekula artoak.
Neska-sorgina,
oi-erregina,
ernatu zuen ortuak.

Benetan dela ausardia,
benetan dela garbia,
polit, galant eta dotore, gorotz artean arbia:
Bere arreba,
bere izeba,
izorra den ahardia.

Egiazki da iraunkorra
moztu gabeko ilarra.
Badirudi hortz-agin gabe ema-galdu bat, zaharra.
Neska pottola
badabil nola
aingeru bat zerutarra.

Haundiegia hamorrua
hartu zuena porrua.
Nagel gorriz, orin beilegiz, zikindu zaio larrua.
Orraztu ditu
eta garbitu
bere biloen kirrua.

Konorte gabe dagoela
bere ortuan kipula.
Soinu gabe mutiko-dantzan entzun diogu txirula.
Bart arratsean,
bart iluntzean,
agatu zuen kaiola.

9. Kaminoan eginiko gogoeta eroak

Demonioen artean,
politena Belial.
Begi politak ditugu,
galantak aurpegian.
Mundua konprenitzeko,
ezkara animaliak.

Gauza haundiak egiten,
ditugu lur gainean.
Eztago pizti batere,
inungo lurraldean.
Pentsatuko eztuena,
ezkarena erregeak.

Gizona atinik lurrean,
komunari begira.
Satza jateko gogoak,
molde askotako dira.
Gorotzak eta gernuak,
eman dute begira.

Josepe arotza zen beti,
gizon guztiz prestua.
Senideek ta hauzoek,
franko estimatua.
Bere egitate denetan,
egoten zen zentzua.

Ema-galduak dabiltza,
lixibatan sartuta.
Esklaba haren gorputza,
merkatuan salduta.
Eta bere arima aratza,
zerurako galduta.

Zerutik bart erori zen,
harri bat borobila.
Zeruen urdintasuna,
harriz dago egina.
Jainkoen usteltasuna,
dugu ostrailikia.

Gorbeia baino gorago,
askozaz goragoa.
Arginek egin digute,
harmore bat haltua.
Izena jarri diote,
apaizek itsasoa.

10. Herri-bitartea

Ezkutatu ginen gaztelu gaitz batean.
Maitaleak ziren etzan ohe berean,
baina guk ezkenuen bekaturik egin.
Gure oneriztea eztator haragitik;
larruko orduetan ezta gauza politik.
Bakarrik nai genuen egon elkarrekin.

Herri-bitarteko alkate nagusia
etorri zitzaigun; senideen hauzia
ekarririk: Baneunkan judizio berria.
Berekin zetortzan: arotza, igeltserua,
zapataria ta baita erlojerua,
lege-gizona eta errementaria.

Bakoitza jezarri zen kadira batean:
Lege-gizona ta alkatea ezkerrean,
apaiza, dendaria, berriz, eskumatik.
Esan nien: Jaunak! Abere-tratuetan
bazatorzkidate, esanen dut benetan:
Eznaiz merkataria, eztut erosten nik.

Agure-biltzarrak mandatari, honera
bidaldu grauzkitzu, zerorri galdetzera
Jainkoaren semea egiaz bazara.
Eztut inoiz ere esan horrelakorik,
baina munduetan gizon gertuagorik
kausituko eztuzue, ez joan aurrera.

Apaiza altzatu zen berehala hasarrez.
—Birao egin baitu—, **esanik deiadarrez,**
—apurtu behar ditut ene soinekoak.
Gero niri esan zidan: —Zeruetako
ateak eztira ideki zuretzako.
Zure ugazabak dira jaungoiko faltsoak.

Errege bazara, edo Jaungoikoa;
zure predikua mundu honetakoa
ezpada, orain bertontxe esan behar duzu
zure potereak, gizon-gainditasunak,
eman nork zizkitzun. **Eta nire erantzunak**
gutxi tardatu zuen: Ez nik, zuk diozu.

Gero altzatu zen lege-gizon maltzurra.
Hortzak irriturik, egin zidan agurra,
sakon sartu zidana barnean ziria.
—Eztago jainkorik legearen aurrean,
eta gizon batek egiten duenean
hogenik haundiena ezta miraria.

—Preso emendaukazu gaztelu gaitz honetan,
dorre meharrean, dontzella guztietan
hoberena, ederrena, neska garbiena.
Haren ahaideek hauzia dakartsue;
judikatu gabe kondenatu zaitue;
behar duzu laguntza, aiskide batena.

—Etor bitez orain honera lekukoak;
hontaz piedatea euki beza Jainkoak.
Preso dagoenaren betorzkigu ilobak.
Zetortzan: Sei ziren, sei aingeru dotore,
eta etzidaten eman ezein amore.
Hain antza dohatsurik etzeukan izebak.

—Ohostu zenuen gure izeba maitea.
Egun hauetako baratzaren tristea!
Eztaukagu jadanik norekin jokatu.
Hau egin digunak merezi du hiltzea.
Ezta gauza erreza beroni barkatzea,
osin ilun batean hamildu baikaitu.

—Probuak itzazu presenta zure alde.
Perpausa guztia izanen da debalde;
epaia eman gaberik kondenatu zara.
—Galdetzen bazaio andregai nireari,
berak esanen du zergatik, hegalari,
ihes egin genuen gaztelu hontara.

—Gurutze batetik zintzilik hil artean
josiko zaitugu biharko goizaldean,—
mintzatu zen hozenki epai-emalea.
Etzaitezen egon bakarrik tormentuan,
beste aldetikan josiko dugu orduan,
burnizko lokarriez, zure maitalea.

—Geiegi duk, Jauna, ene oneriztea;
bildurgarria duk, ezain, heriotzea,
indak indar haundia, ahul duk usoa!
—Aingeru guztien bizitegi erdian,
aitaren aurrean, biharko eguerdian,
izanen naiz betiko zure esposoa.

Gure gorputz argalak
desegindu ziren,
leze batera
astiro jatsi
baikinen.
Bizkarrean
gurutze hura
biok eraman
genuen.
Gure gorputz argalak
desegindu ziren.

Arbola artez zuzena,
gurutze pisua.
Beti betiko
izanen zara
gurtua.
Seinalea,
ezaugarria,
oroitarria,
leinua.
Arbola artez zuzena,
gurutze pisua.

Imajina bakarra,
santu biribila.
Zeure izenean
eginen dira
eun mila
bidegabe
eta ezpataz
hutsituko da
magina.
Imajina bakarra,
santu biribila.

Zutirik dago gurutzea;
hurbildu zaigu hiltzea.
Gure oinetan algaraka arinki doa jentea,
gure aurrean
dagoenean
presente heriotzea.

Gaurko goizean borreruak
zabaldu ditu zeruak.
Hauk dira nire suin-erranak, nire erreinuko primuak.
On deritzaiet.
Mandatu haiek
lotu zituzten munduak.

Nire juboia ta alkandora,
galtza luzeak ta fraka,
Mirenen gona zetazkoa eta atorra polita:
Ebatsi dute,
oostu digute
gure jantzia barreka.

Apostoluak eztoazi
niregandikan ihesi,
nik esandako kantikarik inork ezpaitu ikasi.
Hainbat amore,
hainbat fabore,
ezta sekula ikusi.

Nire bularrak urraturik,
geratu nintzen bakarrik.
Asmo onetako hondamendi hontan eztaukat zergatik
iraun geiago.
Arima dago
gorputza kendu nahirik.

Maitaleari esan nion:
—Neska maitea, zer dion?
Heriotzeko orenean, bekar Jainkoak egun on.
Bildur, herabe;
erantzun gabe,
bera isilik zen egon.

Hatsa zitzaidan aienatu,
hodeiak ziren urratu.
Inor munduko hondarretan ezta hainbeste erratu.
Nire gainean,
nire atzean,
guztia zen akabatu.

11. Requiem

Nire arima hegalariak
gozatu baitu zerua,
LURPEAN DATZA EHORTZIRIKAN
NIRE GORPUTZ USTELDUA.

Orain eztago nire barnean
lehen neunkan hamorrua,
huts-hutsik nago nola bainintzen
ijitoen gatilua,
ta karutean diamanteak
saltzen diren merkatua:
LURPEAN DATZA EHORTZIRIKAN
NIRE GORPUTZ USTELDUA.

Nire hilobi gainean hasi
dela kimatzen kardua,
bere sustarrak dit kilikatu
nire belaun zurrundua:
Nigana heldu baitzait hozenki
ez-mugitzeko ordua,
LURPEAN DATZA EHORTZIRIKAN
NIRE GORPUTZ USTELDUA.

Orain eztago nire gorputza
inolare biluztua;
nire tunika baita oraintxe
maite ninduen mundua,
nire arima ezin legoke
ezergatik lotsatua,
LURPEAN DATZA EHORTZIRIKAN
NIRE GORPUTZ USTELDUA.

12. Deskantsuaren bitartez

Etxean bezala gaude
orain arrokartean.
Adiskideak gara
egintza bakoitzean
Joane eta Miren,
altzipresen artean
usteldu garenean.
Nola diren luze
altzipresak gauean!
Hilotz ustelek elkar
maitatzen dutenean,
ezta diferentziarik
hezurrutsen artean.

Mila gezur esan zigun
atzo gure maisuak;
gizon hilak ezkara
gizon eskolatuak:
Ikusten ditugu
beraren liburuak,
nola abere mutuak
ikusten dituen
goizaldean zeruak,
noragino diraden
jaditsiko primuak,
edo atzean hildoak,
goldeak markatuak.

Gure maisua izan da
esperantza gaiztoa.
Aspalditik da hori
gure amonatxoa;
guztiz eztia da
beti bere ahoa;
baina gizagajoa
oso makal dago,
herbalkeriak joa.
Amonarik eztaukat;
horregatik otsoa
hurbildu zitzaidan niri,
makurturik lepoa.

13. Partiera

Atabute honetan ehortzirik nago.
Nire gainean lauza pisu bat baitago,
ezomendut bururik kanpora jasoko;
izarretako keinu batere ikusiko,
airerik hartuko,
musu bat emango,
lorerik moztuko,
haragirik jango.
Eznaiz egon hobeki inun, hemen baino.
Eznaiz inola egundo,
belanubiko jarriko.
Pozkarioa ezin liteke
jaditsi jada gorago.
Amorioak egun honetan
eztu niretzat balio.

Nire errai guztiak usteldu dirade:
Barrabilak, ugatzak, giltzurrunak ere.
Nire hezur oriak agirian daude.
Iluntasun honetan batera gaode
Miren ta Joane;
bakarrik garade;
elkar dugu maite.
Baina halaz ere
ilunpea ta biok ezkara adiskide.
Airea izanik ilunpe,
argirik ezta batere;
eta begiek bihotzetara
heriotzea dakarte.
Heriotzea, amorioa,
ezin elkartu litezke.

Hezurrok egon dira hilobiz hilobi.
Gauza guztiak ditut jadanik ikusi.
Eztut nire bidean ezer erabaki;
eta gure aurrean munduak agiri,
hozen eta argi,
eder eta garbi.
Eta bihotzari
enadak, kantari,
Melodiak esaten dizkio legunki.
Enada beltzak emeki
okotz honetan, ugari,
musu bigunak, laztangarriak,
eman zizkidan neroni:
Ezta sekula amorio bat
ezainagoa estali.

Moredinek eztute entzun ene kanta,
aginetatik irten didan hortz-garraska,
durrunduz erakusten duena ene kasta:
Etzen honen kexati izan gure aita;
etzen izan, baina
nire damua da
ta nire tristura,
iluntasuna ta
isiltasuna nire etsaiak baitira.
Lore guztiek aginka
edan zidaten odola;
haragi-ustu ninduten gero
sagu bat banintz bezala,
haek katu bat bere aitarik
ez ezagutu duena.

Lauzak ene burua etzidan ukitu,
baina nire gainean du haunitz pisatu.
Nire presoia zela ezin dut ukatu,
naiz ta bazen handikan astiro mugitu.
Mintzul eta mutu,
sogor eta itsu,
geldi ta katigu,
orduan geratu
nintzen, inoiz harriak kemenik ezpaitu.
Harri lodia altzatu,
nire kateak apurtu:
Libertatea aho-zabalik
ederki nuen gozatu,
argi biziak nire begiak
zituenean urratu.

Biziak eman zigun seina bihotz eder;
heriotzeak bana ezkutuko bazter.
Kondenatu ginduten zentzuaren partez;
Urkamendira ginen biok joan artez,
geldiro ta nekez.
Ezkenuen hartzen
parterik han, zerren
gure borreroen
biotza zen humila, gogor, aratz, ustel...
Eta zeruan, nabarmen,
gure belaunak zurruntzen...
Ezta komeni, ene maitea,
hain bildurtiak izaten.
Enekin erdu; errautsak laga.
Lurpean gera etzaitez.

Eztut ene laguna iratzarri egun;
melodi atsegin hau etzaio ezagun.
Esaten diodanik eztit ezer entzun.
Borondatearekin egin diot eztul;
baina hain da zuhur,
hain da begi-makur,
hain da bihotz-legun,
ezen bere sudur
motzak eztuen egin usainik kontentuz.
Galdetu nion ze moduz,
arneguaren podesuz,
hegaz eginik igan liteken
zeruetara Berzebud,
eta Jaunaren barkazioa
irabaz hantxe mosu-truk.

Hamar urte honetan eztut dantzan egin.
Ezta inor etorten batera nirekin.
Hemen gentzazin biok, errautsak itorik;
Gorputz hilok eztugu hartzen harnasarik.
Oraintxe badakit
ederki, zergatik
maite zaitudan nik.
Ene andre polit:
Zure ezaguera etorri zait astiz.
Eta etzaude bizirik.
Zure usainak kendu dit
zugan jarrita neukan fedea.
Eztut igarten noizdanik
aingeruaren begitarteak
alde egin zuen zugandik.

Zure gorputza dago orain atinik hor:
Usainik zakarrena kanporantza dator.
Eztut igarten nola naizen horrela egon,
itsusian sarturik, ederretik kanpoz.
Ongi derizkiot
zure arima motz
horri, zerren inoiz
aireak eztion
ezein gorputz hileri hain luzaro itxadon.
Bultzatu naute ostikoz.
Kanpoan nago betikotz.
Eremu hori izan da beti
harrixka artean txit elkor,
eta euritea datorrenean
orduan ere bai legor.

Erori da behera berriz lauz-harria,
estaldurik betiko neure maitalea,
lore-mendian hartu nuen begonia,
hainbat maitatu nuen Mirentxo maitea,
dontzella garbia,
ukitu-gabea,
hibaiko lorea,
mendiko txoria.
Eta dolore haundiz datorkit airea
esanik: Hator, librea;
ezagut hezak hodeia:
Horrek eztakik mundua dela
haundia eta zelaia?
Baina bihotza, errauts eginik,
han zen geratu, tristea.

Zimaur bortitzarekin landuriko ortua,
honek oparo digu emanen frutua,
ta da udaberrian guztiz loratua.
Hori gertatu zaigu. Gu bezalakoa
delako mundua.
Da Miren gozoa,
Joane baitoa
ihesi. Onartua
izan bedi zimaurra, benedikatua,
zerren bestela zerua
izanen zaigun galdua,
ta zerumuga ezagutzeko
daukat gurari gertua:
Eznaiz biziko zapaldu arte
zeruetako zolua.

14. Arbuioaren bitartez

Ukitzen nauten eskuek
naramate gorantza.
Behera erorteko
eztaukat esperantza;
horixe gertatu
zitzaidan herrirantza
nindoanean, antza.
Eztute ezagutu
neronen mendekantza.
Eztut estimatuko
beren adiskidantza,
arima pisua baitut,
ta noa beherantza.

Nire etsaien eskuak
usain zikinok dira,
eskeintzen didatenak
orain munduko jira;
eta joan behar dut
Eldorado berrira:
Egiazko Palmira
horretan diamante,
opaloak balira,
harri preziatuak
ederrenak baitira,
eznintzake itzuliko
inoiz lore-mendira.

Urregorrizko etxean
badago edertasuna,
baina berunezkoan
tristura bat, astuna,
edozein gizoni
demona behaztuna.
Hau da nire fortuna,
egunero galtzen
nauen mingostasuna.
Hori da egunotan
galazitzen diguna
elkarrekin egotea.
Hau da garraztasuna!

15. Judizioa

Arima penatuak afusilatuko
dituzte arratsaldean. Eta belaunbiko
Goya miragarri bat kemen gabe dago;
eta bere kapela zuen erauntziko
burutsik balego.
Ongi jauntzi, edo
dotoretu gero,
daduzkan soineko
apainekin. Arima penatuak dio:
Hori ezpaita inoizko,
ez utzi, bada, geroko.
Fusil haueri joran bizian
egon natzaie espero.
Nire tristura ezin liteke
erori jada berago.

Nire etsai zikinek juntatu gaituzte,
baina hilerrietan separatu dute
gure amorioa, ezpaita posible
arimak maitatzea gorputzikan gabe.
Hau delako gure
asturua, triste:
Kaliza hau bete
gainez egin arte.
Bidegabe honekin eznago konforme.
Mundua ezta alegre:
Eztut ukatu beinere
Eztakit ongi zergatik eman
nuen bizitza hain merke;
orain eznuke mendira igoko
nire etsaiak hil gabe.

Etsaien kontra nago erruz arnegari,
eman zidatelako ondiko ugari.
Aingeru Serafinek akerra dirudi,
deabru Belialek epetxa kantari.
Eta Dostoiefskii
jaio ezpaledi,
eznioke Prousti
barkatuko hori:
Zergatik gizonari eztion jarraiki.
Picassok ere Goyari
kentzen dizkio humilki
mundu honetan bizi izateko
izan zituen gurari
guztiak, eta beste hainbeste
gertatzen zaio Mozarti.

Bihotzean sarturik daukat mendekantza:
Picasso, Proust ta Bartok damutuko dira.
Hasarre haundiz noa orain haiengana,
besapean zuzia, eskuan haizkora,
ahoan labaña
eta gañibeta.
Hau da nire harma
poteretsuena:
Saihets-artean dudan arbuio sakona.
Honekin diet bihotza
erdibituko nik, eta
egunsentia datorrenean,
Gernika balitz bezala,
Parnaso berri hori negarrez
orduan geratuko da.

Heldu nintzen haraino, eta begiratu
nion nire bizitza hain doilorki hartu
zidan eskribau hari, eta nuen damu,
hain jente makur hura bainuen tratatu.
Mendekantzak ditu
hamar mila musu,
eun mila ta piku
begitarte mutu:
Eta nik bat bakarra behar dut hautatu.
Gizon guztiek arnegu
egiten dute: Adizu!
Zure maitea mendekatzeko
gura bakarra dakarzu,
edo naiago duzu dirutan
egin duguna kobratu?

Hauzi zakar hau ezta konponduko legez.
Honela uste duenak egiten du amets.
Mendekantzok irteten didate aldrebes.
Goizaldean bazkaldu nahi nuen plater
bete bihotz ustel,
apaltzeko gibel
batzuk oso zimel.
Orain eztakit zerk
sabel-darraio zirdin hau didan ekarten.
Gora-galea ematen
didate beti gizonek,
ta batez ere arratsaldean
sakon lo egin ondoren,
zerren orduan karitatean
eztut egundo pentsatzen.

Zerk bultzatu ginduen eztugu jakin guk,
zueri gu jasoten itsusiki gurutz
artez hartan, ta guri, indarrak ukatuz,
amore ematen; eta ongi dakit egun,
edo ezagutzen dut,
eginikan zurrust,
ezin duzula zuk
arima para zut,
zerren niri gertatu zitzaidan hau erruz.
Arnoarekin hordituz,
edo gaznekin asetuz,
ezin liteke inolaz ere
zede gerturik ezagut,
arima itotzen baita, gorputza
dagoenean kontentuz.

Belaunika zaitezte! Edo bestela nik,
heriotze osteko eremu beltzetik
pausu geldiarekin honera etorririk,
eztizuet emanen batere atsedenik.
Nago penaturik;
ezta arimarik
nekatuagorik
agertzen inundik,
eztare infernuetan kondenatzen denik.
Para zaitezte zutirik!
Etzakuskitet damurik.
Eztakizue zuek egiten
nire aurrean otoitzik?
Gauza egokia da hori beti
denarentzako bizirik.

Haek zeuden negarrez, igurikitzen noiz
deskargatuko nuen haizkora hain zorrotz
hura beren buruen gainean, zerren bost
urtean egon ziren nire zai, ondikoz
beterik. Hamabost
eliz-, lege-gizon,
erlojeru, arotz,
errementari motz,
alkate, nekazari eta igeltseru on.
Nire inguruan guztiok
zeuden negarrez: Tristeok,
ai, gure triste, **esaten zuten,**
ai, gure gajo, pobreok!
Eztigutela zendu artean
pazienteki itxadon.

Zeru gorena dago hodeiez betea.
Gure barnean ere badago hodeia.
Fabore izan genuen orduan legea;
orain apurtu dute gure kodizea.
Epai-emalea
datorkigu, ea
nolako fedea
daukagun. Gurea
erabakita dago. Astuna nekea!
Gizona izanik txikia,
adimentua hertsia,
ezin pentsatu baitezakegu
zein den izanen amaia,
eztezaigula ezer ofrezi
ezpada heriotzea.

Egunean iraulten egon da gorua,
erramu freskockin eginez koroa,
apainduko didana gogorki burua,
ezten inor ni bezain ohoreztatua.
Gauean dornua
eztago lotua:
Nai dute estatua
bat oso haltua
herriko plazan jaso, benedikatua
izan dedila maisua,
gaur dagoena itoa
hainbeste jente artean, eta
baita harnasa kendua,
zerren jainkoak baino askozaz
da bera prestuagoa.

16. Adorazioaren bitartez

Amaitu ginen lekuan
egin dute kapera.
Ezta pentsatzekoa
gizonen bukaera:
Erori zitzaigun
apurturik lurrera
jan genuen platera
mila zatitan. Dut
ezpondatik atera
erregalatu nizun
zilarrezko baxera:
Erlikitzat egun dute
eraman aldarera.

Zure memoriak egin
dituzte gaur elizan,
eznadien hasarra
ostopo baten gisan.
Ezti-makatza da
aurkitua kalizan
asturugaizki izan.
Eztute ezein gauza
deseginen astiz han,
espantuz eta urduri
dabiltzalako prisan.
Hilen dira, berenua
dagoelako zizan.

Eztizu penarik eman
hortikan ikusteak
barkazio gabeko
kondena-gai tristeak?
Niri bai, haundia.
Eztiotsu legeak
erreinuko erregeak
hil behar duela,
zerren bere andreak
adar haundiak jarri
dizkio, bai, luzeak?
Eztizu ajolarik izan
gizon-kondenatzeak?

17. Mendekantza

Elizatzar honetan orain ezpanengo,
elitzaidake inola gogora etorriko
zure oroitzapenik edo geratuko
litzake lore gabe etor zedineko.
Barren edo kanpo,
garratz edo gozo,
eztu pausatuko,
ez oheratuko.
Nire memori onak ezin daidike lo.
Nire negarrak eztio
kontsoluari deituko.
Ene maitea, ene laztana,
zu gaberikan eztago
mundu honetan zori gaiztoan
alaitasunik neutzako.

Etzaitezte, mesedez, orain hainbat pobre.
Zuen bihotz urria aberats zazue.
Letaria hauekin lasai etzaudete.
Haragidun gizona benetan da triste.
Eztauka batere
egiazko fede
edo karitate:
Guztia da atzipe.
Zerura jadisteko esperantzak ere.
Miren eztago presente,
betiko dago ausente.
Zuen otoitzok eta erreguok
egiaz dira debalde.
Urrikalmentu gizon-zalerik
eztut inola nik gorde.

Etzaitezte, pobreok, oraintxe defendi;
nire goikotasuna eztadin ofendi;
dezazuen ederki zer naizen entendi;
dezazuen agintzen dudana obedi;
honera nator ni,
haltu eta haundi,
bortitz eta egoki.
Errezatzen hari
zarate, gero nadin zuetzaz urriki.
Ezer ez eska jaunari!
Biotza daukat hain urri...
Zuekandikan eznabil-eta
egun honetan ihesi,
nire haizkora, nire arbuioa,
doazkizue hegazi.

Nire hustasunaren barnean, harrika.
heiagoraz, egiten nuen gogoeta;
nolako gastigua zen egokiena
nire borreroari emateko; eta
ezin nuen pentsa
beste ezin gauza:
Talion izanen da!
Behar dut babesa.
Barnean duten oro nai diet atera.
Hau da zuentzat morrontza:
Nire hitzari egonda,
ezin igarri zein den emanen
zaitzuen azken parada.
Enetxo, zuek urrikarriok,
banaukazue prest jada.

Orduan hasi nuen, gogor eta itsu,
nire burrukaldia: Geratzeko kitu.
Beren larruetatik arin nintzen sartu,
eta errai guztiak nizkien altzatu:
Garunea kendu,
hesteak ohostu,
bihotza zabaldu,
giltzurrunak moztu:
Gizonaren bularrak labirintu bat du.
Baina eznintzen ez, galdu:
Gauza guztiak aurkitu
nituen beren leku gertuan,
eta kanpora botatu
nituen denak, erroiek izan
lezaten nundik gizendu.

Arimaren erraiak ebatsi nizkien,
pena litezen denak munduan dolorez.
Fede, karitatea, esperantza kentzen
ausartu nintzen nire nekearen ordez.
Badakit kobratzen,
baina dirutan ez.
Deabruak, erren,
egiten du amets:
Erroiaren antzean ederki da asetzen.
Inork eztaki negarrez
bere garaitza hospatzen.
Gizon etoiak hutsitu ditut
mendekantzaren ohorez.
Hoiek Mireni zioten zorra
kitatu diet ongien.

Burrukaldi haundia gaur irabazi dut;
etsaien harmadurak errez hautsi ditut.
Eta nire nekea ezin diteke neurt.
Eskumako belauna daukat hogei apur.
Egin diot agur
lehen neukan gorputz
osoari. Ta gaur
eztakit jada deus,
ezpada eztaukadala ezein saihets-ezur.
Aginak galdu dira erruz.
Okotza ere bertan utz.
Nire zauriak sendatutzeko
jezarri nintzen atabut
baten gainean, malda gorea
eztadin izan hain biluz.

Begiratu ere nuen gatazka-lekutik,
eta eznuen ikusi batere hilotzik.
Ezta egon gizona inoiz hain bizirik:
Ni hil arte ezta egon halako gizonik,
hain bizitzen denik.
Eztute nekerik,
daudelako hutsik.
Merezi nuen nik
eskerrak lizkidaten bihotz-bihotzetik.
Orain eztago itzalik.
Ezta zeruan goibelik.
Beren aurrean ezta kausitzen
lehengo behaz-toporik.
Hoek ibili litezke orain
sufritu gabe mundutik.

Nire hezurretako zauritzar sakonok
medikuntza-legean ezin dira konpon.
Materia zikina bertatik zerion.
Adiskide mamia nendukan Derion,
mutiko guztiz on,
hemen balitz egon...
Eznengoke pasmoz
zikindurik inoiz.
Sendatuko balizkit oraingo zauriok...
Falta zaizkidan hezurrok
eztira ikusten lurreon.
Gora begira nire begiak
ikusten dute derrigor,
zer zen jazoko gizon artera
haizkora gabe banentor.

Eta ikusten dute han goian bestia,
lengo gizon beteek hamorruz jarria,
oraingo gizon hutsek bera jaurtikia,
hamiltegi batean azkar eroria,
lepo ebakia,
buru itzulia,
hatzamar gabea,
agin aterea,
antolatzen duela infernu berria.
Ahora dator barrea,
ezpainetara irria.
Errez izan da higuinduaren
harmak lurrera jotea.
Ehortz dezagun bein da betiko
gizasemeen etsaia!

Nire gorputza eta odol berotsua...
Hezur batzuk oraindik... Ezpaitzen naikoa!
Hau da gizonakandik dakardan kontua.
Gizateria izan dadin salbatua.
Naizela maisua...
Gauean itsua...
Badator ordua!
Nire erlojua...
Oraindikan aldean baitaukat burua!
Bildots berria, mantsoa;
Jainko bortitza, haltua:
Zuri eskerrak, ordu honetan
dago geugana heldua
joran bizian eduki nahi
genuen salbamentua.

18. Grinaren bitartez

Nire maitalea dago
etzanda lauza-pean.
Bestiarik eztago
ezein duda gabe han.
Garbia da dena
Mirenen gorputzean.
Piztu dadin artean.
Hilotzen artetik
jaiki dadin artean.
Ezta gutiziarik
beraren bihotzean.
Zein ederki egoten den
maitearen aldean!

Joane dago indar gabe
gizonari begira.
Sakon sartu zitzaidan
bihotzean kupira.
Munduko gizonak
manaiakorrak dira.
Esaten diet: Tira!
Ta tiratzen dute.
Hau da nire kadira,
ilunpeko txinparta
guztietan distira.
Zein pozik bihurtzen naizen
orain lore-mendira!

Zer eginen zenuke zuk
hegaztina bazina?
Kabiarik eznuke
ezpanintz hegaztina.
Etxean sarturik
dadukat bake fina.
Etzara pospolina.
Baina bai hamabi
ostoko krabelina.
Nire Miren maiteak
dirudi erregina.
Dotoreki sartu zidan
harenganako mina.

19. Azkenengo besarkada

Mirenen maitasuna daukat haltuago
zerupean dagoen ezein gauza baino.
Munduko gizadia salbaturik dago.
Orain ezta problema, ezta misterio,
Joanerentzako:
Argitan dago oro,
agiri ta klaro.
Eta guretzako
airean ibiltea hegazi da naiko.
Ai, ene Miren inungo!
Zure gorputza nun dago?
Atsegin guzti guztien madre
orijinala, gorago
zure imajina altzatutzeko
palankarikan eztago.

Nire zauri gordinak sendaturik gabe,
handikan jaiki nintzen, zerren ezta nire
gurari nagusia ezergatik ere
bakarrik egotea. Hori da debalde.
Maitea, nun zaude?
Negar egin dute
larrosek, ez barre.
Bestea da beste.
Usainen akorduek hara naramate.
Ez emanikan amore,
oro ukatzen didate.
Hara joateko dagozkit hoek
birtute bigun bi galde,
ta baldin nire hezurrak hausten
bazaizkit ere bai eske.

Ta urrats geldiarekin harantza noa ni,
nire kontra datorren haizean iheri;
pisuarekin ere nago burrukari.
Mirenek itxadoten didala banenki...
Baina etzait hori
gustatzen neroni:
Oraintxe hezur bi
lurrerat erori...
Honela ezin liteke aurrerantza segi!
Eznaiz atzera itzuli;
eztut indarrik eduki.
Altzipresaren kerizpe beltzak
ikusten ditut hurruti:
Haraginoko indarrek izan
beharko dute geiegi!

Eztut orain artean bilatu nun pausa,
bidearen luzea eztakidan luza.
Bidean dagoena ezta nire gauza:
Nire asmoa izan da hobiaren lauza
gogorkiro altza
baldin al banenza
oraintxe gorantza.
Baina hori ezta
hilerrira nakarren zapore garratza.
Haragi gabe, han datza
nire Mirenen gorputza:
Al banintzake nire hezurrak
hezur hoietan deskantsa...!
Hau da benetan eskapu gabe
gora naraman ametsa.

Har-lauzaren azpira nuen begiratu,
emanik lehenbizi erraustsean musu;
Miren nuen honela auspez adoratu;
bere behatz-artea ere milikatu
nai nuen, setatsu;
oin-zolak ukitu,
orpoak laztandu,
belaunak topatu:
Hamabost egunean bertantxe geratu.
Bere ankartea maitatu,
eta gerria berotu;
bere petxua behin egon zen
saihets-ezurrak hotzitu,
ta bere agin zuri-zuriak
hamorru haundiz apurtu.

Harria gora jaso bedi, esan nuen.
Bihotza taupadaka, begiak negarrez.
ETA EZNUEN AURKITU BARRENEAN EZER!
Iharrausi ninduen gertaera harek,
nire buruaren
barnean dolorez.
Hermita hau leher
bezate trumoiek!
Eror bedi lurrera ahalik lasterren!
Aurrerantzean inoiz ez!
Ezpedi torre hau ager
gure memori flakoan, eta
salbatu diren gizonek
Jaungoikoari dieten zorra
paga bezate halaxen.

Eznenkien zer egin, arima nun ortus;
munduan daudelako mila ta bat gorputz;
zapatarikan gabe, guztiak zapalduz
Mirenen bila joan behar dut arneguz.
Hau da nire gurutz
pisuena! Jesus!
Jainko gabe zeruz
zeru gurutzatuz!
Nire desesperantzak esperantza dakus.
Inoiz eznezan bertan utz!,
eskatu nion, humilduz,
lore-mendian, ta baita ere
golgota-mendi hain biluz
haretan. **Eta joan nintzelako**
doakit orain mendekuz.

Bizirik eztuena ezin liteke hil.
Baina honera ezkero eztut hori jakin.
Mirenen heiagora hodeietan dabil.
Nire oroitzapenak barnean dauka min.
Alegre banenbil
batera harekin...
Mundua biribil,
konprenitu-ezin.
Paradisu bat nahi dut, han gaitezen bil!
Egintza bakan hontan, nik
eztakust argibiderik.
Bere krobitxet zuri garbia
lohi zikinez beterik
lurrean datza, eta negarrez
goratu nuen bertatik.

Malda gorea dago nire aurrean, hor.
Gizona nintzenean sei urtean egon
nintzen eremuaren akordua dator
nire gogora, eta intzirinaz diot:
Bazekiat gogoz
hire bide zihor
guztiak nola igon.
Berak berriz diost:
Ausart hadi etorten; begira natzegok.
Hariztiraino heltzekotz
urteak dira hamabost.
Harantza noa, zerren Mirenen
hezurrak dauden mendion,
bide bateko seinale batzuk
harantza naramatenok.

Eznaute enteratu zein den mugarria,
nun bukatuko zaidan hemengo bidea,
zein den Mirenek hartu duen portalea.
Bainan eztit ajola: Nire guraria,
nire gutizia,
laster gozatzea
da nire maitea,
zeinen aurpegia
oihal aberatseon dakardan jarria.
Bera da Salbatorea,
ni Beronika berria.
Birjina Miren dultze gozoa
gurutze bati josia,
zeru berrira igon zenuen:
Hauxe da nire gloria!

Azkenengo mendia: Badakust ortua.
Atzean da betiko arbola sikua.
Bidean utzi dugu gure arrastoa.
Nahi duena gure atzean bijoa!
Banaiz nekatua,
ta doloratua!
Mendia haltua,
gizona flakoa...
Honera datorrena eztela zimua!
Azpian daukat mundua.
Ez goian berriz zerua.
Hezurrik gabe azkar erori
zait orain nire burua:
Aire naizela haize batean
Mirenen bila banoa.

20. Ditxaren bitartez

Besarkada eder batez
orain juntatu gara;
horregatikan nintzen
igan zeruetara.
Gertatu nahi dut
egiazko aldara;
badaukagu nun para.
Ezkontza berri bat
dezakegun prepara.
Haizeak berak dauka
barrenean ikara,
etortzekoa delako
orain gure elizara.

Mundutarrek adoratu
bagaituzte ere, nola
suntsituko da gure
maitasunaren zola?
Oneriztea da
guretzako kaiola,
eta burnizko bola;
bihotz berriotan
dirakien odola,
eta paradisuan
sustraitu den arbola.
Gainerakoak eztigu
ezergatik ajola.

Ahatzi dugu guztia
lurrean genkiena:
Ni ta zu hitzak, eta
gurea ta zuena;
larruko laketa
ta amaren ditiena:
Maria Matxalena,
Maria Birjina;
azpikoa, gorena.
Orain bat gara biok:
Adarra ta txortena.
Arraza berri bateko
animali lehena.

21. Malda goran eginiko gogoeta eroak

Zimiorik zaluienak,
utzi ditu zuhatzak.
Hibaiondoko haretan,
markaturik behatzak.
Arrokartean gizonak,
ematen ditu urratsak.

Orduan heldu zitzaien,
jaunaren aingerua.
Jan zazu amaren ugatza,
eta edan zazu ura.
Hau da biderik onena,
iraungitzeko gula.

Negu beltzeko gauetan,
ezta agertzen izarrik.
Porru gizenak iruntsi,
litzake edozein zerrik.
Horregatikan morroiak,
geratzen dira itzarrik.

Mundu guztiko lurretan,
gizona da nagusi.
Hura baino gauza bortitz,
edo sendoagorik.
Hegoitik iparraldera,
eztu lurrak ikusi.

Legeak debekatu du,
herrian geratzea.
Atzerritarren eskuan,
dirudi jungudeak.
Haur txikiaren odola,
edan duen sugea.

Kartagoko erraútsetan,
etzen aurkitzen urik.
Hango amen ditietan,
esnea baitzen urri.
Haur txikiak hil ziraden,
gosez eta egarriz.

Hori da lege berria,
Josepen ezpainetan.
Ta bere diru guztia,
doako limosnetan.
Ezta badarik egosten,
hemengo dupinetan.

Gauza guztien gainetik,
Jaungoikoa maitatu.
Zure burua bezala,
lagun hurkoa amatu.
Orraziaren hortzekin,
zorririk ez zapaldu.

Eremuko arroketan,
armiarmak kantari.
Hare-arteko ziloan,
eztago denborarik.
Mendietako errekan,
urak daude gaur gazi.

Bide honetako amaian,
eztago mugarririk.
Etxe erdi-erori hau,
munduan den guztirik.
Atzena da aurrerantzean,
eztago ezer bizirik.

Argizagiak astiro,
dabiltza izartegian.
Eguzkirik eztenean,
iluminatzen dira.
Gauza misteriotsuak,
gizonaren begian.

Antzinatikan gizona,
arranoaren alde.
Gizonak bitinak hiltzen,
eta arranoak jaten.
Entzun ditugun pronuak,
izan dira debalde.

«LORAMENDI» OLERKARIA

Bere poesia-lanaren azterketa, bera bizi izan zan garaiari buruz-buru

Askotxo ditugu gure artean olerkarien lanak aintzakotzat artzen ez dituztenak. Euskera bera ere ez dute aintzakotzat artzen ta, jakiña. Baña literatura oroen istoria eta olerkariena, estu-estu korapillaturik arkitu oi ditugu, literatura guzietan zer ikusi sakona baitute olerkariak. Literatura ospetsua duten izkuntzak, olerkariak ere ospetsuak, eta poesiaren pizkundeak, literatura osoaren piztutzea ta sendotzea berekin dakar beti eta nun-nai.

Gogora ezazu, adibidez, Cataluña'n gertatua. Aribau olerkariak egin zuan irrintzi bizkorraren ondoren, olerkariak piztutzen asi ziran, eta aien atzetik, beste era askotako idazle trebeak ere bai. Geroztik dator ango literatura bizi ta ospetsua.

1859'garren urtean olerki-jokuak egiten Barcelona asi-ezkero, katalan-poesia erpiñean ageri zaigu, ta literatura mardul ta sendoaren jabe ditugu gaur katalandarrak.

Gure artean, Manterola ospetsuak egin zizkigun alegiñak lan txalogarri ortan; zerbait onura euskal-literaturari erakarri zionik ezin uka genezake: bear ainbat ez noski, ta ez bere erruz eta obenez, garai artako euskaldunen epelkeri lotsagarriaren zabarkeriagatik baizik.

Geroago, «Euskal-Erriaren Alde»k eta «Euskal-Esnalea»k Gipuzkoa'ko Diputazioaren laguntzaz, urtero egin oi zituzten olerki-sariketak, olerkari onik pranko agertu-azirik.

Alabaña, 1930'garrenean, «Euskaltzaleak» zeritzan elkargoak eman zion euskal-poesiari bultzakadarik aundiena. Euskal-Olerti-egunak geroztik sortu zitzaizkigun, eta baita gure olerkaririk ospatsuenak agerian ipiñi ere. «Loramendi» oien artean, Bedoña'tar Jokin, alegia, 1932'gko. Ernani'ko Olerti-jaietan saritutako olerkari argia.

BERE BIZITZAZ ZERBAIT:

1920'gko. dagonillaren 4'an, zazpi mutiko gipuzkoar, geienak beren gurasoekin, Altsasua'ko geldi-tokian jetsi ziran. Goiz-goizean jeiki, beren amatxoen arpegi negartsuetan musu luze-bero bana utzi-ondoren, bideari eman zioten. Altsasua'ko tren-gelditokian, Aita Kaputxino bat zegoan beren zai, ta lenengo agurrak-egiñaz gero, guziok, erri ortan A. Kaputxinoak duten Ikastetxera abiatu ziran.

Aien artean, amabi urteko mutiko baserritar apala, Arana ta Ezpeleta'tar Juantxo dator. Bedoña'ko Mendibitsu baserrian jaioa da ta ango erreka kantarien otsak eta sasietako billigarruen txinta eztiak kolkoan gordeta dakarzki.

Ez daki erderaz txintik ere. Aren erderazko asierako lanak, parragarriak omen ziran. Urte askotan euki zituan berak maiteki gordeta oroigarritzat. Esaera auexen antzekoak genituan: «Asno tranquilidad comiendo hierba»; «ratón oreja escondió», ta abar. Jakiña: euskerazko itz-joskera, erdal itzez.

Alabaña, ikustekoak dira andik bost urtera egin oi zituan idaz-lanak. Badira urtetxo batzuek esku-artean erabilli nituala ta arriturik laga niñuten. Idazle trebearen aztarna berekin zuten. Erderaz ere literaturagille jatorra ta idazle bikaña izango genduan noski, gure Loramendi langillea.

Ez zitzaion, orratio, ari, gure arteko beste askotxori, zoritxarrez gertatu oi zaietena, gertatu: alegia, erdera ikasi ta euskera aztu edo txokoratu.

Bost urte egin zituan Altsasua'n; gero Sangosa'ra jo zuan nobiziadua egitera. Ementxe asiera eman omen zion bertsoak egiteari: euskal-bertso batzuek Ama Birjiña'ri, beintzat, egin omen zizkion, gaur iñun arkitzen ez badira ere.

Pilosofiko ikaskuntzak, Ondarrabi'n bi urtez, eta urte betez Lizarra'n egin zituan. Ondarrabi'n ikasleak urtero —garai artan, beintzat—, done Bonabenturaren omenez, egin oi zuten literatura-batzaldian azaldu zuan lenengoz burua Loramendi'k, euskal-olerkari antzean, noski. Bertso auek 1928'gko. Uztaillean egin zituan: **Guadalupe-bidean** dute izena; ezer gutxi balio zuten. Bertsolari erdi-landu baten bertsoak dirudite. Baña, emen ipintzea merezi dute, gure olerkari gazteak andik lau urtera egin zuan aurrerapen galanta ikusi dezagun:

«Guadalupe-tontor artara
igo nintzan egunian,
baserri txuri asko ikusi
nituben bide danian.
Zugaitzak ere lorez betiak
soro-zelayetan,
elurra egin balu bezela
erruz aurreko gabetan.

Eguzkiaren printzak alaitzen
zituben toki guztiak:
zeñen ederki diz diz egiten
zuten belartxo buztiak!
Oso urrutira ematen zizkan
kolore ikusgarriak
ziruditela danak zaudela
gañetik urrez jantziak.

Diamantezko koroi eder bat
ematen zuben soruak,
eta aldare argiz betiak
apaindutako basuak,
aingeru polit miragarriak
egazti edo usuak.
Gure zelayak orrela jarri
zizkigun bai Jaungoikuak!

Oraindikan oroitutzen naiz
eguzki txit indartsuak
arkaitz tartetik nola azaldu
zituben goiko lañuak,
eta gañera zabaldu ere
likurta oso gozuak.
Usai oberik ezin zeikian
eman baratz ta soruak.

Zuaitz gañetan entzuten ziran
abesti alaigarriak,
goizetik arrats ixildu gabe
arkitzen ziran txoriak,

ta mitxeletak lorerik lore
egan zebiltzan guziak,
t'itxas aldetik etortzen ziran
miragarrizko egaztiak.

Artalde eder oso galanta
zabaldua belardian,
bildots potxolo jayo berriak
amaren aldamenian,
mutil sendo bat txakur batekin
zaitutzen danen aurrian,
ta aiton txit zar bat bere pipakin
arbolaren itzalian.

Ondarrabi'ko Ama maitea
mendi biren tartian,
goroldioz ta untzez betia
itxura eder ederrian...
Beste aldian ikusten dira
Bidasoa'ko ibayak,
Irun, Beobi Ondarrabia
apaintasunez jantziak.

Ondarrabi'ko mendiak beti
gogoratuko zaizkit neri,
edo bestela egon biarko
diat burutikan gaizki...».

Bertsuok 1928'garren urtean egin zituan. Lau urtean gure olerkari azkarrak egin zuan aurrerapena, arrigarria da gero. Izan ere, egunsentiko argi-printza meetatik, eguardiko argitasunerañoko aldea badago bertso auetatik bere azken--olerkietara.

Iñundik ere, bertso apal auek, gure Bedoña'ko olerkari gaztearen bizitzari buruz zer-ikusi aundikoak ditugu: oiek zirala bide euskal-olerkietarako gogoa piztu baizitzaion. Ondarrabi'n, beraz, olerkari antzo, jaio zitzaigula esan genezake. Antxe, nonbait, itxasoari ta ango bazter txamangarriei begira, olerkari zala bere buruari antz-eman zion, eta antxe, bere irudimen bizia irudi ederrez, kolore txanbeliñez, eta bere biotz xamurra sentipen ezti ta sakonez josi zitzaizkion lenen-lenengoz.

Ango irakasle batzuk ere, aren gaitasuna ikusiz eta goraño igotzeko lain zala igarriz, euskal-olerkietara maiteki bultzatu zuten, eta laguntzalle izan zituan. Elduayen'dar Tomas aita ereslari ta musikalari trebea batez ere laguntzalle jatorra izan zuan. Etzitzaion sekulan Bedoña gazteari aztu irakasle oni zion zorra. Argatik gerora, «Aitormendi'ko Jaia» deritzan eta amaitu gabe laga zigun poematxoa, ari eskeiñi zion, esker-onez.

1928'tik 1930'raño, batez ere Arrese'tar Emeteri, Jauregi ta Lizardi'ren euskal-olerkiak irakurtzeari eman zion, garai ortan **Txindor** Arrese'rena eta Jauregi'ren **Biozkadak** argitaratu baitziran. Lizardi'ren **Biotz-begietan,** 1932'an argitaratu zan, baño aren olerkiak naiko ezagunak ziran orduan ere.

Garai onetako olerkietan aurrerapen gaitza ageri da: bertsoa, txukun ta jator darabil, itz alperrik gabe. Oraindik geroko mamitasunik etzaio ageri, baña bai irudimen bizia ta biotzondo samurra. Lirikarako gauza zala, azaltzen digu argi asko. Emen jarriko dizut adibidez, garai ontako olerkitxo bat, zeorrek, irakurle, epaia eman dezaiozun. Ona emen:

¡Ardi gaxoa...!

(ERRAVI sicut ovis, quea periit).

Ibarrez-ibar, mendirik-mendi
Artzai Onaren ondoren
¡zeñen gozoki, zeñen zoruntsu,
zeñen gentzaro nenbillen!
Abesti lagun, atseginkorrak
Artzaiak zizkun abesten,
ibargi naro, loretsuetan
genbiltzanean bazkatzen.
Egun batean, lilluratua

utzirik ai! artaldea,
aldendu nintzan arturik ala
bear ez nuen bidea,
pozkai ondoren urrundu nintzan
irudipenez betea,
ludirik barna zoro ninjoan
iritxi naian obea.

¡Doakabea!... ez nekin bela
iges urak zekarrena,
itxumusturik ez nun nabaitu
sartu zidaten eztena...
Urrin zerion bide zabala
lenen Ibilli nuena,
arantza zorrotz, otez josia
zorakerien azkena...

Lizunkerizko lore tartean
txoraturik nebillela,
ixil ixilik irten zitzaidan
iñar-tximista bezela
otso beltz, aundi, amorratua
erakutsirik orrela
begi zartatsu, ao zorrotza
odol bitsa zeriola.

¡Ordu samiña!... Gogortu nintzan...
Iges egin nai atzera!...
Zaunkaka berriz nere gain beti
otso goseti ankerra...
Larri nengoen... indarrak aitu...
ezin nuen jo aurrera...
ordu berean ojuka ikusi
larriro Artzai ber-bera.

Zorigaiztoko aztar ondoren,
ardi guziak baturik,
estu zetorren menditik bera
txistu ta oju egiñik.
Ibar-mendiak aztertu zitun
malko samiñez bustirik;
etsai beltzaren mendean larri
idoro nindun azkenik.

Il-zori artan ikustean ni
egin zun txistu zolia...
nere gañetik uxatu zedin
otso zital bigurria.
Arin ta laster urbil zitzaidan...
Laztandu nindun guztia...
Ezti tantoaz osatu zidan
biotzan nuen zauria.

Indartu nindun jardun gozoaz...
gero sorbaldan jarririk
eraman nindun ardi tartera
laztan beroak emanik...
Eznaiz geroztik inoiz aldendu
Artzai Onaren esitik...
¡¡Ardi galduak!! ikasi Nor dan,
Jesus Artzaia nigandik.

Loramendi (O. M. C.)

Urte bi auetan irurogeien bat olerki egin omen zituan, erlijio gaikoak geienak, guziak Lizarra'n, Naparrua'ko Estella'n alegia, egiñak. Etzan orratio lo egon bi urte oietan. Egin zuan lan gogotik. Ea egunero olerkien bat egiten omen zuan-eta.

Idazteko erreztasuna iritxi nai zuan, noski; argatik aritu zan idatzi ta idatzi aspertzeke. Al zuan itz-neurturik ederrenetan bere buruko gogoetak ixurtzen, eta bere biotzeko sentimenak iraulitzen. Olerkari ospetsua izateko, izan ere, ezbaita olerkari jaiotzea aski; beste olerkari trebeen lanak aztertu ta ikastea ere, bearrezkoa da.

Esan dizut leen, euskal-olerkarietan nortzuk artu zituan bere maisutzat eta ikasbidetzat; erderazkoetan, berriz, Fernan Caballero ta Gabriel y Galán izan zituan, batez ere garai ontan, irakasle. Azken-olerkari ospetsu onen kutsua badu bertsoetan gure Loramendi'k: itz-neurtu apañak, ederki borobilduak eta oparotsuak, Salamanca'ko olerkariaren antzekoak dituzu guziak.

1930'gko. dagonillean, Iruña'ko Ikastetxera Teologia ikastera jo zuan. Bere libururik mamiena Biblia izan zuan, orduan ta gerora il zitzaigun arteraño. Gañera, Fray Juan de los Angeles, Verdaguer, Martínez Sierra ta Francis Jammes, urte oietako bere lagunik kutunenak; euskal-idazleetan, berriz, leen aipatutakoaz gañera, Lardizabal, Mendiburu ta Orixe. Azken-aldian, Lizardi ta Fray Luis de Leon. Ikusten dezunez, ez zijoan bide okerretik. Ondo baño obeto zuzenduta zijoan erpiñera iristeko.

Apaiz-ikaskuntzak amaitu-ondoren, itz-lauz eta itz-neurtuz, idazteari ekiteko gar bizia zeukan. Euskera maite-maite zuan, eta gure izkera gaxo au jasotzeko irrikitzen zegoan.

Azken-aldiko bere idaz-lanak, mamitsuak eta irudi ezti ta sentimen bizikoak ditugu. Emen banaka batzuk ipintzea izango degu egokiena, leen irakurri dezun artatik, oraingo auetara dagoan aldea, begiz-begi, ikusi dezazun. Ta zerorrek, irakurle orrek, igarriko diozu, nere aipamen eta gorapenik gabe, noraño igoko zitzaigun gure idazle argi au, Jaungoikoak beste urte mordoxka bateko bizia eman balio. Igali mardulak ematen asi, ta elduenak emateko zala, eraman baitzigun Goiko Jaunak Beregana.

Ona, **Otoi, adiskide...!** deritzan olerki txiki pollita, benetan. Xamurra, osoa, ta borobilla, gure Lizardi aundiaren jarioaz eta tankeraz igurtzia. Giñartsuagoa degu Lizardi oraindik ere, baña aren idaz-tankeraren kutsua nabaritzen diot, nik beintzat olerkitxo oni:

¡Otoi, adiskide...!

Ill intzan Ill i ere...! Eraman induten...
Ire itzalak ordea ni baitan dik lur-
Eta abia bai intzan [men...
laño ta eurite...
beste alde ortan
bai al duk aterpe...?

Sukarretan aittu zan Uda, jaun gorria
otzikaran utzirik seme negartia...

Aurrari pa eta pa!... sukaldean ama
min-ariaz ari da josten min-oiala...

—Esan, ama, esan:
non degu aitatxo...?
Aspaldi jun baitzan,
laister da itzuliko...?—

Sutu zaio amari malkoz aurpegia
ta alderaka ustutzen du biotz-intziria...

Lotzen du besoetan laztanka umetxoa
ta ixillean txukatuz begi-jarioa,
—Zer diozu, seme:
non degun aitatxo...?
Aitatxo, bai...! zure
Aberrian dago...!—
Ta artean txikiari eskua altxaturik
—antxe goyan—diotsa—bitxiz burestu-
[rik...

Geroztik iñork aitaz galdetzen badio,
belaxen eskutxoaz aurrak darantzuio.

Ta aingeru batek itaz bai zidak gaur
[esan
nigandik aldatzean noruntza jo uan...
Otoi, adixkide,
otoi, nere alde...!

Bedoña'r Joakin A.
o. m. cap.
(Iruña'n-1931'ko XI'ean.)

Onen-ostean, **Alleluia!** izenez **Zeruko Argia'n** argitaratu zuana emen azaltzea, bidezkoa deritzat; bidezkoa soil-soillik ez-baña bearrezkoa gañera, Loramendi olerkariaren olerki-balioaz jabetu nai badezu. Berriro esan gabe, auxe esan bearrean naukazu: gerora aipatuko dizkitzudan olerkiak ere, **Zeruko Argia** illerokoan argitaratuak dituzula, 1931 ta 1932'ko urteetan batez ere.

Alleluia! auxe, olerki kementsua dezu, bai mamiz eta baita azalez ere. Badu, nere ustez, itz-neurtuen tankeran eta doñu ederrean, Gaspar Núñez de Arce, olerkari Valladolid'arraren alako antzatxo bat, eta Arrese ta Beitia Bizkaitarraren igurtzia ere. Nola-nai-dala, irudipen aberatsa, ta biotz goria, ta adimen ernea agertzen dizkigu, beintzat, Loramendi olerkariak. Jesus'ek illen artetik pizturik, kantatu zuan garaipen-kanta dirudi.

Ona emen, eztiro-eztiro irakurri dezazun:

¡ Alleluia !

Oztin damait ortzeak, eguzkiak urre
ta argi loreen erdi piztu naiz garaille.
Atsegingai dagozkit zeru ta lur-ama
esku naramatela poz-biderik barna.

Ikus beza buruan, arantza orde, izpi
ta ubelune bakoitza zorion-iturri.
Ikus beza bularra dirdian urrinka,
ene uso larriei kabia eskeinka.

Tinka begiz jo naute mimiko-guriak
ta agur-pipirri dauzkat leyaka txoriak
Nir-ñir dakarkit intzak, jantzkialo-
[reak
ta itzul-inguru dabiltz aingeru-taldeak...

Ta aittu bazidan bein-bat miñez min
[bizitza,
ene baitan nuen Nik bizitzaren giltza.
Ta argiarekin batez jeiki naiz garaille
sortitz oro detala lagun ta pozkille...

Jeiki bitez erriak amorru beltz ga-
[inka
ta arnaseaz ez beste or dira lorrinka!
Zuzen bedi berriren onat borreroa
ta ikus beza nora dan bere gorrotoa!

Erraiñu-lore dago goyan gurutzea
besoetan dularik pizkunde-lorea...
Poztu bitez gallurrak, kanta beza
[beak
ta abestien otsera betoz maitaleak!

Betoz, itzali da ta ekaitz-erasoa
ta ageri da poztari uztargi gozoa...
Ekaitzetik jayo naiz ibaika diztia,
arantzatik oi dan lez arrosa zuria.

Ezta lurtarrarentzat beste poz-bide-
[rik
elordi latza zear abitzea baizik.
Malko-ttanttan ezpada eztio emango
uztaiak odeiari ez muñ ta ez margo.

Kalbariotik nator urrez buresturik,
udalena bezela negu gordiñetik...

Ez bedi, ba, beldurtu ene maitalea
laño badakus noizpait biotz-mugaldea.

Beti oi du ekaitzak irripar-lorea
ta ara Ni gogoaren eguzki betea...
Eskutuki odeian erne ta zai nago
zenbat durun ekaitzak, ainbat urbi-
[llago.

Ta iñoiz lertuko balitz eztanda-ma-
[rruan
dir-dir nagerkioke saria eskuan.

Loramendi O. M. C.

Baditu beste iru olerki motx eta pollit, Verdaguer'ek egin zituan antzekoak: irudiak bearbada ezagunak dituztela esango didazu. Ta egia da: baño ain daude ederki antolatu ta tajutuak, egizko olerkari baten lanak dirala, ezin ukatuko iñork.

Antzekia, Usoekin Gora ta **Erletxoak** dute izena; bat bestearen-ondoren dijoazkitzu:

Antzekia

Lore begian kunkurrunkun
erle gorriztak burrun-burrun:
zer ote dio, zer lioke,
lore-beraren nini-lore;
dantzatu ala barruratu,
egoak jo-ta miazkatu...,
zer ote dio, zer esango
loretxoari kukuriko?
Erle gorrizta: zer diozu
lore begian marmaritsu?
Ilargiaren kukupean
urretxindorrak udastean:
zer ote dio, zer lioke,
txiruliruka gaua beste;
sarats itzalen kulunera
ta ibai-erroten dunbotsera...,
zer ote dio, zer esango
ilargiari, aopeko?
Urretxindorra: zer diozu
ilargipean txiruliru?

Zer diotsudan, Ama, Zuri,
lore ta Ilargi zeran orri...?

Erletxoa naiz, lorea zu:
zer diotsudan badakizu!
Ta illargitara karnaba lez,
zugana nago maite miñez...

Ilargia zu, ni karnaba...
bikote ederra... jakiña, ba!...

Loramendi O. M. C.

Usoekin gora

Eleiz-buruan dabiltz goizetik gabera
usotxoak egaka gurutzez goi-bera.
Eguzkira zillarra dixurite egoak
ta aizeaz jolastean esne-pipiltxoak.
¡Nork al lezazken,
elur-usoen
antzera, goyak garaitu!

¡Nork, an... lurrean
loya uztean
gurutz saindua laztandu!...
Erakus zaidazute, zuek usotxoak,
erakus zaidazute zabaltzen egoak.
Ta alkarrekin udaran joaz gurutzera
negutean zerurontz aldatuko gera.

Iruña-10-1-32 **Loramendi**

Onatx, erletxoak

Muñorantza doa Josutxo, kantari,
belarritan zintzil bi-iruna gerezi.
Mutil xalogorik!... Zeren billa ote?
Kilkerrak, marmari, agur, dagiote.
Baiño... oar!: bêko eultzaren burrunba!
Erle danak, leitsu, ager-ixkutuka...
Zer gerta zaie, ba, Joseph-en erleai?
Lore bat ikusi muñora, poz-dirdai...
Egalda zaio bat: ezarri da tentte
ezpain-marrubian, —arrosa arek uste.—
Zizta du ta, ene! odol-tanta atera
kutuan, miztuta, berriz egatu da.
Egun gutxi buru, Joseph ezti billa...
Baiño... zer da an? Jesus! Eulzeko is-
[kanbilla!

Erle danak itsu, zoro, norabage
ninitik zerbaitek autsiko bailie.
Ta abaraska-urrean, izarño bezala,
urrin-yarioka, ñir-ñir, odol-ttantta!
—Arrigarri bai au!...-ta artuz abaraska
poz-ttuttuli yo du Andra Mirengana.
Baiña Andra Miren-en sen zorrotz-
[argia!
Ikusi orduko barrendu guzia...
Josutxo deitu du; laztan dio gero
ta aberaska bera yaten eman dio...

Sagara-muñoan Josu gorde zaigu:
Onatx, Erletxoak, Lore ori miztu!

Bedoña'r Joakin An.
(O. M. C.)

Ez al-derizkiozu, irakurle, Verdaguer'en **Idilis y Cants Mistichs**'etan lotsakizunik gabe sartu litezkeala?

Jarrai dezadan bere olerkirik baliotsuenak aipatzen eta epaitzen: Aipagarri deritzait, Aita San Prantzizko'ren Loretxoetako gertakarietatik gaia arturik, egin zigun olerki bizi, poxpoliña. Xoxoak bere kabian sugea sartzen ikusi du; xoxo-kumeak an ditu-ta, or dabil txioka xoxo mindua, adarrik-adar, naigabez josirik... Baña, ara nondik Aita Prantzizko santuak xoxo-amaren pio zorrotzak adituz, kabitik suge zitala uxatzen duan. Irakurri ezazu, ta bere arintasun ta guzi, atsegin izango zaizulakoan nago.

"Maitasuna ez da maitatua"

Udazkena zan. Odol tantozko
ezti-margoa
eguzki-galdak zixurin.
Ibar-gangarrak doi-doi bekozten...
Arrats-giroa
atsegiñaren atsegin
Sartalde-goian izpi trinkoak
jolas zegiten.
Ibai-ertzetan sorgin-ardoak
ditu moxkortzen
sasi-ama ta xulufrin.
Muñoan ziarduten aspaldi poxpoliñak;
baratzean txoriak txirri-otska lertzen.
Ostendu zan euzkia, «urrezko talo
[ederra!»
lurriñez sagardia zuela estaltzen.
Ta amilka daror mendi-kolkotik
itur-aria:
basauntzen mama gozoa.
Untzak lanbrotuz iges dirudi
suge lodia...
gorde-ageriz lepoa.
Ta abeska poil-poil, zurrunbilotsu,
mur-mur ta zotin,
bere betiko leloa,
Astintzen ditu sarats itunak
¡ta arindu ezin
negarka zegon xoxoa!
Txioka dabil xoxo mindua
adarrik-adar:
zerbait zekusan sasian...;
lotan zetzala pizti zarren bat
narraska zear,
lapurki sartu kabian.
Ega motxean minduki dagi
pir-pir samiñak,
kulunka sarats-gerrian.
Iruntsi naian badabiltz nunbait
pizti muskiñak...,
badakus zerbait azpian.
Maitasuna gañezka naigabea tontorka
ara or Asistarra, Goi-gotzon galdua.
Sukarretan biotza, urraturik bularra,
zauriak gori-gori, ai! odolustua...
«Ene! nere Jaun Ona!—oyu aundiz
[ziotzan—
ene! maitasuna iñon ez da maitatua!»
Xamurtu zuten xoxo-amaren
pio zorrotzak;
biozti urbil zitzaion...
«¿Zer dek negarka, xoxo anaia?
¿Jarrai mirotzak?...
Ator niganontz»—zesaion.
«¿Kabi barrendik etsai maltzurrak
atera al aute?...»
—berriro galdetu zion.—
Esku ertzera ¡parra!... egatuz
kiñuak tarte,
baietz, baietz!... zerantzuion.
«Egia diok, beraz—orrazturik ziotsan—
Ire lagun nauk, bada. ¿Noruntz dek
[kabia?»
¡Purrust!... ega batean sasi-pean sar-
[turik
adierazi zion nun zegon etsai.
¡Ura etsai!... So dagi aruntz
¡ta arri biurtu!:
kabian suge zitala!
Ume tartean biribildurik
guzien buru,
zai zeukan kankar zabala.
Amorru biziz odol-usmoka
zegoen garaiz,
limurtuz larru azala,
«¡Suge anaia, suge anaia!,
¿nolaz ari aiz
itotzen ume makala?»
Eldu zion lepotik, sumindurik Pran-
[tziskok,
astindu zuan zùmez, urratuz eztena.
Ta irristada luzean, lerdea zeriola
eskuta zan txistuka sasien barrena.

Moko xabalik ume minberak
jan eske zeuden:
eldu zitzaien Prantzisko...
Ta amari batez beatz-mamiaz
eman zizkien
igortzi leun ta jan naiko.

Maitasuna gañezka, naigabea tontorka
biurtu da negarrez Serapin mindua,
«Ene! nere Jaun Ona!: suge gaiztoak
[nunai,
¡Maitasuna ez da-ta guztiz maitatua!»

Loramendi, (O. M. Cap.)

BERE OLERKIRIK ONENAK:

Zeruko Argia'n argitaratu zituanetan, baditu ogeien bat, onek bezela aukera litezkeanak: guziak emen ez nezazke ipiñi, baña, batzuk aitatu gabe ez ditut utzi nai. Bere irudimenaren narotasuna ta biotzaren sentimendu joria, gutxi--asko guzietan nabari dira. Baña, nere ustez, **Illargitara** deritzaion olerkian asi zitzaigun bi doai oiek nabarmen azaltzen. Illargiak itsasoko olatuetan sortzen dituan argi-dantzak lilluratu dute gure olerkaria, ta Maria, Ama ta Birjiña, ekarri diote gogora. Illargi ta itsasoaren edertasun eta sakonak piztu diote irudimen-argia ta sutu biotz-garra, bertso erestsu ta zolietan, irudi sorgiñez jantziz, sentipen ezti-goxoak iraulitzeko. «Illargi bete, adar-urdiña, lurrun--irule, zillar-jozkiña...» diotsa illargiari: itsasoa, berriz, «garden azala, diztiz ondarra, garbi azpia, gaña leyarra...» ikusten du. Olerki au, ziñez, itzetan aberats, iruditan islatsu ta sentipenean xamur agertzen digu. «Pulchra ut luna» eliz--esaeraren azalpen eder bat degu.

Badu beste bat, **Guztiz Ederra** izenekoa, lengoaren antzeko irudiz ta biotz--sentipenez: «Tota pulchra» eleiz-eresiaren oiartzun ameslaria dirudi. Au ere Loramendi'ren olerki onenetakotzat jo dezakegu.

Bietatik, **Illargitara** deritzana jarriko dizut emen, poliki-poliki irakurriz, ausnartu dezazun:

Illargitara

Pulchra ut luna...

Nolaz diteken, nongo gertari
iges dagio adimenari...
Ta alaz ta ere,
egirik bada,
eskutu auxe
erraiñukada...
¡Sortzetik, Miren, Erruge zera,
Ama ta Birjin biak batera!

Kopet-mamia gotargiz arro,
sakona dazaut, naizenez txarro...

Zenbat dagidan
ega gorago,
ainbat, zalantzan,
dakust arago,
¡Ta ala badere, Erruge zera,
Ama ta Birjin biak batera!

Arrats-zoriak illuna dakar,
esna-eraziz ontz ta xaguxar...
Oro geldi da.
Otsik iñun ez...

Sorgin-egada
guzion gañez...
Sorgiñak berak txistua jo du
ta illargi-izarrak izeki ditu...

Izarrak lagun, illunak etsai,
itsas-ertzean nago egi zai.
Illargi bete,
adar urdiña,
lurrun-irule,
zillar-joskiña...
itsas-auspoak darakar zikor...
ta izar-erdian apurka dator.

Illargitara... oro geldi da,
marmarka-itsaso... neurriz-taupada
Pizti-txirrika
ulu eziñik...
Buru-ausika
gogait egiñik,
barren-odeiak noiz ta beltzago,
itsas-orpoan nasturik nago.

Illargi mea dagit musuka,
ugin-gezalak aitz-atzimurka...
¡Ta itsas-altzoan
musu borobil...!
¡Noruntz dijoan
aruntz darabil...!
Nondik dan ori... asege nago...
¡Uretan izan geroz geiago!

Ugin-barrenak argiz-josiak,
itsas-osiñan par illargiak.
¡Itsas-erraian
par illargiak,
gira nasian
kiñu pitxiak...!
¡Garden azala, diztiz ondarra,
garbi azpia, gaña leyarra...!

Illargiaren biko bizia,
izar txurien kiñu berria...!
Ugin-azala
urratu barik,
barren-itzala
urrez jantzirik...,
be-bean dabiltz parre ta mugiz,
legor-bustian batera biziz...

O Miren eder!, Erruge zera,
Ama ta Birjin izar antzera!
Irudi dezu
itsas-kolkoa...
¡Ta askatu degu
korapilloa...!
¡Nondik ta nolan, argitara da,
ezkutua gaur erraiñukada...!

Itsas-errota kanta-kantari,
ta izar-ugiñak elkar-dantzari...

Loramendi (O. M. C.)

Loramendi itz-neurtuetan jaio ta trebea bazan, itz-lauez ere jator agertu zitzaigun. Zeruko Argia'n asi zitzaigun **Aletxoak** izenez lan arin-politak argitaratzen; bere bizitzaldiaren azken-aldean asi baitzan, jarraitzeko biderik etzion gaxoari eriotzak utzi, ta bere trebetasunaren tanto batzuk besterik ez ditugu. Alare aren idazteko erreztasun eta dotoretasuna igarri ditzazkegu. Ona, adibidez, nik gordeta neuzkan bi auexek:

¡Agur tontorrak!

«Amonak esan zidan. Aintxinetako garai zarrean miragarrizko gertaerak arritu omen zuten Euskalerria. Uso antzeko talde zuri bat ageri omen zan ipar-mu-

gatik onuntza; itsasoz beste aldetik edo, ez jakin nondik; baña biotz-begien zoragarri omen zan. Eta geldiro-geldiro, zerbaiteren billa balebil bezela, Euskalerriaren gain bira batzuek egin ta gero, zerugoitik jetxi zitzaion odei me-zurizka batean bilduki, Aitzkorri-aldean pittinka-pittinka ixkutatu omen zan, zorioneko atsegin-itxuretan... Amonak esan zidan.

Ontatik luze aundi gabe, Orrilleko goiz-urratze batez, era berian talde uraxe berriren berriz agertu omen zan; baña lenbizikoan baño lilluragarriago bear bada. Oraingoan, bada, argi eta eder zerion Norbait, ots-bigun eta eresi zolien erdi, ba omen zekarten... Goiz artan larrera bide zeuden artzaiñoak, makil-buruetan ukabillak tinkatuki, begi eta belarri zegozkien. Eta talde zuria, bitarte, ba omen zijoan, ba omen zijoan, urretxindor-sailla bezela kantari, elur-begiak bezin dirdari, usotxoak lez egari. Eta Aloña-mendira zanean, tink egin omen zuan... Amonak esan zidan.

Zer litzaken ori? Ene amonak esango: leen-aldiko agerpen ura, Zeruko Erregiñak bere egontoki billa bidalitako aingeru-taldea besterik etzan. Eta lurbira osoa, astertu-ala astertu ta ere, iñon ez arkitu, emen, gure Euskalerri maite ontan bezelako egontoki eder eta maitale zintzorik. Eta atseginka ta poztari, lur ontara jetxi zedilla iragartzera itzuli zitzaioten... Bigarrengoan, ordea, aingeru beraietaz inguraturik, Andre Maria etorri zitzaigun, euskaldunon zaintzalle eta bitarteko izatera.

Jaso euskalduna, zure begiak gure tontor-goyetara eta ikusi zenbaterañoko maitasuna izan digun Zeruko Amak eta nolako zaletasun eta jayeraz erantzun diogun gaurdaño euskotarrok. Begira: tontor geyenak bere Irudiz ornituak dagerz. Agur, Ama eta agur, tontorrak! **Loramendi An.**»

¡Lo ta amets...!

«Negua. Zabal-zabal bere ego beltzak. Elurra goyan, pean izotza. Bero eske edo, ipar mea ateai bultzaka diardu, zorioneko ¡fii...! luze-beldurtia marat ertzetan atereaz... Etxe-arpegiko tella-aoetatik zintzillika, izugarrizko izotz-txi kordak dagertzi, malko zuria tarteka dariotela... Ate aurrean bi ollo otzez kir kildu-ta... Eta barruan?...

Barruan...! Su-bazterrean exeri-ta, Semetxoa besoetan duala, A. Birjiña josten ari da... Sutan lapikotxo bat esne poil-poilka bits arro-txuria goraka dagerkiola... Aur-abarka gañean katutxoa lo-zurrunga... Eta atea bitarte, ixil-ixil, Jose zoriontsua zurgintzan...

Jesus Aurrak negarrari damaio; eta A. Birjiñak, biotzean estutuz, igortzika lo pixkat egiteko dasayo, onezkero nekatua bai-dagola-ta... Eta geldi-geldi, kulun-zabunean erabiliz, lo eragiten dio aopean kantari:

Ene kutuna, lo ta lo.
Sagar ximela emango.
Mamorro beltza baletor,
burruntziaz banaiz ni nor...
Nere biotza zain dago.

Ene kutuna, lo ta lo
Soñekotxoa egingo.
Zakurrak zaunga badagi,
etzaitezela, zu itzarri...
Makillarekin nik joko.

Ene kutuna, lo ta lo.
Nere biotza zain dago...

Eta Jainko txikiak, altzoan erdi gorderik, lo dagi: ¡lo ta amets...! Lo... amaren magalean. Amets... amaren biotzean... Miren Ederra eziñez dago... Jose Z. atean kukuka... **Loramendi A.**»

Ez det uste bi auxek besterik argitaratu zituanik. Orrelako idaz-lanetarako esku berezia zuala adi-erazteko aña, badira, beintzat. Ipuiñ pollitik idatziko zizkigun, noski baño noskiago, gerora, bizia ta osasuna Jaunak eman balizkio.

Bi poematxo ere utzi zizkigun bukatu gabe ta zirriborroan idatzirik, orraztu ta bukatzeko asmoz: **Txinparta-eresia** ta **Aitormendiko Jaia.** Azkeneko au, aurrekoa baño landuago bai, baña bukatu gabe, biok.

Bukatuta laga zizkigunak bi ditugu: **Arrantzalien Arrats-otoitza** ta **Barruntza-leyoan.** Lenengoa, 1931'an argitaratutako «Eusko-Olerkiak» zeritzan bigarren liburuan agertu zan; besteak, Ernani'ko Eusko-Olerki-Eguneko sari nagusia irabazi zuan.

Beste olerkirik laga ez baligu ere, bi auxek naikoak genituan, olerkari Bedoñatarraren izenaz, euskal-literaturan, euskerak dirauan-artean oroitzeko.

Arrantzalien Arrats-otoitza olerkari gaztetxo baten lana dala, aisa somatzen da; baña, ez lezake iñork esan balio gutxikoa danik. Badute bertso auek lirika-sua, ta irudi ederrik pranko, ta alako adore berezi bat ere. Euskal-arrantzale jatorrak eupatzeko kanta oldartsua degu. Itxasoak eta itxas-gizonak biotz-barnean, gaztetxo zala, laga zioten zirrara, bertso borobil eta erestsuetan jarri digu. Zatika-zatika eratutako poematxoa izan-arren,guzia lokarri bizi batez lotua ageri zaigu. Ondarrabi'ko komentuan ikasle zala, noski, bururatu zitzaion olerki au, geroago tajutua ta egiña badago ere. Bertsoetako trebetasun arrigarria agertzen digu ta irudimen berezia, benetan. Euskal-olerki gutxi, oso gutxi gero, izango ditugu, oni, irudimen-joritasunean emango dionik.

Baña, askoz ere lan osoagoa ta baliotsuagoa degu **Barruntza-leyoan,** Ernani'ko Eusko-Olerti-jaietan sari nagusia irabazi zuan olerkia.

Alabaña, ontaz jarduten asi baño len, **Arrantzalien Arrats-otoitza**'ren ahapaldi batzuk emen ipintzea ondo litzakeala, deritzait, irakurleak berak nik esandakoa sendotu dezan. Ona, **Vesperalia** deritzaion zatia:

«Itsas-ertzean illunabarra
loretzen-dager arkaitz-leyarra...
Gallurrik-gallur
koroi-antzikur,
odeiaz lore, geziaz itur,
oeratzen da eguzki-garra.

Arrats gozoa. Giro epela.
Itsas neurgea urre bezela...
Ugin kixkurrak,
lenaz ziurrak,
orain pizkortzen gauan beldurrak,
ixil ereinduz itzal motela.

Mendi-txuntxurra baño arago,
zeinbat jeixten dan, ainbat gorago,
betarte biak,
zorrotz josiak,
euzki zarraren azken-izpiak
arrano beltza edari dago.

Urruti dakust jolas betean
ur-mendi saillen apar xarean
kayu mordo bi...
Ugiñak sarri
ur-azalean borboil, jostari,
negar dagite lurraz lertzean...

Arrats gozoa. Giro epela.
Itsas neurgea urre bezela.
Gañez osiña
geituz urdiña...
zillarren gainka labe irakiña,
ta artega nondik lurrun txapela.»

Ezin ukatu, bertso-neurri zailtsua aukeratu zuala, gogoetak eta bulkoak, argi ta garbi, azaltzeko; argatik, nere ustez, ulertzeko ain erraza ez izatea, ortik datorkio. Aitortu bearra degu, ostera, itz-neurturik zaillenak, trebeki tajutzen, mutilla genduela Loramendi.

Orain, **Barruntza-leyoan** aztertu dezagun. Goitarragoa degu au, leengokoaren aldean. Gaia, Jainkozko utsa du: Maitea bere barne-muñean ikusirik, Arekin dituan maitezko artu-emanak biziki adierazi. Orretarako, mota askotako irudietara jotzen digu olerkariak bere baitan nabaritzen duan zoriona azaldu naiean:

«Nora noake, maitasun eske, neregan baitet
ederrik oro berezko ditun Maitalea?».

Argatik, barnera biltzen da, ta barnean daukan Maiteari zuzentzen dizkio egundoko biozketa zoragarri, gogoeta ta irudi eder; biotz-arnasa geituz dijoakio, ta bere kanta, geroz ta zoliago ta biotz-ixurtze goxoagoz gantzutua ageri zaigu azkeneraño.

Jainko-maitasunez jositako biotz maite-mindu baten, eta era berean olerkari arnas aundiko baten olerkia degu auxe. Ahapaldi guziak daude, zein baño zein irudi ederragoz josiak. Biotz-oldarrez bizituak gañera:

«Maite dut, maite... maite, egaztiak egadak aiña;
maite... illargiak kuku-igaria gauan beste...
Maite nau, maite...; maite, dirdaiak ispillua lez;
maite..., edertiak ume xaloak bezelaxe».

Biotz-kanta da, soil-soillik, olerki eder au. Maite-kantua, baña, goi-maitezko kanta goitarra. Jainkoa sartu zaio biotzean, eta argiz ta lorez josirik laga dio anima:

«Oro det izpi, oro det lore, oro det kanta
ene gogoak ikusi bait-du aldaketa...
Gela ontara ene maitea sar ezkeroztik
biotz-ezurrak bai dute naiko loraketa».

Maite-minduak ez lezazkioke bere maiteari gauza sentikorragorik esan, eta ez da anima jainkotiarrak bere Jaunari, sentipen-jario eztiagorik ixuri ere.

«Nere bizia ezta nerea, berea baño.
Bera, ordea, nigan bizi zait bat egiñik.
Ta intxaur-adarrak, ez oi duten lez esnerik gabe,
nerez ez dakart jan-gai liraken zitu onik».

Lan luzea, ta aspergarria litzake, ahapaldi guziak banaka aztertuaz epai ala iritzia ematea; ahapaldiak oro baitaude, gañezka bezela, irudi sentikoiez eta maite-intziri eztiz. Luzea degu olerkia, poematxoa baitirudi, ta asieratik azkeneraño batasunik galdu gabe, ahapalditik ahapaldira biziago ta oldartsuago ageri zaigu.

Itz gutxitan auxe dezu bere gai-mamia: anima zalekeri mirriñez josia bizi zitzaion, eta eguzki-bero-ezaz makaltzen:

«Migura baizik etzan ageri adar-ertzetan;
beso zaintsuak, ezur iduri, sutarako.
Ta illundi-loan lasaiki zetzan muxar gaixtoak,
begiz jo zitun bere sustraiak kabirako».

Auxe zan animaren egokera kupigarria; baña, beingo batean, ate joka sentitu zuan norbait bere barruan, eta ateak irikiz, barnean sartu zuan ezkero, argia, osasuna ta zoriona sortu zitzaizkion. Gero, zein baño zein ahapadi txanbeliñagotan, maitaleak ekarri dizkion ondasun ta zoriontasuna kantari ari zaigu. Kanta luzea ari du, baño atsegiña oso. Ez dute ahapaldiak batere aspertzen, bizi ta txamangarriak baitira guziak azken-arte.

«Beingo batean, ate-danbada entzun deritzat,
ta atera nintzan, giltza eskuan, an nor ote...
Ta idekitzean... ura bai zala maixtar bakoitza...!
Ondasun oro eskeñi zidan biotz-orde...

«Sar zaitez, bada, erantzun nion, gela ontara...
Ortxen zaudeke zure gogora nai adiña»,
Ta au entzutean zuzendu zidan argi-zirrara,
ene! neregan ikusi nuen loi-osiña!

Arrezkeroztik, ene aularen sendotasuna!
Arrezkeroztik, barren etxeko poz ta atsegin...!
Naiz laño egon zeru ta lurrak, enegan beti
enegan beti euzki-urrea dirdai-oztin!

Zabaldu zaizkit, noizbaitekoan, biotz-begiak;
noizbaitekoan upatu bai det maitalea.
Ta ikuste uts-utsez, bereixko balitz etxe ontatik,
bertantxe nuke zorigaitzaren zaztadea.

Beranduegi ai!, zoritxarrez, ezagutu det;
beranduegi ate-jokara naiz oartu...
Egunik-egun biotz-atean noiz idekiko
ta itxu beltz onek, muzin gaiztoan, ai! giltzatu!

Oraingo nere zentzu galduen itzarri ona!
Oraingo nere begi lausoen ikusia!
Lengo ederra, narda dakuste; narda, ordea,
emen litezken eder oroen iturria...

Emen dagotik, emen dagotik ene Maitea;
biotzak baitu sumatzen bere agerpena.
Zai dagokio, pozaren mende, noiz elduko ote
zentzu guzien zorabio ta zoramena.

Auxe biotzen egon luze ta pilpil berdiña!
Auxe ixillaren adigarrizko jardun goxo!
Arantzak sartzen balizkit ere, nere biotzak
ezten-zolotik, zorun berria gaur artuko.

Igortzi-leunka, euslari dauzkat bere besoak;
bere niniak, ene begien ur-ixpillu.
Ta argi-jarioz dagizkidaten mintzo eztiak
esker berri ta biotz-jantzien edergaillu.

Arnasa batek darabil gure bular-auspoa;
taupari berak biotz-unea pilpiratzen.
Ta udalen-lorak eguratsera liraken eran,
maite-larrosa muxuan zaigu gorrixtatzen.

Maitasun-izpiz urtuki dago nere gogoa;
zenbat jaramon, ainbat biotza goriago.
Ta argi-dirdaiak lillura duan txoriñoa lez,
galda zuritan, eguzki orri begi nago».

Ta orrela jarraitzen du Jainkoa ta animaren arteko besarkada estuaren maite-bizitza kantari. Animak ez du kanpoko beste ezer irrikitzen... Bertan dauka bere Maitea, ta maitearekin, dana; Bera baita zoriontasun-iturri agortu-eziña. Lilluraturik dago anima, ta kanta ta kanta, besterik ez dagi: bere zoriona adierazi, ta alkar-maitasun ori abestu.

Baña, bildur da noizpait zorion au galduko ote duan eta bildur-ikaraz, dio:

«Ez al dit iñoiz iges egingo Maitale onek!
Ez al dut ai! nik etxe ontatik, baztertuko!
Maite-aduak egingo al du, gu izan gaitezen,
bera neretzat ta ni osoro, beretzako!

Urtu dezala geroz geiago biotz-lausoa;
zabaldu bekit ezagueraren nini-izarra...
Ta alkar-izpien beroaz laixter urre-kuskuak
auts-antz nituzke, urrin-malutan, parra-parra.

Iñoiz ez al dit nagiak joko barren karnaba;
ez al du utziko, asita dagon, xinta mea.
Egunik-egun aittuko al zait maite-loloan,
gozatu dedin irakas dion Maitalea.

Ta abesti orren oyarzunera, pizkor genuzke
maite-eguerdien egon luze ta bazkal-mintzo.
Ta arratsaldeak, izpi-euritan, lekarzkiguke
maite-koluxken izar zuri ta zorun-ardo...».

Olerki onek jaso zuan euskal-Parnasoaren gallurreraño gure Loramendi. Egin zizkigun olerkietan, auxe goitarrena, ta III'garren Eusko-Olerki egunean lenengo saria irabazi zuana.

Bere lenengo olerkiak, ikasteko saioak besterik ez ziran. Geroago, bere bizitza laburraren azken-lau-urteetan egiñak, badira larogei gutxinaz, olerki-izena merezi dutenak; ogeien bat, benetan jator ta ederrak, oien artean, bi aitatutako poematxo, **Arrantzalien Arrats-otoitza** ta **Barruntza-leyoan.**

Bi auek ez dute alkarren antzik; bat kanpora begira, ta bestea bere barnera begira-begira, tajutuak daude-ta. Baño, biok poesi lirikuaren igali eldu ta naroak ditugu; bigarrena batez ere, euskerak dirauaño, olerki-zale orok atsegiñez irakurriko dute, ta nere lantxo onetan aipatu dizkitzudan beste olerki polit ta ezti oiek ere, euskal-poesi-sorta oroetan, diz-diz dagiteke, ta Loramendi'ren izena euskal-olerkari ospetsuenen artean biziko da, noski baño noskiago.

Loramendi'ren olerkiak guziak dituzu ozenak, irudimenez egakorrak, eta biotz-ikuttu goxoa dagitenak, eta baita zirrara ematen dutenak ere.

Zaraya (O. M. C.) idazleak, Loramendi ilta andik laister, **Zeruko Argia'n** idatzi zuan:

«Ez da arritzekoa, langille, ta langillea aspergea, izan baidegu Loramendi. Orotan Jaungoikozale ta euskaltzale, Jaungoikoaren eta euskeraren alde lanean ari zan, izkuntza-arrobian itz eder ta egokienak aukeratzen. Norbaiti entzun diot Loramendi'ren neurritz batzuk belarriai itsatsiak gelditzen dirala, eta noizbeinka abesten asten zaizkiola. Ori bera gertatzen zait neri ere ta egiz, euskeraren asieratik elkarren billa zebiltzan amaika mintzo uztarritu dira bai Loramendi'ren bidez... Baña, beste nonbait zuen iturburu onena. Gazte-gaztetatik ederrak subera, lur-inguruetako izaki bakoitzarekin zegokion izkuntzaz itz-egiten oitua, Confontaine'k bezela esan zezakean: «Izaki bakoitza mintzo zait bereziki, ta biotz ondorañokoa det». **Jaungoikoa ta Euskera** aukera zitun elburutzat eta Jaungoikoak eta euskerak biotza edergaiaz bete zioten, **barruntza-leyoak** zerura begira eta biotzondo begiak gure lurraldian josita, eman digu eman diguna Bedoñatar lagun berdingabeak».

Ona emen ere, Zaraya'ren iritzi onen-ostean, A'tar J.'k, «Eusko-Olerkiak» III'garren liburuaren itz-aurrean, garai artako olerkarien artean, Loramendi'ri buruz, idatzitako zerbaitzuk:

«Oker legoke orratio «Loramendi» badaezpadako olerkaritzat yoko lukena. Lenengotan, asiberria izaki, odei-gaiñetaraño igotzeko lain ez-ba-zan ere, ba zekian bere olerkiak ederki apaindu ta borobiltzen. Eta batzuek ala ere eta Eusko-Olerti-egunean, Ernani'koan, sarituak bereziki, argi erakusten digu ez zala gure olerkaria mistiko-edertasun-dirdaiak nabaitu, ikusi ta azaltzen nolanaikoa».

«Ez zituan, egia esan, bide-erakusle geiegi izan elertigaietan eta batez ere eusko-olertian nondik yo erakusteko. Euskaldunetan Arrese'tar Emeteri, Jauregi ta Lizardi ezagutzen zituan. Gutxi-geiago irurak eragin zioten zerbait aren gogoari, ta, alako nabarmenak ez ba dira ere, irurenak arkitu ditezke «Loramendi»ren olerkietan aztarranak».

«Orratio, Lizardi ta Arrese'rena baño Jauregi'ren antz aundiago du neurtitz askotan, ta baita bere olerkari-izaera osoan ere...»

Eta ona, itz-aurre orren azken-aldean, Loramendi ta Lizardi olerkariei buruz, zer dion:

«Lizardi'tzaz itz-egin genuen oraintsuen. Lizardi'ren besterakoa genuen Loramendi. Aren ta onen bideak alkarren aurkakoak ez ba dira ere, oso dira banakoak. Lizardi zaintsua, gogai sakonak soil yalkitzen zituana, irudi bakan-bakan aukeratuak gorri-yator ematen zekiena, esan diteke irudimena buruaren mendean lotzen zuan gizona zala. Loramendi'k ostera, yarei darabil irudimena ta bere gazte-iturburuko etorria, ibaika dioakio neurritz oparo ozenetan».

«Loramendi'k ere ordea nagusiro erabiltzen zuan euskera. Ez, noski, Lizardi'k bezin buruz ta sakonki, euskeraren erri-erraietan murgildua bait-zan Lizardi, baño bai errez ta naro, gurasoen izkera ederki ikasi ta landua izaki. Aditz irabiazale bait-zan, orren bidez apainki tinkotzen zituan neurtitzak, itz ugari aberatsez yantziz-eta. Bere olerti-udaberri-udaberrian igartu zaigu Loramendi, itxaropen-lore bipila. Olerki-bideak urra ta beste gabe. Aren izena, ala ere, betiko idatzia da euskal-elerti-orrietan».

A'tar J. idazle trebearen itz eder auen ondoren, osatu ditzadan nere izkera traketsez, Loramendi'ren bizitzako azken-goraberak.

1933'gko. Epaillean, bi gorengo euskal-olerkari, Lizardi ta Loramendi, eraman zizkigun Jaungoikoak. Biok gure literaturan utsune galanta laga bazuten, ez zuten euskaldunen biotzetan ere, samintasun makala eragin, eta zirrara nolanaikoa utzi.

Loramendi, apaiz-egiteko egun-egunetan, Epaillaren 25'ean, il zitzaigun Donostia'n, bere biotz aundia edergaiez josiena zeukan garaian eta lanerako sasoirik onenean. Lizardi bezela.

Aingeru antzera il zan, Zerura begira paketsu, ta itxaropen biziaz. Alatsu Lizardi ere, Zerura begira, ta itxaropentsu, Jaunaren naiarekin berea batuta. Biok, euskaldun fededun, sinismen-itzak, ain maite beti izan zuten euskeraz esaten, il ziran, euskaldun guzioi ikasbide ta jarraibide eder-ederrak utziaz.

Loramendi'k bere amatxorentzat **Meza-berri** egunerako olerki ederra egiña ukan ta maiteki gordeta.

Zillegi izango al zait oroigarritzat ementxe ipintzea. Era berean, ez al zaigu lerkari bezela obetogo bera ezagutzeko egokia izango?

Ortxen daukazu, bada: atsegiñez irakurriko dezun uste osoan nago.

¿Nor eta zer naizen...?

«Nai bat gaitu dezu
Nere aitzinean
Jazartzen zaizkidan
Etsaien aurrean.

Burua gaimelez
Igortzi didazu,
Ta nere ontzia
Bai dala gozatu!

(XXII'garren Eresia)

Ene ama maiteari,
Meza-Berri *eguneko*

Oi ama, oi ene ama nerea,
nor eta zer naizen?...
Oi ama, benetan, zure semea
ez daki iñork zer den!

Itzali zazu, ortzea, gar-gezitze ori.
Galiurretik ondarrera su-gurdia irauli.
Lur-zale zabiltzatenok, begi biak itxi.
Jaungoikoaz beste danak nigan auspez
[yautsi...

Oroen buru bainago
Jainkoa eskutan.
Nere alari etzaio
muga bat ere eman.

Ots, Andra Mari berbera
ni aiña bai ote?...
Ta Ama gozo au ezpada
nor gero litzake?...

Oi ama, oi ene ama nerea,
zer eta nor naizen?...
Oi ama, benetan, zure semea
ez daki iñork zer den!

Ene gogora dagokit zeru-goi osoa:
ots dagiet-ta bertatik, ogi eta ardoa
ez dira ogi, ez ardo, baizik Jaungoikoa,
itxuretan beste arren, dan bezelako.

Au bai zentzuen gezurra,
egi uts-zurra ustez:
me, zuriño ogi-apurra...
baiña ogirik ez!

Ontzian ere ardoa.
Begi biak: «ardo».
Itz batzuk zaizkit naikoa.
gezurtatzeko oro...

Oi ama, oi ene ama nerea,
zer eta nor naizen?...
Oi ama, benetan, zure semea
ez daki iñork zer den!

Mirake zintzoenik dut Goiko Jaun
[aundia:
dei orduko, nere eskutan, du bere
[aulkia...
Emen dago ogi eta ardo-antzez estalia,
sukarrez, orde, mamian maitasun-zau-
[ria...

Oi, al'baleza gizonak
nolapait gaur esan,
Jainkoaren esku onak
zenbat egin didan!...

Kanta bezaio, bai kanta
biotz onek beti!
Ekeratik orrobira
Aintza, Jauna, zuri...!

Oi ama, oi ene ama nerea,
nor eta zer naizen?...
Oi ama, benetan, zure semea
ez daki iñork zer den...!
Jaun onek egin zezaken, gogo-ta ez
[beste,
izar-morkak zitezela beste orrenbeste.
Egin zitzaken lurreko auts-ondarrak,
[urre...
Bere alaren aldean fitsik ere ez dire.

Baiño, arren, Jauna, barka,
zure esku ioria
nigan zearo ustu da,
gain baitit neurria.

Bein, Jauna, egin banauzu
gizon loi-apurrez,
egiten ere zaitut zu
ogi, ardo ta itzez...

Oi ama, oi ene ama nerea,
nor eta zer naizen?...
Oi ama, benetan, zure semea
ez daki iñork zer den!

Poztu zaitezke, bai ama benetan zu-
[poztu.
Gaztaroko lelo aiek berriz otseratu.
Jantzi gaur eztai-jantziak, erestuna
[sartu,
lorez ornitu leioak, txakiak urrindu...

Zure semea baida-ta,
lur errege orde,
Jaungoiko beraren Jauna,
zeruko mai-kide.

Igo dizut aldarera.
Otoi dut zugatik.
Zure nai utsa bete da...
Ill zaitezke pozik!

Oi ama, oi ene ama nerea,
nor eta zer naizen?...
Oi ama, benetan, zure semea
ez daki iñork zer den!

Bedaña'r Joakin A.

Nere idaz-lantxo oni bukaera emanaz, Loramendi'ren olerki-azterketa osatzeko, **Aitormendi'ko jaya** izenez amaitu gabe laga zigun poematxoaren ahapaldi batzuk emen ipintzea egoki deritzat.

Ona, asierako zatitxo bat:

«Noren Irudi
ez galde neri:
gizon-muxarrak ez baitazau...
Sua ta garra
kopeta-adarra...
sugar-lanbrotan egun ta gau.

Noren gorespen
jaya liteken
gizon-muxarrak uler ezin...
Sua ta garra
kopeta-adarra...
gau eta egun beti berdin.

Ezti-jario galdorra dager
ta Aitormendia eresti...
«Aizpa zurien» lizarditxoa
eztai jayetan dirudi.

Esne-pinpoilka daude iturriak;
masusta-lorak marmarka...
ta itzul-inguru, dantzatu zale,
erle urreak egaka.

Zer nai luteken
ez dut asmatzen...
ta Irudi-garrak fa-fa! gora.
Ta iturrik-itur,
uso-antzikur,
badatoz «Aizpak» gar-ondora.

Ipar mea da: ega geldian
eres kixkurra darabil.
Ta izar-bidetik Irudi-goira
odei gorrizkak ditu bil.

Noren Irudi
ez galde neri:
ibaika sua baitario.
Suzko labea
bekokipea...
goi-antza suak dakarkio.

Inar darien atson-odeiak
Irudi-gaiña dastalte...
Ta «aizpa zuriak», abestu-ala,
elur-zugaitz bat dakarte...

Noren opari
ez galde neri:
gizon muxarrak ez baitazau...
Txingar urtua
aren burua...
oñazkar-bidez egun ta gau.

Odei-matazak oinpetzat dauzka,
zillar-txuntxurra bakaulki...
Aritz-abarra eskuan tente,
buruntza ordez... eguzki.»

Naikoak dituzu Bedoña'ko olerkari gaztearen irudimen sukar eta egakorra, leenaz gañera, ezagutzeko.

Poematxo au, ondorengo ahapaldiaz dirudienez, Euskalerria'ren gorapen bat izango zan, noski. Etzion eriotzak laga bukatzen.

Bere buruari Loramendi izena jarri zion, biotza poesia-loraz josia nabaritzen zualako nonbait. Mendi osoa loretan zegoan garaian, eriotzaren izotz beltzak guzia jelatu ta igarturik laga zuan. Zenbat eta zenbat lore eder emateko ote zegoan oraindik mendia!

Auxe izan bedi nere azken-itza: Loramendi gai zan lirika-mallean goi--goienetako malletara igotzeko, ta orren gazterik il ez bazitzaigun igoko zan, eskierki. Alaz guztiz ere, utzi zizkigun olerkiak, bere garai aietako olerkaririk onenen artean jarri zuten, eta Ernani'ko Olerti Jaietarako eratu zan Olerti--Guduan, 1932,gko. urtean, lenengo saria irabazi-ezkero, berriz, Loramendi izena euskal-literaturaren orrietan betiko idatzita gelditu zan, iñoiz ez aztutzeko.

Luis Jauregi

KANPAIEN ATSEKABEZ

Teatru-lan ariña, lau unekoa

(«**Garagarzako Mutilla**»-ren ele zaarrean errotua)

Egillea: EUSEBIO ERKIAGA

JARDULEAK:

METERI	Garagarzako mutilla
AITONA	Meteri-ren aitona
TXORGORI	Auzoko gizon bat
MORROIA	Etxeko morroia, Salus bere izenez
LAMIÑEA	Meteri-ri begizkoa egin eutsana
TOTA	Meteri-ren ama
MARI	» arrebea
GARAZI	» »
KATALIN	Auzoko neskatilla bat
DOMINIKE	» »
MAIÑASI	» »

ALDIA: Ele zaarrarena, orain mende batzuk, aurki.

TOKIA: Arrasate-Mondragoiko Garagarza auzoa ta inguruak.

LENENGO UNEA

(Mendian, Leniz Ibarra gainduaz diran tontor-aldeetarik batean, Meteri-k, artzaintzan diardu. Makillea eskuan, eta abar).

I

METERI.—Eguzkia nagiro, baiña badoia bere oiaren eske. Nekeak, edonor makaldu oi dau, ta nire gerriondoak be, nai leuke etzunaldi ederrik. Orra!... Ta nire txakurrak, nun ete ditu bere zentzunak? Ardiren baten usaiñean, aztarren billa ete dabil? **(Txistu-ots egiñaz)** Ardiak be, lo guraz dagoz, eta nire txakurra, baiña nora joan ete da? **(Alderdietara begira).**

KATALIN.—**(Ager bedi).** Ai, ene! Emen zagozana jakin izan ba neu jakin, kanta polita entzun-erazoko neutsun, ba, Meteri. **(Iturrirantz doa, pedarra buruan).**

MET.—**(Ardura eskasez)** Iturrira joateko orduak al dira oneik? Arimen kanpaia noiz joko ez ete dago?

KAT.—Kanpaien ardurea izateko, sakristaua bere, ba al zara ba?

MET.—Ez ainbesterik. Baiña aititaren ipuiñak entzun izan ditut; sarritan ganera, eta illunabarreko urketak iñoiz oker urten dabela jakin be bai.

KAT.—**(Barreka)** Ja, ja, ja, ja!... Ja, ja, ja, ja!...

MET.—Zer, barreak al dira?

KAT.—Ikusten dozu argi asko.

MET.—Barre zoroak. Ba!... neskatillen barreak.

KAT.—Meteri, zuk neskatillarik bako mundu pitxiren bat egingo al zenduke? Entzuizu: neuri bakarrik eta isillean ¿neskatillen bildur al zara?

MET.—**(Asarretsu).** Nik ez dot neskarik bear.

KAT.—Ez dakizu zuk gauza ona zer dan. Ez-jakiña izateak izango ditu, bearbada, bere alderdi zerak. Baiña okerrak be bai, orixe bai! Ta zu, oindiño, koxkol-barruan zagoz; txita baten beste edo dakizu-ta... **(Mutillarengana urreratuaz)** Meteri: jakin bear zenduke inguruko auzoan nonor badagola aspaldi zure begira.

MET.—**(Arriturik)** Nire...?

KAT.—Bai, morrosko, bai. Ain lotsorra ezpaziña, esan be esango neuskizu, zure belarriok gozatu nairik.

MET.—**(Itza aldatu itxuraz)** Ardiak batu bear dodaz... eta ez dakit nire txakur zintzoa nora aldendu jatan.

KAT.—**(Mutillarengana urreratuaz)** Tira, Meteri, entzun nai izan egizu, zuri azaldu guraz dodana. **(Eskutik eldu nai deutsa Meteri-ri. Onek, ostera, arek ikutuaz batera, apartera aldegin).** Zeinbat bidar egon izan naiz ni, zuri begira ta begira, domeketan elizaratzen zareanetan, apain, begi argi, mutil txairoaren antzera, eta... Esan be bai, neure buruari eta adiskidetxuak entzuteko bestean bere: «Ai, Meteri orixe!... Leniz-ko ibarretan ez da orrelako mutil gurbil eta apalik. Nok eskuratuko ete dau orren maitetasuna eta amodioa? ¡Ene!... Ta kolore gorriak urten deutse matrailletara. Ba!... **(Arro)** Kataliñek ez daki iñoren atzean ibilten. Agur... artaburu!!! **(Beioa).**

MET.—Orra ba. Zeozer esan nai neuskio nik, asarratu ez daiten. Baiña ...miiña zimurtuten jat, abarka zaarraren narrua lez zertzen jat, eta totel-motel, trabauta jarri. Zegaitik ez ete naiz ni Peru langoa, Matxin-en antzekoa, Baiñat-en taiukoa?...

Orreik dira mutillak, orreik! Domekan be, an tabernan, entzun neutsen kontu zerik bai! Beti dabiltz orreik neskatillekin dantzan, neskalaguntzen, eta mosuketan eta... Ene, ene, ene!... Praille joango ete naizen itanduten deuste edonoiz.

II

TXORGORRI.—**(Ager bedi)** Illuntzeon, Meteri. Ez al da sasoia ardiak txabolaratzeko?

MET.—Bai ba, bada izan, onezkero ardi maixkarrok ezkortara bidean jarrierazoteko. Zelaiak idor dagoz, siku, eta illunabarreko ozkirritxua atsegin jake ardiai, barrura baiño leen.

TXOR.—Ez al dogu lortuko sikate zital onen amaitzat, zerutik euri mamintsurik?

MET.—Ulea badabe ardiok, aragirik urri ostera. Beti edo sarriegi diardue beeka, eta bildots guztiak saldu ditugu ezerezean, gosez ilda ikusi orduko.
TXORG.—Mendiok alde batera utzi, ta ibai ondoetako zelaietarantz bear zenduke joan. Dagozela larran toki gizenago areitan. Zuen aititari esango deutsat.
MET.—Bai, baiña emen oituta nago-ta...
TXORG.—**(Ebagiaz)** Ardiak eta emakumeak zainduteko bildurrik ez dau izan bear gizona dan gizonak. Ostantzean, galduak gaituk, mutil!
MET.—Olan diñoe, baiña...
TXORG.—Diñoe, eta da. Ardiok egin beie marraka ugari. Emakumeak itza ta barriketea. Gizonak barriz, erabagia artu, eta dzart, bete-eragin, orixe bai! Beiñola, nik neuk ikusia, zereko...u... guzurra esan bear dauana ba, olantxe egoten da-ta... Zereko ostatuko Patxi-k, bere andrea isiltzen ez, ta samea biurtutea erabagi eban.
MET.—Eta egin bere...
TXORG.—Egin bere... ia bai. Ostera, errukituta, emaztearen ordez, oillo bateri biurtu eutsan samea, ta... arin asko egin be, gero!
MET.—Kontxo!...
TXORG.—Bai, gizona. Ementxe nagoan onek ikusia. Ezta olgetan ibiltekoa, gero, ostatuko Patxi!
MET.—Zera... Patxi errementaria ez da izango, ezta?
TXORG.—Ez, ori ez. Patxi errementaria, au baiño askozaz gogorragoa zan. Arek, andrak ezezik, sorgiñak eta txerrenak eurak be, aurretik erabilten ei ebazan. Jakiñik izango dozu, bearbada, aren ipuiña.
MET.—Ezta, gero, ipuiña bakarrik izango, arranotan.
TXORG.—Bai zera! Ez, mutil. Ipuiñak eztira, arraio-arraioa, asmautako kontuak. Ipuiñak sarri askotan egiak dira. Ez al dozu iñoiz lamiñarik ikusi bazter oneitan?
MET.—Nik neuk ez.
TXORG.—Ba... nik bai, batez be, gaztea nintzanean. **(Buruan atz egiñaz)** A... Urte asko da ordurik ona. Aspaldion eztot bapere sumau.
MET.—Gizon elduengana edo zertuengana ez al dira lamiñak agertzen?
TXORG.—Zaarkinduengana? Zetarako? Ona ago i, mutil. Amaika bidar kantau izan eban kopla au, Olaiñetako Bentura zanak; arek kantau eta guk ederto dantzanegin trikitixan, artajorran baiño obeto:

«Sasoian sasokoa,
aurten aurtengoa...
Ama, nik naiago dot
ogei urtekoa;
ogei urtekoa ta
nire gustokoa...»

(Beioa Txorgori)

III

METERI.—...ta nire gustokoa!... Ai, zein dan baneki! Iturrira joan dan Katalin orrek, zerbait esango leuskit, bearbada. Neskatillai, baiña, mutillen bizkar barre-egitea atsegin izaten jake.

Batu daidazan ardi argalok, bape aldendu barik. Oiñotsak barriro be?... Katalin ete da, onantz?

LAMIÑA.—**(Agertuaz)** Ondo aurkitua, mutil eder ori. Aldendu egin naiz, antza, bidetik. Emengo barri ba al dakizu?

MET.—**(Bere kontura)** Ene! Erbestekoa da, ta... polita, ganera.

LAMI.—Gorra al zara, mutil? Zetan diarduzu zuk emen sasoi onetan?

MET.—Kanpaiak entzun arte nengoan, etxeratzeko.

LAMI.—Eta, zetarako bear dituzu kanpaiak, gazte? Ez al dozu igarri eguzkiaren azken-agurra, izpi makalen ostean?

MET.—Olantxe da. Baiña, ardi gosekillok asetu eziñik ditut, eta iruntzaren aro ozkirri-beraan, gustora dagozala dirudi, bedarraren ezetasun apurra gozatuaz.

LAMI.—Zelan dozu izena zuk?

MET.—Izena nik? Ene ba! Zetarako nai zenduke, ba?

LAMI.—Galduta nenbillen batean, bide zuzenera nok zertu ninduan jakiteko.

MET.—Garagarza-ko bidea nai baldin badozu, ezkerreko orreri jarraitutea besterik ez dozu.

LAMI.—Zuk emen gelditu bear al dozu, oindiño bere?

MET.—**(Berekiko)** Auxen da emakumearen ekiña!... Zera... ez ba; laster joango naiz. Txakurrari dei egingo deutsat, illunpean lotu baiño len.

LAMI.—Buru onik eztozu, mutil, Zeure izena nai neban.

MET.—Meteri dot izena nik. Auzokoak badakie, neskatillak be.

LAMI.—Ta asarre al zara, nik galdetu deutsudalako?

MET.—Ez, ori ez.

LAMI.—Ikusten?... Zera... Meteri: bazter oneitan beti ibilten al zara bakarti? **(Mutillarengana urreratuaz)** Eta, inguruko... gonadunetarik, zein dozu begikoen?

MET.—Eztakit ba; Katalin edo...

LAMI.—Katalin? Eta, nigaz ez al dozu nai ezertxu be?

MET.—Nor zarean be, eztakit eta...

LAMI.—Nik bere, ez nekian leentxuago. Baiña, mutil galanta, gizonezko gordiña ikusi zaitut eta, zure izenik jakin ezarren, zeugaz geratu naiz berbetan. Zera... begi politak dituzu, ain zuzen.

MET.—**(Ustegabe)** Zuk bere bai.

LAMI.—Eta, matrailla samur beteak.

MET.—Baita zuk bere. **(Lamiñeak munegiten deutsa bekokian)**

LAMI.—Aotxu politaren inguru, ezpan eze ta bigunak...

MET.—Zuk... **(Lamiñeak, arrapaladan, mosu egiten deutsa aoan. Mutilla tutulutua)**... bere bai.

LAMI.—Ta bularrean, ene bularragaz alkartzeko griña-sua dozu.

(Mutillak lamiñeari eldu nai deutsa gerri-gerritik. Neskeak, ostera, iges; eta esku utsik izten dau mutilla, maitemiñez)

MET.—Zatoz ona, laztana!

LAM.—Ez, gazte. **(Apartetxutik)** Zu be, errez berotzen zareana ikusi dot-eta. Nigaz olgau nai badozu, lenago nigaz ezkondu bear dozu.

MET.—**(Ao zabalik)** Ezkondu...!!!

LAMI.—Baaaai. Zelan, ba, nai zenduke nire gorputzaz baliau, aurretiaz zintzotasun-berbea emon barik?

MET.—Ez nekian zetan niarduan. Parkatu...

LAMI.—Parkaturik zagoz. Biar etorriko naiz barriro ta...

MET.—Biar? Eta noiz? Nora? Onaaa?

LAMI.—Illuntzeko azken-kanpaiak amaituta gero. Niri, isiltasuna gustaten jat, isiltasuna... zelai, baso, iturbide ta ibai ondoetan.

MET.—Eta, zeure izena zelan dozu?

LAMI.—Biar esango deutsut, zeure maite-erbea entzun ostean. Batu egizuz, batu, ardi maixkarrok.
MET.—Benetan maixkarrak!
LAMI.—Dana dala, zuk batuizuz. Gure maitetasunak sortuko dauan iruntz gozotzan gizenduko dira, gizenduko dira...

(Ariñeketan mutillaganatu, barriro laztan egin beio eta igesi joango da lamiñea. Maitagarri-saillaren ballet ariña eratu leiteke, Meteri ta lamiñea motin nagosi izanik) (Oiala beera)

Lenengo unearen amaia

BIGARREN UNEA

(Lenengo unearen jarrai jazoten da. Tokia, Meteri-ren etxeko suetea edo. Artzaiña etxeratu da, arrituta eta maitemiñez jota)

I

METERI.—Ama!... Niri pasau barri jatana lakorik! Neskatilla ederra bai axen! Ni, auzoko Peru-k esan eukeanez, ez naiz iñoiz be zertu baiña... Ta mosu bero-beroa ez deust egin ba, ezpanetan? Sutan al ditut ezpanok oindiño? **(Ezpanai eskuekin ikutuaz)** Benetan be, benetan be, gozoa da gero, neskatilla gaztearen mosua. Ta nik iñoiz... baiña, baiña... Aleginduko nintzake ni be, aurrerantzean, mosu egiten. **(Norbait aurrean baileukean, aprobak egiñaz)** Alegindu, onantxe; Ma!... Maaa!...
TOTA.—**(Agertuaz)** Umeen berbetan asi al zara orain, seme, **ma ta ma** esanaz?
MET.—**(Izutua)** Ai, ama! Ez, amatxu! Eniarduan umeen izketan. Maite-izketan, ala ta be.
TOT.—Zer diñozu, seme? Maite-izketan zu? Olakorik!...
MET.—Bai, ama. Zer barriak jazo jataz eta...
TOT.—Zer barriak, seme? Eta nun, edo zelan ba?
MET.—Barruan lotan nituan sentipenak itxartu jataz eta lotsorra izan arren... Berotasuna dot zanetan eta ezpanetan be bai.
TOT.—Berotasuna ezpanetan? Otzikararen bat izan al dozu? Kalenturaz al zagoz?
MET.—Ezin jakin ba. Ona ba, ama. Ardiak batzeko nengoala, Katalin ikusi dot, iturrirantz joiala.
TOT.—Berandu-samar ostera.
MET.—Eta neugaz berbetan lotu da. Nire ondoan egon da.
TOT.—Kataliñ-ek zuk baiño geiago daki.
MET.—Olanxe uste dot. Geroago, barriz...
TOT.—Berbak baiño geiagorik ez al dozue ezer izan?
MET.—Kataliñ-ek asarre antzean...
TOT.—**(Ebagiaz)** Katalin zure zale dala esango neuke.
MET.—Olan dirudi, beintzat. Baiña ori ez da ezer.
TOT.—Ez al da orretan amaitu guztia?
MET.—Bai zera! Ori... asierea besterik ezta izan.
TOT.—**(Arrituta)** Zelan? Bear eztan zeretan jardun izan al dozue?

MET.—Orra, ba, amatxu. Katalin, esan dodan lez, asarre antzean jarri, ta joan egin da. Gerotxuago, Txorgori be ikusi dot, andik pasaten, eta aregaz be berbetan jardun dot.
TOT.—Eta zer da ba, arritzen edo zertzen zaituana?
MET.—Berealaxe, beste emakume bat agertu jat, ederra bera, ori bai! ez ezaguna, baiña polita emakumea!
TOT.—Besterik ez lakoa ez zan izango, nunbait be.
MET.—Bai, ama, bestelakoa zan, apartekoa.
TOT.—Zer eukan ba... apartekorik?
MET.—Zelan esan baneki!... Zera ba... berbeta gozoa, begi urdiñak, ule ederra ta...
TOT.—**(Geroago ta arduratsuago)** Eta, zer esan deutsu? Nora joian? Zer nai eban? Zelan jantzita egoan? Zer eukan eskuetan?
MET.—Zenbat galdera egiten deustazu, amatxu?
TOT.—Bearko egin, zuk ezer zeatzik azaltzen ez dozu-ta!
MET.—Jantzita... beste edozein lez, nik uste. Begiak zoragarriak, gero.
TOT.—Zer emon ete deutsa andrakume arek gure mutillari, ain zerbeldurik jartzeko? Entzun, Meteri: esan egizu argi ta garbi zer jazo jatzun.
MET.—**(Lilluraz)** Iñoiz be eztot susmau alako gozotasunik iñungo emakumerengan. Neure izena galdetu deust.
TOT.—Izena galdetu? Kontribuziño lanetan al dabil emakume zoraerazle ori?
MET.—Zora-erazle ala ez, ori eztakit nik. Baiña, Aranazko Josepa ederraren entzutea badozu,ba? Axe baizen galanta zan, benetan be.
TOT.—Jaungoikoa-k eroana emon deidala. Zetarako nai eban zure izena?
MET.—Aldenduta ebillelako, ta salbatzaillearen izena jakin nai ebalako.
TOT.—Eta, zu al zaitu salbatzaillea? Elorrioak!... «Jesus, Maria ta Kontze! Nun dago gure auntze?».
MET.—Ardi argal eta galdu-samarrak ditudala be, adierazo deust.
TOT.—Orra osterakoa!... Arek esan orduko be, bagenkian guk ori, zoritxarrez! Arek berak gizenduko al ditu, arranotan?
MET.—Bai, amatxu. Ain zuzen be, orixe esan deust berba oneik esanaz: «Gure maitetasunak sortuko dauan iruntz gozotzan gizenduko dira».
TOT.—Oindiño olakorik! Ikusi ta beste barik, maitetasuna eskeintzen dabillen emakumea, zelako prenda ete da? Ez, ain zuzen be, gure jatorrikoa. Ez, benetan be, euskaldun alaba.
MET.—Berbetan polito ekian ba.
TOT.—Ain polito, seguru be, orren errez iñuzentetu zaituan ezkero. Eztakit zer pentsau...

II

AITITA.—**(Ager bedi)** Gabon eta barri on! Ama-semeok jardun luzean ete diarduzuen esango neuke.
TOT.—Eta ezta bapere arritzeko. Esaiozu, Meteri, aititari, agertu nairik zabiltzan ori.
AIT.—Zeeer? Barri onak al ditugu mendi-aldean?
TOT.—Ardi azurtsuok gizenduteko modua aurkitu ei dau gure mutillak. Eta bedarrik barik, ganera, bedarrik barik.
AIT.—Eeee? Zeeeelan?
MET.—Aitita... zera... amari esaten niarduan nik be, nai neukeala, zera, emakume artu-emona edo...

AIT.—Erromeri ostean izan oi dira, geienbat, orrelako zerak, gazteen artean.
TOT.—Naikoa erromeri izan dau orrek, mendiko bazterren batean.

(Ama alde batera joan eta bere lanean asi bedi)

AIT.—Juuuum!... Gero... ez ditugu gauza oneik txantxetan artzeko zerak. Azaldu egidazu, burutik burura, pasau jatzuna.
MET.—Esan dodan lez, andra edo neskatilla bat agertu jat illuntzean, ederra bera!
TOT.—**(Apartetik)** Ekin beti, ederra gora ta ederra beera!
AIT.—Bakarrik al etorren bera?
MET.—Bakar-bakarrik.
AIT.—Eta nora joian?
MET.—Aldendurik ebillela-ta, bidea nai eban.
AIT.—Ta zuk erakutsi, jakiña.
MET.—Alan bere, ez eukan beingoan aldegiteko zerik.
AIT.—Gaztea al zan?
MET.—Gaztea, ori bai, ta...
TOT.—**(Apartetik)** Ederra, ganera, aitita; edeeerrrra!
AIT.—Auzoan be, badituzu zuk neskatilla ederrak, orain arte tentel antzean bizi izan zarean arren.
MET.—Ni, be, galanta naizela autortu deust.
AIT.—Errekontxo! Bai, e?
MET.—Eta begi politak ditudala.
TOT.—**(Apartetik)** Zeure ama naizen onek langoxeak, seme. Je, jakiña!...
AIT.—Eta geiagorik, ezer?
MET.—Matrailla txukunak bere bai, eta bardin aotxua be...
AIT.—Ene, ene! Nik neuk, nire denporan eztot ainbeste pitxikeririk entzun.
MET.—Eta urrena, mun-egin deust bekokian!
AIT.—Bekokian, e?
MET.—Eta gerotxuago... zerean be bai.
TOT.—**(Asaldaurik eta urreratuaz)** Nuuun?...
MET.—Ezpanetan, ao inguruan, ementxen...

(Aitita eta Tota alkarreri begira arriturik)

III

AITITA.—Eta gero, zer gertatu da? Adierazo egizu azkar.
MET.—Nik ez dot jakin orduan zer egin eta...
AIT.—**(Irriz)** Ez kontixu, txorimamu orrek, zuk oindiño latiñik eztozu ikasi-ta.
MET.—Neskatilleak iges egin nai izan dau.
AIT.—**(Barreka)** Ta egingo eban iges, jakiña, zu gora-beera! Ja, ja, ja!

(Mari ta Garazi ager beitez)

MET.—**(Benetan)** Maite nauala jakin-erazo deust, eta neugaz ezkontzeko gertu legokela.
GARAZI.—Ene ba! Gure nebeari zoratu egin ete jako?
MARI.—Amesetan al diarduzu?
MET.—Ez da amesetako gauzea, iñundik iñora be, arek niri egin deustan mosu beroa.
GARA.—A, ja, jai!... Nor, eta Meteri gurea neskatillekin mosuka!
MARI.—Ez genkian beintzat, gure mutilla mosu-tratuan ibilten zanik.

GARA.—Ez ete zan, Araba-tik etorren... neskaren bat?
TOT.—Isilik, guztiok, arren! Zer bat dot oraintxe buruan eta aititaren esanak izango dau indar berarizkoa. Ez ete da emakume eze ori, lamiñaren bat?
AIT.—Izan be! Baldin iñoiz urrengo ikusterik bazendu, alde onekoa ala parte txarrekoa dan itandu bearko zeuskio.
TOT.—Bai, eta batez be. orretarako ezaugarri utseziña dana, gogoratuko deutsut. Ain zuzen, aren oiñak zelakoak direan ikusiko dituzu. Sarri entzuniik dogunez, lamiñak alako mintz bat dauke, beatz guztiak alkarrengana batzen dituana. Kontuz ba, ene seme, ta erne begiok, osoro zoratu-eragin eztaizun.
METE.—Eta, oiñak orrelakoak balitu, zeeer?
TOT.—Taiu orretakoa gerta baledi, esaiozu bertatik zuk ez dozula orrelako emakumerik emaztetzat nai, danik eta ederrena izanda be.
MET.—Ta asarratu baledi?
TOT.—Asarratu dedilla. Oba dogu lenengo asarrea, betirako zoritxarra baiño.
MET.—Orduan... ezetz... esan bear deutsat?
AIT.—Berealaxe, ganera, entzun dozun lez, baldin aatearen antzeko, paiten antzeko oiñak baditu.
MET.—Bildurtu egiten naiz, bildurtu.
AIT.—Itxusiak ez dauan alde txarra ei dau andra ederrak. Zuen amama zanagaz ezkondu nintzan ni, ez ederra zalako, gero; sudurra aukeran luzetxua eukan-ta. Ederragaitik baiño ezpada, begoz lamiña guztiak gu -gandik urrun.
MET.—Bildur naiz, amatxu. Bildur, aitita.

(Barru aldean, koru batek kontau begi doiñu illunez)

Iñoiz izan da begizko;
alan galdu zan idixko.
Alde txarreko jende gaiztoak
ez dau gauz onik utziko.
Lengoan bazan idixko,
gaurkoan ete, mutiko?
Lamiña orrek ez ete deusku
gazte au miñez josiko?

(Oiala beera)

Bigarren unearen amaia

IRUGARREN UNEA

(Lenengo uneko agertokia: mendian. Eguna amaitu urren da. Meteri eta Morroia, artzaintzan)

I

MORROIA.—Artizarrak emon deusku bere agerraldiko agurra. Azkenengo jaiegunean badakit nik, artizar ori nundik ikusi neban. Ez nengoan bakarrik. Entzuten al deustazu, Meteri?
MET.—**(Berekiko)** Bart arratseko andra ori, nundikoa ete dot ba? Alde dongako izatezkero, naiago neuke bapere agertuko ezpalitz. Eta ala ta be...
MOR.—Gure maiorazgo au, txolindurik dago. erdi. **(Didar antzean)** Meteri! Norbaitek emoten al deutsu orrenbeste zer pentsau?

MET.—Ene! ...Bai ba. Emen atzo lez, azalduko balitzakigu...

MOR.—Datorrela gura badau. Sosegauko dogu, sosegauko, emakume bakar bat baiño ezpada. Zera! Suge-jatekoa direan garau gorri batzuk batuko ditugu, eta arek uraz nastau ezkero, sekulako edari mingotsa egiten da. Berebiziko edaria pizti, sorgin eta ganetikoak uxatzeko. Orixe emongo deutsagu edaten.

MET.—Eta... edango al dau?

MOR.—Bearko, bion artean edan eragiten baldin badeutsagu. Nik neuk naiago dot, naiago, Eskoriatza-ko Belaurraundiñeko tabernan, kuartillu bete napar edan.

MET.—**(Adierazoaz)** Inguru onetan zan. Neska zoragarri a, parte txarrekoa izatea, bada, gero, zori okerra!

MOR.—Okerra edo ez okerra, datorrela nigana neskatilla ori, eta neuk zuzenduko dot. Ez da orrenbeste buruausterik bear andra bategaitik, Meteri. Ugari ditugu neskatilla panpiñak Bizkai-Gipuzkoetan, parte txarreko andra zirin bateri turrit-egin arren. Eta ganera, amaren esana, amarena da. Ezetz!

Ez dogula nai ez sorgiñik ez lamiñarik familian. Ezetz eta ezetz! Eta or konpon, Mari Anton!...

MET.—Errez da esatea.

MOR.—Sorgiña baldin bada, neuk oratuko deutsat ule moltsotik eta ikusiko dituzu Iruñeko zezenketak baiño gauza zeragoak.

MET.—Kontuz gero, mutil. Arek berak eztau sorgin itxurarik. Sorgiñak, geienbat, itxusi, motz eta zakarrak oi dira.

MOR.—Ez uste! Gure aititari agertu jakona, gabaz, etxera joiala, ez ei zan, orraitio, bertan beera uztekoa. Aren arpegian, bape tximurrik ez; zurizuria, begi argia, eta bularrak, barriz, zera... euren lekuan ei eukazan.

METE.—Bartkoak bere, orrelaxen zituan.

MOR.—Bai, e? Ez dozu ba, ainbesterik kontau.

MET.—Orraitio... lotseak zertuten nau-ta.

MOR.—**(Arduratuaz)** Eta... esan, uleak zelakoak zituan? Laburrak ala luzeak?

MET.—Ez dakit orren barririk, illun-samar egoan-ta.

MOR.—Illun-samar, e? Aurreko zerak ikusi zeuntsazan ba!

MET.—Ikusi ez, sentidu baiño.

MOR.—A, bai, bai!! Begira ba! Zu bildur zarean ezkero, eta mosua, diñozunez, gozoa baldin bada, eta gaur orretarako konforme ez baldin bazagoz, truk-egin daigun zoria. Neuk artuko ditut Mari-Zoro aren laztan guztiak, emon ala!! Gero... neuk egingo dot bear dan jorraketea. Kontauko deutsut... **(Pipan erreko dau tabako orria)** ...an, gure auzoan be, udako gau batean garitza aundian ezkutaurik ibilli nintzalako —ez ni bakarrik e?— neskatilla baten aitak sekulako zartakadak emon arren, urrengo batean bardin ibilteko gogorik kendu jatanik ez uste izan. Ezta urrik emon be.

MET.—Isilik, zoro galant ori. Zerbaiten zaratea edo sentidu dot. Aztertu daiguzan inguruok.

MOR.—Emen dot nik urretx-makilla sendoa, eta euskaldun naizenez, eztot iñoren bildurrik.

MET.—Ardiai dei egiteko sasoia be, bada-ta.

MOR.—Bertora batuko ditut.

MET.—Ez. Neuk egingo dot lan ori. Toki onek izu ta larri jarten nau; bildur bildurretan. Ikusi nai neuke bera, eta ez ikusi, naiago.

MOR.—Tira, ba. Ezer laguntasunik nai bazendu, txistu-egitea baiño ez dozu.

II

MORROIA.—Ori gure Meteri ori! Goizetik gabera, saietsa ausita lez, ez jaku geratu ba? Emakume kontuak! Ori oraintxen arte, zerean egon da... Belenen. **(Begiraka)** Karatxi!!... Or bide-zidorrean beera datorrena, ezta lamina txarra. Ori ete zan gure mutil zaldunak ikusi ebana? A, ja, ja! **(Urrengo itzok, oiuka lez esango ditu)** Gure auzoko neskak bere, badituе bai!...

DOMINIKE.—**(Agertuaz)** Zertzuk ditue ba, gure auzoko neskak?

MOR.—Zera... nik bai jakin.

DOM.—Ta niri ez esango?

MOR.—Ez, zerbaiten truke izan ezik.

DOM.—Zer aundia al da, ala txikia?

MOR.—Orretan, bakoitzak berak dau neurria.

DOM.—Tunante-zar orrek ez dakizu gitxi.

MOR.—Esan; ni ostera, enaiz eskolan ibilli. Zuk, barriz, badakizu eleiz-liburuak irakurten.

DOM.—Mezea erazoten badakizu ba.

MOR.—Ba! Buruz ikasirik dot; gure aititari ikasia. Eta orretan sarri saiatu naiz. Meza laguntzen, niñoan.

DOM.—Oitura oso ona da.

MOR.—Ezin ukatu. Baiña neska-laguntzen be, bardin saiatzen naiz, batez be, ordu onetatik gora.

DOM.—Nik ostera, ez izan zure laguntasun bearrik.

MOR.—Orixe ez dakigu, zer nai zendukean. Ba... ez dakizu ondo, zer galtzen dozun.

DOM.—Galdu, ostera? Tira, tira! Zu baiño galantagoak ibilli dira ugari nire ondoren.

MOR.—Ni neu, ez gero. Indarrez ez nabil ni iñoren atzetik, batez be, iñor ori, neskatxa itxusi samarra izan ezkero.

DOM.—Lotsabagea! Nor da ba, berau, basetxe bateko morroi bat besterik?

MOR.—Aupa, Mari-Bizar!! Neskatillak nik i **(Atzamarrak batuta erakutsiaz)** olantxerik izan oi ditut inguru, olantxerik, mordoka. Ai, ene! Arrasaten dala, Eskoriatzan dala, Aretxabaletan izan, edota Oñatin gertatu, erromeri egunetan batez be. Begien bistako gauzea da, zuk Garagarzako Salus ezagutzen eztozuna. Or jagok ba! **(Intziri antzeko zerak entzun beitez)** Zer dira intziriok? Zuk egin al dozu asperenik, Dominike?

DOM.—Ez nik asperenik. Jei! Zeugaitik egingo neukezala eztozu siñistuko, arean.

MOR.—Ara. Ez naiz orain txantxetan asi.

DOM.—Zegaitik ba?

MOR.—Inguru onetan bertan, batzuetan izugarrizko zerak jazoten ei dira-ta. Oraingoan be, tira... ezta edozelakoa aurrean dodan zera.

DOM.—Nogaitik diñozu?

MOR.—Jan egingo zindukedaz... jatekoa baziña! Aaaau!

DOM.—Alde ortik, zikintxu.

MOR.—Zikintxu bai, gure txarrikume biribilla. Baiña ni neu, garbi nago. Ostantzean ,itandu abadeari.

DOM.—Ai, koipe, koipe! Ziri ederra sartzen deutsazu zuk Don Anakleto-ri, elizan santu-usaiñak erabilliaz.

MOR.—Elizan, elizan lez; eta basoan... eta abar, eta abar, eta abar.

DOM.—Banoa neure bidean.

MOR.—Bai, zoaz. Eretia ez danean, emakume guztiak sobra dagoz nigaitik. Guztiak lupuak jango balitu be, bardin.
DOM.—Azeriak bai maatsari beste ainbeste. Ai, artobero! **(Beioa)**

III

MOR.—Ezta txarra arto beroa, kaiku bete esne guri izan ezkero. Neska buru ariña! Zer dakiala orrek, zer, Garagarza-ko Salus-ek dituan enkantuak...! **(Adi adi)** Barriro be, asperenak eta intziriak sumauten ditut. Meteriiii!... Meeeeteri!... Nora arraio egin ete dau orrek?

(Unetxu oso labur batean aldegin begi. Violin baten negar-soiñua entzungarri litzake. Bercalaxe agertuko da, Meteri-ri gerritik elduta, ibilten lagunduaz)

MOR.—Larritu egin al zara, Meteri? Kolorga zagoz, zurbil. Goizeko eguzkiaren izpi beroak, kalte egin al deutsue gaberantz?
MET.—**(Motelkiro)** Aaaai!... Aaaaai!...
MOR.—Makal zagoz. Jesarri zaitez lurrean. Ura ekarriko deutsut. Nai al dozu?
MET.—Larri nago.
MOR.—Bazakust. Ezer pasau al jatzu?
MET.—Emakume axe... ikusi dot.
MOR.—Ikusi bakarrik?
MET.—**(Nagiro mintza bedi)** Ikusi...eta... berbegin be bai.
MOR.—Ta, nun dago, nik arrapau daidan? Sorgin barrabana!
MET.—Ezin, ezin.
MOR.—Joan egin al da? Iges egin al deutsu?
MET.—Lenengoz, iturri-ondoan ikusi dot, urrunetik. Bere ule ederra orraztuten ziarduan. Dotorea guztiz!
MOR.—Neuk ikusi izan baneu, sikeran.
MET.—Aari baten ganean egoan jesarrita.
MOR.—Ari baten ganean? Aria eten, jausi eta antxen lertuko da.
MET.—Entzun: aari zaarraren ganean.
MOR.—Kontxo! gure aari zaarrak ez ditu, ba, emakumeak bere gustoko izaten.
MET.—Ama gureak esaten dauan lez, eta aititak bardin, oiñetara begiratu deutsat eta, zuzen, alakoxe oiñak zituan; aatearenak lakoxeak, ortozik egoan-ta; beatz guztiak mintz samurrez bata bestea alkarrengana zertuak.
MOR.—Madari madaria! Lamiña berbera da orduan!
MET.—Bai.
MOR.—Zenteilla arraioa! Zegaitik ez deustazu didar egin? Nire urretx-zarta onegaz emongo neutsazan ba, emotekoak!
MET.—Onetan, ikusi egin nau. Eta eskuetan eukan urrezko orrazi ederra kolkoan gorde, eta irribarreka urreratu jat, eta mun-egin deust bekokian.
MOR.—Barriro be? Beste modutako lamiñea izan dot nik emen: Pagoeta-ko Dominike. Baiña, ez itxi arek niri ikuturik egiten be!
MET.—Eta gero... berbegin deust. Zera... atzo adierazo eustanaren barri emoteko. Badakizu ba, erantzuna.
MOR.—Zer gero? Ezkondu kontua? Orrelako zerak astiroago ta geldiroago bear ditugu. Ezkontzea... buztarria dok, mutil. Eta buztarriak obeak izan ganaduentzat, guretzat baiño. Ezeuntsan, ba, baiezkorik emongo.
MET.—Ezetz esan deutsat, estu ta larri esan be.
MOR.—Ederto. Dagoala neska zaar ori nai badau, ta nai ezpadau; oraiñarte be, zu barik konpondu izan da-ta.

MET.—Bigarrenez ta irugarrenez be, itandu deust.
MOR.—Baiña zuk, asteme zaarraren uzkerrai aiña jaramon, ezta?
MET.—Arpegi polita jarri dau orduan!... Aren begirune zorrotza! Aren ezpanen tximur-aldiak! Aren agiñen karrazkada latzak!... Ene ba! Niri begiz-begi egon da luzaroan; sua eriola, nik uste. Orduan, zorabioak artu nau. Konorta noiz galduko. Biotzak eztanda egin bear!
MOR.—Lamiña madarikatua!!... Aurkitzen zaitudan tokian bertan, gerriko azurra ausiko deutsut. **(Meteri-ri)** Badakit zer dozun. Begizkoa egin deutsu; begizkoa, nunbaite be. Zazpi ermitetako kanpaiak jo-erazoko ditut gau osoan. Zagoz emen! Basetxera bialduko dot lenengo topauten dodana, burdibilla, zeu eroateko. Errezau egizu bitartean; errezau Andra-Maria-ri.

(Beioa) (Oiala beera).

Irugarren unearen azkena

LAUGARREN UNEA

(Garagarza-ko elizearen alboa agiri da, ez ate nagosia. Inguru, zugatz batzuk. Urruntxuago, illerria)

I

MAIÑASI.—Mutil gizarajoak izan dauan azkena! Oraintsuen, ortxe, Garagarza-ko arte zaar ederraren azpian ikusi neban Meteri zana. Ezta gauza izan, ganera, oetik jagiteko be, lamiña donga arek begizkoa egin eutsanetik.
DOMINIKE.—Eta egin gitxiren buruan, ganera! Ez genduan errez siñistuko gure denporan orrelako zerik! Ta... noiz jakin dozu?
MAI.—Ilbarria? Nik gaur berton. Kanpaiak entzun ostean.
DOM.—Ez aldozu negarrik egin?
MAI.—Nire begiok, iturri emonkorraren antzean jardun izan dabe, eta zapiaren tximurrak, malkoen bustitasunak bigundu ditu.
DOM.—Eta, Kataliñ-ek zer esango ete dau, ba?
MAI.—Aspalditxu, Katalin aregaz zorabiatzen asita egoala esan bear. Izan be, maitagarria zan Meteri, gazte apal, barru garbi, lotsatia eta guztizko zera.
DOM.—Ez diñozu guzurrik. Kokil samarra zala iñoiz adierazo arren, sekulako senarra izan zeitekean Meteri.
MAI.—Bai, aen etxeko morroia baiño beste era batekoa.
DOM.—Nor, Salus? Onek be, baditu gero, bere alde onak. Au ta Meteri, eguna ta gaba.
MAI.—Ori bai. Jolaserako ezta makala.
DOM.—Olan iñoan arek berak be. Neskatillen artean pleit ikaragarria izaten dauala. Zuk be, ba al zenkian?
MAI.—Bai, bein baiño sarriago ikusi dot bazterretan... badakit nik zelan.
DOM.—Ene! Katalin berbera dator ortxe.

II

KATALIN.—**(Ager bedi. Koiñere baltza buruan, luze, bizkar ta inguru. Baltzez jantzita)** Neskak! Auxen da ezbearra!

DOM.—Zugaz be, gogoratu gara, Katalintxu! Beiñola zeozertxu jakinerazo nai izan zeuntsan Meteri gizajoari, eta arek orduan biotza garbi izanik, ez zenkian geroago beste badaezpadako pizti orrek egingo eutsana.

KAT.—Bai. Zeozer nik aitatu orduko, lamiña baltz orrek ondatu deusku mutilla.

MAI.—Egonarria, Katalin, etorkizunaren barri eztakigu-ta.

KAT.—Bai, laztana. Goiko Arek emongo al deuskuz beste artzain batzuk menditxu onein aldapetan.

MAI.—Ames txar baten itxurea izan dau jazoera onek. Oindiño badiraue gure mendietan eta ibaietan parte txarrekoak.

DOM.—Salus, aen etxeko morroia, erne ta gogotsu ibilli zan zazpi ermitetako kanpaiak jo-eragiten, baiña oraingoan beintzat, alper-alperrik izan da.

MAI.—Olantxe bearko zan-ta.

KAT.—Bai. **(Negar antsika)** Bai!... Goiazan ba, gorpulorrean lagun gakiozan.

(Maiñasi-k eta Dominike-k be, mantilla baltzak buruan jarri, ta beioaz iru neskatillak elizeak atea dauan alderantz)

III

TXORGORI.—**(Ager bedi)** Or doiaz auzoko ernamin txanbeliñak. Nik gaur eliizako zeretan jardun bearra dot. Lendabiziko kanpaiak jo ditut. Biurtzerakoak jo bear ditut orain.

Baiña mutillak egin deuskun egitekoa! Il ezta egin ba, emakume lamiña orretariko batek begizkoaz zigortau dauala-ta!...

Eta gero, Don Anakleto gure abade gibel ederrak, esango deusku barriro be: «Ez daizuela, kristiñau maiteok, ez sorgiñik ez lamiñarik dagoanik siñistu. Ez dozuez ipuin orreik barrebide ta uskeri lez baiño artu bear».

Ori esaizu ba! Ikusi doguna ikusita gero! Eta eztago norarik: ezpal bateko lamiñak ez baldin badira... beste ezpalekoak jabetzen dira gugaz. Emen daukagu ejenplu bat:

Meteri gizajoak andrekin traturik bapez edo gitxi, eta orra... lamiña ule urrezkoak galdu dau.

Eta ni, lamiña orrek ez baiña... Maripa Moxubeltzek galdu ninduan... Bera daukat etxeko nagusi. Ez ain zuzen, urrezko orrazi ta guzti, aren buruko uleak, artaburu baten bizarrak aiña be eztiralako, gaur egunean.

Kanpai jotaldia egingo dot, eta gero, elizako argiak izetuten jardungo dot.

(Berealaxe, kanpaien otsa entzun-erazo begi. Barruan, koru batek kantauko dau:)

KORUA.—**(Astiro)** Dulun, dulun, dulun, dulun!
Ibarretan laiño ulun...
Dalan dalan, dalan dalan!

Lamiñeak gaiztoz illa.
(Azkar) Garagarza-ko mutilla
Negarrez mendi eta aran.
(Astiro) Begizkoz galdu dau alan
Lamiña zuri zirtzillak?
Dulun! Dalan!
Dulun! Dalan!
Dan!

(Oiartzun luze. Isil beitez kantu ta kanpaiak. Gorpu-lorra, baiñan ikusi bage. Eszenarioan, ertz batean, elizmutilla ta abadea ikus beitez. Bizkarrez jendea ta zerraldoa agertu bage. Isillean errezauko dau. Bereala, beioaz. Orduan ager daiteke jendea, baiñan bazterrean, igaroten edo eleizan sartzen lez. Eszenario erdian ez da iñor egongo.

Onetan, beste aldetik, gorpua azkenez ikusi nairik lez, damuz edo, ager bedi Lamiñea, geldiro, isilik, burua makur samar, baltzez jantzita, ortozik. Bapatean, kanpaiak asten dira, ta oiu egiñaz, beioa igesi. Maiñasi ta Dominike ager beitez leentxuago. Eta Lamiñearen zerak ikusirik, neskatxa biak ukabillak jasoten ditue, zemaiez lez. Barriro, musika bardiñez, isilkiro ta gozo asiaz, koruak:)

KORUA.—**(Astiro)** Dulun, dulun, dulun, dulun!
Gaizkiña bere ez zan urrun.
Dalan dalan, dalan dalan!
(Azkar) Garagarza-ko mutilla
parte txarrekoak illa.
Lamiñea ariñeketan
(Astiro) Kanpaien atsekabetan
igeska, isil isilla?
Dulun! Dalan!
Dulun! Dalan!
Dan!...
(Oiartzun luzea, apala)

AMAIA

Primera aportación para el conocimiento de la vida y obra de

PEDRO IGNAZIO DE BARRUTIA Y BASAGOITIA

(1682-1759)

Según se ve en el libro de fallecimientos de la Parroquia de San Juan Bautista de Mondragón (Guipúzcoa), Pedro Ignazio de Barrutia y Basagoitia, autor dramático y poeta en lengua vasca, fue escribano en dicha Villa. También fue fiel de la misma, según se puede ver en el libro de Actas de su Ayuntamiento. Nació el día tercero de julio de 1682, en Ibarra de Aramayona (Alava), hijo natural de Pedro de Barrutia Salinas y de Catharina de Basagoitia y Olavide. Casó el día séptimo de diciembre de 1713, con María Luisa de Humendia y Arraga, siendo padre de numerosos hijos. Murió el día quinto de octubre de 1759, en Mondragón.

A continuación copiamos sus Actas de bautismo, matrimonio y defunción, que debemos a la gentileza de D. José Luis de Iñarra, arcipreste de Léniz y párroco de San Juan Bautista de Mondragón:

Acta de bautismo:

"Sr. D. JOSE DE MARQUIEGUI Y GARAY, CURA ECONOMO DE LA IGLESIA PARROQUIAL DE SAN MARTIN DE IBARRA DE ARAMAYONA, PROVINCIA DE ALAVA, DIOCESIS DE VITORIA.

CERTIFICO: Que en el folio 53 vuelto del libro 5.° de los bautizados de esta parroquia, hay una partida, que copiada literalmente dice así:
Al margen: "Pr.° Ignazio de Barrutia."

Al texto: "En tres de julio de mill. ss^os.^ y ochenta y dos a. yo D. Andrés de Garro (del^a.^ Paroqui) bauticé a Pr^o^ de Barrutia y Salinas y Catharina de Basagoitia, sus padrinos fueron D. In.^o^ de Arraga y Dña. Luisa de Arraga, Aguelos paternos D. Mrn. de Barrutia y Dña. Ana María de Salinas h^os.^ de Mondragón; Maternos Gregorio de Basagoitia y Mariana de Olavide h^os.^ de este valle y lo firma."

Al pie: "D. Andrés de Garro". Rubricado.
Y para que conste donde convenga lo firmo y sello con el de esta parroquia, en Ibarra de Aramayona a quince de diciembre de mil novecientos cincuenta y nueve.

El cura ecónomo: Firmado: José de Marquiegui: Rubricado.

Hay un sello en tinta violeta que dice: Parroquia de San Martín de Ibarra de Aramayona."

Acta de matrimonio:

"El infrascrito Cura Ecónomo de la Iglesia Parroquial de San Juan Bautista de Mondragón,

CERTIFICO: Que al folio 175 v.° del libro n.ª 6 de casados, consta la siguiente inscripción:

Al texto: "Pedro Ignacio de Barrutia, hijo natural de D. Pedro de Barrutia y Salinas y Catalina de Basagoitia y María Luisa de Humendia, hija legítima de D. Martín de Humendia y Lucía Arraga, vecinos de esta villa de Mondragón parientes en cuarto grado de consanguinidad, habiendo S. S. dispensado en el impedimento de dicho parentesco y pasada la dispensa ante el hordinario de este Obispado, su fecha en 5 de Diciembre del presente año, se casaron por palabras de presente ante mí, D. Joseph de Mendibil Arcipreste de Léniz, Cura y beneficiado de la Iglesia Parroquial de San Juan Baptista de esta dicha villa en 7 de diciembre de mil setecientos y trece años precediendo las tres proclamas que dispone el Santo Concilio de Trento. Siendo testigos D. Manuel Antonio de Zenica, D. Juan Miguel de Salinas, y D. Nicolás Balbino de Zaraa. Y para que conste firmé dicho día mes y año."

Al pie: "Joseph de Mendibil: Rubricado."

Es copia conforme al original al que me remito. Y para que conste la expido la presente que firmo y sello en Mondragón a 15 de octubre de mil novecientos cincuenta y nueve.

Firmado: José Luis de Iñarra: Rubricado.

Hay un sello en tinta violeta que dice: Parroquia de San Juan Bautista de Mondragón."

Acta de defunción:

"El infrascrito cura ecónomo de la Iglesia Parroquial de San Juan Bautista de Mondragón.

CERTIFICA: Que al folio 113 del libro n.° 8 de defunciones, consta la siguiente inscripción:

Al texto: "En cinco de octubre de mil setecientos cincuenta y nueve años, murió D. Pedro Ignacio de Barrutia, viudo, natural de Zalgo en el Valle Real de Aramaiona, hijo natural de D. Pedro de Barrutia del Orden de Santiago, natural de esta villa de Mondragón, y de Catalina de Basagoitia, natural de dicho valle, vecinos de esta dicha villa, siendo de edad setenta y cinco años cumplidos; habiendo recibido los Santos Sacramentos y testado ante Xristobal Ventura de Urrechu, Escribano de su Majestad vecino de esta referida villa. Fué enterrado en esta Iglesia Parroquial con Honra Maior. Por la verdad yo D. Melchor Cura y Beneficiado de esta, firmé."

Al pie: Firmado: "Don Melchor de Jáuregui: Rubricado."

Es copia conforme al original al que me remito. Y para que conste expido la presente en Mondragón a quince de octubre de mil novecientos cincuenta y nueve.

Firmado: José Luis de Iñarra: Rubricado.

Hay un sello en tinta violeta que dice: Parroquia de San Juan Bautista de Mondragón."

Copiamos seguidamente la pieza teatral de este autor, titulada *Acto para la Noche Buena*. Desconociendo el paradero del original, que suponemos está entre los manuscritos exis-

tentes en la biblioteca de los herederos de D. Juan Carlos de Guerra, en su casa de Mondragón, nos hemos valido de un manuscrito, propiedad de la Academia de la Lengua Vasca, el cual, al parecer de letra del Sr. Guerra, fue utilizado por D. Resurrección María de Azkue para la primera edición de la obra en la revista de Euskalzale.

El tal manuscrito consta de 13 hojas de papel grueso, tamaño 21,5 x 16 cms., escritas a tinta por ambas caras. Vemos algunas acotaciones a lápiz, de letra del Sr. Azkue, coincidentes con la edición de *Euskalzale*. No hacemos caso de ellas; pero en lo que se refiere al texto en tinta, hemos procurado copiarlo exactamente.

Acto para la Noche Buena

—Cantan dentro.—

La Divina Magestad
ha querido que este dia
se despose con María
Joseph por su gran bondad.

—Salen S. José y la Virgen—

S. J. —Benturosoa milla bider ni
Zerren juntadu naizazun zeuri
Mila grazia emaiten deusat
Au ordenadu dauen Jaunari.—

V. —Ni mila bider benturosea
Josefe Dabiden semea
Zerren zeruak ala nairik
Naizan zeure esposea.

S. J. —Ainbat bentura ¿nundik nik nundi?
Responde de dentro el angel

Ang. —Doa gustia dator zeruti (ponese de rodillas)

S. J. —Cumplitu bidi sekula beti
Ordenadua zeru altuti.

V. —Nundi nik nundi ainbat bentura

Ang. —Jaun zerukuak ala dau gura (de rodillas)

V. —Cumplitu bedi beti sekula
Zeru altuak ordenadua.

Cantan dentro

Esta Virgen celestial
de San José digna esposa
será con Dios piadosa
á remediar nuestro mal.

Sale la Virgen.

Ang. —Trinidade altuko seme bakarra
Arren adiezazu gure negarra
Zatoz Orienteko eguski klarua
Akordadu bekizu Adan ichua
Adanek egiñ eban ichurik bekatu
Aren da gure kulpak damu ditugu
Merezidu ez arren parkazionoa
Bakigu zen zarana piadosoa
Profeta sagraduak eskribidu eben
Nola zan Jaun andi bat jaioko Belenen
Bera zala izango salbadorea
Desegindu egian gure kulpea
Donzella bategainik xaiokozala
¿Nor izango ote dau Jaun onek Ama?

Sale el Angel

Ang. —Ave mila bider Birjiña Maria
Ni naiz zeru altuko mandataria
Zerureanik dakart embajadea
Zeu zarala izango Jaunaren amea.

V. —Ezagutu ezpadot sekula gizonik
Nola jaioko da Jaunori neugainik?

Ang. —Ez dozu zer ifini batere dudarik
Ez ta zeruarentzat imposiblerik
Improsibleak eurak aditu nagizu
Egimbite esanak egiten ditu (váse)

V. —Zeu zara ene Xauna, esklabea naiz ni
Zeure borondatea kumplitu bidi. (váse)

Cantan dentro

Joseph con resignacion
Pon los ojos en el cielo
Que á sus siervos da consuelo
En la mayor aflicción.

Sale Sn. José

S. J. —Izorra sentizen dot neure esposea
Aditu ezin dot nik zer dan kausia
donzella bat ain garbia
Nola zaran zu Maria
nola da posible
¡ay, ay, ay ene!
Ez dot nik merezizen zeugaz geldizea
Zer egingo neuke ¡ay! ene tristea
Fuerza jat juatia
Imposible egotea
Zeugainik ausente
¡ay, ay, ay ene! (échase a dormir)

(aparece el Angel)

Ang. —Joseph itzi bekio pensamentu orri
Biotzeko penea desterra bidi,
Zure esposeagan ez ta posible
Inok edirozea kulparik batere
Labur da gizonaren adimentua
Adizeko Jaunaren ordenadua
Espiritu Santuak keriza eginik
Jesusa xaiokoda Virjiniea gainik (váse)

Edicto de Cesar

Salen el Ministro y el Gracioso

Min. —Mundu guztiko Emperadore Zesar Augusto aundiak
Ala nairik alista bitez aren basallo gustiak
Gizon bakoizat pagatu bedi tributua ta zensoa

Grac. —Diruak ez atara zeori eztok egingo beloa
Ene bolsea arina beti urrin neuganik dirua
Nik neuk ere dirua baneu ederra neuke mosua

Min. —Chakurrak eurak egiten dabe danza diruagaiti

Grac. —Gure Mundragoen pagatzen dogu dirua dazeagati
Auxe dok bizitza modu
Neska zarrok danza egin da mutilok dirua pagadu
Ibini bidi, Alkate Xauna, ibini bidi legea
Mutilak libre, neskachak eurak paga dezeela danzea

Min. —Zuk emoniko sentenzi orrek chapadamente dirudi
Zu legezko abogadurik ez da sekula ikusi

Grac. —Zerrebeta xo bidi emon daiztan salto bi

Chamb.—Zer soñu?

Grac. —Gura doana xoegik eze gustirako nok agudu
Danza el gracioso un villano

Salen Sn. Joseph y la Virgen

S. J. —Goazen Maria, goazen Belenera
Zesari tributua an pagatzera

V. —Borondate asko gaz xarten naiz bidean
Pozik etorriko naiz zure atzean

S. J. —Emeti Belenera dago bide luzea
Zure trabajua da ene penea

V. —Ordenadurik dago gu ara xuatea
Cumplitu bidi Xaunaren borondatea (váse)

Cantan dentro

A Belen caminan Josef y María
Jesús vá encubierto, El es quien los guía
Seguid sus pisadas, seguid, alma mía,
Errar no es posible con tan zierta guía.

Salen Sn. Joseph y la Virgen

S. J. —Xaunari demaguzan graziak Maria
Orra nun agertudan Belengo uria

V. —Eperik ezta Josef cumplitzen eztanik
Laster xaioko da Jesusa niganik
Kontenturik bioz au kabidu ezin jat
Neu sentizen dot paradisu bat

S. J. —Pensamentuan nator zerren dan berandu
Izango ote dogun Belenen ostatu

V. —Ostaturik ezpada Belengo errian
Zeruko Jauna dago leku guztian
Ordua etorri da esposo maitea
Seinonek xaio beardau xokudi atea (tocan a la puerta)

Cantan dentro

Llamando está San Josef
A las puertas de un meson
Con la reina de los cielos
Virgen y Madre de Dios.

Dentro el mesonero y el criado

Tomas —(da voces): mutill, adizen dok, mutill!

Chato —Beti arran eginik naduka adikaturik
Erribateko kanpaetzat ez tau bere parerik

Tom. —Ez al nok aditu
Zorigaistoan artu indudan neure echean criadu

Chat. —Lo egiten iskuzu; goiza etorri echazu
Puntu onetan oera naiz da enaiz ondo berotu

Tom. —Ara norbait da atean

Chat. —Gu ondo gauza oean

Tom. —Mutil nagia xagi adi

Chat. —Xaginendi albanegi

Tom. —Arraka
Gura al dok ibili nadin makilaka ta agaka

Chat. —Arzaraz beti gure nagusi
Alamenean ezteuz ichi
Olloa nola iskintokian
Gizenzen jaku losagerian

Tom. —Aguro
Ondo ikasteko bearneuskio zaukazanak ebagui
Bera dazan oearekin su emon prestu ezari

Chat. —Eso sí
Orrelako orazinoak zure aoan ugari

Tom. —Chato mutil lotsagabe, desvengonzadu perroa
Xagi banadi ichiko deustat moltsuarekin aoa
Ay kora mutill

Chat. —Flema oberik ekusi dozu urtezen daben zerekin.

S. J. —Ostatu eske gabilz ez arren beatu
Zeuroen trabajua pagatuko xazu.

Chat. —Zuenzat ostaturik eztago emen
Akomoda zaitez basterren baten
Belenen ostaturik guretzat ezpada
Arren erakuskuzu nun irago gaua

S. J. —Or dago portale bat uriaz ateti
Iskuzu lo egiten zuaz emeti (váse)

Virg. —Besterik ezin bada guazen bada ara
Xaungoikoa dan lekuan ezer ez ta falta (entran en el portal)

(Tocan algún instrumento y cantan dentro)

Bekatariak alegrabitéz alegrabidi zerua
Portale baten jaiorik dago Mesias prometidua
Zeruarenzat gloria dakar gizonarenzat bakea
Bakea bere ez nola nai ondasun askoz betea
Amorioak dakar zerurik Jesusa zuen artera
Bekatuaren poderiotik guztiok atarazera
Bekatariak ez desechadu Xaun onen amorioa
Mundureanik apartaduta agan ibinzu gogoa
Askoda lorik esnaazaitez; bioz garbierazazus
Bioz garbira etorriko da, an izatera kontentuz

Sale el demonio echando fuego

Luzifer. —Izanik infernuko prinzipe andia
Demonio guztien agintaria
Ni orain indar baga ni orain loturik
Sein bat baster baten jaioagaitik
Luzifer altibo soberbioa
Nun da anchiñako ire brioa
Pena garratz, rabia, tormentu andiak
Abrasatzen deust errai gustiak
Iregibidi lurra irunsi nagi
Sekula ainbat pena estot eugi

Ene infernua dago Belenen
Enaiz atrebitzen gaizki esaten
(Señora virtuosa (zer esango dot
Gaizki naiaren esan ezin dot
)Señora virtuosa) ¡ai ene tristea!
Andra gustien artean kulpa bagea
Donzella daguala semea egin dau
Nik ezin aditu dot misterio au
An dago agura bat ez mundukua
Gura nukean baño santuagua
¡Aí ni mila bíder desdichadua!
Nola ausi deusten neure burua
Orain portalean jaio-dan orrí
Ausía emango deusat sekula beti
Gizonak ene kontra ainbat podere
Gizona izatea ez da posible
Nun aiz Asmodeo, nun aiz Berzebu
Ocasino onetan fabore indazu
Fabore infernua, fabore, fabore,
Lagun izango dogu Erodes errege
Zierra, zierra, guerra, gerra.

(hacen ruido: salen Asmodeo y Berzebu (sic.)

As. —Luzifer andi balerosoa ez adila turbadu
Ire favore etorri gaituk Asmodeo ta Berzebu
Baal, Belial, Lebiatan ta beste gañeko jentea
Azean dituk dakardela ire estandartea
Publicavidi gerra eruela gerra mundu gustiti
Emon bekio álada kumpli xaio dan infante oni

Berzebu—Gure kontra etorri da benturaz bere kostuan
Padezídu bearko ditu mila trabaju munduan
Aldagidana egingodot nik neure podere gustían
En la Biblioteca de la Academia de la Lengua Vasca se encuentra un buen número de sermones manuscritos en lengua vasca, la mayoría en dialecto vizcaíno, y alguno en lengua castellana. Hay unos pocos que tienen indicación de autor y año. La mayoría no. Unos cuantos son de finales del siglo XVIII. Hay también hojas sueltas borradores. Están escritos con tipos de letra diversos, de distintas manos. Se ignora, de momento, de qué lugares llegaron dichos manuscritos a la Academia, así como las personas que los entregaron y recogieron. Consideramos de utilidad la transcripción de dichos documentos, pues a través de ellos se podrá comprobar la vida literaria de la lengua vasca en escritores, sobre todo del siglo pasado, que no hicieron obra mayor, y que responde a una tendencia unánime de la época.

Personas jóvenes —franciscanos, pasionistas, benedictinos, carmelitas, jesuitas, capuchinos, sacramentinos, seminaristas, etc., o seglares— pueden tomar a su cargo la transcripción de algún sermón, realizando el trabajo en forma de seminario. Ello puede servir para que la gente estudiante se introduzca poco a poco en el estudio de nuestra literatura clásica, que aunque no es tan extensa como en otros idiomas, no por eso es despreciable. (A. I.)

Fr. Fran^co^. Tristan de Huandurraga
(1822)

[Portada:] Jesus, Maria, y Joseph. / Sermon de la Muerte de Jesu Christo, y Soledad / de su Santisima Madre Maria Santisima, / Para la tarde del Viernes Santo: Sobre el amor / excesivo de Christo y su Madre al hombre, / y la ingratitud de este con ellos. / Compuesto en lengua bascongada para / Sta. Eufemia de Bermeo. / Por / Fr. Fran.^co^ Tristan de Huandurraga [rubricado] / Año de 1843 [Debajo ponía 1822, pero se han aprovechado los rasgos de las dos últimas cifras para hacer un 4 y un 3 respectivamente].

[Al margen dice: *Soledad de María*]. *¡O Vos omnes qui transitis per viam, attendite, et videte si es dolor sicut dolor meus. Ex lament. Jerem. Cap. 1. ℣ 12.* 1.°

1.° Jaungoicuac eguinico gauza guztijac adierazoten emoten deuzcube gure Eguiliaren guganaco amodijuaren anditazuna, bada guztijac eguin cituban gurezat. Ainguerubac eguin bazituban, gure gordezaillezat eguin cituban: Ceruric zabaldu beeban, gure vici lecuzat zabaldu eban; Eguzqui, eta Ilarguija eguin beban, guri argui eguin eigun eguin eban: Luurra ifini beban, guri biar guindubana emon eigun ifini eban. Eta guztija beinguan esatarren: eztaucagu beguiratu baño izatia daben gauza guztijetara eta eztogu aurquituco guretzat eguin eztaben gauzaric. Orregaitic cinuan San Paulo Apostolubac Corinthiotarrai: Zubenac dira gauza guztijac: nai dala vicitzia, nai dala erijotzia, nai diriala dacuzguzan gauzac, nai diriala guero etorrico dirianac, zubenac dira gauza guztijac. Eta San Agustinec diño: Jaungoicuac guizona beragatic eguin ebana leguez, alanche guizonagatic eguin citubala gauza guztijac, eta orregatic esan leiquela eztabela Jaunac euqui bezte cereguinic euqui, guizona zorijonecua eguitia baño. Baña azco, andi, eta esagutu ecin leiquezanac badira bere mecede, eta beneficijo oneec; orregaitic bere guztiz aztu, eta ilunduric leguez gueratuten dira, araco bere seme bacarra mundura bijaldubagaz Jaunac eguin euzcuna beguiratubagaz; bada bere vicitzia curutze baten emonagaz, eracutzi euzcun eracutzi al izan eban amodijoric andijena, berac esan ebana leguez. Ezta ezetan bere, dino, obeto aguertuten amodijuaren anditazuna, bere vicitzia adisquidiac gatic emotian baño. Emenche bai ondo, eta ondo aguertuten da [está tachado *la* seguido de la última palabra *da*] dino San Juan Evangelistiac, gure Jaungoicuen guganaco amodijuaren anditazuna; bada bijaldu eban bere seme bacarra mundura beragaitic vici gaitezan.

2.° Bay christinaubac; andija izan zan mundubau eguite orduban Jaunac eracucutsi (sic) euzcun ontasun, eta amodijua; baña etzan ecer necatu eseberezti bera ateraten: bere bervia edo esatia bacarric azco izan zan gauza guztijac izatia artuteco. Baña cembat costa jacon mundubau berau barriztetia? Cembat costa jacon gure Erredencinoia? Cembat, lenengo gurasubac ifini guinduzan Diabruaren menpe, edo escupetic gu ateratia? Etzan contentadu guizon eguinagaz, eta gure pecatubac beragan artubagaz. Etzan contentadu abel echebaten lastartian pobrezaz beteric jaijoagaz. Etzan contentadu ogueta amairu vrtian aimbezte neque-lan, gose egarri, eta aimbezte

izerdi igaruagaz: Aimbezte azote, pena, eta tormentu bere Pasinoe sagradu, eta negar garrijan eruanagaz: nai izan eban galdu gure amodijoz bere vicitzia curutze lotzagarri baten, vmildu eta sugetetan zala guizonic madaricatubena sugetadu al izan lizaquen erijozaric crubel eta lotzagarrijenennera. ¡O Jaungoico baten guizona ganaco amodijo erria! ¡O ontasun parebaguia! ¡O caridade inoz ez icusija! Jaungoicuac guizonari ondo gura izatia bacarric izan biar zan beretzat mecede andi, eta neurribaga bat, bere cuidadu, edo ardura euquitia, amodijo larregui bat, eta bere anaje eguitia, caridade ecin gueijagoco bat. Cer izango da bada, curutze baten beragatic bere vicitzia galdutia? Ysanic San Juan Evangelistia ain jaquituna, eta ceruco arguitazunez ain betia, ezeban aurquitu berbaric, dino San Juan Chrisostomoc adierazoten emoteco amodijo onen anditasuna; eta alan contentadu zan ezanagaz bacarric, aimbezte maitetu ebala Jaungoicuac munduba, ce bijaldu ebala bere seme bacarra bera salvadu eijan. Orregaitic, dino San Agustinec; ez guizonac bacarric, ez ainguerubac eurac esagutu leiquijela noraño eldu zan gure Jaungoicuen guganaco amodijuaren anditazuna, bere vicitzia curutzian emon ebanian. Jaungoico bat pecatuben araguiz estalduric! Ceru lurren eguilia vilo [la letra siguiente a la *o* no es fácil precisar cual es. Aunque no es una *s*, probablemente querría escribir *vilosic*] ic! Vicitza, eta erijotziaren Jaubia ilic! [Está tachado lo siguiente: *Mundubaren Eguilia*]. Mundu guztijaren Jauna curutze baten esqueguiric! Ceruben edertazuna zauriz [el original parece que dice *zaurez* pero el rasgo de la *e* no tiene las características de las demás *e*] ezainduric! Aingueruben pozgarrija, eta guizonen Erreguija deshonrra, eta lotzariz beteric! O Jauna, O Jauna! O eta celan dacuzdan anda orretan echunic, eta vilosic anchina Noeri leguez berorren semiac burla, eta barre eguiten deutzeela lotzari artian dacuzdelaco! Baña, ce gahc (sic) eguin dau neure Jaun, eta Jaungoico andija, erijotza ain crubel, eta ain itzalzu bat emon daijuen? ilditu guizonen batzuc? Erre ditu vrijen batzuc? Edo jagui da Erregueren batzuben contra? Baña cer diñot nic? Neu naz Jauna, erijotza gogor, eta itzalsu ori emon deutzadan borregu crubela. Neuriac dira zauri orrec, azote orrec, ulze gogor, coroe crubel, eta erijotza itzalsu ori. Neuc aserratu dot Aita Eternubaren justicija, eta berorregan jausi da bere aserre guztija. Neuc pecatu eguin dot, neuc ofendidu dot berorren aita on, eta amorosuba, eta berorrec artu dau nigatic osasun guei ain min, eta garratza. Confesetan dot, sinistuten dot neure erruz dadaguala (sic) [la primera *da* está al final de línea y

la segunda al comienzo de la siguiente] vrcamendi lotzagarri baten vicitzia galduta, anda orretan ilic.

3.° Baña cetaraco, neure Jaun eta Jaungoico andija, cetaraco eracutzi gura izan deuzcu aimbezte caridade, eta amodijo? Berorren amodijura [entre la *u* y la *r* hay una letra semitachada] gu eruan, eta berori maitetura [sic] gu obliguetaco, dino San Bernardo andijac. Nai dau emon daijogun gueure vijotza, eta onetara gu obliguetaren (sic) eracuzten deuzcu beria, amodijuaren sugar vicijan erreric. Ause bacarric escatuten deuzcu eguin deuzcuzan mecede, eta beneficijo andijen ordez: onesegaz bacarric contentetan da; ezteuzcu escatuten bezte gauzaric euqui deuzcun amodijo guztijaren sari. Pagu erretza benetan, eta probechu ecin gueijagocua guretzat; bada nai badau guc bera maitetu daigun, ezta gure biar dalaco, espada gu betico zorioneco eguiteco. Baña ain da andija guizonaren itzutasuna; ain da icaragarrija bere ezquer deunga, eta correspondenci faltia, ce asturic [hay una palabra tachada: *bega*] bere Jaunagaz, eztau esagutu gura eguiten deutzan mecede neurri bagau. Ez bacarric barriztau gura dau bere pecatubacaz Jaungoico baten pasinoe, eta erijotzia, baita gueitu edo aumentadu gura dituz curutziaren oñian aurquituten dan bere ama tristiaren pena, eta nequijac, bere gogortazunagaz auzten dabela bere vijotza, eta bere ezquer deunguiagaz estutazunez beteric ifinijaz bacartasun, edo soledaric (sic) andijenian. Onesec bada obliguetan dau ama triste, eta atzacabez bete au, guztiz larritu, eta bere beguijetatic negarrac darijozala Jeremias igarla edo Profeta santubagaz curutziaren oñetic diadar eguitera: ¡O munduco vide onetatic zabilzen guztijoc; ondo aditu, eta icusi eguizube aurquituten dan ala ez nire pena, edo doloria lacoric. *¡O vos omnes qui transitis per viam, attendite, et videte si es dolor, sicut dolor meus.* Ondo beguiratu, eta pensadu eguizube aurquituten dan munduban anrraric (sic) ni icusten nazan bacartasun, eta estutasunian icusi danic. Ona bada emen verba guichitan aguerturic neure arrasaldeco [después de esta palabra se ha intercalado: *onetaco*] sermone guei, edo asunto guztija. Ycusico dozube lenengo Jaungoico baten guizonaganaco amodijo erria; eta guero Jaungoico, eta bere amaganaco onen ezquer deunguia. Eracutzico deutzubet verba baten, noraño eldu zan Jaungoico baten amodijua guizonaganaco, eta erabatera [está tachado: *noraño eldu zan*] onen ezquer guestua Jaungoico eta bere amaganaco. Eguin ebala Jaunac al eban guztija guizona irabastarren, [hay varias palabras tachadas] baita onec bere, beraganic alde eguin, eta

bere ama tristiaren soledade, edo bacartazuna gueitu, edo aumentetarren.

4.° Eta cer viurtu guinaiquijo Jauna berorri, eguin deuzcuzan mecede, eta beneficijo andi oneec gaitic? Baña cer da guc pensau, esan, eta eguin guinaiquen guztija berorren escubetatic artu doguzan mecede andi eta neurri baguien parian? Eserbere ez, neure Jesus ona. Baña berorrec berorren ontasun andiagatic bacarric escatuten deuzcu gauza guztiz chiqui, eta errez bat eguin deuzcuzan mecede guztijen sari. Eztau gura bezte gauzaric guganic, berori maitetutia baño. Ause da bacarric escatuten deuzcuna; onesegaz bacarric paguetan da. Arabada gu emen prest sor laburrau emoteco. Baña ain gara gueurez argalac, ain eseberezac, ce ecin ause bere pagadu guinaique, berorrec lagunzen espadeuzcu. Biraldu begui bada, [está tachado: *gueure asurretaraño*] cerutic bero rorren (sic) caridadiaren suba, eta erre gaguiz gueure asurretaraño. Emon beguigu esagututen anda orretan curutzian vicitzia emon da guero izan euzcun amodijua; esauquera onegaz, berori maitetu daigun, eta berorigaitic vici, eta ilgaitezan berori gugaitic vici, eta ilzana leguez. Ause da, Jauna, escatuten deutzagun gracija, vitarteco ifiniric orraco curutziaren onian bacartasunic andijenian aurquituten dan berorren ama guztiz triste, eta penas betia, esanagaz ainguerubagaz batera. Ave Maria.

¡O Vos omnes qui transitis per viam, attendite, et videte, si es dolor sicut dolor meus. Ex Lament. Jerem. Cap. 1.° ℣ 12.

1.° Anchinagocua da munduba baño Jaungoicuen guizonaganaco amodijua, ba guizonagatic eguin eban munduba dino San Juan Chrisostomoc. Etzan orregatic guizona eguite orduban explicau, edo autortu Jauna bezte gauzac eguite onduban leguez. Ceru luur, eta bezte gauzai izatia emoteco; asco izan zan bere berba bat, eta alan Eguzqui, ilargui, izar eta bezte gauzac eguite orduban bacarric esan eban, egin bediz, eta bertati eguin cirian. Baña etzan onela autortu, edo explicadu guizona eguite orduban. Ez eban esan, eguin [está tachado: *daigun*] bedi guizona; ezpada ifini zan pensetan, celan bere escubetatic ateraco eban gauzaric gahchena (sic); eta alan esan eban: Eguin daigun guizona gueure ans, edo irudira, eta ifini daigun abere chori, arrain, eta lurreco animalija guztijen buru, eta aguintari. Onanche atera eban Jaunac guizona bere escubetatic. Yfini eban Paradisico (sic) gozatazunen artian eser falta ez ecola (sic): Emon eutzan entendimentuba bera esagututeco, vorondatia bera maitetuteco, eta libertadia ondo eguiteco. Glorija eta onrraz coronadu eban, ereguiten ebala bere

escubetaco obra guztijen ganian, bere oiñ aspian Davideddinuana (sic) leguez gauza guztijac ifinten citubala. Baña guichi iraun eban guizonac zorijon suertezu onetan. Bere dicha, eta felicidade andiaren embidiaz beteric, etzan gueratu sugue madaricatuba Jaunaren escu ugariric artu eban gracija galdu eraso artian. Autzi eraso eutzan bere aguinduba, eta gueratu zan eucan edertasun baga guztiz ezainic Jaungoicuen arerijo eguinic, beragaz batera sugetetan citubala bere seme guztijac neque, miserija, eta erijotza crubel batera. ¿Ce castigu mereci ez eban Adanec pecatu onegatic? Artuten dau izatia Jaunaganic, eta nai leuque izan bera beste: Betetan dau jaquiturijaz, eta Jaungoicuac gaña jaquin nai leuque: Yfinten dau lurreco aguintari, eta gura leuquez euqui cerubac eurac bere aguindura: Eguiten dau guizon guztijen buru, eta gurari bategaz ilten dituz bere seme guztijac. Ce miserija, ce neque, eta ce pecatu ecarri euzcuzan mundura desobediencija crubel onec? Noc usteco ez eban, bertati botaco ebala Jaunac infernubetara lenengo guizona, icusiric cer eguin eban aingueru deungacaz? Bana ó Jaungoico baten guizona ganaco amodijo errija! Erruquitu zan beragaz; ezagutu eragui (sic) eutzan bere pecatuba, emon eutzan penitencija eguiteco lecuba, eta atera eban pecatuco estadu triste, eta negargarriric.

2.° Baña etzan onetan gueratu bere guizona ganaco amodijo errija. Ycusiric bere ans, edo irudira eguinico guizona, alde guztijetatic aimbezte neque, lan eta miserijaz beteric, artuten ditu pecatubaren catiguerijo ain gogorretatic bera aterateco asmubac. Biralduten dau mundura bere seme bacarramaitia [la *a* y la *m* están semisuperpuestas]; janciten da au pecatubaren araguiz guizon eguiten dala; artuten dau beragan gure sor guztija, eta onen sari iragoten ditu neque lan, iserdi, gose, egarri, pena eta tormentu crubelac, eta galduten dau bere vicitzia curutze baten lotzari artian. ¡O caridade neurri baguia! ¡O caridade inoz ez ensun ez icusija! Baña obeto oraindino esagutu daizuben gueure Jesus onaren caridadia, pensadu, eta beguiratu eguizube ondo, batetic curutzian vicitzia emon ezquero anda orretan ilic dacusuben Jaun orren anditazun edo dignidadia; eta besstetic, beguiratu, edo pensadu eguizube guizonaren miserija, eta ezebereztasuna. Beguiratuten badeutzagu guizonari, nai dala gorputzian, nai dala ariman; icusico dogu dala autz edo lur puzcabat; pecatuben servizale bat, Satanasen mempeco, edo esclavo bat, Jaungoicuen arerijo, eta diabruben diversinoe, eta burlagarria. Yfinten badoguz besteti gueure beguijac anda orretan ilic daguanagan; icusico dogu dala Aita

Eternubaren seme bacarra; eguijazco jaquiturija; beragaz guztijan bardina, bere verba eta [hay tachada una palabra que dice: *poderi*] vorondatiaren poderijuagaz gauza guztijac eguin, gorde, eta gobernetan ditubana, eta ceruban bere escomatara (sic) jarriric daguana, San Paulo Apostolubac dinuana leguez. Aimbezte magestade, eta poderijoco Jaun andijau dabada, christinaubac, curutze baten guizonen amodijoz sacrificadu ezquero, gueure beguijacaz anda orretan ilic dacuzguna. Ause da Jaungoico benetacuben Jaungoico [hay una palabra tachada] benetacuba leguez bere naturaleziaren bardintazu [sobre la *u* final hay una *a*] iñori quendubaga, bere Jaungoicotazun, edo Divinidadia mempeco, edo esclabuen irudijan ocultetarren guztiz vmildu, eta eseberartuten (sic) [la segunda *r* no es clara] dana. Beguiratu eguijozube pecatarijac; beguiratu eguijozube atencinoz, eta icusi eguizube zeuben amodijoz igaro dituban zauri, eta erida crubel, eta icaragarrijac. Ycusi eguizubez bere oin, eta escubac ulze gogorracaz batic bestera iragoric; bere buru sagraduba aranzas coronauric; bere arpeguija chistus loituric; bere begui arguijac trapu loi batagaz estalduric; bere belarrijac icaragarrizco injurija, eta blasfemiacaz estutu, edo afligiduric; bere becoquija ucubilcada crubelacaz heriduric, bere iduna catia gogor, eta astunacaz erasiric; bere sanac urraturic; bere araguija azotez zatituric; bere bularra idiguiric; eta bere gorputz guztico assurrac, euren lecubetatic ateraric; Ycusico ceunque... Baña, cer dinot? '3.° [Este número está al principio de la página 4]. Ez neunque inoz amaitu, edo acabauco banaz banasian contau nai baneunquez gure Jaun, eta Jaungoico andijac gure amodijoz igaro dituban neque, pena, eta tormentubac. Ain andija zan bere erraijetan iriquiten eban caridadiaren suba, ce ezceban nai puntuchu baten bere bapere aseratu cedin. Orregaitic, bere Pasinoia San Pedroc galarazo gura dabenian, dei eguiten deutzo Satanasen izenagaz, eta armac onetaraco artuten ditubanian, aguinduten deutzo zartu daijala espatia bere lecuban. Eta araco azquenengo afaria eguite orduban bere deseo, edo gurari guztijac betetan ditubanaleguez, dirauzte (sic) bere Discipulubai: gurari andi bat euqui dot Pascua ause zubecas jateco; Erosi, edo erredimidu guiñaiquezan Jaunac aimbeste costa baga: ondo biraldu eiquijan guizon, edo aingueruben bat gu pecatutic aterateco; baña ez eban gura bera baño beste bitartecoric onetan izan cedin. Bere verbiagaz bezte [esta palabra termina en final de línea y al comienzo de la siguiente dice: *te*] baga atera nai izan baguinduz Diabruben catiguerijoric, ez eban euquico cer igaro erijotza ain crubel, eta itzalzubat, baña gure vijotzac ira-

baci, eta bere amodijuara gu obeto eruatarren gura eban onainche eguin cedin gure Erredencinoja. Motivo guztiz azco gueuncan bera maitetuteco eguin euzcuzan mecede andijac gaitic; baña orregatic, beti guengozan atseraberaganaco. Ycusiric bada Jaunac ain otzic guengozala beraganaco, jasten da berbera bere Aita Eternubaren tronu, edo jarlecuric luurrena, eguiten da gure anaje gure naturalezia artubagaz, igaroten dau Pasinoric garratzena, eta esta contentetan bere vicitzia curutze baten emon artian. Ain zinzu, eta amoroso gueure Jauna icusijac berac erre biar cituban gure vijotzac, dino San Bernardo glorijosubac, beraganaco amodijuan, jaquinic au guztijau eguiten dabela guc bera maitetu daigun. ¿Eta onegaz guztijonegaz bere aurquituco gara bapere pena, eta sentimentu baga Jaungoico zauritu, zatitu, odol ustu, eta il orren aurrian? Euquico dogu vijotzic icusteco begui sicubacaz aingueruben pozgarrija pena, eta dolores beteric, ceruben edertasuna ezainduric, eta mundubaren jaubia vilosic, eta ilic? Bada bene benetan dinot, christinaubac, abere, edo animalija [hay una letra borrada entre las dos palabras] vtrubenac [la *r* no es clara. Puede ser una *s* sobre otra letra mal hecha] baño esquer guestuagocoac gariala. Ydijac esagututen dau bere Jaubia, eta astubac bere Jaunaren asquija; bana guc esagutu nai eztoguz Jaungoicuac bere erijotziagaz eguin deuzcuzan mecede eta beneficijo neurribac. Arritu eta icaratu zaiteze cerubac icustijan guizonaren ezquer guezto au. Jaungoico bat bajatu, eta humilduten da curutzeco erijotzaraño guizonaren vijotza irąbaste arren, eta guizonac eguiten dau aleguin guztija beraganic iguez eguite arren. Jaungoico batec emoten dau bere zanetaco odol guztija mempeco edo esclavo villaubat Demoninua escupe, edo poderijoric ateratarren, eta eztau esagutu gura onec, eguiten deutzan mecede andijau. Galduten dau bere vicitzia Jaungoico batec, guizonari vicija emotarren, eta estau guizonac ezagutu gura bere onguile andi au. Aimbezte mecede eta beneficijo gatic ezteutzo Jaunac escatuten bere amodijua baño bezte gauzaric; eta ain da ezquer gueztocua guizona, ce ezteutzo pagadu gura sor errez eta labur au bere; ezagutu biarrian bere ichumendija, barriztadu gura dau bere pasinoe nequetzu, eta erijotza crubel, eta lotzagarrija, oraindino azcoz gueijago gueitu, edo aumentaubaz bere [Está tachada una palabra] Ama maitiaren soledade, edo bacartazuna.

[Al margen dice. *Parte 2.ª*] 4.° Gueure ezquer deunga, eta correspondencija falta onec, gueijago zatitu, eta erdibituten dau curutziaren oiñian aurquituten dan Ama triste eta

atzacabez bete orren vijotza, Jesus bere seme maitiac bere Pasinoe sagraduban igaro dituban neque, pena eta tormentu guztijac baño. Eztabe aimbezte heriduten bere vijotza Jesusen azote, coroe, ulze, eta curutziac, ceinda gure ezquer deunguijac. Gogortazun, eta agradecimentu falta onec obliguetan dabe bere bacartazun edo soledadian ama desconsolada eta penaz bete au Jeremias Profeta santubagaz curutziaren oñetic guri diadar eguitera: ¡O; *Vos omnes qui transitis per viam, attendite, et videte si es dolor sicut dolor meus!* O munduco vide onetan zabilzen guztijoc; ondo aditu, eta icusi eguizube aurquituten dan nire doloria laco doloreric. Ondo pensadu eta consideradu eguizube, icusi bada munduban anrraric (sic) ni icusten [hay una letra borrada entre las dos palabras] nazan bacartasunian aurquitu danic! Betico amodijo eta caridade bategaz maitetu zaitubez neure seme Jesus vijotzecuac, dirautzube curutziaren oñetic ama erruquijor, eta desconzolada orrec: etzeunquen izateric, eta erretan zan jia bera zubec ganaco amodijuan; ezeucan zuben biarric, bada bequijan eser eguin ecin cinaiquijona; baña ecin bere vijotza egon zan zubec maitetu baga! Duaric maitetu zaitubez; eta icusi nai badozube noraño elduten dan bere bularreco amodijuaren su-gar vicija, eztaucasubez eregui baño zeuben beguijan (sic) neure seme maitia echunda daguan anda orretara baño, eta orche icusico dozube cetaraño obligadu daben zubei izan deutzuben amodijuac. Orche icusico dozube celan zubec ganaco amodijuac hichi daben burutic biatzera zauri bat eguinic; celan zatitu, eta urratu deutzazan bere aragui bedeincatubac; celan coronadu daben aranza crubel, eta zorrotzacaz; celan jotsi daben ulze gogorracaz, eta celan quendu deutzen azquenez bere vicitzia. Eta esta au guztijau asco izango zuben vijotzac bigunduteco? Oraindijo bere gueratuco zare guztiz gogor, eta arrituric? Eranzungo deutzazube ezquer deunga, edo agradecimentu otzagaz? Cer bada egui (sic) eiquijan zubec gaitic neure semiac, eguin daben baño gueijago? Ce amodijuaren esaugarri, edo señale gueijago emon eiquezuben emon deutzuben baño? [está tachado: *gueijago?*].Deritzat, zure amodijoz eguin daben baño gueijago ecin ezcatu cinaijola. ¿Eta guztijagaz bere eztosues esagutuco eguin deutzubezan mecede andi, eta neurri bagac? Gueratuco zare orainguino leguez bera maitetu baga? Cer diñosube, christinaubac, ama triste, eta estubonen verba oneetara? Cer eransuten dozube zeuben onguile, eta erregina andi, eta maite onen cispuru, eta negarretara? Deritzat, eranzungo dozubela: esagututen dozubezala bere seme lastanaren escubetatic artu dozubezan mecede, eta favore andijac, eta maitetuten dozubela zeuben vijotz

guztitic. Ause dino zuben miñac; baña ha! ce urrun daguan onetatic zeuben vijotza; bada zeuben vici modu deunguiac adierazoten dau, zuben amodijo guztija bacarric daguala miñian, eta ez obra, edo eguiqueretan. Dacuzguna da eztaguala munduban gauzaric Jaungoicuaren leguiari baño guichiago jaramoten jaconic. Ycusten dira alde bateti loiquerija, eta ezaintazunac; besteti verba atzitu, et (sic) zantarrac: Emetic ordiquerijac, lapurreria, eta tratu deungac, eta andic gorroto, odijo aserrecuntza, autsi eta alcar icusi ezinac. Batac izan gura dau beztija baño gueijago; guztija da temia, porfia, eta beriagaz bacochac urten guria. Eztira parcatu gura ofensa, eta injurijac; estira baquetu gura gachen bat eguin deuzteenacaz; eta orregaitic bere esango dozube maite dozubela anda orretan ilic daguan Jaun andijori? Bada guzurra dinozubela, dirautzubet San Juan Evangelistiagaz, eta guzurtijac zarijela. Jauna maite dabela dinuanac bere projimuari gorroto euquiric, guzurra dino, eta gusurtia da, dino Apostolu andijonec. O eta ce errazoe andijagaz esan lizaquegun ama triste orren seme onec anda orretatic, beste dempora baten Judegubai esan eutzena berbera: *Pueblo, edo gente onec bere miñagaz alabetan nau, baña bere vijotza guztiz vrrin dago niganic.*

5.° Ona emen Jesus ona, esango eutzan Marijac bere seme maitiari, ona emen, celan paguetan deutzuben guizonac eurai izan deutzazuben amodijua, eta eguin deutzezubezan mecede, eta beneficio andi, eta neurri bagac! Gogortasun icaragarri, eta ecin andijagua benetan! Mundu guztija jagocu [no es clara la *j*, puede ser *d*] diadarrez maitetu daigula aimbezte on, eta mecede eguin deuzcun Jaun bat. Gauza guztijetan, lecu, eta dempora guztijetan aguirida gure Jaungoicuen guganaco amodijuaren anditazuna; baña iñon baño obeto altara sagradu orretan. Orche [hay algo tachado] eracuzten deuzcu onduen bera maitetuteco daucagun obligacinoe estuba. Coroe orrec, azote, zauri, erida, eta ulze orrec diadar eguiten deuzcube, maitetu daigula aimbeste ontasun, eta amodijo eracutzi deuzcun Jaungoico andibat. Eta onegaz guztijonegaz bere gueratuco zare guztiz gogortu, eta esauerabaga mecede, eta beneficijo andi oneetara? Nun da, bada, gure fecha? Nun gure sensuna? Confesadu daigun arrijac eurac baño gogorrago gariala; bada aguertu eben onec euren Eguiliaren erijotzan euren sentimentuba. Confesadu daigun federic estaucagula; bada au euquiric, euquico gueunque guichienez eurac euqui eben sentimentuba, eta ezguinatequez ain ezquer deungacuac izango aimbezte mecede eguin deuzcun Jaungoico bategaz. Orregatic bada

arrijac eurac acusetan dabe gure gogortasun, eta sentimentu faltia; bada eurac aguertuten dabe guc aguertu biar gueunquen penia. Eurac gu baño sentimentu gueijagogaz icusijac, lotzaz bete biar guinducaz; baña ain da andija gure sensun faltia, ce ezgaituz onesec bere bapere lotzatuten. ¡O araguizco vijotzen gogortasun inoz ez ensun, ez icusija! O itzutasun icara garrija. Eztaigun esan [está tachado: *federic daucagula*] sensunic daucagula; bada arri eta achac eurac gusurtaduco gaitubez. Ez daigun esan federic daucagula, ez sinistuten dogula anda orretan ilic dacuzgun ori dala Jaungoico eguijazcuen semia; bada jaguico dira gure contra criatura guztijac, eta esango deuscube gusurra dinogula. Eztaigun esan maite dogula Jaun ori, ez esagututen doguzala ama triste orrec bere bacartasun andijan daruazan pena, eta estutazun andijac; bada gure obra deunga, eta vicimodu madaricatubac diadar eguingo dabe gure contra. Eurac esango dabe gure amodijo guztija bacarric daguala minijan, eta ez obra edo eguiqueretan.

6.º Cer dirautzo Ama triste, eta desconsoladia; cer dirautzo vijotz astun, eta arijac (sic) eurac baño gogorrago oni? Cer da au neure semia, dirautzu ama estutasun, eta atzacabez bete onec curutziaren onetic? Nundi nora dozu vijotz ain gogor, eta arriscua? Ez eutzun emon neure erraijetaco seme lastanac orrelaco vijotzic, espada guztiz bigun, zamur, eta araguizcua. Bertan escrividu eban bere leguia; bertan ifini cituban bere mandamentu santubac, eta bertan erre gura izan zenduzan bere caridadiaren subagaz. Zubau ecartera etorri zan cerutic luurrera, eta zure vijotzian su au isioteco, igaro dituz aimbeste neque, eta izerdi ogueta amairu vrtian; onetaraco sufridu dau Pasinoe ain gogor, eta garratz bat; igon dau curutze batera, emon dau bere vicitzia, eta jarri da echunic anda orretan, zeure beguijacaz dacuzuna leguez. Baña ha! ce andija dan neure semia zure itzutazun, eta gogortasuna; bada mundu guztija erretaco asco izan dan zu au, ezta asco izan zure vijotza berotuteco; bada orche zagoz otz osic bapere pena, eta sentimentu baga anda orretara beguira. Eta donguen dana, orche zagoz pecatuz beteric, eta Diabruen vici lecu eguinic alde guztijetara beguira. Zure ezquer guesto onec gueijago zatitu, eta erdibituten deutz (sic) neure vijotza, Jesus neure seme maitiac bere Pasinoe sagraduban igaro dituban pena neque, eta tormentu guztijac baño. Azote, coroe, aranza, ulze gogor, eta itzalsu orrec, ezteuzte aimbeste estutasun, eta atzacabe emoten, ceinda zure ezquer deunga orrec. Baña onegaz guztijonegaz bere, neuc eta neure semiac barriro igaro biar baguinduz zure vijo-

tza irabasteco len igaro doguzan neque, pena, eta larritasun guztijac; pocic igaroco gueunquez. Eta aimbeste amodijo zuri gueuc eracutziric ezteuzcuzu amodijo gueijao zeuc eracutzico? Etzaitez bada izan, neure semia, ain esquer deungacua. Esagutu eguizu bada, Jesus neure erraijetaco prenda maite, eta amoroso au dala zure aita, zure onguile, eta zure arzain on, eta ardurasuba. Eta orainguino iguez ibili bazara beragandic bere ezaitez bildurtu beronegana etorter (sic); bada emenche daucazu besuc (sic) zabalic, lastan gozuac emon eta bularren contra zeu estututeco. Cec aseratuten zaituz beraganic? Erdu bada arin neure semia, eta idegui eguijozuz zeure vijotzeco atiac, bertan sartu dedin, zeugaz vici, eta betico zeu zorijoneco eguin zaizan.

7.° Noz artian egongo zare, christinaubac, gogorturic, Ama atzacabe, eta eztutasunez bete onen deijetara? Nos artian izango zare ezquer deungacuac ceruco erreguina andijonegaz? Ezagutu eguizubez bada nozbait beronec, eta bere seme maitiac eguin deutzubezan mecede neurri bagac. Viztu eguizube zeuben fedia, idigui eguijezubez zeuben vijotzeco atiac berari, eta bere seme Jesuseri, eta descanzu emon eguijozube zeuben vorondate onian. Ause escatuten deutzube bacarric euqui deutzuben amodijuagaitic, eta eguin deutzubezan mecede guztijac gaitic. Ensun eguizubez Ama triste, eta desconsolada onen diadarrac! Beguiratu eguijozube celan aurquituten dan curutziaren onian pena, eta dolores [está tachado: *beteric bere vijotza zatitu*] bere vijotza zatituten jacola. Eztauco noc consolau daijan bere soledade, edo bacartazunian. Ereguiten ditu bere begui bijac curutzerunz, eta icusiric mundu guztijari vicitzia emon eutzan bere semia ilic, pena, eta sentimentuz zatituten jaco bere vijotza. Negarrezco iturri bi eguiten dira bere begui [está tachado: *bijac*] ederrac; eta icustian galdu dabela bere erraijetaco seme maitia, negarrez bere vijotzac ganaz eguiten deutzala dirautzo modu onetan: Onan isten dozu neure [hay una palabra tachada] on andija, zeure ama lastana? Cembat obeto izango zan nirezat zugaz batera iltia, zu baga gueratutia baño? Zu cinian neure aita, neure ama, neure poz, neure on, eta neure atzeguin, eta consuelu guztija; eta ichi nozu vme surtz guraso baga, alargun esposo [está tachado: *ilic*] baga, ilic pena artian neure vijotz eta vicitza baga. Orain bada, noc consolauco nau? Aita Eternubac? Baña hay! bere justicijaren espata gogor, eta zorrotzac quendu deutzo neure seme inocentiari vicitzia. Ainguerubac? Baña hay! Eurac dagoz sentimentus beteric negarrez euren Jauna, eta Erreguija ilic dacuzdelaco.

Guizonac? Baña hay! eurac euren pecatubacaz quendu deutze bere vicitzia. O Aita Eternuba! Esta oraindiño bere bigundu zure justicijaren gogortazuna? Eztau zeure, eta nire semiac pagadu beragan artu eban pecatarijen zorra? Eztozu gura oraindiño lurpetu, edo sepultadu dedin zeure, eta nire seme maite, eta bacarraren gorpua?

8.° Bay Ama triste eta desconsoladia: Gueratu bitez bada berorren cispuru, eta negarrac: Enzun dituz jia Jaunac berorren diadarrac, eta gura dau lurpetu, edo sepultadu dedin berorroren (sic) seme lastan edo maitia. Emenche bijalzen gaitu gu guztijoc, ceruco Erreguina andija, berorren gurari edo deseoac cumplidu, edo betetara. Ondo esagututen dogu gorputz il orretan eguin dogun carnazerija crubelala (sic). Gueuc ifini dogu dacuzgun moduban. Gueuc zulatu doguz bere oiñ, eta escubac. Gueuc zatitu doguz bere araguijac, eta gueuc ifini dogu guztiz ezain, eta echura baga. ¿Etzare asetu oraindio guizon itzu eta crubelac; etzare asetu bildots orban bagaco onen odolez? Esarri eguijozubez bada zeuben escu madaricatubac; azotadu eguizube, jotsi eguizube ulze gogorracaz barriro curutze baten, eta emon eguijozube Judegubac eurac baño erijotza crubel, eta italzubago (sic) bat. Baña nor asartu, edo atrebiduco da au eguiten? zu, enzuten zagozan pecatarija. Zuc zeure pecatubacaz ausse sarri eguiten dozu. Orraco araguizco pecatu ezain, eta loy ori; orraco autsi deunga, edo videbagaco ori; orraco lapurrerija, ordiquerija, gorroto, embidija, eta bezte pecatu orreec, dira Jaungoicua barriro azotadu, coronadu, eta vlze gogorracaz curutze baten jozten dabenac. Eta orregaitic bere esango dozube [está tachado: *maite dozube*] maite dozubela anda orretan ilic daguan Jaun andi, eta bere Ama penas bete ori? bada gorputz zauritu, zatitu, eta ama triste eta desconsola (sic) orreec eranzungo deutzube guzurra diñozubela.

9.° Ay Ama bigun, zamur, eta erruquijorra! Ay eta consoladu albanei berorren soledade, edo bacartasun andijan! Ay eta arindu albanei berorren pena, eta sentimentuban! Confesetan dogu, gueuc gueure pecatubacaz il dogula berorren seme maite, eta bacarra: gueuc ifini dogula zauribat eguinic burutic bijatza [sobre la *a* final hay una raya] guizonen irudi baga. Ezagututen dogu guztijoc, orainguiño bere arerijo izan gariala, eta esauquera onegaz eguin nai dogu gueure pecatuben penitencija. Sartu gura dogu gaurric guztijoc, berorren semiaren adisquidetasunera. Guztijoc escatuten deutzagu misericordia; guztijoc lagundu gura deutzagu berorri berorren bacartasun orretan; artu beguiz bada gaurric berorren contura arima tris-

te onec; Defendidu beguiz [está tachado: *beguiz*] berorren escubide edo poderijo andijagaz; lagundu beguije vicitzan, eta amparadu beguiz erijotzan, berorren bacartazun orretan parte dabela; guero mereci daijen egotia ceruban berorregaz batera, eternidade bateco glorijan. Amen *Quam mihi et vobis.*

O. S. C. S. R. E.

Fr. Franco. Tristan de Huandurraga [rubricado]

Se predico Año de 1843; En la Anteiglesia de Sta. Maria de Ceanuri.

Copia literal y exacta
ALFONSO IRIGOYEN

Fr. Juan de Ajuria

(1800)

Plática en qé se prueba
ser irracional la vergüenza
de callar los pecados.

Pro anima tua ne confundaris dicere verum:
est enim confusio adducens peccatum &c.
Eccli: cap. 4

Seda eguiten duen arrac, bere erraietatic arilltzen du bera preso daducan carcela; bere viotzaren costura dijoa eguinaz bera lotuco duten grillu, ta cateac; ta neque andi onen azquena ez da besteric, ezpada cascara chiqui batean bera preso arturic eduquico duen presondegui, edo calabozo illun, ta triste bat eguitea. Onembat ecin eguin, cuidado, ta estutasunequin aguiri danean galdetu nai likeo: atoz ona animalia tristea, ar coitadua, certaco orrembeste bat bear eguiten dezu? certaco orrembat necatzen zera? certaco cere erraiac orrela urtutzen dituzu? orrembeste bat ari zere burua lotutzeco? orrembeste bat albañu, grillu, ta cateac zeretzat cotzeco? baña norequin itzeguiten ote det nic? edo nori eguiten ote dizcat galde oyec?

Zuri becataria; bada seda eguiten duen ar hau da zure anz ordecoric vici, ta egoquiena. Zer beste gauzaric eguiten du bada becatariac, ezpada bere culpa, ta maldadeaz errai berac gueiena estutuco dioten locarriac eguitea baicic? Zer besteric ezpada bere viotza catearic gogorrenaz inguratzea? Zer besteric ezpada bere pensamentu, asmo, ta obra oquerraz, dembora, osasuna, izanac, ta vicitza galduric, Ynfernuan beti inaungo dion carcelaric belz, illun, ta gogorrena eguitea baño? Iniquitates sue capiunt impium, et funibus pecatorum suorum constringitur. Prov. 5.22. Oraindaño esan degun onetan, seda eguiten duen arra da becatari baten anz ordecoric egoquiena, bada ala nola onec, eguiten duen seda berarequin, lotutzen duen bere burua, guisa berean hau bera eguiten du becatariac bere maldadeaz.

Nic baña orain billatzen dedana da, becatariac eguiazco penitenciaren videz, archo oni, aurrera eguiten duenian, jarraitzea. Ycusi dezute, archo hau, aimbat nequeren costura eguin zuen cascara artan preso sarturic, ta bere erraietatic atera dituen seda albañuaz, loturic daucaten cateac eguinic, bere buruaren mantenua billatzeco irten lecuric ez duela. Onembat estutasunen artean cer eguin alezaqueala uste dezute nere Christavac? eguiten duena da, bere aoarequin cascara zulatzea, ta ate hau zabaltzeaz gañera, ez bacarric logratzen du bere burua libre icustea, baita ere, egoac jaioric, len arrastaca lurrean zebillen arretic, micheleta eguinic aire orietan ibiltzea. O zer mudanza hau, nere Christavac! O zer mudanza hau nere Christavac! O cer bat ta bestearen anz pareac diraden vici modu oyec! puntuan illumpe batean sarturic, bereala argitasunnen artean zabalduric; orain grilluz cargaturic, andic puntuco egoz janciric, len arrastaca zebillen arretic, orain Vsocho bat eguinic. O cer mudanza hau, viurtzen naiz esatera, nere Christavac! zerequin logratu otezuen bada animaliacho onec, lenagoco neque ain gaizqui igaro ayequin carreatu zizcoten estutasunetatic libratzea? badaquizute zerequin? bere aoarequin nere Christavac. Ea bada pecatari, aimbat urtean lotza dala medio, orraco becatu ichusi ori confesatzean itsilltzen dezuna, zurequin itzeguiten det; zu zerade, zu, orraco lotza zori gaiztoco orrequin zere animari, presondegui edo carcelaric illunena eguiten diozuna; zu, orraco viotz triste ori aimbat icara, larri, ta estutasunen catea gogorracquin orren sendoro lotutzen dezuna; jaquin bear dezu bada, nai ezpadezu galdu betico zere anima; nai badezu libratu presondegui, edo carcela illun orretatic; etzaitzula guelditzen ate bat besteric: ta ori da zure aoaren atea; ortic, ortic atera bear dezu becatu ichusi ori confesatze-

co demboran, nai badezu zure viotza libre guelditzea, deseo badezu zere anima salvatzea.

Goiz onetaco platican, Jaunaren gracia nere lagun dedala, uste dedan bezela, eguingo det bada nere Christavac, nere alegin guztia, lotza zori gaiztoco hau Christaven artetic ayenatzeco; onetaraco aguertuco ditut al dan garvitasun andienaz sei arrazoe guztiz indar andicoac; ain moduz, nonta, baldin nere Aditzalleen artean oraindaño egondu bada norbait, Deabruac bere mingaña loturic diola, lotzaren medioz bere becatuac confesatzeco, ez dala ya izango naico ez duenic libratu, lotza onen socarequin arrastaca Ynfernura daraman Etsai gaiztoaren mendetic: Solve vincula colli tui, captiva filia Sion. Hau da bada, nere Christavac, Deabruac duen arma sendoetatic bat, animaric asco beretzat irabasteco, valiatzen dala, len becatu eraguiteco quendu zien lotza hura bera biurtzen diela ayec ez confesatzeco. O, lotza madaricatua, lau itz confesioan esanarequin quendu litequeana, ta au eguiten ez dalaco eternidade guztian pena, tormentu, ta nai gavez iraungo duena! Hau da bada, nere Christavac, viurtzenaiz esatera, Demonioac duen lazoric indarzuenetatic bat animaen contra: ecce lupus guttur ovis apprehendit: Onequin bada, San Agustin andiac dioen becela, eguiten du Otsoac ardiarequin eguiten duena; ta cer eguiten du onec? achitzen duan becin laster eztarria atzaparraquin estutzea, modu onetan zein Arzaiac, edo Chacurrac sinisturic quen dagioten. Guisa berean, nola daquian Ynfernuco Otso amorratu onec becatari bati bere anima salvatzeco beste erremedioric guelditzen etzaiona, ezpada bere becatuac ongui confesatzea, eguiten duena da ascorequin, lotzaren videz eztarriac estutzea betico galditean. Yzan diteque nere Christavac gauza erruquiagoric hau baño? sinis lezaque iñorc, gracia, ta misericordiaren tribunal artan bertan bat condenatuco dana? lau itz ez esatearren betico gloria galduco duena? ta gere remedioraco emanic digun armaric sendoenaz Ynfernuco Etsai gaiztoa baliatuco dala guri guerraric andiena eguiteco?

Orregatic miraz beteric esaten du San Ambrosioc; Remedium nostrum fit ipsi Diabolo triumfus. Demonioac bere engañu, tentacio, guezur, ta traza galduaz gu galdutzea, da neque andia, nere Christavac; baña guc, berari igues eraguiteco, bera osticopean sartutzeco ditugun armaz, gu errenditzea? gure defensaric andienaz gu coguitzea? guere remedio bacarraz gu condenatzea? da izan alitequean desdicharic andiena. Ea bada, nere Christavac, beste dembora batean Capitan famatu batec bere Soldaduai esan cien ura bera, esango dizuet

gaur nic zuei ere; aut vincedum, aut moriendum; edo ill, edo venzutu; ez dago beste remedioric, edo venzutu lotza zorigaiztoco ori, pecatu mortal guztiac aleric utzigave confesatzeco, edo ill secula guztian Ynfernuco tormentu gogorrac padecitzeco. Baña izango oteda gure artean iñor, instante batean igarotzen dan lotza guchi batequin ez ausitzearren, eternidade guztian onequin penatzen egon nai duenic? Ha nere Christavac! O, eta norc eguin leiqueen orain guri eguiten zaigun partidua, lotza zorigaiztoco hau dala medio condenatu ziran anima triste ayei? O, eta cer pocic confesatuco lituzqueten beren pecatu guztiac, ez guizon baten aurrean bacarric, baita ere Mundu guztiaren aurrean! Bada becatari, aimbat urtean lotza dala medio pecatu ichusi ori confesatzea azartzen etzerana, ez dezu beste remedioric, edo venzutu lotza zorigaiztoco ori zere becatu mortal guztiac osoro confesatzeco, edo condenatu betico. Aut vincendum, aut moriendum. Eguia hau ongui pensatzea bacarric asco litzaque, batere zenzunic debana venzuturic guelditzeco. Esan degun onetatic claru esagutzen bada ere, cein calte andicoa dan lotza zorigaiztoco hau becatari tristearentzat, are claruago esagutu dezan, betico venzuturic guelditzeco, valia gaitecen arrazoeaz, ta lenvicicoa izan bedi, beguiraturic Jaungoicoaren aldetic.

Ea bada pecataria, galdetzen dizut Jainco beraren partetic, zer da isitlltzen dezuna? Zer da lotza zorigaiztoco orrequin or zere viotz barrumbean ezcutatzen dezuna? Zure beguien aurrean, Jauna, deadar eguiten zuen San Agustin andiac bere confesioetan (Lib. 10. con, cap. 10), ez da ezcutaditequeanic, ta hau ala izanic; quid ocultum esset in me, etiamsi nollem confiteri tibi? Zer eduqui nezaque nere viotzean gorderic, edo nola eguin nezaque zure begui arguian ez icustea, nic itsillic iduquiarren, nic confesatu nai ez arren? Te mihi absconderem, non me tibi; onequin eguingo nuqueana izango litzaque ez ni zugandic escutatzea, bai zu nigandic; eguingo nuque secula guztian zure aurpegui ederra ez icustera nere burua condenatzea, ta ez nere viotzaren barrumbeco toquiric ezcutatuenetan igarotzen dan guztia zuc ez icustea. Orain bada becataria, baldin Jaincoac arguiro icusten badu or zere barrumbean gorderic dezun becatu ori, certaco da zuc itsilltzea? baldin Jaincoac Mundu guztiaren aurrean aguertuco badu, zertaco da zuc ezcutatzea? bada itz bian guizon bati esatean dezun lotza ori ez venzutzearren, naico dezu guero, zuc orain ain lotzagarria deritzozun becatu ori, Munduan izan diran, ta izango diran guizon guztien aurrean zabaltzea, ta pregoatzea? Be-

raz neurrigave lotza gueiago iduqui bear dezu pecatu ori itsilltzean, cen confesore bati aguertzean: Onela itzeguiten dizu San Agustin andiac (Lib. 2. de vist. c. 4). Baña atoz ona pecataria, uste dezu, zuc confesonario orietatic batean guizon bati becatu ori confesatzea, dala lotza andico gauza, ain secreto andiaren bean bada ere? baiez eranzuten dezu? eranzun ezazu bada arren, orain zuc orren ezcutuan daducazun pecatu ori, batec gende onen guztiaren aurrean aguertuco balu deadarca esanaz, urlia da onelaco pecatua eguin duena, ezlitzaque zure lotza azcoz ta azcoz andiagoa izango? ez dago cer dudatu.

Bada cembat andiagoa izango da, Jaincoac berac zure pecatu ori aguertzen, ta pregoatzen duenean, esaten dizula David Erregueari bezela; Tu feciste oculte, ego autem faciam in cospectu omnis isrrael, et in oculis Solis; Nic, nic orraco pecatu ichusi ain escutuan eguinta, orain zere viotz barrumbean gordetzen, ta itsiltzen dezun ori, nic aguertuco det Ysrraelco gende gende guztiaren aurrean Eguzquiaren arguia bezin claru. Nic azquen juicioco egunean Aingueru, Guizon, ta Demonio guztiac daquiten moduan, aguer dedin zuc orren gorderic dezun pecatu ori; revelabo pudenda tua in facie tua. Ta orduan orrembat lotzaren costura aguertzea, izango da zuzaz, Demomonio guztiac eternidade baten burla, ta farre eguiteco gaia. Ta zuc orain aimbat secretoren bean guizon bat bacarrari esanarequin eguin dezaquezuna da, zere anima Jaincoaren gracian ipintzea, ta guero Ceruco Aingueruacgandic betico alaba tua izatea. Ez deritzazu bata bestearen artean diferencia andi: dagoena? Bañan Jauna, dio batec, nic enzuera dedanez, beca tu ongui confesatuac berac ere aguertu bearrac izango bire dir: azquen juicioco egunean: iritzi onetacoac dirade Eleyzaco Ayta Santuren batzuec: biz ordu onean, ta izan bedi onela; ta cer uste dezu, beren becatuac bear zan damuarequin confesatu zituztenai servituco diela onec beren deshonrraraco? ez nere Christavac, servituco die bai beren honrra, ta gloria gueiagoraco. Bestela esan zadazute, cer galdutzen du orain San Pabloc, berac esanic guc jaquiteac, demboraren batean izandu zala Eleyza Santaren perseguizalleric andiena? cer David Erregueac bere adulterioa Munduan ain jaquina dalaco? ta cer San Agustin Andiac bere pecatuac bere escuz escribituric utzi zituelaco? Sta. Getrudisec, Sta. Maria Magdalenaren egun batean, icusi zuen Santa andi hau soñeco guztiz eder batequin janciric, baña golperic andiena eman ziona izandu zan, icustea nola soñeco hura aurquitzen zan arri preciatu, izarrac berac baño, argui gueiago eguiten zutenaquin bordaturic; ta aditzen eman ci-

tzaion Santari cen arri ayec ciradela Mar.ª Mag.ªc, eguin zituen becatuac, ta aiezaz eguin zuen eguiazco penitenciareqn. ain arguitsu, ta eder viurtu zituenac.

Orra bada pecataria, nola pecatu ichusi oriec eguiazco confesio batec viurtzen dituen arri preciatutan, orra nola, lotza ematetic urruti, betetzen duen anima honrraz, ta gloriaz Jaincoaren beguietan. Baña pecatua lotzaz itsilltzen bada, orduan guelditzen da lotzagarri beti betico bai Jaunaren, ta bai Mundu guztiaren beguietan.

Bigarren arrazoea, lotza zorigaiztoco onen contra, dago beguiraturic Deabruaren aldetic. Vste dezu pecataria, zuc aimbat demboran ezcutuan daducazun pecatu ori, iñorc ez daquiela zuzaz campora? ori pensatzen badezu, bete betean engañatzen zera. Zure Etsairic andiena beguira dagoquio, badaqui bai, ongui gorderic daduca, zuzaz egunen batean farre ta burla eguiteco. Ta cer, orregan fiatzen zera? Tori bada cer dioen: Nic, dio, orain zuc ain ezcutuan gorderic daducazun pecatu ori, nic azalduco det, nic aguertuco det, nic deadarca pregoatuco det. Ta dudagave, ala guertatuco da Jaincoaren tribunal estu artan zere vicitzaren contua ematen icusten zaituenean. Orain bada pecataria, izan liteque lotza zorigaiztocoagoric, Deabruac ain claru Jaincoaren aurrean, ta zere zorigaiztoan aguertuco dizun pecatu ori confesioan itsilltzea baño? ez dezu bada cer dudatu, pecatu orrec azaldu bear du, ez da or cere viotz barrumbean betico escutaturic guelldituco; edota orain aguertu bear du confesioco Sacramentuan, edo guero Jaincoaren tribunalean: edo orain confesatu bear dezu, nai badezu salvatu cere anima, edo orduan aguertuco du Deabruac zure condenacioraco. Beguira ezazu ongui orain, beguira ezazu izan alitequean lotzaric, ori baño zorigaiztocoagoric.

San Norbertoren vicitzan contatzen dala dio Surioc, cen Santu hau aurquitzen zala Eleyza batean Sacerdote, ta beste gende ascoren artean endemoniatu bat conjuratzen, azi zala Demonioa han aurquitzen ziran ascoc confesatugave zeduzcaten pecatuac deadarca aguertzen, ongui confesaturic zituztenetatic alebat aotan artutzen etzuela; ta ala beren conciencia garvi etzuten guztiac lasterca irtetzen zirala Eleyzatic, beren buruac ain lotza andian ez icuste arren. Bañan nora igues eguitea uste dezu pecatari tristea, Jainco beraren, ta Aingueruen aurrean, Ynfernuco Etsai gaiztoa zure pecatuac aguertzen asitzen danean? nola uste dezu zure Etsai amorratu oni bere aoa ichitzea? badaquizu nola? cerorrec orain ongui confesatuaz: ori dala dio, San Agustinec, Etsai gaiztoari bere aoa ichitzeco mo-

dua: qui seipsum acusat in pecatis suis, hunc Diabolus non habet iterum acusare in die juditii. (Ser. 66. de tem.). Orain bada pecataria, zer da Jaincoaren tribunal izugarri artan gueien larritu, ta estutu zaitzaqueana? ez besteric, ezpada, orduan cere pecatuac ain claru cere Etsaiac aguertzeac: onec emango dizu susto, icara, ta bildurric andiena. Bada berbertatic ichi albadaguiqueozu haoa, orduan aiezaz zu ez acusatzeco, bertatic betico mututu al badezaquezu, zuc orain zere pecatuac lotza utziric confesatuaz, ez da izango izan alditequean eraqueriaric andiena, zuc orain lotzaz ez confesatze arren, zere favorean dituzun armaric sendoenac, zerorri calteric andiena equiteco, bere escuetan entregatzea? Are claruago ezagu dezazun cembat caltecoa dan zuretzat lotza zorigaiztoco ori, adi ezazu exemplo miragarri hau. Contatzen du Vincencio Velvacencec vicitu zala Erroman Caballero guztiz principal bat berari zegoquion Señora aberats, ta virtute andico batequin ezconduric. & (Spec. exem. 19. consio. Exemp. 7. Plat. 19. fol. 504.)

Yrugarren arrazoea lotza zorigaiztoco onen contra dago, beguiraturic Confesorearen aldetic. Quid erubescis, esaten dizu pecataria, San Agustin andiac; quid erubescis o homo confiteri? pecator sum, sicut et tu. (In Ps. 66). Cerc lotzatzen zaitu guizon triste, andre argal, doncella bildurtia? Cerc orrela lotzazen zaitu ceradena cerala pecatu ichusi ori niri confesatzen? baldin ni banaiz zu becela pecataria? baldin ni banaiz zu becela guizon argal, ta triste bat? ni banaiz zure pasio, ta inclinacio char, ta galduaz janciricaco bat? quid erubescis? cer esan alceguinquet, zuc bezela nic ecin nezaquanic? Zu bezela ni banaiz pecataria, cer pecatu confesa alceguinquet nic jaquin, aditu, edo iracorri ez dedanic? bada baldin zu becela pecataria ni izanic, ecin esan, edo confesa albaceinquet pecatu, ta maldaderic eguin, aditu, edo iracorri ez dedanic, ta orregatic novedaderic chiquiena eguin leiquedanic, cerc bildurtzen zaitu? quid times confiteri, homo sum, humani a me nihil alienum puta. Oyec dirade pecataria, lotza zorigaiztoco ori deseguinzeco, San Agustin andiac beguien aurrean ipintzen dizquitzun arrazoe cer eranzunic ez dutenac. Aurquitzen dirade Confesore bategan lau gauza, zeintzuei beguiratu; ta oyec beroc dirade, pecatuac confesatzen batec daducan lotza zorigaiztoco hau deseguincen dutenac. Lenvicicioa da, Confesorea dena dala guizon miserable, ta argal bat izatea, ta dan Santuena izanagatic, menturaz zu becela pecatuan erori dana, edo erorcearen bildur dana; onetan ez dago dudaric: orain bada ascori ichazten zaion gaiz baten bildurrez dagoenari,, zein berari pega da-

guion, esaten baliote, Vrlia gaitz arc arrapatu duela, onezaz mira, edo novedaderic eguingo luque? ez eguiazqui, bai arrapatu duen arzaz erruquituco litzaque, ta cein bera arrapatu dezan gueiago bildurtuco litzaque. Milla bat escutu ostu dituenac aditzen badu, besteac amar, edo oguei ostu dituena; ez da bereala oroituco berac eguin zituen lapurretaz? cer daquizu bada zuc pecataria zere biotz barrumbean lotzaz ezcutatzen dezun pecatu ori berori eguin ote duen zu aditzen zaituan Confesoreac? ta ala bada, uste dezu pecatu ori aditzean aserratuco dala zure contra? ez pecataria, erruquituco da bai zuzaz, eta emango diozu motivo berri bat bere pecatuaz oroitzeco, ta berriro arzaz damutzeco.

Bigarren Confesore bategan beguiratu bear dan gauza da, onec pecatuen duen noticia. Ta bestela esan zadazu, amar, oguei, edo asco gueiago urtean Confesore dan batec cembat pecatu mota aditu dituela pensatzen dezu? cembat vider joco ote zuen bere belarrietan, zuc orren gorderic dezun pecatu orrec berorrec? cer bada novedade andiren bat eguingo diola uste dezu zugandic ori aditzeac? Jauna, ez da posible Munduan dan Confesorec aditu duela, nic eguin dedan pecatua becin andi, ta ichusiric. Ala uste dezu? engañatzen zera bete betean, edo Deabruac engañatzen zaitu pensatzeco modu orrequin. Baña biz ordu onean ez duela aditu. Ez daquizu zuc liburuetan escribituric aurquitzen dirana Guizonac eguin, ta eguin aldizaqueten pecatu mota guztiac? bada Confesore orrec adituaz, edo iracorriaz badadaqui pecatu ori, certaco da zuc ezcutatzea, certaco itsilltzea novedaderic chiquiena eguingo ezpadio? Orra nun dan claro aguiri, lotza ori dala eraqueriaric andiena, dala zure animari calteric andiena eguiten diona. San Felipe Neric Cerutic zuen argui andiarequin icusten zituen claru bere penitenteac confesatzean itsilltzen zizcoten pecatuac, ta ala ocasio batean, bere oñetan zegoen persona bat pecatu bat confesatzeco lotzac arturic azi zan bildurrez icara, ta itzic ecin asmatu zuela; orduan esan zion Santuac, cerc bildurtzen, ta mutututzen zaitu? Jauna, eranzun zion, cerren pecatu bat confesatzean aguitz lotzatzen nazan: erruquitu zan Santua, ta esan zion, nic aguertuco dizut zuc eguin dezun pecatua; ta ala, zan becela ipini zion claru beguien aurrean. Orain bada pecataria, izango cenduque lotzaric onela, cerorrec esangave, zure pecatuac daquizquien Confesore bati ayec confesatzean? ori ez litzaque lotza izango, ezpada eraqueria, ta burugavetasunic andiena. Bada Jaincoac claru claru icusten ditu, etsaie ez bere begui guztiz arguiai ezercho ere ezcutatzen.

Ta Confesoreac berac ezpaditu ere San Phelipe batec zituen Ceru arguiac, badaqui bere buruagandic zure argaltasunaren berri, badaqui ez dana pecaturic guc ez gueinqueanic, baldin Jaunac escu santutic utzico baligu; ta berri, ta esaguera hau duen guizon bati zer novedade eguingo dio zure miseria, ta argaltasunac? Lotza zori gaiztoco hau venzutzeco, irugarren gauza Confesore bategan beguiratu bear dana da, zuc berari confesatutaco becatua, secretoric estu, ta gogorrenaren bean gordetzeco daducan obligacioa. Confesore batec confesioan aditzen dituen pecatuac gordetzeco duan obligacioa ain da estu, ta gogorra, nere Christavac, nonta ecin aguerlezaquean aietatic ale bat vicitza bera importa valio ere, ez eta Erreinu bat guztico gendea galduco baliz ere, ta itz batean esateco, ecin guertaliteque Ceru guztiaren bean ain lance esturic, ayetatic ale bat aguer lezaqueanic. Ta emendic ateratzen dan gauza da, cen orobat dala Confesore bati confesioac pecatuac esatea, nola aitz, edo arbola bati confesatzea; onetan lotzaric izango zenduque? adi ezazu bada San Agustin andia; id quod per confesionem scio, minus scio quam id, quod nescio. (citat. in Ps. 66). Nic confesiotic daquidan gauza, dio Santuac, daquit, ezdaquidangauza bera baño are guchiago. Esan liteque gueiago? bada ez dago onetan dudaric, nere Christavac, bada nic ez daquidan gauza galde nezaque, jaquiteco aleginen batzuec eguin nitzaque, edo aren gañean itz eguin nezaque: bañan confesiotic daquidan-gauzaren gañean, ez itz bat eguin nezaque, ez galde iñori eguineguioque, ez señaleric chiquiena emanezaque confesiotic daquidan gauza aguer litequean moduan. Yzan liteque hau baño mututasun andiagoric? Esaten dute Soliman Turcuen Erregueac zituela amar criadu mutuac, bere asmo, ta eguiten zituen gauzac iñorc ez jaquiteco, baña oyec miaz ezpazan ere, siñuaz cerbait aditzen eman zezaqueten; bañan Confesore batec ez siñuz, ez itzez, ez bestelaco moduz dan señaleric chiquiena eman lezaque; bada onembeste bat secretoren bean gorde bear dan gauza bat esatean, cer lotza batec eduqui lezaque?

Laugarren Confesore bategan beguiratu bear dan gauza da, nere Christavac, zen Xpfo gure Jaunac oni Sacramentu santu onetan eman dion escu ta poderea ez dala zuri calteren bat eguitecoa, bai pensa-alzezaquean on, ta mesederic andiena. Emen Munduco Tribunaletan, dio San Juan Chrisostomoc, gaitzquille bati tormentu, edo beste moduz bere maldadeac confesa erastea, dala mereci duen castigua emateco; baña confesioco tribunal misericordiaz betean orobat dala pecatua confe-

satzea, nola bereala barcatzea. Orain bada pecataria, baldin zuc bear dan damuarequin zere pecatuac confesatu azquero, ezpadu Confesoreac beste podereric, ezpada ayec zuri barcatzecoa, zu Deabruaren mendetic libratuta Jaincoaren gracian ipincecoa; zerori zerade, oriec itsillduaz, zere anima betico condenatzen dezuna. Cer bada, orain lotza guchi bat ez venzutze arren, naico dezu ayec eternidade guztian confesatzen egotea, lotza, ta afrentaric andiena orretan padecitzen dezula, baña remedioren alegave?

Laugarren arrazoea lotza zorigaiztoco orren contra dago, beguiraturic lotzaz itsilltzen duen pecatuaren aldetic. Zuc eguin dezun pecatu ori izan bedi, izan alitequean andi, ichusi, ta belcena; zuc ori confesatzeco daducazun lotza orrec pinta daguizula colore, ta irudipenic bildurgarrienaz; culpa ori, dio San Bernardino Senacoac, ez duela iñorc lenago eguin pensatzen dezu? bada eguin dute menturaz, ez bacarric ceimbat pecatari emen bertan aurquitzen diranac, baita ere asco Santu andi orain Jaincoa gozatzen aurquitzen diranac. Pecatu ori da seigarrengo mandamentuaren contra? cembat, eta nolacoac eguingo otezituzten Sta. Maria Egiptiaca, Thais, ta Pelagia batec andre galdu eguinic vici ciranean? da adulterioco pecatua? eguin zuen San Bonifacio batec: da echizeriacioa? eguin zuten Santa Anastasia, San Cipriano, ta beste ascoc. da lapurreriacoa pecatu ori? eguin zuten bada San Dimas, Mucio, Moyses Abad, David Monge, Landerino, ta besteac; da fedearen contracoa pecatu ori? eguin zuen bada San Marcelino Erromaco Ayta Santuac.

Bada confesio eguiazco baten bidez, pecaturic, ichusi, ta belzenac, gaur badira Santu andi ascoren honrra, ta gloria, izan bedi zuc itsilltzen dezun pecatu ori alditequean andiena, ez da izango ori ez confesatzea pensa litequean eraqueriaric ichusiena? Baldin eguiazco damu, ta propositoarequin batec bere pecatu mortal guztiac confesatzea (oyec badira ere infernuan diran Demonio, ta condenatu guztiac eguin dituztenac baño azcoz gueiago) asco bada, guztiac barcaturic, Jaincoaren Seme maite eguinic guelditzeco, cer izan aliteque oyec confesatzea eragozten duen lotza zorigaiztocoa baño galgarriagoric? ("Contatzen du Henrico Engelgravec: : P. Par. plat. 20. fol. 508") Lotza madaricatu hau deseguinzeco, bostgarren arrazoea aurquitzen da zere animaren aldetic, ta onezaz Espiritu Santu Jaunac berac abisatzen zaitu; pro anima tua ne confundaris dicere verum: bederic zere animagatic, esaten dizu, etzaite lotzatu eguia confesatzean. Zere animagatic? bai pecataria; zere ani-

magatic; ta bestela esan zadazu; cembat icara, cembat larri, zembat estutazun, ta cembat susto ez dizquitzu ematen or biotz barrumbe orretan ain gorderic daducazun pecatu orrec? Non est pax impiis, dicit Dominus. (Ysai. 48. v. 22): Ecin aurquiditeque sosiegu, ta paqueric pecatari baten viotzean, dio Jaincoac, bere animan pecatua escutaturic daducan bitartean. Etzerade contuan erorzen? ez dizu experienciac iracasten zere biotz barrumbean gavaz, ta egunaz, instante, ta puntu guztietan janaz zaduzcan har orrec, nola zere diversio, ta gusto guztiac biurtzen dizquitzun naigave, ta samintasunic andienetan? ha conciencia, conciencia! zu estadu charrean aurquitzen zeranean, ez du ecerc alivioric ematen; ez du ecerc divertitzen; ez du ecerc poztutzen. Ycusten, esagutzen, ta sinistzen dezu, baldin federic badezu, pecatu ori lotzaz itsilltzen dezun bitartean, galtzen dituzula eguiten dituzun obra on guztiac, Sacramentu santuac ez dizutela valio ezpada zere calte gueiagoraco, indulgenciac alferric diradela zuretzat; ta onela igarotzen dituzu zere egunac, cere vicitza orrec gueiago dirudiela condenatu betico eriotza: aditzen badezu auzoan norbait aguitz gaitsotu dala, icaratzen zera; agoniaren otsac izutzen zaitu; norbaiten illberriac zeregandic campora ateratzen zaitu; ta ez da beñere zure viotza paqueaz aurquitzen.

Orain bada pecataria, izango ote da moduric zuc cere burua orrembat tormenturen mendetic libratzeco? Zuc cere viotza sosiegu, ta paque on, ta eguiazco baten ipinceco? bai pecataria; ta zerorrec chit erraz eguin dezaquezun gauzarequin dicha ori zere dezaquezu: ez dezu besteric bear ezpada, lotzaz itsilltzen dezun pecatu ori, eguiazco damuarequin confesatzea: pro anima tua ne confundaris dicere verum: ea bada ongui pisa ezazu orain ori itsilltzean padecitzen dezunarequin confesatzean padecituco zenduqueana: esatean, edo confesatzean, padecituco dezu, instante batean igaroco dan lotza guchi bat; itsilltzean berriz egun, aste, ill, ta urte etan padecitzen dituzu pena, naigave, icara, larri, ta sustoric portitzenac. Bada norc naico ez du instante bateco lotza pusca bat sufritzea, ill, ta urte ascoco tormentuetatic libratze arren? ta cer etzerade orain, ta orain ere pecatu ori confesatzera azartzen? bada ay zure tristea! bada estadu orretan Sacramentu santuac recibitzen badituzu, ez dirade oriec zure betico galgarri baicic izango; confesatzen zeraden bacoitzean, sacrilegio izugarri bat eguiten dezu, comulgatzean zere condenacioco sentencia irinchitzen dezu: ta zure animac, estadu errucarri onetan aurquitzen dan bitartean, cembat culpa, ta maldade ura bezela edango ditu?

Ea bada anima, aimbat urtean lotza dala medio pecatuori confesatzera azartzen etzeradena, esan bear nazu arren, eguin dezu asmoa ez beñere pecatu ori confesatzecoa? nai dezu zere viotzean gorderic dezula illta, mundu onetatic bestera partitzea? aitatzeac berac larritzen nau. Bada asmo ori eguiña badezu, eguizu contu bertatic condenatua aurquitzen zerala: Tacitus damnaberis, qui poteras liberari confessus: esaten dizu San Agustinec. (in Ps. 96.) Baña ez det uste orren viotz galduaren javea izango zeradena, ez det uste orrembat gaitz zere buruari opa diozuna.

Bada baldin noizbait confesatzeco asmoa badezu, cergatic gaur eguingo ez dezu? certaco nai dituzu artu luzapen andiagoac? certaraco iduqui nai dezu zere viotza dembora gueiagoan orrembat tormenturen artean? ez daquizu gueroco utzitze orrec ipincen zaituena beñere ez eguiteco perillean? ez daquizu gueroco utzitze orrec lotza ori, azi, ta gueituco dizuna? ez daquizu guero baño guero gueiago gogortuco dana zure anima, ta gogortasun orrec utzico zaituena indargave zere erremedioa villatzeco? Orra bada nai badezu, cer claru esagu dezaquezun lotza zorigaiztoco orrec ceimbat calte ecarten dizquitzun beguiraturic cere animaren aldetic. Azqueneco arrazoea da, zen lotza zorigaiztoco ori venzutuac, ez bacarric libratzen zaituela orrembat estutasun, ta tormenturen artetic, baita ere, graciaren videz, ipincen zaituela betico coroa, ta gloria irabasteco videan. Baldin carcela batean egunetic egunera urcamendico sentencia ichoten dagoen guizon bati eman nai baliote andic libratzeco modua, uste dezu luzapen-en batzuec artuco lituqueala, andic ez irtetzeco? pensatzen dezu libratzeco modu ura cerbait necosoa izan arren, ez luqueala berbertatic obratan ipinico? bada zuc daquizun ambat demboran pecatu ori lotzaz itsilltzen dezun anima tristea, zu aurquitzen zeran estadua azcoz, ta azcoz gaiztoagoa da, guizon arena izango litzaqueana baño; bada harc instanteric galdugave eguingo balu beragan dana andic libratzeco, zergatic zuc eguingo ez dezu azcoz gueiago importa dizula? baldin guizon ari esango baliote carcela artatic irtetzeco, bere pecatua confesatzeaz besteric ez duela bear, dudaricgave, guztiac aditzen moduan esango luque; bada etzaitzu zuri orrembat escatzen, bacarric escatzen zazuna da, guizon bati secretoric andienaren bean confesatzea. &a:

O. S. C. S. R. E. Fray Juan de Aijuria. Año de 1800//

(1806)

VESPERTINO

A minore usque ad mayorem omnes avaritie student.
Jeremie. cap. 6, v. 13.

Ondasunac dira arantza ta larrac, dio JXptoc. Gauza bigatic eguiten du Salvatzalleac berdincuntza edo comparacio hau; ala nola berenez ta erraz jayotzen diran arantza ta larrac, ala jayotzen ere dira erraztasun guciarequin guizonaren bihotzean larrac, edo cequentasuna; ta ala nola dan chit nequeza, edo, casi ecinquizuna larrac errotic arrá-catzea ta ateratzea, guisa berean nequez des-errotutzen ere da guticia, bein mempeturic arturic ta bereturic daducan bihotzetic. Hau bera aditzera ematen zion Ysrraeleco erriari Profeta Jeremias-ec esanaz; guciac, chiquitic andirañocoac, emanac daode cequentasunari,, a minore usque ad majorem omnes avaritie, student: beguira emen erraztasuna, ceñarequin etortzen ta eldutzen dan bat cequen ta cuticioso izatera. Esaten die Jaunac ece, bialdu diztela Profetac, bere icenean esan daguieten, uzteco edo larga dezatela vicio hau,, ta erac eranzun zuten, ez ditugu enzungo,, et dixerunt, non audiemus: beguira emen, vicio hau largatzeco nequea. Cequenac izatera eldutzeco erraztasunaren gañean izango da Sermoe onen 1° puntua. Vicio hau errotic edo sustrayetic ateratzeco dagoen nequearen gañean izango da 2° puntua. Onerataco esca dezagun gracia, esanaz Virginari AE Maria //

1ª P. Gauza nequezcoa da, aberatz bat salvatzea,, dio Jaungoicoac. Sentencia icaragarria, sentencia izugarria, sentencia, largoi palso ta guezurtitzat iduquico litzaqueana,, nasbaguetu edo esan ezpalu guezurbagueco eguia berberac. Arrituric gueratu ziran Dicipuluac, sentencia ain bildurgarri bat aditzean. ¿Miratzen zerate, esan dizuedanaz, galdetzen die Maiŝuac? nequeza da, nere semeac, biurtzen naiz esatera,, nequeza da Aberatz bat salvatua izatea: eguiaz esaten dizuet ece, errazago dala Gamelu bat jostorratz baten begui edo chulotic igarotzea, Aberatx bat ceruetaco Erreiñuan sartzea baño: Emen izandu zan Apostoluen icara ta bildurra. Arrituric cordebagueturic eta turbaturic, abiatu ziran beren artean galdetzen, ¿cein salvatuco da? galde oni eranzun zien Jaunac,, guizonentzat ecinquizuna dana, Jaincoarentzat da eguinquizuna,, indartutzen zuala eranzuera onequin len esan zietena,, Sn. Juan Chri-

sostomoc ta Sn. Gregorio andiac azaltzen duten becela. Ez ezazue uste izan, esaten dizuet Christauac, ecin salva litequeala aberastutzeco deseo ta gogoac dituana, ta bein aberastu ezqueroz bere biotzean ondasunac itsatsiric daduzcana; baña ain da nequeza ece, bear bearra da onetaraco gracia oi-ez bat, Jainco gucialdunaren colpe bat, ta bere jaincozco omnipotenciaren mirari bat. Baldin jaquin nai badezue, CC, certan dagoan dificultade edo neque au, adi ezazue San Pablo Apostolua,, aberatz eguin edo izatea nai dutenac, dio, erorten dira Deabruaren laquio ta tentacioan, eta gogo opá ta deseo vano ta caltetsu ascotan, ceñac leice-ondatzen duten guizona erioan ta galtzean, bada gaitz ondore gucien sustraya da guticia. Salvatzallearen ta bere Apostoluaren bi sentencia oec bete bear guinduzquete gucioc bildur osasungarri batezaz, Apostoluacquin eguin zuan becela; ezagu-erazo bear liquegute perill andia condenatzeco, ceña daducaten, aberatz izatea gogotic nai dutenac; aleguiñ ta bear eraguin bear liquegute erbestutzen ta botatzen gugandic ondasunacganaco zaletasun gucia, ipiñi ez dezagun, ugaritzen badira ere, gure bihotza ayetan. Baña icusten dana da, ece, izanagatican ain icaragarriac, ez dutela eguiten ez sortutzen bildurren aleric: guizonic cequenenac, guticiosoenac, interesari gueiago ichasten zaionac, enzuten ditu ondasunac, icararicgabe, guibel andiarequin, ta sosegu ederrean, guciz sinistaturic ez dutela itz eguiten berarequin. ¿Ta badaquizue, hau nondic datorren? iñorc bere burua cequentzat ez iduquitzetic: batzuec ematen dioe cequentasunari ta beren guticiari onzurtearen edo economia prudente baten icena; beste batzuec deitzen dioe providencia edo gaucen ongui beguiratze bat; beste batzuec deitzen dioe premia, edo beren estadua sostengatzecoarena, edo beren familia mantentzecoarena. Baña derizquiot ece, ez dala neque andico gaia icus-aracitzea, dirala chit asco guticioso oec, ceñen contra botatzen dituzten aditu dituzuten sentencia icaragarriac Salvatzalleac ta bere Apostoluac. //

Egui hau zuei adi-eracitzeco, ta onezaz garaituric uzteco,, asco izango nuque, Ysayas-équin ta Jeremiasé-quin esatea ece, dala vicio hau ain generala ta guciacquicoa, nonda, chiquitic andirañocoac escumatzen edo entregatzen diran berari: Ascoco nuque Sn. Juan Chrisostomoren autoridadea,, ceñec segurutzat esaten duan ece, izurri hau zabaldu dala Mundu gucitic, vicio onegandic libre arquitugabe, ez aberatza ez pobrea, ez andia ez chiquia, ez zaharra ez gaztea, ez Principea ez mempecoa, ez elizaquia ez munduquia,, bada etzion barcatu Apostoluen batzarreari ere,, arquitu zuan Judasen bihotz barrene-

raño sartzeco modua, ta maldaderic nazcagarriena eraguiteco bidea. Eguia onen billa-bide edo pruebaraco ezarri nezaquequizue gucien abo-oza ta testimonioa: Echejaunac esaten due ece,, ez daquiala, cer concienciarequin mercatari ta tratalariac jasotzen dituzten ain gora beren salgaiac edo generoac,, ta nola eguiten dituzten aurrerapen ta irabaci ain andiac,, beren aboa dala beren leguea,, orregatican dagoala gauza gucia ain galesti,, ta ecin ecer erosi lezaqueala: Mercatari ta Tratalariac esaten du ece, ez dagoala diruric cerequin pagatu eche-errentac,, ez daquitela nolaco concienciarequin jasotzen dituzten errentac, edocein ocasio ta aitzaquiaz valiaturic: Batac eta besteac quejatzen dira Oficialeen contra, esanaz; egungo egunenean ecin jantzi ta oiñdaztu litequeala, ain galesti saltzen dutelaco: Oec guztioc ematen dituzte queja samiñac Curialen edo Letradu ta Escribarien contra, mira eguiñaz eramaten dituztelaco derecho batzuec ain gañez eguiten dutenac. Batzuec mira irizten dioe ondasun andi, Vrliac irabaci dituanai; besteac arritzen dira araco lastertasunaz, ceñarequin eldu dan Sandia aimbat caudal bildutzera: Oec gorrotatzen dituzte bataren gira-bira ta inguruac; besteac nazcatzen dira besteen comercio ta tratuaz; alaco eran, nonta,, ez dago gauza sarriagoric aditzea baño, Mundu gucia dagoala guticiaz betea;, ta orrez guztiaz ere, guticia hau ez da agueri: Guciac dira beren irabacien defensore,, Mercataria bere tratuaren, Echejauna bere errenten, Curiarra bere derechoen, ta Oficialea bere jornalen.//

Baña guelditu zaitezten azquenic eguia onezaz, ¿ucatuco dezue, ecin conta-alá dirala,, aberatz izatea opatzen edo deseatzen dutenac? ez det uste atrevituco zeratela ucatzera: bada beguira emen, guticiaren lenvicico pausoa. Abiatzen da, ondasunac bildu ta pillotu nai dituana,, pensatzen ta meditatzen, cer bide artuco dituan, berearequin ateratzeco: beguiratzen du modua nola eldu dan bestea, gozatzen dituan ondasunen ugaritasunera; meditatzen ditu traza ta bideac, ceñaz valiatu dan bestea, bere caudalac bildutzeco ta gueitutzeco,, ongui beguiratzen du batzuen industria, oartzen da bestearen ibillte ta gu-ernuaren gañean; ta aututzen du onguien derizquiona. Abiatzen da bear eguiten firmezarequin; eguna ez da asco bere eguin-bide ta lanetaraco; ucatzen zaio atsedenari; gavá berdiña da egunarequin lanean; oeac ez dio servitzen ezpada prensatzat, ceñean tormentatzen duan adimentua idurideacquin, tratuacquin, asmacioaqn, ta oetan daodela dacusan dificultadeac alcarri ichastearequin: badatorquio aurrera ocasio on bat, eguiten du tratu zori-oneco bat, ta guitutzen du, (norc

daqui cembateraño?) bere caudala. Animaturic zorioneco guerta-era ta acerta-era onequin, goragotu ta igó nai du irabaci andiagoetara,, arteraño eguin (eman) dituan pausoac iduritzen zaizca gueldoac,, laburrá, iduqui duan irabaciá,, ta lasterrari ematen dio anditutzeco bere caudala; sartzen da empeñu berri ta andiagoetan,, moldatzen ditu lagun-guidá edo compania berriac,, eguiten ditu tratu berriac,, aguertzen ditu bide berriac; ta noiz guchien uste zanean,, ya da caudal baten jabe, irudide edo paper andi bat eguiteco asco dana. Vici dan echea estuegui da aimbat caudal cabitzeco,, alogueratzen da beste costu andiagoco bat;, apaintzen da echea aleguiñaz, maian jantzian ta familiaren portean, ceña gucia dan nai ta naiezcoa alaco caudala daducan guizon batentzat: onetaraco bear dute izan irabaciac chit andiac; baña, guztia eguiten da,, ceren guciraco ematen duan industriac. Ta beguira emen gavetic goiceraco bestera-anzá, edo, esan oi dan becela, zorri viztu bat. Guciac miratzen dira icusteaz tratu ain luce-zabal bat: batzuec cuiŝcurtutzen dira bere besaburu ta sorbaldez; beste batzuec galdetzen due,, ¿nola eguiñ al du guizon onec aimbat caudal? Baña guciac aitortzen due dagoala viciro al-dun ta aberatz. Ta derizquiozue, CC, ece, bildu izango dituala ondasun oec guciac concienciaco pureza ta garvitasunarequin? ez daquit nic: chit bildur izateco da, ez dirala izandu cilleguiac bere irabaciac; ceren Ispiritu Santuac dio ece,, aberaztutzeco lasterrari ematen diona, ez dala izango inocentea, ez libre egongo pecatutic,, qui festinat ditari, non erit innocens: Ondasunac, estreñan edo asieran bat batetan edo colpe batean irabazten diranac, azquenean ez dute iduquico bedeincacioric,, hereditas ad quam festinatur in principio, in novissimo benediccione carebit. Baldin colpe batean aberaztu diranen concienciac barrendu baguinitzaque; án icusico guenduque eguia, Ispiritu santuac esaten diguna.//

Cer erremordimentu ta utsiquiac, cer dudac, cer bildurrac,, alaco ta orrelaco erosquera edo saldura egondu ote zan edo ez ondo eguiña: alaco tratu edo sal-erosian, eraman ote zezaquean edo ez aimbat interes edo irabaci: saldu ote zitzaquean edo ez, onac balira becela,, au-eriatuac edo caltetuac zeuden generoac: becartu edo piŝutu ote zuan edo ez conciencia, valiatzean eroslearen jaquiñezaz, saltzeco berac nai zuan precioan,, edo saltzallearen ignoranciaz, erosteco precio beagocoan: pecatu eguiñ ote zuan edo ez, eguitean tratu debecatu bat,, ecarriaz ta sartuaz sal-gai edo genero debecatuac: cargatu ote zitequean edo ez cillegui sal-gai guciarequin, berac bacarric

saltzeco,, nai zuan precioan: izandu ote zan edo ez soberá ta gueieguia, alaco edo orrelaco tratuan iduqui zuan irabacia: Ytz batean,, ala aberaztu diranen bihotzac icusico guenduzque ichaso ecaitzez ta bagáz bete bat eguiñic,, icusico guenduque, paqueric ematen ez dioten zalantzazco ta dudaldizco bagá furiaz beteritaco bat eguiñic. Bañà, cer guertatzen da? Aditu J.Xptoc esaten duana: Antsia ta erremordimentu oec dira araco aci jaincozcoa, ceña ereñi zuan necazari cerucoac sortu ez dezan fruturic. Irabaci andi baten icustác edo beguiratzeac, ta abantalla andi baten esperanzác,, ichutzen ta lilluratzen due arrazoea, turbaitzen due adimentua, irabiatzen dituzte evangelioaren ta doctrina christianaren legue guciac, ta arrastatzen due vorondatea,, igaro dídin concienciaco bildur gucien gañetic.//

Baña, ¿cer diot? oraindic atseguiña eguiten da zuzentzeco ta justotzat emateco accio edo eguinbideac, ceñac sortutzen dituzten osasungarrizco bildur oec,, sinistaturic dirala escrupulocho chamar inpertinente batzuec. Concienciaco paque falso ta eriora daraman au irichitzeco, (ceña aserratzen eta gorrotatzen duan ain moduz Jaincoac Ysayas-en ta Jeremias-en aoz guticiosoetan;) valiatzen dira guticioso ta ondasun-en maitatzalleac bi principio edo arrazoe beguitandu oezaz. Lenvicicoa da, esatea ece,, caudalac aurratzeco ta bildutzeco beren modua bera gordetzen dutela beste guztiac ere;, Ta baldin gaizto balitzá, ez luquetela eguingo aimbatec; ceren ez dan sinisgarria, oec gucioc condenatu nai izatea: Bigarrena da, esatea ece,, asco personac exemplo ta oitura onetacoac, sacramentuac maiz artzen dituztenac,, guticiaco señale ta tacharen alericgabe eguiten dituztela alaco tratu berberac, ceñatatic ateratzen dituzten irabaci viciro arrituac;, Ta baldin irabaci-bide oec balirá ez-cilleguiac, bertatic largaco lituzquetela; ceren, diote, dirala chit jaquitun ta iracasiac, ta ongui daquizquitela beren obligacioac;, ceñagatic ez daducate escrupuloric danic ariñená, jarraitzeco oen exemploari. Baña bi arrazoe oec ez dira asco izan bear paquetutzeco concienciac: ez lenvicicoa,, ceren chit ongui guerta liteque ta da sobera sarritacoa, izatea accio bat ez-cilleguia,, ta orrez guztiaz ere ascoc eguitea: Ta ala, esaten digu Yspiritu Santuac exodo deritzan escritura sagraduco liburu batean,, ez daguiozula jarraitu gendechari, gaizqui obratzeco, ta etzaitecela gaiztoen iritzia-ganatu, bide zucenetic des-bidetutzeco; hau da, azaltzen du San Agustinec,, ez derizquiozula daramazula bide ona, dacusulaco, ortic asco dijoacela,, badá, atzenbaguea da barballoen cembatea edo numeroa,: ez bigarren

arrazoea ere,, ceren San Juan Chrisostomoc esaten digunez, ain erroturic eta sustraituric dago guticia guzon guztien bihotzetan ece, ez daode libre argandic, virtute zoli sendo batean cimendaturic daodela diruditenac ere.//

Baña, onec guztionec ez dio mellaric eguiten guticiosoari; berarequico indar andiagocoa da, icustea, ascoc eguiten dutela berac eguiten duana: ta berac christau ontzat ta Jaincoaren bildur andicotzat daduzcanen exemploa, da beretzat cimendu edo abe sendo bat iduquitzeco cillegui ta inocentetzat, berac eguiten duan guztia. Cimendu beguitandu oequin gozatzen ta paquetutzen da bere conciencia,, atertutzen dira araco inquietacioac, araco dudac, araco quezca ta bildurrac, estreñacoan iduqui zituanac; ta guztia guelditzen da paque guibel andico baña perilleco batean. Vstea eguiñic bide zucenez dijoala, zabaltzen diozca interesari aice-zapi edo vela tolestu guciac; sartzen da empeñu berrietan, sot-arquitzen edo asmatzen ditu tratu berriac, moldatzen ditu ichequera edo compañiaberriac, billatzen ditu modu berriac,, ta baldin irabacia andia badá, ez dio ajolaric, ta ez da guelditzen beguiratzera, ote diran cilleguiac eta onestoac modu ta bideac, ceñaz valiatzen dan: anditutzen da caudala, baña caudalarequin batean anditutzen ere da beragan ichequitasuna,, ta sututzen iracequitzen ta gartutzen da gueitutzeco opá ta deseoa: antsia onequin guztia daduca justotzat, guztia cilleguitzat, ta guztia inocentetzat. Esaiozue berari, perill andia dala animaraco tratu hura edo bestea, ceñaz valiatzen dana, ta berac eguiten duana;, edo dala soberá ta gueieguia irabaci hura edo bestea; edo ez dala justo ta cilleguia bide hura edo bestea, ceñaz valiatzen dana;, edo dala bidegabeco ta usuraria eramatea, gauzac valio duan baño gueiaago, saltzen diolaco epetan; dalá ez-cilleguia, salgai debecatuen tratua;, dala logreria garbi ta legueen contracoa, saltzecoac estancatzea,, saltzeco, berac nai duan eta nai duten precioan: esan ta esaiozcazu onelacoac ordu onean, ¿baña cer mella eguingo due alacoagan? ¡ah! laster adituco dituzue bai bere abotic icen eder oriec,, esanaz, zeradetela, ezjaquiñ, escrupuloso, simple, lelá, ta gatzbagueco batzuec,, ta isquioca, burlá, ta parraca, eranzunaz; Theologoai etzatela aditzen alaco gaucetan.. ¿Certaraño ez dator, estadu onetan guizon bat,, ta cer ez luque eguingo? salduco luque bere anima, bere caudalac pillotutzeagatic,, nihil est scelestius quam amare pecuniam, hic enim et animam suam venalem habet: ta eguingo luque escrupuloren alericgabe:, ceren, San Agustinec dioen becela, izanagatican pecatuac izan-alitezquean andi ichusi ta nazcagarrie-

nac, baldin guizonac maiz eguiten baditu, oitutzen da ayetara; ta oitura onegatic, edo ez daduzca pecatutzat,, edo badauzca ere, bacarric daduzca ariñtzat,, pecata quamvis magna et horrenda, cum in consuetudinem venerint, aut parva aut nulla creduntur. Ta beguira emen, cergatic dan senda-eciña, esateraco, gaitz ta izurri gaizto hau.//

Jaincoa da al-duna, arrietatic Abrahanem semeac eguiteco,, esaten zien San Juan Bautistac Fariseoai ta Saduceoai; da esatea, azaltzen du San Agustinec, ez dago guizonic ain bihotz gogorreco ta setá gaiztocoric, nonda ecin bigundu ta samurtu lezaquean Jaincoac, ta eguiñ Santu andi bat,, baña zori-on hau ecin irichi lezaque guizonac, berac bacarric,, ta Jaincoac ere ez du eguiñgo sarritan aldatze hau, baldin oni ezpadio laguntzen guizonac bere vorondatearequin. Gauza bic bear diote naita ez lagundu eguiteco andi oni,, ta dira, gracia, Jaincoaren aldetic, ta gracia oni eranzutea guizonaren aldetic,, ala nonta, graciac etorri bear du lenengo ta aurretic, ta onen ondoren jarraitu bear du eranzuerac; ta ala, dio Apostoluac ece, Jaincoa dala, eguitada on andi oni asiera ematen diona. Jainco misericordiosoac guizonaren santu-eguite onetan gorde oi-duan manera ta ordenu ederra, da, Trentoco batzarre santuac dionez, biraltzea utsiquiac eta erremordimentuac,, abia ditecen, pecatari dirala ezaguturic, bildur izaten justicia jaincozcoari: Ta baldin Jaunaren dei au aditzen badue lenvicico aldian, dijoa biralduaz lagunzá andiagoac,, icharan dezaten bere misericordia cabugabean, asi ditecen Jaincoa maitatzen, ta eldu ditecen azquenic mallaz malla santu beren buruac eguitera: Baña baldin lenvicico ayei sorrac eta gorrac eguiten bazaiezcate, baldin ezpadira muguitzen lenvicico utsica ta bildur aetara,, ez bacarric ez ditu emango beste gracia berri batzuec, baña len emanac zeuzcanac ere atzeratu ta quenduco ditu,, eguin zuan becela araco servitzari char, emandaco talento edo diru baliosoa ezcututuric iduqui zuan arzaz,, ceñi ez bacarric etzion eman berriro beste bat, baicican quendu ere zion len eman izan ziona. Ta, ¿eranzungo dio gracia oni ondasunen maitatzalleac, pensatzen ez duanac beste gauzatan ezpada ayec gueiago ta gueiago pillotutzean? ¡ah Christauac! ¿nola sentituco ditu utsica ta bildur oec, baldin sinisturic badago dala justo zucen ta inocentea? ¿nola ezagutuco da pecataritzat, baldin ezpadu ezagutzen obenic edo culparic, bere irabacietan, bere tratuetan, bere sal-erosietan? ¿nola nai dezue sartu didin bere bihotzean jaincozco justiciaren bildurra,, baldin bere igaroco vicitza guztia araturic, ta baldin bere tesoro andiac bildutzeco valiatu dan

bideac azterturic, edirotzen edo arquitzen baditu ontzat emanac, edo ya guztien equiera ta oiturarequin, edo ya christau ontzat, eta conciencia garbicotzat daduzcan ayen exemploarequin? Errazago sinis lezaque ez dituala gal-aci ceruco onec sustrairic botaco, conciencia aimbat urtetaco oiturareqn. erracayaz errea dagoan artan,, ta sustraiac botatzen baldin baditu ere aci jaincozco onec, itoa izango dala ondasunen aranzá ta larracquin.//

Baldin lurreco ondasun oezaz bein edo bein aseric, largaco balu oarpilla edo cuidado au, ta artuco balu demboraren bat onguitutzeco ta zucentzeco bere urteac bihotzeco samiñtasunean,, icharan lezaque ezagutuco luqueala, nozbait gaizqui eguiñ duala cerbait, erremedioaren premia daducana,, eta eguiñ dituala tratu edo artu-emanen batzuec, ceñetan nahastu dan irabaciren bat ala nolacoa ta ez ain cilleguia: baña bihotz, aberaztutzeco deseoac azpian daducan bati, etzaio inoiz etorrico dembora au; bada ez da seculan asetzen,, da sua becela, ceñac, asco da asco da, ez duan inoiz esaten: munduco ondasun guztiac bilduco bilduco balitu ere, ez litzaque egongo inoiz contentu. Gauza guztiac daducate beren muga, dio San Agustinec, bacar bacarric guticiac ez daduca mugaric: beste gañeraco vicioac, dio, macaltzen dira zartasunean, baña guticia dago bere quemena ta indarrean aguretasunic andienean ere: lurrac, dio, daduca bere mugá,, ura dago zarraturic lecu isentatu batean, aicea dago ichiric bere mugatan, ceru berac, ain zabala izan arren, bere cabua daduca; bacar bacarric guticiac ez du ezagutzen mugaric marraric caburic. ¡O guizon cequen guticioso ta ondasunen zalea! ¿ez daducazu asco adiña, ongui ta errumesqueriagabe igarotzeco zure vicitza, ta lecu onean toquitutzeco zure familia? esazu bada bein edo bein evangelioco aberatz cequenac becela,, ea nere anima, ondasunic asco bildu dituzu, oec biltzen iduqui dituzun nequeaz atseden ar ezazu, ta esqueñi zaiozcazu Jaincoari ta cere animari egun guichi gañeracoac. Baña ez, CC, ez: chit sarria da, Salomonec eguzquipean icusi zuan vanidadea: badaode guizonac,, lanari uzten ez diotenac, ta beren beguiac ondunaz asetzen ez diranac, ta beregan biurtu nai ez dutenac, esanaz; ¿norentzat bear eguin det, ta ostu-quendutzen diot nere animari? au da vanidade andi bat, ta ansia-larri dongue ta chit gaizto bat. Onetan castatzen du bere vicitza guztia atzeneco asnasaraño,, ta JXptoc dionez, ondasunac bildutzeco cuidadoa, ta oen guezur ta engañoa, dira aranza ta larrac, Jaunaren deiaren aci hura itotzen dutenac,, ta ez diote uzten sortu dezan fruturic: da chit nequeza edo alde al-

dean ecinquizuna iduqui dezaten ondoreren bat bildur usica ta remordimentu oec, cenac diran asiera nondic asitzen dan pecatariaren santu-eguitea.//

Baña demagun, aditu ditecela Jaunaren dei oriec, ta sentitu ditecela erremordimenturic vicienac: orrez guztiaz ere, bildur izateco da ez dutela sortuco Jaincoac nai duan ondorea. Ycusi emen arrazoea: Ceimbat eta andi eguiñaz ta lodituaz ta lodituaz joan dan zure caudala, aimbat eta andi eguiñaz joan da zure ones-bidea ta estimacioa, chit andia izandu da zure omeña fama ta creitoa, zera ya errian onguien vici dan bat tzat zaodena, chit arguia da, eguiten dezun papera: Portatzen zera zure estaduaren famaren ta estimacioaren erara, zure echean, zure maian, zure personan, ta zure familian; ala nonta, cabugabeco bide-hasti eta luce bat becela dago, len estreñacoan zenducan estadutic, orain daducazunera: Baldin itssillduco badira utsica ta erremordimentu oec, baldin paquetuco badira duda oec, baldin segurutuco bada conciencia,, des-eguin ta desitsatsi bearco zera caudal ta hacienda orretatic; onen ondoren dator jechitzea errian daducazun estimaciotic, aguertzea amparugabe, ceña zenirizquion zegoquiola naita ez zure estaduari: bearra da ez len aña lucitzea, castuac murritutzea, len baño estuago ta zurrago vicitzea; bearra da galtzea esperanzac, zure icena beticotutzeco moldatu cenituanac; bearra da jechitzea asieran iduqui zenduan estaduaren illuntasunera, edo guchienez orain daducazunaren aldean ascozaz beagocora. Ta, ¿erabaquico dezu, hau guztia eguitea? ¿erabaquico dezu saiets guztietatic, edo ausartuco zera jechitzera oraingo estadu goicotic errian daducatenic becoenera,, edo guchienez, orain daducazunaren aldean malla ascozaz chiquiagoa danara.? ¡Ah Christauac! chit miñ andia ematen dio onec, arrotasunari, antusteari, andinaitasunari, gure lenengo gurasoagandic datozquigunari; chit nequeza eguiten zaio hau, Adanen ondorengo batec igotzeco daducan deseoari; siniscorragoa da eguingo dituzula al dituzun indar guztiac ez jechitzeagatic daducazun estadu goico orretatic, cen ez, artuco dituzula al-diran bide-moduac paquetutzeco zure conciencia; ta hau ecin irichi badezu,, arrastaca eramango dezula zure utsica ta remordimentuen catea astuna, ta zure bildurren piŝu esquerguea eriotzaco aterāño; onela elduco zera zure vicitzaco azquen aetara: Eriotzaren etorrera lasterra ta samiñarequin, ta zure vicitzaco contu estua ematera zoazalaco ezauerarequin,, gueitutzen dira utsica edo remordimentuac, estutzen dute bildurrac, anditutzen dira dudac,,, ta orduan ezagutuco dezu vicitza onetaco vanidadea,

ta idiquico dituzu beguiac icusteco zure pecatu guztiac: Opatuco dezu icustea cere burua paquezco conciencia batequin, baña beguira ezazu emen beste tentacio bat indartsuena ta icaragarriena,, ceña dan (?) ta esango dizut,, ecin irichico dezu paque opatzen dezun hau, ezpada zure humeen costura, ceñac diran zure bihotzeco puscác eta zatiac: Ezagutuco dezu galdu bearco dutela daducaten zori-ona,, pobre bear guelditzen dirala,, iduqui dituzten esperanza andietatic erortera dijoacela,, ta guelditzera, zure caudalac esqueiñtzen zieten estadutic, beste desberdiñago batean; ta ez izateagatican guraso guizon-ezá gogor ta odolguirode bat, zuregan eguingo dezu ece aurqui ongui irabaci izandu dirala zure ondasun andiac: Ta duda oequin joango zera vicien ta illen Juez nagusi-aren aurrera.//

Beguira emen, Christauac, cein nequeza dan garaitzea vicio hau. Orregatic esaten zien Apostoluac Epheso-arrài,, guticiaren icena bera ere ez bidi icentatu ez aditu zuen artean,, avaritia nec nominetur in vobis. J.Xptoc esaten digu,, gorde gaitecela osoro guticiatic,, cavete ab omni avaritia. Christauac,, bear eguiñ ezazue ordu onean ta al-eguiña eguizue irabazteco zuentzaco ta zuen familiarentzaco mantenua; bada onetara condenatu guinducen gure Jaincoac gure lenengo guraso Adan--egan: arreta ar ezazue billatzeco ta irabazteco, humeac ongui toquitutzeco bear dana; bada hau aguintzen die gurasoai San Pablo Apostoluac: baña izan bedi arreta sobera ta gueieguiagabe, ta moraleco edo doctrina christianaco zucembide edo erreguelaen eran: Ta baldin gogorra iduritzen ta eguiten bazaitzue vicitzea pobrezaren ta premiaren estutasunen artean; † lotsatu zaitezte Jaun onen beguieguietan,, ceña izanic chit aberatza, eguiñ zan pobre bear: Erraza izango zan Jaun onentzat ondasunen artean vicitzea; bada Aggeo Profetaren aoz esan zuenez,, bereac zituan gauza guztiac, urrea, cillarra, metalac, ta arri valiosoac; baña guztia larga zuan ain guztiro, ece, etzuan are izandu non etzin ta eratzin bere burua: Jayo zan portale pobre batean berobaguetasunic andienarequin: Yduquiagatic ere Mundua bere oñetaco pea-danatzat, vicitu zan pobre, esqueco, ta ez ezagutua: Ta baldin ezagutu nai badezue cein premia premiaric estuenera eldu zan berea bere eriotzan, beguira zaiozue nola palta zaion are guizonic errucarrienari palta etzaiona: Guizonic zori-gaiztoco ta errucarrienari etzaio palta oee triste bat, non eratzin bere burua, edo guchienez lur gogor soilla bera; baña alivio labur hau ere palta zaio ceru ta lurraren jabeari: Esquecoric mezpreciagarrienari etzaio palta capa zar bat eta alcandora adobaquiz bete bat, ceñaquin estali bere araguiac;

baña Jaunoni, ceñac jantzitzen dituan edertasunez ceruac eta lurra, ta arguiz eguzquia,, palta zaio goza-era labur hau: Guizonic lurreratuenac badu aurdico edo buruco pobre bat, edo guchienez arri edo zur bat, non eratzin bere burua; baña ansiatuen ta larrituen pausá ta atsedena danac, etzuan iduqui beste etzin-gayaric ezpada aranzazco coroa gogor bat, bere burua ta loac trabesatzen zituana: Pobrezá soberá bere hau, nai du Jaun onec, iduqui dezazun beti gogoan; ta ala esaten dizu Jeremias-en aoz,, oroi zaite nere pobrezaz,, recordare paupertatis mee. Christauac, Jaun onen icasle gueranaz arrotzen baguera, ez dezagun nai izan Maiŝŝua baño gueiago,, ta mempecotzat ezagutzen baguera, ez dezagun nai izan gure Jaun-jabea baño gueiago. Gorrotatu dezagun guticia, ta jarraitu diogulaco miñ-damu andi batequin, esan dezagun guztioc; Nere J Xpto Jauna. &a. †.

O. S. C. S. R. E. Vespertino predicado en Tolosa, Año de 1806: por Fr. Juan de Aj-uria

Copia literal y exacta.

Bilbao, 3-V-1960.

JUSTO M.ª MOCOROA

EL CATECISMO MANUSCRITO DE MAQUIRRIAIN DE 1828

Manuscrito encontrado en la Casa "Peruchena" de Cildoz, lugar del Valle de Ezcabarte, el lugar más occidental del valle.

El Valle de Ezcabarte limita al Norte con Valle de Odieta, al Sur con Pamplona y Villaba, al Norte con Valle de Esteribar y al Oeste con Valle de Juslapeña (en Vasc. *Zulapain*).

El Dr. Angel Irigaray me lo entregó el año 1958 por tratarse de un manuscrito encontrado en la casa nativa de mi abuelo paterno. Fue hallado por él, y don Angel Díez de Ulzurrun, *etxeko jaun* entonces de la casa Peruchena, se lo dio. (Hacia el año 1933).

La escuela de Maquirriain donde se escribió este catecismo se encuentra en el lugar del mismo nombre del Valle de Ezcabarte. A ella tenían que ir los de otros pueblos del Valle, pues desde tiempos antiguos ha habido una fundación con una escuela de ambos sexos para todo el Valle. Actualmente cada pueblo, o cada dos, tienen sus escuelas aunque sean de temporada. Cildoz por ejemplo tiene la suya y ya no acuden los niños a Maquirriain.

El Valle de Ezcabarte se compone de los lugares de Cildoz, Orrio, Anoz, Arre, Azoz, Oricain, Garrues, Maquirriain, Sorauren, Eusa, Ezcaba, y varios caseríos como Alderiz, Elegui... etc,

La persona para quien se escribió el manuscrito de referencia, don Juan Pablo Díez de Ulzurrun, es la siguiente: Se trata de un hermano de mi bisabuelo, de un tío de mi abuelo paterno. Tenía otros hermanos, don Isidoro y don Carlos Díez de Ulzurrun, este último mi bisabuelo. El llamado don Isidoro Díez de Ulzurrun fue Capuchino en el convento de Pamplona, y a raíz de la desamortización de Mendizabal salió del convento, viviendo en Cildoz durante más de cuarenta años y haciendo de Párroco. Gracias al P. Isidoro se conservó el ma-

nuscrito de su hermano pequeño Juan Pablo. Este Capuchino, por cierto, dejó una biblioteca de libros en latín, castellano y algunos en euskera, entre los que he encontrado, hace tres años (1957) un Mendiburu, "Jesusen biotzaren debocioa" (imprenta Ezquerro de Pamplona, año 1751, segunda edición). Habiendo encontrado también el mismo año 32 hojas del libro titulado: "Cerura nayduenac ardezaquean vide erraza", D. Joseph Miquelestorena, Lesacaco Apezac eracusten duena. Iruñean: Martin Joseph Radaren echean, 1754 urtean.

Esta biblioteca fue muy mirada en fechas anteriores al 1936. El actual dueño de Peruchena, mi primo Camilo Díez de Ulzurrun, me dijo que su padre, don Angel Díez de Ulzurrun, dio muchos libros en vasco, sin poder precisar a quién, que fueron encontrados en el cuarto donde vivió tantos años el Padre Isidoro Díez de Ulzurrun, mientras estuvo exclaustrado. Al fin pudo volver al convento hacia el año 1880, muriendo en el antiguo convento de extramuros de Pamplona a los 84 años de edad.

He recogido más de veinte sermones manuscritos preparados para la predicación dominical, con las fechas. Son sermones dichos en la Parroquia de Cildoz. Otros muchos más tiene el Dr. Angel Irigaray. Algunos de ellos interesantes, como el catecismo, para estudiar particularidades del dialecto de Ezcabarte, alto navarro meridional, modalidad de gran parecido con el de toda la zona media navarra, el más extendido por Navarra y el que más se ha perdido (parecido al de Puente la Reina).

Sobre el maestro de la escuela de Maquirriain, Francisco de Goñi, es difícil precisar de dónde era. Por el euskera en que está escrito el catecismo se ve que era del Iruñerri o cuenca de Pamplona.

Si tuviese más tiempo procuraría buscar más detalles de don Francisco de Goñi, así como de Juan Pablo Díez de Ulzurrun, P. Isidoro, etc. Pero me es imposible hasta el verano.

En Cildoz se predicó en Euskera, poco más o menos hasta el año 1878, pues tengo un sermón manuscrito de ese año del P. Isidoro de Cildoz. Mi abuelo, don Francisco Díez de Ulzurrun, que nació en 1860, hablaba perfectamente en euskera. Fue voluntario en la segunda guerra carlista.

Actualmente, en Cildoz no habla nadie en vasco. Queda un pueblecito en el Valle de Ezcabarte (Anoz) que habla la gente mayor, me refiero a los mayores de cincuenta años, debido probablemente a su situación hacia el Valle de Olaibar y su aislamiento entre montañas.

A continuación transcribimos íntegramente el texto manuscrito del catecismo de Maquirriain. Consta de 76 páginas cosidas a hilo y numeradas hasta la 39. De la 39 en adelante no llevan numeración. Como pastas tiene cuatro hojas de papel con fragmentos manuscritos en castellano por Juan Pablo Díez de Ulzurrun en la escuela con buena caligrafía. En varias podemos leer después de cada texto: "En el lugar de Maquírriain el Sabado á la trarde del dia 23 de Febrero de 1828 Lo formó Juan Pablo Diez de Ulzurrun siendo Discipulo del S.or Mtro. Juan Fran.co de Goñi". "En el lugar de Maquírriain el viernes ála tarde del dia 15 de Febrero de 1828,, Lo formó Jua Pablo Diez de Ulzurrun siendo Discipulo del S.or Mtro. Juan Fran.co de Goñi U Ulzurrun". "En el lugar de Maquirriain el Miercoles á la tarde del dia 20 de Febrero de 1828,, Lo formó Juan Pablo Diez de Ulzurrun siendo Discipulo del S.or Fran.co de Goñi". "En el lu de Maquíriain el Martes á la tarde del dia 12 de Febrero de 1828,, La formó Juan Pablo Diez de Ulzurrun Siendo Discipulo del S.or Mtro. Juan F.co de Goñi [Debajo el abecedario hasta la s con letras mayúsculas]".

En la parte superior de los finales transcritos copia lo mismo en los cuatro. Copiamos el final del texto: "...Otras tres cosas tiene igualmente que reberenciar las leyes del cielo como infalibles las humanas como naturales: y las razones de los hombres justos como ciertas. Confucio en sus documentos eticos". Como las hojas usadas para las pastas están cortadas por la mitad, en dos de ellas viene el texto, por ambas caras, de la página de caligrafía desde el principio y no llega hasta el final que hemos transcrito.

El tamaño del manuscrito es de 10,5 x 14,5 cms.

[En la portada dice:] **Este cartapacio / es de Juan Pablo / Diez de Ul-/zurrun. / Se escribio el mes de / Marzo del año de 1828,,**

[En la segunda página.] **Doctrine cristianaren lembizico prinzipioa.**

Zeiñ baite escribitue Juan Fran.co Goñiren escuz, eta acabatue Marchoco Illeren oguei te batean, mille ta zorzietan eun ta oguei eta zorzi garren urtean Maquírriaingo Escolan.

Pater noster

Ayte gurea Zeruetan zaudena Santificabedi zure izena torribedi zure Erreñue gure gana cumplibedi zure borondate sandue Zeruen bezala lurrean ere. Emandezaguzu guri gueren egunoroco oguie, eta barcadezquiguzu guri gueren zorrac, guc

gueren zorgaituzteney barcatzen tioguten bezala ezcachazule utzi tentazioan erorzera, baizic libra gaichazu gaiz guzietaic. Amen Jesus.

Jangoicoac salbazachala Maria graziez betea Jaune dago zurequi bedeiquetue zara zu Andre guzien ertean, ta bedeiquetue da zure sabeleco fruitue Jesus.

Santa Maria Jangoicoaren Ama zuc otoiz inzazu gu becatarioc gatic orai, eta gure eriotzeco orduen. Amen Jesus.

Gloria Patri et Filio. &ª.

Credoa

Credo nic siñestatzen dut Jangoico Ayte guziz poderosoaren baiten, Zeruaren, eta lurraren criazalea gure Jaune baiten, zeiñ conzebitu baitzen, Ama Virginen entrañetan, Espiritu Santijaunen obraz, eta virtutez, Jayo zen Virgina Marie gandic: pasatu zuen pasio dolorezcoa gure, eta mundu guzie salbatzea gatic: ponzio Pilato: Juezaren manuaren azpian, gurutzean cruzificatu zuten, illzuten, orzi zuten: jauchi zen limbotara an zeuden arime tristeac atratzera, eta consolatzera: andic ill, eta irugarren egunean resuzitatu zen illen ertetic: iyenzenzen [sic] Zeruetara, an dago jarriric Ayte Eternoaren escuñetaco aldean, eta arren igualdadean: nondic etorrico baite azquen juizioco egunean onen, eta gaisstoen [sobre la *ss* de *gaisstoen* hay una raya] juzguetzera. Nic alaber siñestatzen dut, Espiritu Santi jaunen baiten, Eliz Ama Sandu Catolicoan: Sanduen comunioan, Becatuen barcazioan, Araguien rezurreczioan, vizitze seculecoan. Amen.

Salbea

Salbe Jangoicoac salbazachala Erreina misericordiaren Ama, vizitza dulzura, ta gure esperanza. Salbe zure gana deiyez gaude Evaren hume desterratuoc zure gana gaude suspiroz sentimentuz, eta negarrez, negarrezco valle ontan, ea vada Señora gure abogada, itzulichazu gure gana, zure vegui misericordiezco oiec, ta desterru au pasatute eracusi [sobre la *s* de *eracusi* hay una raya] dezaguzu Jesus zure sabeleco fruitu bedeicatu. ¡O Clementisima! ¡O Piadosa! ¡O Dulze Virgina Maria! otoiz inzazu gure gatic Jangoicoaren Ama Santa izangaitzen digno alcanzatzeco Jesucristoren prometimentu sanduec. Amen Jesus.

Jangoicoaren leguezco Mandamentue[c]

Jangoicoaren leguezco Mandamentu sanduec dire amar: lembizico iruec Jangoicoaren honrracoac, eta berze zazpiec progimo lagunen probechucoac.

Lembizicoa, Jangoicoa amatzea gauze guzien gañean.

Bigarrena, Jurementuric banoan eguiñ eztezagule.

Yrugarrena, Sayec, eta igandeac oso guardadechagule.

Laugarrena, gueren guratsoac, eta zarragoac ongui honrra, eta errespeta dechagule.

Borzgarrena, nior ill eztezagule, ta ez deseyetu [sic].

Seigarrena, lujuriezco becaturic egiñ eztezagule.

Zazpigarrena, niori daus ebasi eztezogule, ta ez consentitu.

Zorzigarrena, niori falso testimonio gaistoric goratu eztezogule, ta ez guezuric [sic] erran ere.

Bedratzigarrena, progimo lagunen viziquidea guerendaco deseatu eztezagule.

Amargarrena, Jangoicoac matentigun onez, ta gaitzez contentatzea.

Ebec amarroc enzerratzen dire bietara: Lembizico Jangoicoa onestean, eta amatzean gauze guzien gañean; eta Bigarrena gueren progimo lagunec gueren buruec bezala Jangoicoaren gatic. Amen Jesus.

Elizeco Mandamentuec

Elizeco Mandamentuec dire borz.

Lembizicoa Sayetan, eta Ygendetan Meza oso enzutea.

Bigarrena urtean beinbedere Confesatzea, edo lenago ilzeco peligroric balimbedu, edo comecatu bearbadu.

Yrugarrena, Bazcoa garizumecotan nor bere parroquin comecatzea.

Laugarrena, Eliz Ama Sanduec manatzen duenean barutzea.

Borzoarrena [sic], Amarren, eta Primiziec osoqui, eta lealqui eguitea. Amen Jesus.

Obra Misericordiezcoac

Obra Misericordiezcoac dire amalau lembizico zazpiec dire espiritualac, eta berze zazpiec Corporalac: Espiritualac dire hoc.

Lembizicoa, daquienac eztaquienai eracustea.

Bigarrena, consejue bearduenai consejue matea.
Yrugarrena, us eguiñei corregitzea.
Laugarrena, injuriec barcatzea.
Borzgarrena, tristeac consolatzea.
Seigarrena, progimo lagunec iten tiguten agrabioac, eta flaquezac pazienzien eramatea.
Zazpigarrena, illen, eta vizien gatic gure Jangoicoari otoiz eguitea.

Corporalac dire hoc.

Lembizicoa, eriec visitetzea.
Bigarrena, goseac dagonai satera matea.
Yrugarrena, egarriec dagonai edatera matea.
Laugarrena, cautiboac errascatatzea.
Borzgarrena, bulusiec beztizea.
Seigarrena, pobre, eta Peregrinoei ostatue matea.
Zazpigarrena, illec orzitzea.
Amen Jesus.

Articulo Fedezcoac

Articulo Fedezcoac dire amalau: lembizico zazpiec Divivinidade Sanduerenac, eta berze zazpiec Jesucristoren humanidade sanduarenan [sic]: Divinidade sanduerenac dire hoc.

Lembizicoa, siñestatzea dela Jaumbet guziz poderosoa.
Bigarrena, siñestatzea dela Ayte.
Yrugarrena, siñestatzea dela Semea.
Laugarrena, siñestatzea dela Espiritu Santi Jaune.
Borzgarrena, siñestatzea dela Criazalea.
Seigarrena, siñestatzea dela Salbazalea.
Zazpigarrena, siñestatzea dela Glorifiquezalea, eta Glorie manzalea.

Jesucristoren humanidade Sanduerenac dire oc.

Lembizicoa, siñestatzea Jesucristo gure Jaune, guizon inzen bezala izanzela Conzebitue Ama Virginen entrañetan Espiritu Santi Jaunen obraz, eta virtutez.

Bigarrena, siñestatzea jayozela Virgina Maria gandic guelditzen zelaric Virginic erdi baño len, erditzean, eta erdiezgueroz beti Virginic.

Yrugarrena, siñestatzea pasatuzuela pasio dolorezcoa gure, eta munduguzie salbatzeagatic.

Laugarrena, siñestatzea ssauchizela limbotara, an zauden arime tristeac atratzera, eta consolatzera.

Borzgarrena, siñestatzea andic ill, eta irugarre [sic] egunean resuzitatu zela illen ertetic vizietar.

Seigarrena, siñestatzea iyenzela Zerueta an zauden arime tristeac atratzera, eta libratzera.

Zazpigarrena, siñestatzea andic etorrico dela azquen juizioco egunean onen, eta gaisstoen [la *ss* tiene una raya encima] juzguetzera: onei maindiotela seculeco glorie zergatic arren Mandamentu Sanduec guardatu baitzuzten, eta gaisstoei seculeco infernuco penac zerengatic ezpaitzuzten guardatu. Amen Jesus.

Sacramentuec

Elizeco Sacramentu Sanduec dire zazpi: lembizico borzac dire necesidadezcoac zeñec gabe ezpaitaique salbatu cristioa uztembaitu desprezioz errezibitzeco, berze biec dire borondatezcoac.

Lembizicoa, Batayetzea.
Bigarrena, Confirmatzea.
Yrugarrena, Confesatzea.
Laugarrena, Comecatzea.
Borzgarrena, Olietzea.
Seigarrena, Ordenatzea.
Zazpigarrena, Matrimonio Sandue errezibitzea. Amen Jesus.

Becatu Capitalac

Becatu Capitalac dire zazpi.

Lembizicoa, Sobervie.
Bigarrena, Abarizie.
Yrugarrena, Lujurie.
Laugarrena, Yre.
Borzgarrena, Gule.
Seigarrena, Embidie.
Zazpigarrena, Pereza.

Zazpi bizio eben contra dire berze zazpi virtute.

Sobervien contra, Humildadea.
Abarizien contra, Largueza.
Lujurien contra, Castidadea.
Yren contra, Paciencie.
Gulen contra, Templanza.

Ymbidien contra, Caridadea.
Perezan contra, Diligencie.
Amen Jesus.

Arimen esayec dire Yru.

Mundue,
Demonioa,
Eta Araguie jaune.

P. Nola garaituco dugu Mundue?
℟. Desprezitzen tuguleic Munduco pompac, eta banidadeac jaune.
P. Nola Demonioa?
℟. Orazioz, eta humildadez j.e
P. Nola Araguie?
℟. Barutuz, eta mortifiquetuz j.e
P. Zein de enemigo ebetan andiena?
℟. Araguie jaune.
P. Zergatic?
℟. Zergatic berze biec apartabaitechaqueguque gueren gandic baño araguie ez jaune.
P. Virtute Teologalac zembat dire?
℟. Yru jaune.
P. Zein dire?
℟. Fedea, Esperanza, Eta Caridadea jaune.
P. Zerda Fedea?
℟. Ycusi gabeco gauze siñestatzea j.e
P. Zerda Esperanza?
℟. Esperatzea Zeruco glorie, Jangoicoaren grazie, eta gueren obra onen medioz j.e
P. Zerda Caridadea?
℟. Maitatzea Jangoicoa gauze guziec baño gueyago, ta progimo lagunec gueren buruec bezala j.e
P. Virtute Cardinalac zembat dire?
℟. Lau jaune.
P. Zeiñ dire?
℟. Prudencie.
Justizie.
Fortaleza,
Eta templanza j.e
P. Gorpuzen sentidoac zembat dire?
℟. Borz jaune.
P. Zeiñ dire?
℟. Lembizicoa, beguiez icustea.

Bigarrena, bearriez atzea.
Yrugarrena, sudurrez urrin itea.
Laugarrena, agoz gustetzea.
Borzgarrena oiñ escuz uquitzea j.e

P. Zertaco manzitigun Jangoicoac sentidoac, eta berze gañeraco miembroac?

℟. Guziequi zerbitzezeco Jangoicoa j.e

P. Arimen potenziec zembat dire?

℟. Yru Jaune.

P. Zeiñ dire?

℟. Memorie, Entendimentue, Eta Borondatea jaune.

P. Zertaco manzigun Jangoicoac Memorie?

℟. Oritzeco artaz, eta arrec itentigun beneficioez j.e

P. Zertaco manzigun Jangoicoac Entendimentue?

℟. Zautzeo Jangoicoa, eta artan pensatzeco j.e

P. Zertaco manzigun Jangoicoac borondatea?

℟. Maitatzeco Jangoicoa gauze guziec baño gueyago, eta progimo lagunec gueren buruec bezala jaune.

P. Christaube zara?

℟. Bai j.e Jangoicoaren graziequi.

P. Zergatic erraten duzu Jangoicoaren graziequi?

℟. Zergatic ezpainaiz christauba nere merezimentuz, baizic cristo gure Jaunen merezimentuz j.e

P. Zerda Cristauba izatea?

℟. Cristoren discipuloa izetea j.e

P. Norda cristoren discipuloa?

℟. Jesucristoren fedea Bautismo Sanduen profesaturic dagona, eta arren zerbizatzera obligueturic dagona j.e

P. Zeinde cristauen señalea?

℟. Gurutze Sandue j.e

P. Zergatic?

℟. Zergatic baite Cristo cruzifiquetuen figure, zeñetan redimitu baiguiñuzen j.e

P. Zembat aldetara usetubeardu cristabec gurutze Sanduen señale au?

℟. Bi aldetara j.e

P. Zeiñ dire?

℟. Ziñetzea, eta Santiguatzea j.e

P. Zerda ziñetzea?

℟. Escuñeco escuco beaz andiequi iru gurutze osoqui itea j.e

P. Non?
℟. Lembizicoa copetan bigarrena agoan, irugarrena bulerretan, minzetzen garelaic gure Jaun, eta Jangoicoarequi j.e
P. Ynzazu nola?
℟. Gurutze Sanduaren señalea gatic gure etsayetatic &.a
P. Zertaco iten duzu gurutzea copetan.
℟. Jangoicoac guarda gachan pensamentu gaisto ouzietaic [sic] j.e
P. Zertaco agoan?
℟. Jangoicoac guarda gachan itz errate gaisto guzietaic j.e
P. Zertaco bulerretan?
℟. Jangoicoac guarda gachan obra, eta deseo gaisto guzietaic j.e
P. Zer da Santiguatzea?
℟. Escuñeco escuco bi beatzequi gurutzebat osoqui itea j.e
P. Nondic nora?
℟. Asi copetatic ta bulerretaraño, ezquerreco soñetic escunecoraño, nombratzen duguleic Trintete Jaun Poderosoa j.e
P. Ynzazu nola?
℟. Ayteren, eta Semearen &.a
P. Noiz usetubeardu cristauec gurutze sanduen señaleau?
℟. Astengarenean obra onbaten iten, edo aurquitzea garenean necesidadean, edo peligroan: especialqui guatzetic atratzeac echetic atzatzean, Elizen sarzean atratzean, ssatean, ta edatean, eta berze edozeiñ lan, edo obra onen astean jaune.
P. Zergatic omberze aldiz?
℟. Zergatic beti, eta lecu guzietan baitabilze etsayec gure tentatzen, eta perseguitzen j.e
P. Zer enemigo dire oyec?
℟. Mundue, Demonioa eta Araguie j.e
P. Badu gurutzeac virtuteic enemigo oyen contra?
℟. Bay jaune.
P. Zertaicdu birtuteoi?
℟. Zergatic Cristoc garaitu baizituen guruzean bere eriotzean medioz j.e
P. Gurutzea adoratzen duzuleic ¿zer erraten duzu?
℟. Adoratzen zaitut Cristo, eta bedeiquetzen zaitut zeren zure gurutze sandue dela medio redimitu baitziñuen mundue j.e
P. Cristaube zaumenture torriezgueroz; zembat gauze dago obligueturic ssaquitera?
℟. Lau j.e
P. Zeiñ dire?

℟. Lembissicoa, ssaquitea zer beardugun siñestatu.
Bigarrena, ssaquitea zer beardugun escatu.
Yrugarrena, ssaquitea zer beardugun obratu.
Laugarrena, ssaquitea zer beardugun errezibitu j.e
P. Nola ssaquinbeardugu zer beardugun siñestatu?
℟. Daquizquiguleic Credo, edo Articulo Fedezcoac j.e
P. Nola ssaquinbeardu zer beardugun escatu?
℟. Daquizquiguleic Ayte gurea, ta Ave Marie, eta berze gañeraco Elizeco orazioac j.e
P. Nola ssaquinbeardugu zer beardugun obratu?
℟. Daquizquiguleic Jangoicoaren leguezco amar Mandamentu Sanduec, Elizeco borzac, ta Obra Misericordiezcoac j.e
P. Nola ssaquinbeardugu zer beardugun errezibitu?
℟. Daquizquiguleic Elizeco zazpi Sacramentu Sanduec j.e

Doctrine Cristianaren lembizico partea zeñetan declaratzen baitire Credoa, eta Articulo Fedezcoac

P. Norc erranzuen Credoa?
℟. Amabi Apostoluec jaune.
P. Zertaco?
℟. Guri fedezco gauzec eracusteco j.e
P. Guc zertaco erraten dugu?
℟. Dugun Fedea Confesatzeco j.e
P. Zerda Fedea?
℟. Ycusigabeco gauze siñestatzea j.e
P. Ycusiziñuen Cristo ssayotzen?
℟. Ez jaune.
P. Ycusiziñuen illzen, edo Zerure.a iyeten?
℟. Ez jaune.
P. Siñestatzen duzu?
℟. Bai jaune.
P. Zergatic?
℟. Zergatic Jangoicoac ala rebelatu baitzion Eliz Ama Sandueri, eta Eliz Ama Sanduec ala eracusten baitigu guri j.e
P. Zer gauze dire Cristauec bezala tuzunec, eta siñestatzen tuzunec?
℟. Eliz Ama Sandu Erromacoac dauzquienac, eta siñestatzen tuenac j.e
P. Zer gauze dire zuc, eta Eliz Ama Sandu Erromacoac tuzienac, eta siñestatzen tuzienac?
℟. Articulo Fedezcoac, Credoan enzerratzen diren bezala j.e
P. Zergauze dire Articulo Fedezcoac?

℟. Dire gure Fedean misterioric principalenac j.e
P. Zertaco dire Articulo Fedezcoac?
℟. Mateco guri notizie distintoa Jangoico gure Jaunena, eta Jesucristo gure Erredentorearena j.e
P. Norda Jangoicoa?
℟. Da gauze bat aiñ escelentea, ta aiñ admirablea eziñ erran eta ezin pensa daitequena. Jaunbet infinitoqui ona poderosoa sabioa justoa principio, eta fin gauze guziena j.e
P. Norda Trintete Jaun Poderosoa?
℟. Da Jangoicoa bera Ayte, ta Semea, eta Espiritu Santi Jaune iru persona distintoac Janooicobat [sic. A la primera *o* le falta el rasgo hacia abajo de la *g*] solo verdaderoa j.e
P. Zembat Jangoico dire? ℟. Bat j.e
P. Zembat persona? ℟. Yru j.e
P. Zeiñ dire?
℟. Ayte, ta Semea, eta Espiritu Santi Jaune iru Persona distintoac Jangoicobat solo verdaderoa j.e
P. Ayte Jangoicoda? ℟. Bay j.e
P. Semea Jangoicoda? ℟. Bay j.e
P. Yru Jangoico dire?
℟. Ez j.e iru persona distintoac Jangoicobat verdaderoa j.e
P. Nola daiteque ori Aite Jangoicoa Semea J.a Espiritu Santi Jaune J.a eta ala ere Jangoicobat baizic ez?
℟. Ala nola sagarbatec baititu iru gauze diferenteac, urriñe, colorea, eta gustoa, ala ere sagarbat baizic ez, guiscotan [sic] berean dire Ayte, ta Semea, eta Espiritu Santi-Jaune, iru persona distintoac Jangoicoat [sic.] verdaderoa j.e
P. Ayte Semeada? ℟. Ez jaune.
P. Espiritu Santi-Jaune Ayte, edo Semea da? ℟. Ez j.e
P. Zergatic?
℟. Zergatic baitire iru persona distintoac Jangoicobat verdaderoa j.e
P. Norda Ayte?
℟. Da Trinteteco lembizico persona Divinoa, zeñec engendratu batzuen Semebat igual izeteco, eta distinto personetan j.e
P. Nor da Semea?
℟. Da Trinteteco bigarren persona Divinoa engendratue Ayte Eternoaren gandic j.e
P. Norda Espiritu Santi-Jaune?
℟. Da Trinteteco irugarren persona Divinoa zeñec proceditzen baitu Ayteren, eta Semearen amoriotic j.e
P. Zembat naturaleza tu Jangoicoac?
℟. Bat jaune.
P. Zembat entendimentu? ℟. Bat j.e

P. Zembat borondate? ℟. Bat j.e
P. Zergaticde Jangoicoa guziz poderosoa?
℟. Zergatic bere nai izeteaqui iten baitu naiduen guzie j.e
P. Zergatic de Criazalea?
℟. Zergatic ez dausezetaic criatu baitzituen gauze guziec j.e
P. Eta gu zertaco criatu guiñuzen Jangoicoac?
℟. Zautzeco, eta zerbitzatzeco arren Divina Magestadea, eta guero gozatzeco Zeruco Glorie j.e
P. Zergatic de Glorifiquezalea?
℟. Zergatic matembaitu glorie arren grazien perseberatzen duenay j.e
P. Jangoicoac badu gorputzen figureic guc bezala?
℟. Eztu Jangoico den partetic zergatic baite Espiritu puroa, baño badu guizon den partetic j.e
P. Trinteteco iru personetaic, ¿zeiñ eguinzen guizon? ℟. Semea j.e
P. Ayte inzen guizon? ℟. Ez j.e
P. Espiritu Santi Jaune inzen guizon?
℟. Ez jaune.
P. Nor inzen bada guizon?
℟. Solo Semea zeiñ guizon eguiñic deitzenbaite Jesucristo j.e
P. Zergatic etziren eguin guizon Ayte, edo Espiritu Santi Jaune?
℟. Zergatic sabiduriec galdubaitzuen mundue, sabidurie matenzayo Semeari, ala nola poderea Ayteri, eta amorioa Espiritu Santi Jauneri j.e
P. Nor inzen guizon? ℟. Semea j.e
P. Non inzen guizon? ℟. Ama Virginen entrañetan j.e
P. Noren obraz? ℟. Espiritu Santi Jaunen obraz, eta virtutez j.e
P. Espiritu Santi Jaunec bacarric inzuen obra ori?
℟. Ez j.e baizic Trinteteco iru personec j.e
P. Zergatic erratenduzu bada izanzela Espiritu Santi Jaunen obraz?
℟. Zergatic izambaitzen Amoriozco obra, amorioa matenzayo Espiritu Santi Jauneri, ala nola podorea [sic] Ayteri, eta Sabidurie Semeari j.e
P. Nola izanzen obra ori?
℟. Espiritu Santi Jaunec artuzuen Ama Virginen entranetaic odol chortabat, odolarrequi formatuzuen gorpuzbet, ez dausezetaic criatuzuen arimebat, arime, eta gorputze elcarrequi unituric artuzituen Trinteteco bigarren personac bere gana, eta len Jangoico solo zena, guero guelldituzen Jangoico, eta guizon iñic errealqui, eta verdaderoqui j.e
P. Zembat naturaleza tu Jesucristoc?

℟. Bide jaune bata divinoa, eta berzea humanoa j.e
P. Zembat entendimentu?
℟. Bide j.e bata divinoa, eta berzea humanoa j.e
P. Zembat borondate?
℟. Bide j.é bata divinoa, eta berzea humanoa j.e
P. Zembat persona tu Jesucristoc?
℟. Personabat zeiñ baite Trinteteco bigarren persona j.e
P. Divinoa, edo humanoa da?
℟. Divinoa jaune.
P. Jesucristoc zembat memorie ditu?
℟. Memoriebat guizon den partetic j.e
P. Jangoicoden partetic, badu memoriec?
℟. Ez jaune.
P. Zergatic?
℟. Zergatic gauze guziec baitauzqui presente j.e
P. Nor da Jesucristo?
℟. Da Jangoicoaren Semea guizon inzena gu redimitzea gatic j.e
P. Zer erran naidu Jesucristoc?
℟. Jangoico, eta guizon j.é
P. Zer erran naidu Jesusec?
℟. Salbazalea j.e
P. Zertaic salbatu guiñuzen?
℟. Gueren becatutic, eta Demonioan podoretic j.e
P. Nor illzen? ℟. Jesucristo j.e
P. Non illzen? ℟. Gurutzean j.e
P. Zergatic?
℟. Gure, eta Mundu guzie salbatzea gatic j.e
P. Zerda illzea?
℟. Arime gorputzetic atratzea j.e
P. Zer da resuzitatzea?
℟. Arime gorputzera itzulzea j.e
P. Jesucristo illzelaic arren arime ¿nora joanzen?
℟. Ssauchizen limbotara unituric bere divinidade Sanduerequi j.e
P. Nola entendatzen duzu ori?
℟. Ala nola guizombatec arzembaitu bayonetabat escubetean, naguie berzean, bayonetac signifiqutzen [sic] du arime, naguiec gorputze, eta erdicoac Divinadea j.e
P. Gorputze non guelldituzen?
℟. Gurutzean unituric bere divinidade sanduerequi j.e
P. Jesucristo nola resuzitatuzen ill, eta irugarren egunean?
℟. Ytzulizen unitzera arime, eta gorputze berriz ez illzeco secule j.e

P. Nola iyenzen Zeruetara?
℟. Bere virtute propioez j.e
P. Nola dago an?
℟. Andagola ssarriric Ayte Eternoaren escuñetaco aldean, eta arren igualdadean j.e
P. Ayte Eternoac badu escuñetaco aldeic? ℟. Ez jaune.
P. Zergatic erratenduzu bada, andagola ssarriric Ayte Eternoaren escuñetaco aldean, eta arren igualdadean?
℟. Zergatic Cristoc baitu Jangoico den partetic Ayte Eternoarequi igual glorie, eta guizon den partetic Zeruco Ainguiru, eta criature guziec baño gueyago j.e
P. Noiz etorricoda illec, eta viziec juzguetzera?
℟. Azquen juizioco egunean j.e
P. Ta guzioc resuzitatu beardugu orduen?
℟. Bay j.e orai tugun gorpuz, eta arimequi j.e
P. Zerda Eliz Ama Sandu Catolicoa?
℟. Da Cristau fiel guzien junte, eta congregazioa, zeñen burue baite Ayte Sandu Erromacoa lurrean Cristoren Viquerioa, norei baicaúde guzioc obligaturic arrei obedezitzera j.e
P. Zer naidu erran Sanduen Comunioac?
℟. Cristau fiel guziec dutela parte berzen obra onetan, gorpuzbeteco miembroac bezala daudelaic Jangoicoaren grazien j.e
P. Zer erranaidu becatuen barcazioac?
℟. Elizen badirela Sacramentuec becatuen barcatzeco j.e
P. Zer erranaidu araguien resurreczioac?
℟. Azquen juizioco egunean resuzitatu beardugule guzioc orai tugun gorpuz, eta arimequi j.e
P. Zer erran naidu vizitze seculecoac?
℟. Vizi onen ondoan izenbeardugule berze vizibet, secule seculorun iraun bearduena, Zeruen, edo infernuen j.e
P. Personan azquen fiñec, zembat dire? ℟. Lau j.e
P. Zein dire?
℟. Illzea, Juizio, Zerue, eta Infernue j.e
P. Zerda Illzea?
℟. Arime gorputzetic atratzea j.e
P. Zerda juizioa?
℟. Ill, eta bereala gure Jangoicoai contuec matea, mundu ontaco bizi modu guziez j.e
P. Zembat juizio izembeartugu?
℟. Bide j.e bata particulara, eta berzea unibersala j.e
P. Noiz izembeardu juizio particularac?
℟. Bacocha illzen garen isstente berean j.e

P. Eta juizio unibersalac?
℟. Azquen juizioco egunean j.e
P. Eta juizio particularean matenden sentenzie rebocadaiteque juizio universalean?
℟. Ez jaune: da irrebocablea, bada eztezaque utsic iñ Cristo Juezac j.e
P. Zergatic eztezaque usin Cristo Juezac?
℟. Zergatic baite infinitoqui sabioa j.e
P. Noiz izembeardu juizio onec?
℟. Niorc eztaqui Ayte Eternoac, ezi berzec j.e
P. Nor joatendire Zerure?
℟. Jangoicoaren grazien illzen direnac, eta becatuec ongui purgueturic dauzquitenac j.e
P. Nor joaten dire infernure?
℟. Becatu mortalean illzen direnac j.e
P. Purguetoriora nor joaten dire?
℟. Jangoicoaren grazien illzen direnac, baño becatuembat, edo berze purguetzeco daquetenac j.e
P. Limbora ¿nor joaten dire?
℟. Aur batayetu gabe illzen direnac j.e
P. Età Abran Patri Arcaren senora ¿nor joaten dire?
℟. Orai nior ez j.e
P. Eta lenago ¿nor joaten ziren?
℟. Justoen arimec, eta becatuec ongui purgueturic dauzquitenac j.e

Doctrine Christianaren bigarren partea, non declaratzen baite Ay gurea, ta Ave Marie, eta berze gañerako Elizeko orazioac.

P. Norc erranzuen Ayte Gurea?
℟. Jesucristoc bere ago Sanduez j.e
P. Zertaco?
℟. Guri otoiz iten eracusteco j.e
P. Zerda otoiz itea?
℟. Jangoicoai viotza goratu, eta merchedeac escatzea j.e
P. Ayte gurea erratenduguleic ¿norequi minzetzen gara
℟. Gure jaun, eta Jangoicoaqui j.e
P. Non dago Jangoicoa?
℟. Lecu guzietan especialqui Zeruen, eta Aldareco Sacramentu Sanduen j.e
P. Jangoicoa badago suen, edo urean?
℟. Bay j.e
P. Erretzenda, edo bustitzenda? ℟. Ez j.e

P. Zergatic?
℟. Zergatic baite Spiritu puroa j.e
P. Zer erranaidu Spiritu puroac?
℟. Gorputzic gabea j.e
P. Non dago Jesucristo?
℟. Zeruen, eta Aldareco Sacramentu Sanduen j.e
P. Zeiñ de oraziotan den obrena?
℟. Ayte gurea j.e
P. Zergatic?
℟. Zergatic errambaitzuen Cristoc bere ago Sanduez, Apostoluec escaturic j.e
P. Zergatic gueyago?
℟. Zergatic baititu zazpi petizio caridadean fundetuec j.e
P. Zein de lembizicoa?
℟. Santificabedi zure izena j.e
P. Zer escatzen duzu petizio ortan?
℟. Jangoicoaren izen Sandue izandayela zautue honrratue, eta alabatue emen, eta Mundu guzien j.e
P. Zein de bigarrena?
℟. Torribedi zure Erreñue gure gana j.e
P. Zer escatzen duzu petizio ortan?
℟. Jangoico gure jaunec erreinedazagule guri gueren arimetan mundu ontan graziez, eta berzean digule bere glorie j.e
P. Zeiñ de irugarrena?
℟. Cumplibedi zure borondate Sandue Zeruen bezala lurrean ere j.e
P. Zer escatzen duzu petizio ortan?
℟. Yndezagule Jangoicoaren borondatea lurrean gaudenoc, ala nola itembaitute Bienabenturatu Zeruetan daudenec j.e
P. Zeiñ de laugarrena?
℟. Emandezaguzu guri gueren egunororco [sic] oguie, egun, eta beti j.e
P. Zer escatzen duzu petizio ortan?
℟. Jangoico gure Jaunec mandezagule mantenimentu combenientea gorputzen daco, ta Sacramentuec, eta graciec arimendaco j.e
P. Zeiñ de borzgarrena?
℟. Barcadezquiguzu guri gueren zorrac, guc gueren zorgaituztenei barcatzen tioguten bezala j.e
P. Zer escatzen duzu petizio ortan?
℟. Jangoico gure Jaunec barcadechagule guri gueren becatuec, ala nola guc barcatzen baitiogute, gu agrabietu, edo gaizqui indigutenei j.e

P. Zeiñ de seigarrena?
℟. Ezcachazule utzi tentazioan erorzera j.e
P. Zer escatzen duzu petizio ortan?
℟. Jangoico gure Jaunec ezcachala utzi tentazioan erorzera, ta ez consentitzera pensamentu, eta tentazio gaisstotan, zergatic etsayec procuretzen baitu, gu becatuen eroraztera j.e
P. Zeiñ de zazpigarrena?
℟. Libragachazu gaiz guzietaic j.e
P. Zer escatzen duzu petizio ortan?
℟. Jangoico gure jaunec libragachala, gaiz espiritual, eta corporal guzietaic j.e
P. Zer erranaidu azquen itz Amen erraten dugun arrec?
℟. Ala izandayela nola escatzen dugun jaune.
P. Zer orazio erratenzayo principalqui Ama Virgineri?
℟. Ave Marie, edo Salbea j.e
P. Norz [sic] erranzuen Ave Marie?
℟. Aynguiru San Gabrielec torrizelaic Ama Virginen visitetzera j.e
P. Norc erranzuen Salbea?
℟. Eliz Ama Sanduec dauque beretaco errezibituric j.e
P. Zertaco?
℟. Ama Virginei merchedeac escatzeco j.e
P. Ave Marie edo Salbea erraten duguleic ¿norequi minzetzen gara?
℟. Ama Virginequi j.e
P. Nor da Ama Virgine?
℟. Da Andrebat graziez, eta virtutez vetea, zeiñ baite Jangoicoaren Ama Zeruetan dagona j.e
P. Eta Aldarean dagona ¿nor da?
℟. Da arren idurie, eta semejanza j.e
P. Zertaco dago an?
℟. Aldarean dagona icusi, ta Zerucoaz oroitzeco, eta indezagun reberencie j.e
P. Imbeardugu otoiz Aynguiru, eta Sandu guziei?
℟. Bay jaune gueren medianeroac, eta faborazaleac tugun bezala j.e
P. Zer gauze dire Aynguiruec?
℟. Dire espiritu bienabenturatu batzuec daudenac Jangoicoa gozatzen Zeruco glorien j.e
P. Zertaco criatu zituen Jangoicoac oyec?
℟. Eternidade guzien alabatzeco, eta bedeicatzeco j.e
P. Eta zertaco gueyago?

℟. Bere ministroac tuembezala gobernadezaten Elize, eta guarda dezaten persona j.e
P. Zuc baduzu zere Ayngueru guardacoa?
℟. Bay jaune, ta persona bacochac badu berea j.e
Bien bada arrei iduqui devozio.

Ave Marien petizioac

P. Zer erran naydu Jangoicoac salbazachala Mariac?
℟. Glorie izandayela zurequi alegrazaite Maria.
P. Zer erran naidu graziez beteac?
℟. Declaratzen dugu Mariec izan zuela grazie gueyago Aingueru, eta Sandu guziec baño j.e
P. Zer erran naidu Jaune dago zurequic?
℟. Marie dela modubetez Trintete Santisimoaren Temploa j.e
P. Zer entedatzen [sic] duzu erraten duzuleic, bedeiquetue zara zu, Andre guzien ertean?
℟. Etzela izen munduen berze Andreric errezibitu zuenic Jangoicoa gandic, amberze bendizio, eta grazie nola Mariec j.e
P. Zer erran naidu, eta bedeiquetue da zure sabeleco fruituec?
℟. Bedeiqutzen [sic] dugule Ama bere Semean baiten j.e
P. Zer erran naidu Santa Mariec?
℟. Declaratzen dugu Marien Santidadea, berze Sandu guzien gañean j.e
P. Zergatic erraten duzu Jangoicoaren Ama?
℟. Zergatic alabaite, eta ontan maten baitiogu alabanzaric aundiena j.e
P. Zergatic erraten duzu zuc otoiz inzazu, gu becatarioc gatic?
℟. Yduqui dezan compasio gutez representatzen tioguleic gure miseriec j.e
P. Zergatic erraten dugu orai?
℟. Entendadezagun eztugule istenteic peligro gabecoic j.e
P. Zergatic añaditzen dugu, eta gure eriotzeco orduen?
℟. Zergatic orduen izetembaitu gure arimec etsayen gandic asaltoric aundienac j.e
P. Zer erran naidu itz arrec Amen?
℟. Indezagule ala nola escatzen dugun jaune.

Doctrine Chritianaren [sic] irugarren partea; zeñetan declaratzen baite zer bear dugun obratu

P. Zeiñ de Jangoicoaren leguezco lembizico mandamentu Sandue?
℟. Jangoicoa onesi, eta Adorazagule gauze guziec baño gueyago j.e

P. Norc amatzen du Jangoicoa?
℟. Arren Mandamentu Sanduec guardatzen tuenac j.e
P. Zerda maitatzea Jangoicoa gauze guziec baño gueyago?
℟. Nayago izatea galdu mundu ontaco gauze guziec Jangoicoa ofenditu baño j.e
P. Zertara gueyago obligatzen gaitu Mandamentu onec?
℟. Jangoicoa bacarric adoratzera Arimeco, eta gorputzeco erreberenzie aundierequi, siñestatzen, eta esperatzen duguleic arren baiten fede osoarequi j.e
P. Norc itendu becatu Mandamentu onen contra?
℟. Ydoloac, edo Jangoico falsoac adoratzen tuztenac, edo ayetan siñestamentue dauquetenac j.e
P. Eta norc gueyago?
℟. Aguerotan, edo gauze supestiziosoetan [sic] siñestamentue dauquetenac j.e
P. Zeiñ de bigarrena?
℟. Jurementuric banoan iñ eztezagule j.e
P. Norc itendu jurementue banoan?
℟. Jurementue itenduenac eguie gabe, justizie gabe, eta nezesidadea gabe j.e
P. Becatude Jurementatzea banoan criaturec gatic?
℟. Bay j.e zergatic ayetan itembaitzayo jurementu Criazaleari j.e
P. Zer erremedio da ez jurementatzeco banoan?
℟. Acostumbratzea erratera bay, edo ez, Jangoico gure jaunec manatzen duen bezala j.e
P. Zeiñ de irugarrena?
℟. Ssayec, eta igendeac [sic] oso guardatzea?
P. Norc santifiquetzen tu ssayec, eta iyendeac? [sic].
℟. Meza osoa enzutenduenac, eta ayetan necesidadea gabe trabajatzen eztenac j.e
P. Zeiñ de laugarrena?
℟. Gueren gurasoac, eta zarragoac ongui honrra, eta errespeta dechagule j.e
P. Norc honrratzen tu Ayte, eta Ama?
℟. Obedezitzen socorritzen, eta errespetatzen tutenec j.e
P. Ayte, eta Amaz landara ¿nor dire urbillenac?
℟. Zarragoac adiñean, eta aundiagoac dignidadean, eta gobernuen j.e
P. Zeiñ de borzgarrena?
℟. Nior ill eztezagule, ta ez deseyetu j.e
P. Zer manatzen du Mandamentu onec?
℟. Ez itea niori gaizquiric, ez itzez, ez obraz, eta ez deseoz ere j.e

P. Zeiñ de seigarrena?
℟. Lujuriezco becaturic iñ eztezagule j.e
P. Zer manatzendu Mandamentu onec?
℟. Yzangaitzela garbiec, eta castoac pensamentuetan, itzetan, eta obretan j.e
P. Zeiñ de Zazpigarrena?
℟. Niori daus ebatsi eztezogule j.e
P. Zer manatzendu Mandamentu onec?
℟. Ez quenzea, ez iduquitzea, eta ez nai izetea, berzeren gauzeric ssabearen borondatean contra j.e
P. Zeiñ de zorzigarrena?
℟. Niori falso testimonio gaisstoric erachiqui eztezogule, eta ez guezurric erran ere j.e
P. Zer manatzendu Mandamentu onec?
℟. Ez itea progimo lagunendaco juizio gaisstoric, ez erran, eta ez aitu berzen faltaric j.e
P. Norc faltatzendu Mandamentu onen contra?
℟. Arrazuñen contra gaizqui juzguetzen denac, fama quenzen duenac, secretoa agarzen duenac, edo guezurre erraten duenac j.e
P. Zer manatzendu bedratzi garren, eta amargarren Mandamentuec?
℟. Bedratzigarrena progimo lagunen biziquidea guerendaco deseatu eztezagule. Eta amargarrena lagunen hacienda bide gabean gaizqui trata ezdezagule j.e

Doctrine Christianaren laugarren partea non declaratzen baitire Sacramentu errezibitu beartugunec

P. Zer gauze dire Sacramentuec?
℟. Dire siñelebatzuc paratu zituenac Jesucristo gure jaunec mateco ebequi guri bere gracie, eta virtuteac j.e
P. Zer gauze da grazie?
℟. Da izete divinobat zeñen medioz iten baicara Jangoicoaren seme, eta Zeruco erredero [sic] j.e
P. Zerequi galzenda grazie?
℟. Becatu mortalaqui j.e
P. Zer virtute matendute Sacramentuec oraziequi [sic. A la *o* le falta el rasgo de la g] batean?
℟. Prinzipalqui iru virtute teologalac, eta divinoac j.e
P. Zeiñ dire?
℟. Fedea, Esperanza, eta Caridadea j.e
P. Zer virtute da Fedea?

℟. Da virtute sobrenaturalbat zeñen medioz siñestatzen baitugu, Jangoicoac Eliz Ama Sanduei errebelatu zition misterio guziec, eta Eliz Ama Sanduec guri eracusten tigunec j.e
P. Zer virtute da Esperanza?
℟. Da virtute sobrenaturalbat zeñen medioz esperatzen baitugu Zeruco glorie Jangoicoaren grazie, eta gueren obra onen medioz j.e
P. Zer virtute da Caridadea?
℟. Da virtute sobrenaturalbat zeñen medioz maitatzen baitugu Jangoicoa gauze guziec baño gueyago, eta progimo lagunec gueren burue bezala j.e
P. Zertaco da Bautismoco Sacramentue?
℟. Quenzeco becatu originalaren mancha, eta berze edozein becatu aurquitzen bada batayetzen denan baiten j.e
P. Zer da becatu originala?
℟. Da becatu ure zeñequi ssayotzen baicara eredaturic gure lembizico guratso Adan, eta Evaren gandic j.e
P. Zertaco da Confirmezioco Sacramentue?
℟. Confirmatzeco, eta fortalezitzeco Bautismo Sanduen errezibitu guiñuen fedea j.e
P. Zertaco da Confesioco Sacramentue?
℟. Batayetuz gueroz iñiqueco becatuec barcatzeco j.e
P. Zer da becatue?
℟. Da eguitea, erratea, pensatzea, edo deseatzea zembait gauze Jangoicoaren legue Sanduen contra j.e
P. Zembat aldetara da becatue?
℟. Bi aldetara j.e
P. Zeiñ dire?
℟. Mortala, eta veniala j.e
P. Zerda becatu mortala?
℟. Da eguitea erratea pensatzea, edo deseatzea zembait gauze grabe Jangoicoaren legue Sanduen contra j.e
P. Zergatic deitzenda mortala?
℟. Zergatic illzen baitu itenduenan arime j.e
P. Zer itendio arime arrei?
℟. Quenzendio grazie zein baite arimen vizie j.e
P. Zembat medioz barcatzenda becatu mortala?
℟. Iru medioz j.e
P. Zein dire?
℟. Confesio onaqui, Contrizioaqui, eta obrazco satisfezioaqui
P. Zerda becatu veniala?
℟. Da eguitea, erratea, pensatzea, edo deseatzea zembait gau ze leve Jangoicoan legue Sanduen contra j.e

P. Zergatic deitzenda veniala?
℟. Zergatic erraz erorzen baicara becatu artan, eta Jangoicoan grazien bagaude erraz barcatzen bait zaygu j.e [*bait* termina al borde de la página].
P. Zembat medioz barcatzenda becatu veniala?
℟. Bedratzi medioz j.e
P. Zeiñ dire?
℟. Lembizicoa, Meza enzuteaqui.
2.ª Bigarrena, Comecatzeaqui.
3. Yrugarrena, Confesio generala errateaqui.
4. Laugarrena, Obispo Jaunen bendizioa arzeaqui.
5. Borzgarrena, hurbedeiquetue arzeaqui.
6. Seigarrena, ogui bedeiquetue arzeaqui.
7. Zazpigarrena, Ayte gurea erraqui [sic. La *q* tiene una raya hacia arriba de una *t* que se inició].
8. Zorzigarrena, Sermona aitzeaqui.
9. Bedratzigarrena, pechoan golpea mateaqui escatzen dioguleic gure Jangoicoai piedade, eta misericordie j.e
P. Zertaco da comecadureco Sacramentue?
℟. Errezibitzen duguleic dignoqui alimentatzeco arime, eta aumentatzeco grazie j.e
P. Zer errezibitzen dugu comecadureco Sacramentuen?
℟. Jesucristo Jangoico, eta guizon verdaderoa aiñ errealqui, eta verdaderoqui, nola baitago Zerue, eta Aldareco Sacramentu Sanduen j.e
P. Zertacoda Oliedureco Sacramentue?
℟. Yru gauzetaco j.e
P. Zeiñ dire?
℟. Lembizicoa lenagoco vizi pasatuen mancha, eta reliquiec quenzeco.
2. Bigarrena, mateco arimei inderra atradayen vitorioso etsayen tentazioen contra.
3. Yrugarrena mateco gorputzei osasune combeni balimbezayo j.e
P. Zertaco da Ordenaco Sacramentue?
℟. Ordenatzeco, eta Consagratzeco Elizeco Ministroac, zeiñ baitire Sacerdoteac Diaconoac, eta Subdiaconoac j.e
P. Zertaco da Matrimonoco [sic] Sacramentue?
℟. Ezconzeco, ta ezconduei graziec mateco vizidaitzen elcarrequi baquean, eta unione onean, ta humec izetembaute azidechaten Jangoicoaren zerbitzuco Zerureco j.e

P. Confesio ombat iteco ¿cembat gauze beardire ssaquin?
℟. Borz j.e

P. Zeiñ dire?
℟. Lembizicoa, Concienzie esamiñetzea.
2. Bigarrena, Dolorea.
3. Yrugarrena, Propositoa.
4. Laugarrena, Confesioa.
5. Borzgarrena, Satisfetzioa j.e
P. Zerda esamiñe Concienzie?
℟. Bere becatuec memoriera carzea j.e
P. Nondic oroitubeardu bere becatuez?
℟. Jangoicoare [sic] leguezco Mandamentu Sanduetaic, Elizeco borzetaic Obra Misericordiezcotaic, eta bacochac bere estado, ta obligueziotaic j.e
P. Zerda Dolorea?
℟. Da arzea damu, edo urriquimentu aundibet gure Jangoicoa ofendituez j.e
P. Zembat aldetara da?
℟. Bi aldetara j.e
P. Zeiñ dire?
℟. Contrizioa, eta Atrizioa j.e
P. Zerda Contrizioa?
℟. Da arzea damu, edo urriquimentu aundibet gure Jangoicoa ofendituez zergatic baite Jaumbet aiñ ona, eta aiñ amablea j.e
P. Zerda Atrizioa?
℟. Da arzea damu, edo urriquimentu aundibet gure Jangoicoa ofendituez, zeren gueren becatuec direla medio galdubaitugu Zerue, eta meressi baitugu infernue j.e
P. Ebetaic bietaic zeiñ beardugu ongui confesatzeco?
℟. Bat, edo berze j.e
P. Zeiñde obrena?
℟. Contrizioa j.e
P. Zergatic?
[Hay una respuesta semiborrada intencionadamente que dice: ℟. Zergatic berze biec apartabaitechaqueguque gueren gandic baño araguie ez jaune].
℟. Zergatic Contrizioac bacarric barcatzen baitu becatuec Confesatzeco intencioaqui, baño atrizioac ez Confesioric gabe j.e
P. Zerda propositoa?
℟. Da arzea resoluzio firmebat ez gueyago becatuic iteco j.e
P. Eta uztembalimbedu becatuembat, edo berze oroitzendelaic Confesatzeco ¿zer iñen du?
℟. Becatu mortalbat j.e

P. Eta confesatzembalimbeda bere becatuez doloreric gabe, edo propositoric gabe, edo confesoreac matenduen penitenzie cumplitzeco intenzioa gabe confesio ona iñendu?
℟. Ez jaune iñendu sacrilegiozco becatu aundibet j.e
P. Eta guise ortan joatembada comecatzera?
℟. Berze becatu mortalebat j.e
P. Orrec, ¿cer obliguezio du?
℟. Confesio berritzea j.e
P. Zerda Confesio berritzea?
℟. Lenago Confesatu tuen, eta eztuen becatu guziec berriz Confesatzea j.e
P. Zeiñ dire confesatzen direnac doloreric gabe, edo propositoric gabe?
℟. Apartatzen eztirenac becatu iteco ocasiotaic, edo Confesiobat, edo bien bien ondorean erorrzen di- [termina la página y no sigue en la otra].
P. Zer da obrazco satisfezioa?
℟. Confesoreac matenduen penitenzie cumplitzea j.e
P. Noiz cumplitubeardu penitencie?
℟. Confesoreac señalatzen balimbedio dembora, dembora artan berean, ta ezpadio señalatzen lembaño len j.e
P. Ta zer iñendu ezpadu cumplitzen penitencie, edo iduquitzen badu dembora aunitzez cumplitzeco?
℟. Iñendu becatu mortalebat penitenzie grabea balimbedu j.e
P. Comecatzera joateco ¿Zembat disposizio beartu? ℟. Iru j.e
P. Zeiñ dire?
℟. Lembizicoa, bezpera gau erditic asi, eta comecatuarteo baru naturalean egotea.
Bigarrena becatuec ongui confesaturic Jangoicoare [sic] grazie [sic] egotea.
Yrugarrena ssaquitea nor errecivitzera doayen.
P. Nor errezibitzen dugu?
℟. Jesucristo gure jaune j.e
P. Comecatzera joateracoan ¿zer errambeardu?
℟. Jaune ni eznaiz digno berorren divina Magestadea errezibitzeco aleric ere errambedi berorren itz Sandue, nere arimen izandayela sanatue, eta salbatue, eta [*eta* está superpuesto a *j.e*] nere becatuec barcatuec j.e
P. Zembat aldiz errambeardu ori?
℟. Yru aldiz j.e
P. Eta guero zer imbeardu?
℟. Agoa idiquibeardu modestie, eta humildade aundibetequi mie atratzen duelaic azpico ezpañen berdineraño, eta comecatu j.e

P. Comecatute ondoan ¿zer imbeardu?
℟. Jangoicoai graziec man j.e
P. Zer dago Ostien?
℟. Sacerdote jaunec itz consagraziozcoac erran baño len, orea pisquebat orazic gabe jaune: Sacerdote jaunec itz consagraziozcoac erranez gueroz Jesucristoren gorpuz preciosoa aiñ errealqui, eta verdaderoqui nola baitago zeruen, eta Aldareco Sacramentu Sanduen jaune.
P. Gorputzez landara badago berzeic?
℟. Bay j.e Odola Arime, eta divinidadea j.e
P. Zergatic dago garputzartan [sic] odola, eta Arime?
℟. Zergatic ezpaitagoque gorpuz viziric Odolic, eta Arimeic gabe j.e
P. Zergatic dago an divinidadea?
℟. Zergatic baite Jangoicoa j.e
P. Zer dago Calizean?
℟. Sacerdote jaunec itz consagraziozcoac errambaño len, ardo chortabat ur tantabatequi jaune: Sacerdote jaunec itz consagraziozcoac erran ez gueroz Jesucristoren odol preciosoa aiñ errealqui, eta verdaderoqui nola baitago Zeruen, eta Aldareco Sacramentu Sanduen j.e
P. Odolaz landara badago berzeric?
℟. Bay jaune gorputze arime, eta divinidadea j.e
P. Zergatic dago an gorputze, eta arime?
℟. Zergatic ezpaitagoque odol vizic gorputzic, eta arimeic gabe j.e
P. Zergatic dago an divinidadea?
℟. Zergatic baite Jangoicoa j.e
P. Ta partitzendelaic Ostie Consagratue partitzenda Jesucristo gure jaunen gorputze?
℟. Ez Jaune.
P. Zer partitzen dire bada?
℟. Accidenteac j.e
P. Zeiñ dire acidente oyec?
℟. Urriñe, colorea, eta gustoa j.e
P. Eta iten delaic Ostie consagratue iru, edo lau pusque ¿zeñetan dago gueyago?
℟. Guzietan igual jaune.
P. Zeroatic? [A la *o* le falta el rasgo de la *g*]
℟. Zergatic baitago Jangoicoa Ostie guzien, ta ostien edozeiñ partetan igual j.e
P. Jesucristo illic, edo vizic dago Ostien, eta Calizean?
℟. Bizic errealqui j.e

P. Zergatic dago vizic?
℟. Zergatic ill, eta irugarren egunean resuzitatu baitzen berriz ez illzeco secule seculorum, jaune.

Confesio Generala

Ni becatarie ni Confesatzen natzayo Jangoico Omnipotenteari, Virgine Andre Marieri, San Miguel Ainguirueri, S.n Juan Bautisteri, S.n Pedro, eta S.n Pablo Apostoluei, eta berze gañeraco Ceruen diren Sandu, eta Sanda guziei oyen lecuen orei nere Ayte espiritual confesore orei nic indutela becatu pensamentuz, itzez, eta obraz: Jaune nerea da culpe, Jaune nerea da culpe, Jaune nerea da guziz culpe aundie: orgatic otoiz itendiot Jangoico omnipotenteari, Virgine Andre Marieri, S.n Miguel Ainguirueri, S.n Juan Bautisteri, S.n Pedro, eta S.n Pablo Apostoluei, ta berze gañeraco Sandu, eta Sanda guziei, oyen lecuen orrei nere Ayte espiritual confesore orrei, indezazun otoiz nere gatic, Jangoico omnipotente arren alziñean.

Amen Jesus.

Acto Contriziozcoa

Jesucristo nere Jaune Jangoico, eta guizon eguiezcoa nere Criadorea, nere Redentorea, zu nor zaren gatic, eta zeren gatic onesten baitzaitut gauze guziec baño gueyago: Damudut Jaune: Damudut Jaune berorren divina Magestadea ofendituez: artzendut proposito firmebat ez gueyago becaturic eguiteco, itentudenac Confesatzeco, becatuen ocasiotaic apartatzeco, confesoreac maten diren penitenzie cumplitzeco: ofretzitzen tizut Jaune nere vizie nere obrac, eta nere trabajuec izandaitzen nere becatuen satisfeziotan, ala nola suplicatzen dizuten ala dauquet confianza barcatuco tirezule nere becatuec, manen direzule grazie, emendatzeco, eta perseberatzeco zure zerbitzu Sanduen empleatzeco ill artañocoan.

Amen Jesus.

[En la página final, con otra letra, dice:] Azanza

Eldia diezisieseis de Agosto. del año 1826 [delante del *6* hay una tachadura] Nacio Fran.co Miguel Lopez de Zubirria y Sebautizo el mesmo dia alas seis de sutar de fuesumadreina Jabiera Larunbe y por ser berdad doy en Azanzadon Fran.co Ollo [más pequeñas tachaduras].

Paroco Abad ynterino en el Lugar de Azanza isus padres Martin Jose Lopez de Zubirria Paula perez de A Azanza.

PEDRO DIEZ DE ULZURRUN

EUSKAL BIBLIOGRAFIA

(1955-...) (1)

181

VOCABULAIRE / FRANÇAIS/ BASQUE // par / Ph. Aranart et P. Lafitte. // LES MOTS BASQUES / groupés d'après les sens / (NOUVELLE EDITION) / [Ezaugarria] / EDITIONS "IKAS" Imprimerie des Cordeliers Bayonne.

70 orrialde + 2 Aurkibidea. 0'24 x 0'16 m.

182

EUSKALTZALEEN BILTZARRA / [Euskaltzaindiaren ezkutua] / Bilbon, 1958, Abenduaren 13 eta 14-an // Bilbao 1959 [*Euskera*-tik artua.]

183

CLUB DEPORTIVO EIBAR.— 1924'garren urtean sortua dan aldizkari onek erderaz eta eus-

---

(1) Dei bat egin nuen azkenengo zenbakean: Emen aipatzen ez diran euskal liburu ta aldizkari edo beste idazkien berriak bialtzeko neri, mesedez. Zorionez, batek baiño geiagok egin didate erantzun ona. Nere eskerronak danari, biotzez: Luzio Valverde'ri, Aita Beizama'ri, Jose Andoni Loidi'ri, Urkixo Mintegikoei, Gipuzkoako Diputazioko Liburutegikoei, J. Landa A.'ri, Luis de Urantzuri, Urretxuko Pasiotarrai, P. Cortina'ri, J. Iziar A.'ri, Anai Olabeaga'ri, Epperre Kalonje jaunari, Pierre Lafitte Apaiza'ri, Aita Onaindia Karmeldarrari, Aita Xabier Dihartze Belokekoari, Caracas'eko «El Mensajero del Rosario»koeri, Alfonso Irigoyen'eri, Teles Montzon Olaso'ri.

Egoki izango litzake, eta nere gogoko ere bai, liburu eta lanak bakoitza bere gaietako atalburupean aipatzea. Orrela egiten dira oraingo Bibliografi lanik geienak, baiña orain beintzat ez dut erarik lan au orrela betetzeko. Naikoa lan izaten dut egiten detana egiteko ere!

Gaurkotik asita, aldizkarietan argitaratzen diran lan jakingarri batzuk ere aipatuko ditutu, batez ere Euskal-Literaturari eta Euskal-Jakintzari buruz egiñak diranak. Orrela, nai ta aldizkari apaletan argitaratuak izan, jakingarriak badira, pozik egingo dut aipamena.

keraz ematen ditu lanak. 1959'gko. Abenduko z.ª ikusi det: 22 orrialde, apaingarriakin. Bizitza aundiko aldizkaria.

184

Euskal Kantak / (Cantos populares del País Vasco) /—/ Donostia'n 1959'ko Otsailla / Depósito Legal, S. S. 128. 1959.

160 orrialde + [2] Arkibidea. 0'16 x 0'12 m.

185

LAIAKETAN. — "Euskal-Akademia'ren iardunak. 2'gna. Urretxu'n, 1959. Abendua".— 58 orri, alde batetik bakarrik, polikopiaz.

186

AGUSTIÑ GURENAREN / AITORKIZUNAK // *Nikolas Ormaetxea* / ORIXE'k euskeratua /—/ ITXAROPENA ARGITALDARIA // ZARAUZ /—/ 1956.

642 orrialde.—0'17 x 0'12 m.

187

KEREXTA'TAR J[AIME] / "*Arantzibia*" // ORBELAK // Aurre-itza: / LEKUONA Apaiz Euskaltzaiñak. // [Itxaropena Argitaldaria, Zarautz] 1958.

79 orrialde. 0'18 x 0'12 m.
Baimenak Donostia'n: Anicetus de Zugasti, Censor. / Dr. Josephus Sudupe, Vic. Gen. (13 eta 14-I-1959). Depósito Legal, S. S., n.º 104, 1959.

188

KEREXETA'TAR JAIME / "ARANTZIBIA" // BITARGI //["Gráficas Izarra" irarkolan, Donostia, 1960.]

111 orrialde.—0'15 x 0'11 m.
Aita Onaindia'k «Itzaurrea».
Bilbo'n baimenak: Gregorius de Maidagan, Censor. / Imprimatur: Paulus Episcopus (3-XI-1959). Depósito Legal, S. S., 333, 1960.

189

OLERKIAK // LARRAMENDI' TAR IÑAKI/[Itxaropena, Zarauz. (1960?)]

35 orrialde.—0'17 x 0'12 m.

190

OLERTI. — "Iru illabeteroko Aldizkaria (Suplemento poético de KARMEL). Zuzendari: Aita Onaindia (Larrea, Zornotza), Banatzalle: X. P. Albizu (Bilbao)". — I'go. Urtea. 1959 Urtarrilla-Epailla:

AITA ONAINDIA: **Aurkez jarduna.** LIZARDI: **Olerkari gaberik...**—SARDUI-EMBEITA'TAR DEUNORO: **Baratz bikaiña.**—ERKIAGA EUSEBIO: **Ba'zeneki.**—DIRAUKET: **Zerbait.—Gabirel'i.—Aurkitze** (G. Mistral'ena). — ARTEAGA'TAR LON, K. O.: **Eun mutiko...** — LASPIUR: **Gomuta miña.**—ONDARZUBI: **Duenas'ko kanpai jotzaillea.**—GURBINDO: **Jator-eredu bi.** — LARREATEGI'TAR LUKEN: **Sargo-ate'ko iturriari.**—JOAKIN ALDABE: **Ama!**—AURRAITZ: **Tori, amatxu.**—MUXIKA'TAR LUIS: **Maria'ri otoitz.—Illun-abarrean.** — ZUGAZTI APAIZAk: **Nere maitea.**—AITA FIDEL: **Sortzez Garbiari.** — BURGAIÑITZAINTXU: **Ama, zu zara...—Guri**

deiez...—MANTEROLA'TAR GABIREL: **Goi-siñistea.** — G. ARESTI: **Arratsalde urduri baterako.** — URIBE'TAR KUIRIL: **Abere-maitasuna.**—O.: **Txapelgorritxo** (G. Mistral' ena).—SHELLEY: **Auena.** — **Iretargia.**—AITA ONAINDIA: **Horati'ren Odak euskeraz** [VI. M. **Bipsani Agripa'ri.**—VII. **Manutzi Planku'ri**]. IGOTZ: **Edertia.** — SAN MARTIN' DAR JON: **Zori gaiztoko izadia...!** R. TAGORE: **Maitagarrien lurraldea.** — **Erkatuaren aberria.** — GABRIELA MISTRAL: **Ertia.** — OTARRI: **Bergili'ren Enearena** [IV' Kantua].—ZELETA: **Bertsolaria'ren nortasuna.**

191

OLERTI. **1959, II. Jorrailla-Bagilla:** O.: **Ederra.**—L. MITXELENA: **Egiazko lirika...** — IRATZEDER: **Eskaintza.**— FERNANDO ARTOLA, «BORDARI»: **Similia similibus curantur.** — O.: **Damua.**—MUXIKA'TAR LUIS: **Udazkenprintzak.**—**Xirimiri aula.**—OTSALAR: **Ezer ezaren samiña.**—**Kantari.** — KEXETA'TAR, J.: **Jasone.**—SARDUI-ENBEITA'TAR DEUNORO: **Maiteak iges.** ILINTXOLAZABAL: **Kui erosle.**—GABRIEL ARESTI: **Intxiña.**—JUAN J. LETE, «LEGARDA»: **Euskalerria.**—**Nere alaba lekaimeari.** — JOAQUIN ALDABE: **Damututakuan.** — OTSALAR: **Guda olerkaria.** [Itzulpena. Sidney Keyes egille]. — IBALAN: **Poza'ri oda** [Itzulpena. Schiller egille]. — BORIS L. PASTERNAK: **Getsemani'ko Baratza** [Itzulpena].—M. MACHADO: **Gaztaro** [Itzulpena].—WALT WHITMAN: **Onezkoak egin** [Itzulpena]. — AITA ONAINDIA: **Horati'ren odak euskeraz** [VIII, **Lide'ri**; IX, **Taliark'i**; X, **Merkuri'ri**; XI, **Leukonoe'ri**].—ENBEITA' TAR BALENDIN: **Neska-mutil garbizaliak.**—URIBE'tar KUIRIL: **Basarriko Jauparia.** — SITZ - ZULUETA 'R ERRUPO: **Ardantegiko alabia.** — MUXIKA'TAR LUIS M.: **Aldendu gera.**— ETXEBERRIA: **Giz-izakera biak.**— ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL: **Norentzat, olerkari?** — R. TAGORE: **Euri-eguna.** — **Ingizko ontziak.**—**Arrantzalea.** — **Beste ertza** [itzulpenak].— SAN MARTIN'DAR YON: **Artzaia.**— OTARRI: **Enearena** [Itzulpena. Bergili egille: IV Kantia].

192

OLERTI. **1959, III. Garagarrilla-Irailla.** O.: [Ertilarien gaitasunak].—BORDARI: **Gurutz-larrosa.**—MARKIEGI'TAR PELI: **Otoitza.**—**Jaunaren ots biguña.** **Ama onaren abestia.** — AGERRE'TAR JOSE: **Donianetan su ta ikurmenak.**— IGOTZ: **Esaidak, arren.**—OTSALAR: **San Juan.**—**Itxaropen argi-printzak.**— MUXIKA'TAR LUIS M.ª, S. S. S.: **Lizartza.**—**Zorion-agur.** — JOAKIN ALDABE: **Eskerrak, Jauna!**—ONDARZUBI: **Mamu kontuak.**—AYALDE: **Udaoiartzunak** [I, Ikuspena; II, Zuloaga' ko plaza]. — **Utsa.** — J. M. BLANCO WHITE: Gauari (Itzulpena).—DIRAUKET: Antonio Machado [Itzulpena]. F. GARCIA LORCA: **Ezki illa.**—**Soloa.** **Itxasoko ura.** — **Zugatzak.** — GABRIEL ARESTI: **Barteko ametsa** [Itzulpena. A. Machado egille].—GARRO: **Lourdes'ko Album-a.** [Itzulpena. P. Ramón Cué, S. I., egille].—AITA ONAINDIA: **Horati'ren odak, euskeraz** [XII, **August'i**; XIII, **Lide'ri**; XIV, **Erkalari**].— ZELETA: **Bertsolaria'ren nortasuna.**— MUXIKA'TAR LUIS M.ª, S. S. S.: **Jardunean.**—EGIEDER: **Ezteguetan.**— MOTXELA: **Esaidazu, maite!** — GABRIELA MISTRAL: **Amaen poemak** [Itzulpena]. — O T A R R I: **Enearena** [Itzulpena. Bergili egille: IV Kantua] IGOTZ: **Omenaldiak.**

193

OLERTI. 1959, IV. Urrilla-Lotazilla.— O.: [**Idazkera**].—GIOVANNI PAPINI: **Dante zoriondun** [Itzulpena]. — AURRAITZ: **Mingots.**—BORDARI: **Pott bat.**—**Illargiak galdu du lorea.**—**Berenkoikeria.**—EGIEDER: **Goizian.**—ILINTXOLAZABAL: **Begieder.** — LARREATEGI'TAR LUKEN: **Oroitzen.** — MUXIKA'TAR LUIS MARI: **Mendian atsegin.**—IGARZA'TAR EUSEBI: **Lo negargarri... amets zoriontsu!**—**Ludian aingeru.**—DIRAUKET: **Maitearen on-**

doan. — JOAKIN ALDABE: **Uda-azkena, zu gure poza.**—DEUNORO: **Etzaitugu maite.** — OTSALAR: **Aurrerapena?** — **Antonio Machado'ri.** — ARRUGAIN: **Laztana, neurea!—Perretxikoa eta barea.**—ZULUETA: **Dana ez ikusi.** IGOTZ: **Ura borbor.** — **Zer dagik?—Oraindik ez.—Umeen kanta.—Itxarrik** [Itzulpenak: A. Machado egille].—DIRAUKET: **Zelaia** [Itzulpena: A. Machado egille].—GABRIELA MISTRAL: **Gaba.—Ni ez nago bakarrik** [Itzulpenak]. — OTSALAR: **Orriak erortzean** [Itzulpena: Steccetti egille]. — OTSALAR: **Nire lurraldearen deia** [Itzulpena: Magli Hello egille].—IGOTZ: **William Shakespeare'n amalaukoak: II' gna., XVII'gna., XVIII'gna., XXIII' gna., XXV'gna., XXVII'gna.** [Itzulpenak].—ETXEBERRIA: **Jerusalem argitsua.** — ABELETXE: **Odol-tantua!**— AITA ONAINDIA: **Horati'ren odak euskeraz** [XV, **Nereu'ren iragarpena;** XVI, **Zuri-aldia;** XVII, **Tindari'ri**]— M. LEKUONA: **Olerki baserritarra.**— BAZTARRIKA'TAR ISIDOR: **Gipuzkoa'ko bertsolari berrien txapelketa Ordizian.**— ENBEITA'TAR BALENTIN: **Goitiko poza.**—O.: **Olerki-liburu barria** [Iratzeder: «Zeru-mendiak»].

194

GURE HERRIA. 1957, 1. — AZKAINDARRA: **Azkaine: Laminak.** — BERRIZ-ARTE: **Alegia deus ez** [**Herioa eta egur-egillea.—Leizorrak eta erleak**] MAYI ARIZTIA: **Amattoren uzta: Ama seme batzuen ichtorioa.** — IRATZEDER: **Zeru menditik** (1941-1946): [**Segida: II, Munduari gogor.—Intzola.** — **Bethierekotz Anai!** — **Chiriorat Ukurtuak.—Jakes edo Zeru-Menditik.— Azken hatsa**].

195

GURE HERRIA. 1957, 2.—A. TOURNIER: **Izen batzuen ithurburuaz.**— IRATZEDER: **Zeru-Menditik** [segida]. MAYI: **Azken orena.—Amatto bihotz zabala.—Ene kurrutze gorri.**—AZKAINDARRA: **Azkaine: Purruchka batzu.**— ETIENNE SALABERRY: **Zamalzaina. Pilotariak.** — BARANDIARAN'GO JOXEMIEL: **Axular'en itzala.** — MAYI ARIZTIA: **Amattoren uzta: Ama alaba batzuen ichtorioa.—Ohoin mandubera.**—BERRIZARTE: **Alegia deus ez!: Lehoina eta garratoina.—Ardia ahuntza eta miga lehoinarekin tratuka.**— JEAN ETCHEPARE: **Kondaira gorho bat: Intzaur-ondoa.**

196

GURE HERRIA. 1957, 3.—J. HIRIARTURRUTY: **Gazteen ametsa: Norbait izatea.** — BERRIZARTE: **Alegia deus ez!: Hartza eta bi ihiztariak.**—J. M. J.: **Aratsaldeko askaria.** — MAYI ARIZTIA: **Amattoren uzta: Ohoin abilaren ichtorioa.** — **Mutiko erne baten ichtorioa. Akuillu mukuilluren ichtorioa.**— KOSTATARRA: **Beñaten gogoetak.**— LIGUEIX: **Hoki-ko eliza.**

197

GURE HERRIA. 1957, 4. — IRATZEDER: **Zeru-Menditik: Ene Jenofa begi-beltz.** — **Amatu!** — **Aitachi.** — **Jamatit, behako beltz.—Gaupe hotz huntan.**—BERRIZARTE: **Alegia deus ez?: Haurra eta eskoi-emaillea.** — MAYI ELISSAGARAY: **Ene gizongea** [**Teatroa**]. — AZKAINDARRA: **Azkaine: Itzal eta argi zonbait.**

198

GURE HERRIA. 1957, 5.—G. H.: **Eskualtzaleen Biltzarra Heletan.**—E. B. HERRIKOA: **Zortzi-ehun eskualdunez goiti Heleta-ko biltzarran.**—E. SALABERRY: **Eskual-Herriaren adarra.**— AINCIBOURE: **Herriak ongi-ethorri beneri.**—L. DASSANCE: **Jaun buruzagiaren mintzaldia.**—A. O.: **Euskaltzaleen Biltzarra eta denen laguntzak.**— J. CAMINO: **Idazlariaren mintzaldia.** J. C.: **Euskal lanen sariak.**—ZERBITZARI: **Zerbitzari mintzo.** — G. H.: **Orhoit eskualdun maiteak! (Moulier apeza zendu).** — BAIGURRAKO ARTZAINA: **Heleta** [**Lau bonet haun-**

diak. — Bi gizon eta bi ichtorio.—Bichintchoko kapera].—ZEPHURU: **Eskual-Herri-jakintzatik: Papecha Madrilen.**

199

GURE HERRIA. 1957. 6. — IRATZEDER: **Zeru-Menditik: Jainko-bilari.— Bortz urthe. — Ilobaño. — Sei gazte.— Nun habil orai?—Heldu zaikunari.— Ai! Zeruan.** — BERRIZARTE: **Alegia deus ez!: Otsoa eta acheria.**—ETCHEPARE JEAN GAZTEA: **Etchekoak.**— MAYI ARIZTIA: **Amattoren uzta: Auntch baten ichtorioa.**

200

GURE HERRIA. 1958, 1.—ETIENNE SALABERRY: **Lurde.** — J. IRIART: **Lourda-ko Agertziak.** — DOMINGO SOUBELET: **Bartres-erat itzuli bat.**— MAYI ARIZTIA: **Amattoren uzta: Mutil zozoaren ichtorioa.—«Agur Maria» baten ichtorioa.**

201

GURE HERRIA. 1958, 2.—P. LARZABAL: **Pertsulari aiphatu bat: Chirrita** [Iru kantu]: **Ijituak; Neska zar bat tentatzen; Nagusia eta maisterra.—P.** LARZABAL: **Salutatzen zauztegu Jaun Pertsularia.** — BERRIZARTE: **Alegia... deus ez!: Eltzurhea eta bi gizonak.—** N. ALZOLA: **Luis Luziano Bonaparte euskalaria'ri Lapurdi'ko Euskaldunak egindako eskutitz batzuk.**

202

GURE HERRIA. 1958, 3.—AZKAINDARRA: **Azkaindarrak bat!** — ANDERE ERRIENTSA: **Eskuara eskoletan.—** MAYI ELISSAGARAY: **Ameriketako osaba.** BERRIZARTE: **Alegia... deus ez!: Igelak errege galdeka.** [MAYI ARIZTIA]: **Amattoren uzta: Piarres Ampuin ichtorioa. — Iru teila eginen ichtorioa.**

203

GURE HERRIA. 1958, 4.—MAYI ELISSAGARAY: **Ameriketako osaba** [2 eta 3-garren zatiak].—BERRIZARTE: **Alegia deus ez!: Erbia eta igelak.**—ANDERE ERRIENTSA: **Eskuara eskoletan.** JEAN ETCHEPARE: **Donadoa.**—MAYI ARIZTIA: **Amattoren uzta: Jaun andre eta zapasan baten ichtorioa.—** E. K. A.: **Ipui sariketak.**

204

GURE HERRIA. 1958, 5.—ALDAKO: **Larrun, ene mendia!**—ETIENNE SALABERRY: **Aitari oihu.** — PIARRES HAGUITOA: **Donibane Garaziko laminak.**—BERRIZARTE: **Alegia... deus ez!: Horditzalea eta haren emaztea.—** MITHUN: **Izar buztan luzea** [Teatroa. Jarraitzeko].—MAYI ARIZTIA: **Amattoren uzta: Soldado presonier baten ichtorioa.**

205

GURE HERRIA. 1958, 6.—G. H.: **Auztar baten ehun ourthiak.**—D. BEHETY: **Elizako pheredikia.** — ERREÇARRET: **Jaun Meraren mintzaldia.—** ETCHAHOUN: **Koblak** [**Eijer dirade Bazko altian...**].—ANDERE ERRIENTSA: **Eskuara eskoletan.**—BERRIZARTE: **Alegia... deus ez!: Belea arrano nahi.**—DENA DEN: **Haurrentzat: Choria eta sugea.—Lupien bisitza.** [EUSKALTZAINDIA'K]: **Euskaltzaindia'ren agiria euskal itzei buruz.**—MITHUN: **Izar buztan luzea** [Teatroa. Bigarren zatia].—PIARRES HEGUITOA: **Eiharaberriko zubi zaharra.**—JOHN DE CIZE: **Gauez-gau.**

206

JAKINTZA - BIDEZ / OSATU GAITEZEN. // 1960 // BASARRI - GAZTEDIA = GETARI KALEAN 15N-DONOSTI. [Ormako-kalendariyua].

207

Publicaciones de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País // JAUNAREN BIDETAN/(Jesus'en bizitzako Amar irudi) / [Ezkutua] // SAN SEBASTIAN / 1959 (Escelicer).

31 orrialde.
Egillea: Agustin Zubikarai.

208

REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAIS / SEPARATA DEL BOLETIN —AÑO XV— CUADERNO 3.° // *Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk* // A[ita]. KANDIDO IZAGIRRE, O. F. M. / [Ezaugarria] / SAN SEBASTIAN / 1959.

38 orrialde.

209

IRRINTZI.—1, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 11'garren znk. artu ditut. Apaingarridun aldizkaria. Euskeraz eta erderaz. Euskeraz idazten dute: **Andima'k, Ibinagabeitia'k, Belandia'k, Egiluz-Ibinagabeitia'tar Andima'ek, Aurraitz'k, Jon Mirande'k, Arozena'tar Andoni'k, I'tar A.'k, Urresti'tar Jon (Kirru)'k, Beiztegi'tar Ion'ek, Tauer'tar Norberta'k, Ayerdi'tar Mikel'ek, Burgaña'k, Gorbaieko Gaztagiña'k, Kalamua'k, Agerreko B.'k, Txindor'ek, Arregi'tar Errupin'ek, Andonegi'tar Ziriako'k, Epaltza'k,** eta. — Bederatzigarren zn.: **Arana-Goiri'tar Sabin'en Olerki Aberkoiak.**

210

PAN-PIN. «Suplemento infantil de **Zeruko Argia.** PP. Capuchinos.—Fuenterrabía. Editado en España. Depósito Legal: S. S. 208-1960». — Lendabiziko zna.: 1960'ko Otsaillean. Illerokoa da. Iru ateraldi egiten dira: Gipuzkoako euskeraz, Bidaso-bertsaldeko euskeraz eta erderaz zenbakia. Apaingarri eder ugariz betea.

211

KULISKA SORTA [13-14garren zenbakia] /—/ EL DOCTOR PERU ABARKA / Catedrático de / LENGUA VASCONGADA EN LA UNIVERSIDAD / DE BASARTE / por / *Juan Antonio Mogel* // Prólogo: *Antonio Arrue* / Ilustraciones: Paulino Larrañaga // CUARTA EDICION [Ezaugarria] EDITORIAL ICHAROPENA / ZARAUZ (Guipúzcoa) / 1956.

203 orrialde.—0'185 x 0'125 m.

212

KULISKA SORTA [19-20'garren zenbakia] /—/ "ARRANEGI" / (OITURA - ELEBERRIA) / *Eusebio* ERGIAGA-k idatzia /[Ezaugarria] /Itxaropena Argitaldaria / ZARAUTZ'EN / 1958.

197 orrialde.—0'185 x 0'125 m.

213

[KULISKA SORTA, 23-24'garren zenbakia] ANABITARTE'TAR AUGUSTIN // POLI / Mutil umezurtz baten ibilialdiak / (IRAKURGAIA)/[Ezaugarria] / Itxaropena Argitaldaria / ZARAUTZ'EN / 1958.

139 orrialde.—0'185 x 0'125 m.
Anabi'ren marrazti bat [11]-garren orrialdean.

214

KULISKA SORTA [25-26'garren zenbakia] / *Xenpelar Bertsolaria* / BIZITZA TA BERTSOAK / Egillea —JAUREGI' TAR LUIS— "JAUTARKOL"/ [Ezaugarria.] / Itxaropena Argitaldaria / ZARAUTZ'EN / 1958.

142 orrialde.—0'185 x 0'125 m.

215

KULISKA SORTA [27-28'garren zenbakia] / EUSKAL ANTZERKERIAK /KONTU-KONTARI // *Etxaniz'tar Nemesi* / [Ezaugarria] / Itxaropena Argitaldaria / ZARAUTZ'EN / 1958.

159 orrialde.—0'185 x 0'125 m.
Euskal-antzerkiak: Gabak zekarren eguna. — Maite ere... neurriz.—Zotzean bizia.—Gabon zauria.
Kontu-kontari: Mateo Falcone.—Oillasko iturri.

216

KULISKA SORTA [29-30'garren zenbakia] / PIO BAROJA'REN / Itxasoa laño dago... // Xanti Andia itxas-gizonaren / bizitza ta kezkak // *Yon Etxaidetarrak* euskerara/emana / [Ezaugarria] / Itxaropena Argitaldaria / ZARAUTZ' EN / 1959.

270 orrialde.—0'185 x 0'125 m.
Eleberriaren izena jatorrizko izkuntzan: **Las inquietudes de Shanti Andía.**

217

KULISKA SORTA [31-32'garren zenbakia] / PEDRO MARI OTAÑO'REN / BERTSOAK / [*Aita I. Unzurrunzaga, O. F. M.*-k itzaurrea] / [Ezaugarria] /Itxaropena Argitaldaria / ZARAUTZ'EN / 1959.

138 + [...] orrialde.—0'185 x 0'125 m.

218

KULISKA SORTA [33-34'garren zenbakia] / IZARTZO / (Bigarren gizaldiko ele-zarra) // *Estomba'tar Joxe Manuel* / [Ezaugarria] / Itxaropena Argitaldaria / ZARAUTZ'EN / 1959.

177 orrialde.—0'185 x 0'125 m.

Bat ez eta beste guztiak euskeraz argitaratu dira liburu sorta onetan. Bibliografia ontan 1955'garren urtekoak eta orainartekoak jarri ditugu. Ona emen danen izenak:

1: Svensson-Múxika'tar P.: **Noni eta Mani** (1952).
2: Emeterio Arrese: **Olerki berrizte** (1952).
3: José de Arteche: **La paz de mi lámpara** (1953).
4: Jautarkol: **Ipuiak** (1953).
5-6: Txomin Agirre: **Kresala** (1954).
7-8: I) A. Sorarrain, J. Galarraga eta J. M. Gayalde: **Elezarrak.**
II) Salbatore Mitxelena: **Arraun ta Amets** (1955).
9-10: Yon Etxaide: **Joanak-Joan** (1955).
11-12: Lizardi'tar X: **Biotz-Begietan** (1956).
13-14: Juan Antonio Mogel: **Peru Abarka** (1956).
15-16: Hugo Wast-Itunbe: **Bide Izkutua** (1956).

17-18: A. Irigarai: **Euskalerriko ipuiñak** (1957).
19-20: Eusebio Erkiaga: **Arranegi** (1958).
21-22: Yon Etxaide: **Amasei seme Euskalerriko** (1958).
23-24: A. Anabitarte: **Poli** (1958).
25-26: Jautarkol: **Xenpelar bertsolaria** (1958).
27-28: Etxaniz'tar Nemesi: **Antzerkiak.—Kontu kontari** (1958).
29-30: Pío Baroja - Yon Etxaide: **Itxasoa laño dago** (1959).
31-32: **Pedro Mari Otaño'ren bertsoak** (1959).
33-34: Estomba'tar Joxe Manuel: **Izartxo** (1959).

219

JUAN SAN MARTIN // *Juan Antonio Mogel eta Urkitza* / BERE BIZITZA TA LANAK// Euskaltzaindia'ren ardurapean // Itxaropena Argitaldaria / ZARAUTZ / 1959.

47 + [4] orrialde.—0'16 x 0'11 m.

220

JUAN SAN MARTIN: **Arrese Beitia olerkaria.—«Eibar»** aldizkarian, 24'gn. zenbakean (V-1959).

221

JUAN SAN MARTIN: **Mogel, Agirre ta Galdos, eibartar euskaltzaleak.—«Eibar»** aldizkarian, 27'garren zenbakean (X-1959).

Juan Antonio Mogel Urkitza (1745-1804), Vizente Agirre Gisasola (1829-1907) eta Aita Romualdo Galdos Baertel (1885-1953) iru eibartar euskalariei buruz.

222

J[UAN]. S[AN]. [MARTIN]: **Euskal bertsolarien jatortasuna. — «Eibar»** aldiskarian, 27'gn. alean (X-1959).

223

JUAN SAN MARTIN: **Zuloaga ta Eibar.—«Eibar»** aldizkarian, 25'gn. zenbakean (VI-VII-1959).

224

OZERINJAUREGI: **Orain lareun urte Etchauz archapezpikua jaio zea-ta.—«El Bidasoa»** astekarian, 594,gn. zenbakea (29-XII-1956).

225

BITAÑO: **Euskal idazleak: Aita Antonio Kaputxinoa, Bonaparteren lankide.—«Zeruko Argia»** aldizkarian, 45-46'gn. zenbakean (1957).

226

N. ALZOLA GEREDIAGA/—/ *Euskal idazle ezugutuen / berriak, laburki* /—/ Iruñe'ko Aita Kaputxinoen / "ZERUKO ARGIA" Aldizka- / rian argitaratu zan lan au, / 1958,garren urtean.

227

SAN MARCIAL.—**«Organo del Colegio San Marcial y de la Asociación de Antiguos Alumnos de Irún».** Salle-tarren Ikastetxeko aldizkaria. Erderaz eta euskeraz [Gráficas San Marcial. Irún]

228

OTOI-APOSTOLUTZEA. — **«Jesus'en Biotzaren Aldeko Alkartasuna».** Bilbon argitaratzen da: «Jesusen Biotzaren Deya (Apartado 73), Y. L.'ko Areitio Aita». Lau orrialde (0'145 x 0'095 m.), dana euskeraz. Nik ikusi dodan za.: 1959'garren Garagarrillerakoa.

229

UMIEN DEYA.—Lau orrialdeko aldizkari au Iruñen argitaratzen dute. Euskalerri guztiko aurren eskutitz eta lan laburrak ematen ditu, bakoitzak bere erriko euskeran. Illerokoa Ordaiñik gabe zabaltzen da aurren artean.

230

Separata del n.° 5-6 de EGAN correspondiente al año 1956 /—/ AZKOITIA'KO / GABONSARIAK / [Ezaugarria]/SAN SEBASTIAN / 1956 [Escelizer, S. A.].

12 orrialde.

231

ONDARRIBI.—**«Oargui-Kerizpe —Centro Parroquial— Fuenterrabía».** Illian bi aldiz argitaratzen zan aldizkari au. Erderaz eta euskeraz. Donostiako «ESCELICER, S. A.» moldiztegian. 34 ale (Lendabizikoa 1958-III-1) azkena 1959-VI-13). Neurriak: 0'315 x 0,22 m.).

232

COURRIER FRANÇAIS. — Bordeleko astekaria: «Le plus important hebdomadaire regional. Dimanche. Basses-Pyrenées». Zuzenbidea Bordelera: 64, rue du Palais-Gallien, Bordeaux.—Euskalerrirako zertxobait euskeraz ematen du ikusi dedan alean (17-VIII-1957).

233

OLATZ.—**Revista Parroquial.** Euskeraz eta erderaz. 1957'gko. Urtarrillean sortua. 13'garren za. ikusi nuen (1958-I), argitaratzen duten moldiztegian (Donostiako IZARRA'nean). 700 ale ateratzen dituzte.

234

URTE SANTU 1958. Frantziskotar Irugarrendarren Peregrinazioa Lourdes' era.—Orri bat (0'305 x 0'145 m.) arpegialdetik bakarrik, dana euskeraz. Zarautzeko Itxaropenaenean.

235

LA VOZ DE ESPAÑA. — Donostiako egunkari onetan ez dot ikusi lanik osorik euskeraz baiña **Basarri**-k askotan jartzen ditu bertsuak euskeraz.

236

1 / P. P. C. / AITA SANTUA IKUSI NAI?... /—/ SU PERSONA.—SU APOSTOLADO.—SU INFLUJO EN EL MUNDO [Zarautzeko Itxaropena Argitaldaria].

15 orrialde + [1].
Javierre'tar Joxe Mari apaizak erderaz egina. Alustiza'tar Ildefonso Aita Frantziskotarrak euskeratua.

237

MUTIL / BAT / GUTXIAGO/ DANTZAN... / [P. P. C.] [Iñurritegi'tar Bitoriano Aitak euskeratua]. [Zarautzen, Itxaropena Argitaldariak].

14 orrialde + [2].

238

FR. JUAN / ESKU- / LEGORRA // P. P. C. [J. L. Martín Descalzo egille, Unzurrunzaga' tar Imanol Arantzazuko praillea euskeratzalle] [Argitaratzallea: Euskalerriko Irugarren Ordenaren Zuzendaritza Nagusia.—Zarauteko Itxaropе-

na Argitaldaria irar-lantegian emana: 1957'gko. Uztaillean].

15 orrialde.

239

P. P. C. / [Ama Birjiñaren irudia] / *Maria* [Idazlea: Jose María Pérez Lozano; euskeratzallea: Fr. Fernando Mendizábal, o. f. m.] [Argitaratzallea: Euskalerriko Irugarren Ordenaren Zuzendaritza Nagusia; Zarautzeko Itxaropenaren irar-lantegian, 1957, Jorrailla].

15 orrialde.

240

+ / J. H. S. // (*NESKA-Mutikoentzat/Eliz liburua*) //[Anizeto] ZUGASTI Apaizak // Liburuxko ontako *Xantu* apaingarriak / I R I O N D O A[ita] prantziskotarrak egiñak dira/ [vign.] ITXAROPENA ARGITALDARIA / ZARAUTZ'EN / 1957.

142 orrialde.—0'12 x 0,08 m.
Lendabiziko argitarapena. 3.000 ale, Baimenak: Donostian.

241

ARGI BIDEA // Anizeto Zugasti'k / egiña // BIGARREN ARGITALDIA/[vign.] / ITXAROPENA ARGITALDARIA / ZARAUTZ'EN / 1957.

272 orrialde.—0'147 x 0'10 m.
Letra aundiko eliz-liburua.
Baimenak: Donostian, 1951'n.

242

NAVIDAD Fuenterrabía 1959. — Lau orrialde, euskeraz eta erderaz, Irungo Tolosaren irar-lantegian. Apaingarri bat lendabiziko orrialdean.

243

GOIZ-ARGI.—Suplemento agrícola de «Aránzazu».—1958, Ilbeltza ta Otsailla. 1 ta 2. 16 orrialde. Euskeraz.

244

EUKARISTI BATZARRA AZKOITI'N, Garagarrilla'ren 10'tik, 14'ra bitartean. — Azkoitiko Martiarenaren irar-lantegian, 1959. Euskeraz eta erderaz [r pikorduna = rr].

245

[MEZATARAKO OTOITZAK, EUSKERAZ]. Lau orrialde (0'158 x 0'118 m.). Ez du jartzen nun eta noiz argitaratua dan, baiña Irungo «San Marcial» irar-lantegian egin zan, 1959'gko. maiatzean Lesaka'ko elizarako.

246

Lau Kantari eta Xori Bat / ("Zurgin Zaharra"tik artua) //MONZON-OLASO'k egiña, / 1957-garren Epailean // Donibane Lohitzun-go "Dukontenia" teatru berrian / lehen aldiz emateko den / IKUSGARRIA. // "EUZKO-GOGOA" / 1956'gko. Orrilla-Garagarrilla' tik a r t u a. [Imprimerie Darracq, Bayonne] ["Euzko-Gogoaren 86-98'gn. orrialdeekin zenbatua].

247

Publicaciones de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País /—/ LA DOCTRINA CRISTIANA DE BETOLAZA / (1596) / [Ezaugarria] / SAN SEBASTIAN/1955. [Escelicer]

20 orrialde.
BRSVAP aldizkaritik artua.

248

REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAIS // SEPARATA DEL BOLETIN —AÑO XIII— CUADERNO 3.º // *De los papeles inéditos de la Colección / Bonaparte, en el Archivo de la Diputación / de Guipúzcoa //* Por / CLAUDIO OTAEGUI / [Ezaugarria] / SAN SEBASTIAN / 1957.

7 orrialde.
Izarra irar-lantegian.
«Pequeña colección de palabras vascongadas de uso frecuente en la localidad de Cegama».
L. Mitxelenak eman zituan.

249

MENDITARRAK // IRU ZATITAN // Monzón-Olaso'k / EGIN / IKUSGARRIA ["Euzko-Gogoa" aldizkaritik artua: 1957'gko. Iraila-Abenduko zenbaketik].

56 orrialde.

250

Gipuzkoako Kristau Gaztediaren / Lourdesako joanaldia / 1958'ko Apirillaren 19-20'an/-/ Lourdesko ageraldiaren oroigarri // Ama Birjiñaren Urte Santua / 1858-1958 [Gráficas Arrózpide, Hernani].

36 orrialde.—0'15 x 0,105 m.
Apaingarriakin.
Euskeraz eta erderaz. 21-36'gn. orrialdeak euskeraz. 21'gko. orrialdean dago goian jartzen dodan azala. Liburuxka onen lendabiziko orrialde edo arpegian onela: **Marcha de la Juventud Guipuzoana** / A / LOURDES / 19 al 20 de Abril de 1958».

251

SELECCION / DE / *Cánticos Religiosos / y Oraciones /—/* COLEGIO SAN MARCIAL / IRUN [Gráficas San Marcial, Irún, 1959].

79 orrialde + ¿[1 arkibidea].—0'170 x 0'12 m.
Erderaz eta euskeraz.

252

FR. IGNACIO OMAECHEVARRIA, O. F. M. // EUSKERA / *Un poco de gramática y algo de / morfología del verbo vasco //* EDITORIAL ICHAROPENA / ZARAUZ / 1959.

320 orrialde.—0'215 x 0'14 m.
Baimenak: Donostian.
Irugarren zatian (143-317'gn. orrialdeak) euskal idazle ezagutuen bizitza ta idatzi zutenetik zatiak ematen ditu, Aita Villasantek gertatuak: Frantzia aldeko euskera erabili dutenak: **Leizarraga, Axular, Tartas, Etcheberri, Duhalde, Duvoisin, Laphitz, Arbelbide, Lapeyre, Joannateguy, Etchepare, Manezaundi.** Gipuzkoakoa erabilli dutenak: **Larramendi, Cardaberaz, Mendiburu, Ubillos, Aguirre, Guerrico, Iztueta, Iturriaga, Vicenta Mogel, Lardiza-**

bal, Uriarte, Domingo Aguirre, «Lizardi», Olabide, Azkue, Munita. Bizkaikoa: **J. A. Moguel, Añibarro, Astaloa, Fr. Bartolomé, J. J. Moguel, Echeita, «Kirikiño», Eguzkitza.**

253

PROSISTAS NAVARROS / CONTEMPORANEOS / EN LENGUA VASCA // XX-GARREN MENDEKO NAFARROAKO / EUSKAL IDAZLARIAK // SELECCION DE NARRACIONES, CRONICAS Y ARTICULOS DE / ENRIQUE ZUBIRI GORTARI / (1867-1943) / Y / PABLO FERMIN IRIGARAY GOIZUETA/(1869-1949) / ORDENADOS, ANOTADOS Y PROLOGADOS / POR / ANGEL IRIGARAY / DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA // DIPUTACION FORAL DE NAVARRA/ INSTITUCION "PRINCIPE DE VIANA" [Pamplona, 1958.—Talleres Gráficos Editorial Gómez.—Dep. Leg. NA 67-1958].

193 orrialde.—0'195 x 0'125 m.
Salneurria: 50 lauerleko.

254

Kortona'ko Margarita / Deunaren Bizitza // AITA LEOPOLDO CHERANZEK / EGIN ZUNETIK ARTUA / ETA / LARRAUL'DAR BERNABE AITAK / EUSKERATUA//[Ezaugarria] PAMPLONA / EDITORIAL ARAMBURU / 1958.

64 orrialde.—0'185 x 0'135 m.
Iruñen baimenak.

255

I. EIZMENDI "BASARRI" // KANTARI NATOR // [Ezaugarria] / ITXAROPENA ARGITALDARIA / ZARAUTZ / [1960].

191 orrialde.—0'18 x 0'12 m.
Itzaurreak: Aita Karmel Iturriak eta egilleak.

256

ELIZ-KANTA / XORTATXOA / /—/ ARGITALDARI: / M. B. "Anai-etxe" Aldapeta. / DONOSTI'N [1956?] [Gráficas Récord, S. L.—José María Escuza, 4. Bilbao].

43 orrialde + [3] arkibidea.—0'155 x 0'105 m.
Meza Deuna eta 51 eliz-kanta, latiñez eta euskeraz.
Baimenak, Donostian.

257

IZAR BERRI.—«itziarko eliztarren aldizkaria».—Polikopiz argitaratzen dute. Den-dena euskeraz. Neurriak: 0'155 x 0'215 m.

258

ARRATE'KO ANDRA MARIA'REN GORAMENAK.—Donostian, Valverderen Etxean, 1959'garren urtean. — Lekuona Manuel Apaiz Jaunaren itzak: Almandoz Norberto Apaiz Jaunaren eresia. Neurriak: 0'145 x 0'09 m.

259

GUADALUPE'KO ANDRE MARIA' REN GORAMENAK.—Donostian, Valverderen Etxean, 1959'gn. urtean.—Itzak eta eresi zarrak.—Neurriak: 0'145 x 0'09 m.

260

ITZIAR'KO ANDRE MARIA'REN GORAMENAK.—Donostian, Valverderen Etxean, 1959'gn. urtean.—Etxaniz Nemesio Jaunaren itzak; Eskudero Franziskoren eresia.—Neurriak: 0,145 x 0'09 m.

261

GURE / OTOITZA / [dunixiren dibuju bat] [Irungo "E. P. La Salle" irarkolan, 1959].

15 orrialde + IV orrialdeko bat gañera.—0'15 x 0'095 m.
La Salletarren Ikastoletarako egiña. Bigarren argitaraldia.

262

APRENDA / EL / VASCO // METODO SENCILLO Y AGRADABLE PARA / INICIARSE EN EL APRENDIZAJE DE LA / LENGUA MAS ANTIGUA DE OCCIDENTE // CONTENIDO [.....] EDITORIAL ICHAROPENA/ZARAUZ / 1958.

164 orrialde.—0'15 x 0'12 m.

263

EUSKAL - KANTAK // [Euskaltzaindiaren ezkutua]//Euskaltzaindiaren ardurapean // BILBAO, 1959 [La Editorial Vizcaína, S. A. Bilbao].

23 orrialde.—0'24 x 0'17 m.

N. Alzola.

Irun-Urantzun, 1960-V-15-n.

BERRIAK ETA GAI LARURRAK

ERROMAKO ERANTZUNA EUSKALTZAINDIAK AITA SANTUARI BIALDU TA ESKEIŃI ZION BIBLIAZ

Igazko garagarrillaren 25-an Ignacio María Echaide eta Nazario Oleaga jaunak firmatutako izkribu batekin batera Erromara bialdu zan Aita Olabide-k euskerara itzuli zuen Biblia argitaratu berriaren ale bat. Ari erantzunik au artu da:

[El membrete a imprenta dice:] OBISPADO DE BILBAO.

[Debajo a máquina:] SELLO/Secretaría di Stato/di Sua Santitá/N. 25386.

[A la derecha:] Dal Vaticano, li 29 octubre 1959.

Excelentísimo y Reverendísimo Señor:

El Augusto Pontífice ha recibido recientemente un ejemplar de la Sagrada Escritura traducida a la lengua vasca mediante el esfuerzo de dos Padres de la Compañía de Jesús y que Vuestra Excelencia Reverendísima ha querido prologar.

Su Santidad ha visto con paternal benevolencia y agradece de corazón el envío de esta obra, patrocinada por la Academia de la Lengua Vasca, que contribuirá a la difusión de la Palabra de Dios y que, a su vez, proporcionará a los estudiosos linguisticos un medio, seguro y piadoso, para conocer mejor el vascuence.

En prenda de las divinas gracias el Vicario de Cristo otorga a cuantos han contribuido a la realización de esta iniciativa la Bendición Apostólica.

Aprovecho esta oportunidad para manifestarle las seguridades de mi atenta consideración quedando

de Vuestra Excelencia Reverendísima

devotísimo

D. Card. Tardini

Excmo. y Rvdmo. Mons.
Pablo Gúrpide Beope
Obispo de
Bilbao

Es copia que concuerda fielmente con su original al que nos remitimos.

Bilbao, 26 de marzo de 1960.

[Firmado:] ✠ Pablo, Obispo de Bilbao

[Hay un sello que dice:] OBISPADO DE BILBAO.

«NUEN», «ZUEN», «GENDUAN» EN EL LENGUAJE HABLADO

En los flexionarios manuscritos por R. M. Azkue, existentes en la Biblioteca de la Academia de la Lengua Vasca, y que utilizó para la confección de los paradigmas de la «Morfología Vasca» y de la «Conjugación del Verbo Guipuzcoano», leemos:

Aya: **nuun - zuun - genduun**; Alkitza: **nuun - zuan - genduun**; Amezketa: **nuun - zuun - genduun**; Andoain: **nuun - zuun - genduun**; Arama: **nuun-zoon - genduun**; Astigarraga: **nuun - zuun - genuun**; Ataun: **noon - zoon - genduun**; Azkoitia: **nuen - zuen - genduun**; Bidania: **nuun - zuun - genduun**; Oyartzun: **nûn - zûn - genûn**; Getaria: **nuan - zuan - genduan**; Igeldo: **nuun - zuun - genduun**; Itziar: **nuan - gendun**; Legazpia: **noon - zoon - gendûn**; Lizartza: **nuun - zuun - gendûn**; Oikina: **nuan - genduan**; Ormaiztegi: **noon - zoon - genduun**; Urrestilla: **nuen - zuben - genduben**; Zaldibia: **noon - zoon - genduun**; Zarautz: **nuan - zuan - genduun**: Zegama: **noon - zoon - genduan**; Elorrio: **neban - eban - ginduan**; Amorebieta: **neuen - euen - genduen**; Anzuola: **neban - zeban - giñuan**; Aramayona, Berriz: **nen, neban - euen, eban - gen, genduan**; Bakio: **neuen - euen - gendun**; Barrika: **neun, nendun - eun - gendun, gengien**: Bermeo: **nauen - zauen - genduen**; Bolibar Markina: **neban, nuan - eban - genduan, gendun**; Eibar: **neban - eban - genduan**; Begoña: **nendun - euen - genduen**; Legutiano: **neman - eban - geban, geman**; Lekeitio: **neban - eban - genduan**; Leniz: **neben - eben - geben**; Gernika, Ajangiz: **neban - eban - genduen**; Soraluze: **neban - eban**; Navarniz: **neban - eban - genduen**; Oñate: **neben - eben - geben**; Orozko: **nendun - euen - genduin**; Otxandiano, Olaeta: **neban - eban - genduen**; Bolibar: **neban - eban - genduan**; Zeanuri: **neuen - euen - gindun**; Zigoitia: **nemen - eben - gemen.**

A. I.

DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIA 1960

Bizkaiko Ahorro-Kaxak zortzi milla pezetako sari bat sortu du Euskaltzaindiari lagunduaz. Sariaren oiñarriak auek dira:

a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke novelak.

b) Gaia nai dan bezelakoa izan diteke, eta lanak nor berak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.

d) Izkribuak makiñaz idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31, 50 x 22 gutxi gora beera) gutxienez 150 folio dituala.

e) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi milla pezetakoa eta zatitu eziña.

f) Saria, gabe gelditu diteke egoki iruditzen bazaie batzarrekoei.

g) Batzarrea Bizkaiko Ahorro-Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez, lanak bialtzeko epea bukatu ondoan, Batzarrean Bizkaiko Ahorro-Kaxaren ordezkari batek parte artuko du.

h) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6-BILBAO) 1960-gko. uztaillaren 20-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da.

EUSEBIO ERKIAGA JAUNARI DOMINGO AGIRRE SARIAREN EMATEA

1959 Abenduaren 3-an Euskaltzaindiaren etxean eman zitzaion Eusebio Erkiaga jaunari Domingo Agirre novela-saria. N. Oleaga jaunaren eskutik artu zuen eta Aita Fernando Mendizabal–ek itzaldi au irakurri zuen:

Euskaldunok: danok dakigu gutxi-asko zertarako bildu geran emen. Euskeraren eguna ospatzen dugu gaurko egunez, eta ama maite orri diogun maitasunak, bultzada bat eman digu biotzean orrixe agur egitera benik etorri gaitezen.

Bagaude ementxe ama orri maite dugula esateko zai: eta gure aurrean agertzeko, zer ekarriko, eta bere frututik mardulenetako bat agertzen digu Euskerak, esanaz: Orra or txiki txikitandik nere magalean azi ta ezi dudan seme bikaiña, orra or bene benetako euskalduna: Eusebio Erkiaga Jauna. Semeak baitira, izan ere, amaren gananiña ta ospakizunik aundiena: eta zenbat eta semeak bikaiñago, ainbat jatorrago ama.

Lekeitio'n jaio zan gure euskaldun jator au: euskeraz jaio ere. Artean seaskako epeletan zegoala, ama xamur arek kantatzen zizkion «lo-lo» gozo aiek erein zuten Eusebio'ren biotz berrian euskeraren azia: eta ez alperrik orratio.

Urteen buruan, gorputz eta animaz azi zanean, barneko urduritasunak kanpora agertzeko agintzen zion bere euskal-miñak. Aundiak zituan esateko, eta landu egin bear noski amak emandako euskera ura, bere barne-gauzak bete betean aterako bazituan. Eta asi zan bizkaiera sakonagotzen, eta gipuzkera ta napar-lapurdiera menderatzen. Gero, Euskalerri guztian barreiatuko ziran Erkiaga'ren euskal-gogo-deiak. Iñun txapelketarik bazan, antxe genduan Erkiaga euskal-txapela eramaten edo lenengoekin burrukan. Eta ez uste izan, gero, loxintxatan nabillenik, ez: mundua bezin borobilla da egi au. Zerok entzun, bestela, onoko auek, luzeegi ez egitearren itz gutxitan esango baditut ere:

1936'an: **Lora Gorriak** derizkion lirika-lana agertu zuan, Eusebio Maria Azkue'ren gorazarrez Lekeitio'n egindako VII'gn Euskal-poesi-jaian: eta oorezko aipamen berezi bat irabazi.

1950'an: **Nekazariarena** izeneko olerkiarekin, bigarren saria eraman zuan, «Educación y Descanso»k Donostian eratutako literatura-sariketan.

1952'an: **Sinisgogorra** izeneko teatro-lana agertu zuan Donosti'ko teatro-sariketara, eta aurren saria eraman.

Irabazi zuan gaiñera beste bigarren sari bat ere, Lapurdi'ko euskeraz idatziriko **Azkueren Heriotza** deritzaion eresiaren bidez, ori zala-ta an egindako lirika-poesi-sariketan.

1952'an: Euskaltzaindiak bere urgazle izendatzen du.

1955'an: Irugarren saria eramaten du, Euskaltzaindiak antolatutako novela-sariketan, **Aspaldiko Maigret** izenaz itzulitako G. Simenon'en novela batekin.

1956'an: Aurren saria, Sara'ko lirika-poesi-sariketan, lapurdieraz idatzitako **Axular Handiari Ohore** deritzaion kantuarekin.

1957'an: Aipamen bat eraman zuan, Bilbo'ko **Abao**'rako egin zuan **Usoa de alos** izeneko opera-gaiarekin.

1958'an: **Arranegi** oitura novela argitaratzen du, Bizkaiko euskeraz idatzirik.

Eta azkenik, «Domingo Agirre»ren novela-sariketa irabazi du bere **Araibar Zalduna** deritzaion novela jator baiño jatorragoarekin. Eta ain zuzen, Prantzisko-Xabier'koaren egun auxe, eta Euskeraren egun auxe aukeratu du Euskaltzaindiak «Domingo Agirre»-saria Eusebio Erkiaga Jaunari eskuetaratzeko. Zorionak, beraz, eta Jainkoak eman dakizkizula urte asko, Euskera, olako frutu mardul ugariz aberastu dezaiguzun. Zorionak, eta eskerrik asko zuri euskaldun guztien partetik, eta nere bakar onen aldetik ere bai.

Nere entzule agurgarriok: ez nuke Jainkoarren, onen itz labur eta xapatxekin geratu nai. Ez orixe! On aundia egin oi du gauza aundien ausnartzeak, eta gaur ospatzen dugun egunak ere eman dezaiguke irakaspen ederrik asko. Euskeraren eguna ospatzen dugunez, eta gaur-egun gure Euskera maite onen bizi-eriotzak ain gora-beratuak ditugun ezkero, Erkiaga Jaunaren lanak burura ekarri didan gogoeta bat agertu nai nizueke.

Eta, galdera batez asteko: Zerk eman dio Erkiaga'ren euskerari orrenbesteko frutuak sortzeko almena? Ori esan, ez digu Erkiaga'k oraindik iñun esan; baiña ortxe utzi digu idazlanetan zabaldurik bere indar bizi aparteko ori. Asmatu diot izkutua, eta zuei esateko gogoa eman dit: Jaunak, Eusebio Erkiaga euskaldun euskalduna dugu ezur eta mami; Eusebio Erkiaga'k euskerazko gogoa dauka, euskerazko bizitza, euskerazko anima. Eta orren lur gozotan azitzen dan landareak, mardula eman bear naitaez frutua.

Bein baiño geiagotan pentsatu izan dut zer ote dan izkuntza baten zergaitia eta mamia; gure Euskerari zertuaz, ia zer esan nai duan Euskerak, euskaldunon biotzetan ain toki berezia eukitzeko. Eta bai; ikusi diot biotzaren barru barruraiño sartuta daukagun zuztar ori: arkitu dut, atera dut, eta neronek esango dizuet. Orra: gure animaren bizitza, gure barne-miñak eta beroa adierazteko egiña da izkuntza, eta anima orretxen seiñalea eukitzen du izkera bakoitzak. Min eman dit benetan billaketa onek: ain zuzen ere, billa asi, eta gutxi ikusi baititut ezaugarri ori daukaten euskaldunak. Grezia'ko Diogenes bezelatsu asi naiz ni ere linterna eskuan artuta euskerazko euskaldunak billatzen. Eta bai, asko ikusi ditut Euskalerrian jaioak, asko euskaldun ama baten biotzeko odolaz sortuak; baiña anima-barrura begiratutakoan, utsik arkitu ditut: etzegoan an euskeraren sukalderik, ez euskeraren banderarik. Bazekizkiten euskerazko itzak, lardaskatzen zuten euskera, zenbait kontutxo esateko lain: baiña aien anima izketan asten zanean, etzan entzuten

euskeraren soiñurik an. Bazeukaten, bai, biotzean jasotako aldaretxo bat, antxe zegoan pitxi pitxia euskera: baiñan ilda, bizirikan gabe, iñor datorrenean salara eraman eta pitxi ura erakusteko bezela. Etxe artan, ez da Euskera errege, anima orrek ez du bearrezkoa Euskera, ez da bere bizitza adierazteko eskatzen eta irrikitzen duan tresna.

Au ez da nik asmatua: egi bete betea da. Ikusi bestela. Zenbat ditugu gaurko euskaldunen artean, baserritar-jendea-ta kendu ezkero, beren barneko bizitza, beren Jainkoarekiko artu emanak, beren barne-bizitzako gorabera guztiak euskeraz erabakitzen dituztenak? Ez naiz emen gizartean eraman bear dugun bizimoduarekin ari, ez. Badugu gizonok biotzean, iñork profanatu ez dezakean txoko bat: gere buruaren maitasun, atsekabe, kezka, ta miñak gordetzen ditugun santutegi bat. Or ez digu iñork muturrik sartuko; gerok gera or jaun eta jabe. Eta txoko ortan, eta biotzeko izkutaleku ortan, zer soiñu jotzen diogu guk geron animari? Or agertzen dugu guk geron benetasunik sakonena, eta geron buruari agertu ere: iñundik eta iñola ere engaiñatu nai izango ez gendukean geron buru orri. Orixe da gizonaren benetasuna zertzen duana: txoko orixe. Eta barru ortan gertatzen zaigunari begiratu ezkero, amaikatxo izango lirake euskaltasunaren arrastorikan ere biotzean ez luketenak. Eta arritu egingo gera gero, gure idazlanak ain urri eta txepelak badira? Nola nai dugu, ba, lan jatorrik egin euskal-gogorik ez badaukagu?

Esango dizuet auxe, eta zerok ikusi egia dan ala ez. Nere ustez, oso gutxi dira euskaldun eskolatuen artean, euskeraz pentsatzen eta burutazioak euskeraz izaten dituztenak. Gaurregun argitaratzen diran lanak, geientsuenak beintzat, erderatik itzulitako lanak dira: erderaz pentsatu eta euskeraz jarritakoak. Badakigu euskal-gramatika, eta konturatu gabe betetzen ditugu euskeraren arau oiek; eta ori aixa egiten dugulako, pentsatu ere euskeraz egiten dugulakoan gaude. Batek baiño geiagok esango dit emen: nik beintzat ez dut erderaz pentsatzen euskeraz idaztekoan. Bai: bear bada zeu etzera konturatzen, eta guztia euskeraz egiten duzulakoan zaude; baiña urratu dezagun sail ori piska bat bai, eta zerorrek ikusiko duzu.

Euskerazko lanen bat egiten ari zeranean, zergatik etortzen zaizu ainbeste aldiz erdera burura? Zergatik galdetzen duzu ainbestetan euskerazko esaera bat irakurri edo entzun ondoren: zer esan nai du orrek erderaz? edo nola esaten da ori erderaz? Entenitu bai, ulertzen dugu bear bada euskeraz ere, baiña ez diogu esanai bete betekorik artzen, orren erderazko berdiña arkitu bitartean. Ez ote zaigu iñoiz au gertatu, nere entzule maiteok? Eta zer esan nai du orrek, gure bizi-giroa erderaz daukagùla besterik? Frantzesez, edo Inglesez, edo Alemanez ere ez ote zaigu berorixe gertatzen?: alegia, ulertu egiñarren, ez dirala izkuntza oiek Gaztelako erdera bezin biziak guretzako. Irakurri dezagun, ordea, erderaz, eta orduan ez dago beste iñungo izkuntzarekin berdindu bearrik: orixe baita gure barruan jotzen dan soiñua. Gezurretan ari ote naiz, gero, ori dana esatekoan? Obe bai, baiña...

Aitzaki au aterako didazute: Izan ere, erderaz gereganatu dugu gure kultura guztia-ta. Ez dizuet nik ori ukatuko; konprenitzen dut orren sakona eta zabala. Baiña orrekin ez dugu ezer egiten. Emen erabaki egin bear da, erabaki. Guztiz konprenigarria da aitzaki ori; baiña gaitz orixe ari zaigu gure Euskera maitea ondatzen. Orren erremedioa, berriz, auxe baiño ez da; gure buruko gogoetak agertzeko, gure animaren dardar eta zirrarak azaltzeko, gure nortasuna adierazteko, Euskera nai ta naiezko biurtzea. Eta ori, ez zerbait idatzi edo argitara bear dugunean bakarrik; geron barruan ari geranean ere bai, eta orduan are geiago gaiñera. Gure Euskerak nortasunik izango badu, barrungo nortasun ori bear du batez ere. Ori egiten ez dugun bitartean, eskaparateetan ikusten diran maniki oien soiñekoa bezelaxe izango dugu Euskera: gizonik gabeko jantzia, saloietako edergarria, museoetako pitxia: aspaldi bateko euskaldunek itz egin izan omen zuteneko izkuntza zaar bat. Alperrik dugu, Euskera biotzez maite dugula esatea; alperrik dugu, gizonen aurrean itxura eta plantta egitea. Euskera orri gure anima ematen ez badiogu, Euskera orri gure adimenean zuztarrak ematen ez badizkiogu, gizonaren gorputzari jasotzen zaiona berberaxe gertatuko zaio: anima kendu, eta il.

Aita San Prantzisko Xabier'koaz kontatzen dan gertaera auxe datorkit burura. Ba omen zegoan ilzorian Aita San Prantzisko, eta sukarrak ezaguera kendu zionean, euskeraz itz egiten asi omen zan, ingurukoak zearo arrituta utzirik. Bera konturatu ere egin gabe, euskeraz egiten zion ari bere animak. Nik ere orixe atera nai nuke nere itzokin euskaldun guztion asmoetatik: izan gaitezela danok euskerazko euskaldun, ez kanpoan eta bai biotzean. Egin dezaiogun euskeraz geron buruari; bizi ditzagun euskeraz gure biotzaren kezkak eta miñak, txerta dezaiogun Euskera geron bizitzari. Ori egiten badugu ez da igartuko gure izkera maitea; euskaldun izango da arbola, eta euskerazkoak bere frutuak. Eta barrua betea badaukagu, gure bizitza mardula bada, jatorrak eta bikaiñak izango dira gure frutuak ere, gaur ospatzen dugun Eusebio Erkiaga Jaunarenak bezelaxe.

Naiko motel esan badizuet ere, erakutsi auxe ekarri dit gogora benetako euskaldun jator onen euskal-obrak. Gora bat gure ama Euskerari, eta zorionak Eusebio Erkiaga Jaunari.

Agur.

A. Pernando Mendizabal

(Arantzazu-ko praillea).

EUSKALTZAINDIAREN JAIALDIA

Urtero bezela, aurten ilbeltzaren 10-ean egin zan Arriaga Teatroan. Parte artu zuten: Gipuzkoako ta Bizkaiko bertsolari txapeldunak, Uztapide eta Embeita, bigarrenak, Michelena ta Azpillaga, eta Basarri guztien nagusiak; Elgoibarko teatrogilleak Aitona ta Billoba V. Garitaonandiaren obra eman zuten; eta San Anton Orfeoiko kantariak sei kanta Euskalerriko eskeiñi zituzten. Jentez guztiz beterik egon zan Teatroa eta gustura atera ziran guztiak.

SALAMANCA-KO UNIVERSIDADEA

Salamanca-ko Universidadean «Manuel de Larramendi» izeneko katedrak, beste urteetan bezela, ikastaro bat antolatu du euskal-izkuntzaz, eta ortarako Luis Michelena euskaltzaiña deitua izan da. Ori ala izanik ilbeltzean egin zuen egotaldia bertan.

«EUSKAL-KULTURAREN ALDE»-K EGINDAKO IPUI-SARIKETA

Euskal Kulturaren Alde izeneko elkargoak egindako Ipui-Sariketan Jean Etchepare Donapaleu-koak irabazi du lendabiziko saria «Mendekoste gereziak» titulua duen ipuiakin. Bigarrena Julene Azpeitia Durango-ko andreak «Goizeko izarra»-rekin. Irugarrena Marijane Minaberry Ustaritzeko anderañoak «Lupien bisita»-rekin. Sariak ogetabost, amabost, eta amar milla liberakoak izan dira. Ortaz gaiñera amabi sari milla liberako banatu dira. Epai au Miarritzen eman zuten «Euskal Kulturaren Alde»-ko batasunekoak 1960 Otsaillaren 4-an.

DURANGO-KO ASTARLOA SALOIAN

Jentez beterik zegoela, Durango-ko Astarloa Saloian ere egin da Euskal-jai bat maiatzaren 22-an bertsolari, txistulari, Iyorretako dantzari ta kantariak parte arturik. Esan zan guztia euskeraz esan zan. A. Irigoyen-ek itz batzuek esan zituen asieran euskaldunak euskera maitatzera ta aintzat artzera bultzaturik.

BIZKAIKO NESKA MUTILLEN ESAMIÑAK

Iragarrita zegoen bezela garagarrillaren 2-an egin dira Bilbon Bizkaiko neska-mutillen esamiñak. Jesuiten kolejioko gela batean izan da eta berrogei izan dira esamiñatu diran aurrak, Gabika, Laukiniz, Arrazola, Muxika, Ondarru, eta Bilbotik etorriak. Sariez gaiñera diplomak ere emango zaizkie, bai aurrai eta bai gertatzen alegindu diranai. Euskaltzaindiak Bizkairako egin duen sariketa onek frutua ekarri du, eta pentsatu bear litzake nola esamiña auei zabaltasun aundiagoa eman.

BERTSOLARIEN SARIKETAK

Aurten ere gertatzen ari dira bertsolarien sariketak. Nafarroan ere bai. Bizkaian lendabizikoa Urkiola-n egin zan garagarrillaren 19-an, igande egunez. San Antonio egunez ezin egin izan zan eguraldi txarragatik. Durango inguruetako bost bertsolari aritu ziran eta txapeldun German Uriguen Ermuko semea gelditu zan. Igazko txapeldunak etzuen parte artu geroago txapeldun berriak zarrakin jartzeko asmoa dagoelako.

Nafarroan garagarrillaren 26-an izan da txapelketa bat Lekunberri inguruko bertsolarientzat. Diputazioko **Euskeraren Aldeko Sailla**-k antolatu zuen, bide

batez aur esamiñatuei sariak emanik. Euskaltzaindiak egin zuen juraduarena, Pedro Diez de Ulzurrun apaiza, Antonio Arrue ,Aingeru Irigaray, Fernando Artola, eta Alfonso Irigoyen jaunak osatu zutelarik. Amaika bertsolari joan ziran txapelketara. Andres Narvarte Goizueta-koa gelditu zan txapeldun ekitaldi sendo bat izanik nork irabaziko Bautista Perurena-rekin, au ere Goizueta-koa. Txapeldunak Lekunberriko Ayuntamentuaren kopa ederra eta **Euskeraren Aldeko Sailla**-ren bi milla peseta irabazi zituen. Gaiñerakoak ere sari ederrak izan zituzten. Zegoan jente ugaria pozik egon zan euskaldun-giro eder bat gozatuaz. Nafarroako urrengo txapelketa Elizondo-n Santiago egunean egitekoa da, eremu artako bertsolariak parte arturik.

Bertsolariak dei asko dituzte, gaiñera, errietatik, eta saioak ugaritzen ari dira egunetik egunera, eta jaia non kantatu an dabiltza, umorea ta gatza edonora eramanik.

Hernandorena jauna ere aritu da mugaz bestaldean txapelketa batzuek antolatzen. Eskualzaleen Biltzarrekoak ere ari dira.

Asmoen artean Euskaltzaindiak Euskalerri osoko txapelketa bat egitea dauka probintzietako txapeldunekin.

EUSKALZALEEN BILTZARRA

Udazkenean Euskaltzaindiak Irun-en egin nai du Euskaltzaleen Biltzarra. **Pedagogia** artu du gaitzat. Iru mailla auek ikutu nai lirake: 1. Aur euskaldunei nola irakatsi euskeraz. 2. Erdaldunei nola irakatsi euskal-izkuntza. 3. Nola gertatu euskal-irakasleak.

AURKIBIDEA 1960

Euskalzaindian sartzerakoan Guillaume Eppherre jaunak egindako itzaldia eta Jean Elissalde jaunaren erantzuna. G. E.: *Aita P. Lhande Ziberotar Euskalzaiñaren orhitzapenez* 5

Euskalzaleen Biltzarra (Juan Antonio Mogel Eibar'ko semearen gorazarrez) 23

Javier Eguren, Eibarko Alkate jauna.—**Ongi etorria** 25

Juan San Martin.—**Juan Antonio Mogel eta Urkitza. Bere bizitza ta lanak** 26

Fr. Luis Villasante, O. F. M.—**Juan Antonio Mogel. Berri jakingarri batzuek** 50

S. Altube.—**Eibartarrak eta euskera** 61

Jon Etxaide.—**«Itxasoa laiño dago»-ren zuzenbidea** 66

Jabier Zubiaurre Ezenarro.—**Mogel eta burdingintza** 94

A. Irigaray.—**Mogel eta literatur-euskara** 110

I. M.ª Echaide.—**Las flexiones verbales contenidas en «Peru Abarka» de Mogel** 123

Jose Maria Lojendio.—**Euskeraren batasuna ta Mogel** 155

Antonio Arrue.—**Mogel'ez zertxobait** 163

Juan Gorostiaga.—**Juan Antonio Mogel ta Historia aurreko Espaiñia** 168

Migel Arruza.—**Bilboko euskaltzaleen agurra** 171

Euskal Kulturaren Alde.—**Euskaltzaindiak Eibar'en atondutako batzarrari. Euskerari buruzko asmoak** 180

"Loramendi" Fr. Joakin Bedoñakoaren gorazarrez Euskaltzaindiak egindako literatura-sariketan lendabiziko saria irabazi zuten iru lanak 185

Antonio Arrue jaunaren itzaldia Bedoña-n 1959 iraillaren 20-an. 187

Poesia: Gabriel Aresti.—Maldan behera 189

Itz lauz: Luis Jauregi.—«Loramendi» olerkaria. Bere poesia-lanaren azterketa, bera bizi izan zan garaiari buruz-buru 235

Teatroa: Eusebio Erkiaga.—Kanpaien atsekabez 259

Gabriel Aresti.—*Primera aportación para el conocimiento de la vida y obra de Pedro Ignazio de Barrutia y Basagoitia* (1682-1759). 273

H. Gavel.—*Réponses souletines à un questionnaire linguistique* 293

Juan Gorostiaga, Pbro.—*Polifacética tradición euskalduna.* 317

S. Altube.—*Euskerari buruz* 329

Ignacio María Echaide.—*El verbo a través de la literatura vasca* 335
Alfonso Irigoyen, Justo M.ª Mocoroa.—*Sermones manuscritos antiguos. Fr. Fran.co Tristan de Huandurraga* (1822). *Fr. Juan de Ajuria* (1800) (1806) 341
Pedro Díez de Ulzurrun.—*El catecismo manuscrito de Maquirriain de* 1828 377
N. Alzola.—*Euskal-bibliografia* 405
Berriak eta gai laburrak 419
Erromako erantzuna Euskaltzaindiak Aita Santuari bialdu ta eskeiñi zion bibliaz 419
«Nuen», «zuen», «genduan» en el lenguaje hablado 420
Domingo Agirre novela-saria 1960 420
Eusebio Erkiaga jaunari Domingo Agirre sariaren ematea 421
Euskaltzaindiaren jaialdia 424
Salamanca-ko Universidadea 425
«Euskal Kulturaren Alde»-k egindako ipui-sariketa 425
Durango-ko Astarloa Saloian 425
Bizkaiko neska mutillen esamiñak 425
Bertsolarien sariketak 425
Euskalzaleen Biltzarra 426

ALGUNAS ERRATAS MAS NOTABLES

Página	Línea	Dice	Debe decir
163	30	zeztxobait	zertzobait
277	9	Ang.ª	V.
277	32	Improsibleak	Imposibleak
279	10	Chamb.	Chambolin
280	13	Tomas	Tomas, mesonero
280	14	Chato	Chato, criado
281	1	desvengonzadu	desvergonzadu
281	9		S. J.
281	11	S. J.	Chat.
283	28	kolpatzeko	koplatzeko
284	12	Mari G.	Mari Gabon
288	31	Aseg.	Aseginzoro
290	18	Sn. Jos.	S.n Josef
290	34		Gabriel
290	35	Gabriel	
293	2	queltionnaire	questionnaire
293	13	sus	sur
305	1	**esker mília**	**eskerr míla**
305	31	**Isiltárzün**	**Ixiltárzün**
329	24	ca	ça
344	35	sermone	sermoe
360	11	equiteco	eguiteco
392	27	Elizeko	Elizeco